

PIO BAROJA

IPUIÑAK

AITA ONAINDIA'K

Euskeraztu ditu

Bear diran baimenak

Aita Ona'ndia. Larrea, 1987

Legezko gordailu: BI - 92 - 87

IGARRI, S. C. L. — Rafaela de Ybarra. 1 — Deusto - Bilbao

ITZ BI

Idazle laua dozu Baroxa, baita osoa be. Beronek konturatu barik, nik uste, egokion maillan ipiñi eban espaiñar nobelagintza; itz-lauzko idazkera atsegingarri biurtu eban, itxura eder gozoa emonik. Ez dau mataza geiegirik nai, ez zear-bide utsik, ez

ez dana sarri askotan. Baroxa donostiarraren literatura, sakona ta argia dozu aldi berean, edozeiñek ulertu al izateko modukoa.

Osagille ta idazle izan jakun. Alderdi biok ba-dabe euren garrantzia. Osagilie zanez, bere lanbideko gaiak errez agertzen jakuz aren idaztietan, naiz ipuiñetan naiz nobeletan. Literatura zan, dirudienez, aren joera ta barne-deia. Zaletasun biok gaztetatik ornido zituan; medikutza itxi barik, asko idatzi eban urteetan zear, bere 84 urte luzeai guna aterarik.

Leenengo urteetatik ekarren xede aintzagarria, euskaldunari egoki be egoki etorkiona; itzez labor dozu euskalduna, ta luze egitez. Eta Baroxa'k ziñoan: «Itz-gitxiko izan nai dot, eta biotz-zirrara sortzaille». Itz gitxik eta ixillak, berba-ots aspergarriak baiño, ariñagorik dardarazo oi dau gizonaren biotza. Berba leun eta goxoz osagilleak ekarten dautsa gaixoari osasuna. Orixe berori bear eban irakurleak be.

Nobelarik asko daukaz. Eta askoz geiago zar-barriak batu ta gai askotariko artikuluak eta ipuiñak osotuten egiñiko lana. Izan zituan, gaztetan batez be, aldekoak eta aurkakoak bere literatura motak. Ortega Gasset'ek, adibidez, au adierazten dausku: «Ez jakuz atsegin donostiarraren elebarriak, ez dira interesgarri». Zergaitik, baiña? Gaiari berari baiño, nobelak eskatzen dauan bilbe, naste, ar-emon eta abarri begira: Baroxa'ren lanak ez dabe erakusten bear aiñako bikaintasunik».

*Onela epaitu oi ditugu idazlanak sarri, gauzak, idazlearen iza-
kera ta lanaren osotasuna onartu ezta, geure eritxia eredutzat, geure
ikus-puntua soilki aintzat arturik, epaitu oi doguzalako. Orduan,
jakiña, geurea ez danik ez jaku atsegin, ez jaku eder. Baiña edu
ontako kritikularien bidea guztiz exkaxa dana edonok dakiana da.
Baroxa'rekin bere olako zerbait gertatu zan.*

*Beste askok ez iñoan ori. Askok lez aiko-maiko ta andik-onako
zer nabarmenik ez dauala? Deskripziño ugari ta bizirik ez dagiala?
Egia ete da gero? Pio'k filosofu baten antzera diardu, gauzak sakon
eta eder adierazoz. Irakur aren ipuin-sailla. Euskalduna ez jatzu
itzontzi, itz labur baiño, esan dogunez; gauzak, orraitino, zegaitik
diran onetara ta aretara ez, jakin-gura bizia dau. Auxe ez al da
jakintzale izatea? Nori ez jako pozgarri gauzen muiñaz jabetzea?
Emen, albora begira esanda be, Baroxa'k eta Unamuno'k ezarri
eutsoen gaztelaniar literaturari, gaur onek daukan laburtasunaren
tinkotasuna.*

*Esanak esan eta eritxiak eritxi, Baroxa guztiz irakurria dogu,
gaur bere. Testigantzarik? Or dituzu aren liburuen argitalpenak.
Ez bakarrik euskal kutsuzko irukonde au: «La casa de Aitzgorri»,
«El mayorazgo de Labraz» eta «Zalacain el aventurero», baita
beste guztiak be, sarri ikusi dabe ekoizpen barrietan argia. Eta
orain, nik euskeraz ipiñi ditudan ipuiñai gagokiezala, ona «Alianza
Editorial»'ek argitaratutako bilduma onek 1966'tik ona, 13 aldiz
argitaratua (1966, 1967, 1969, 1971, 1972, 1976, 1978, 1979,
1980, 1981, 1982, 1983 eta 1984). Ezeren lotsa barik autortu
daikegu, ba, Baroxa'k ba dauala irakurlego eder galanta.*

*Aurretik be idazlan batzuk or-emen argitaratu ebazan arren,
gizaldi onen leenengoetan asi zan liburuak ateraten. Etzan garai
egokia, orduan gaztelaniaz idazten eben batzuk, bada, ots aundi-
koak ziran espaiñar letretan, Valle-Inclán, Benavente, Unamuno,
Salmerón, Azorín eta besteak. Mailla apalagoan zirkin egian orain-
dikarren Baroxa'k; orduan gaiñera etziran ain begiko donostiarran
lanak. Nikolas Salmeron'ek zuzentzen eban «La Justicia»-n
idazten eban Baroxa'k, eta zuzendariari ez jakozan atsegin onen
artikuluak.*

Onan idazten dau K. J. Baroxa'k: «Nire osabaren artikulu ta ipuiñak, geienak, oiartzun filosofikua eukien, garai aretan tonu, izkera ta tankera berezia, N. Salmeron'i eder ez jakona». Eta, dakigunez, gisa onetako erre bat naiko izaten da sarri, idazle baten luma karrera porrot eginda izteko. Olakoen barnean ba-da prozesu gaiztozko zerbait, dudarik barik. Etzan or amaitu idazleari leporatu eutsoezan eritxi, izentxar eta esaera ñabarrak, beztu naiezkoak, iñundik be susterrik ez ebenak; arrokerizkoa (pedanterizkoa) ei zan Baroxa'ren idazkera. Esatera ezkeru, edozer esaten.

Egitan dabillanak, alan be, naiz-ta sasiz beteriko zidorretan zear, azkenik bidea edegiten dautzu. Orrelaxe egin euskun Baroxa'k Etsaigo ta adi-eziñen artetik, aurrera. Utsak eta akatsak garbituz aurrera joten alegintzen diranok ditugu izan be literatur gaillurrera, neke artean baiña gorago, eldu diranak. Dana dala, barriro esanda be, Baroxa idazle jator izan zan, eta gaur-egun be asko irakurria.

Pentsalari genduan, ez orraitioño ikas-garaian artutako irakas-kuntzari esker; bere odol-senez eta euskaldunakin izandako ar-emonetik etorritakoari esker baiño. Zertua-n mediku zala idatzi zituan bere ipuiñak geienak, bere «Vidas sombrías» liburuan dinoskunez. Ingurrazti aundi bat eukan bertan eta, asti-uneetan, antxe mamindu eroazan bere ipuiñak. Oneitatik, egia da, batzuk Valencia ondoko erritxo baten bizi zalarik idatzi ta «La Justicia»-n argitaldu zituan. Beste batzuk, Madrid-en idatziak izanarren, emen-txe atondu zituan argitara emoteko. Ipuñak, ba, gaztetan onduak ditu Baroxa'k.

Inguru goibelak aukeratu zituan idazlariak. Bere pentsalari bizi-za obeto bat etorren egoera orrekin. «Piltzar-batzaillea», «Ogiñak», «Sukalde baltza» ta antzekoren bat izan ezik, beste danak euskaldun girokoak ditu. Bestalde, eusko giroak, «Ostatua», «Angelus» eta abar, guztiz jator landu trt biribilduak dira.

Eta onetxek dira geroago aragitu zituan euskal kutsuko nobela guztien zutabe, poz-jarioka batzutan, negar-iturri bestetan. Or dituzu euskaldun gizon-emakumak maisuki margoztuta, beti giartsu ta umore onez beterik. Euskal umore au dala-ta, K. J. Baroxak,

aren lobeak, onda dau idazten: «Nire osabak baiño obeto iñok be ez dau jakin euskaldun umore au jasoten; euskalduna, izan be, uste dan eta leiendak diñoen baiño nako alai, jostalari ta zirto-lariago da». Gure idazleak zerbait baiño geiago ikasi ebala dirudi, gaiñera, Poe, Dickens, Dostoyewski, Ibsen, Maeterlinck eta ola-koak irakurritz, gaztetan eta gero.

Laburrak eta poesiz beteak dira Baroxa'ren ipiñik geienak. Errez irakurten dira eta —esan dot— geienak euskal lurrunez gaiñezka dagoz. Niri beti ere naiko atsegin izan jataz; eta ak eta onek bestelako onuak buru-muiñeratu daustiezan arren, garaia etorkidanean egiteko asmoa antxiña-antxiñatik neukana, oraintxe heterik geratu dala deritxot. Emen daukazuz ba, irakurle, 36 ipuin oneik, Baroxa donostiarrak erderaz idatzi zitunak nik euskeraz emonda. Ez dot laritxi izango idazleak aiñako aulki goenik, baiña ni neure gaian saiatu niaitzu. Zuk be, nik lanok itzultzerakoan izan dodan poz betea, eurok irakurtean izan daizula opa dautzut.

Larrea, 1986-XII-25

AITA ONAINDIA

MEDIUM

Gizaseme trankila naz ni, eragin eta odol-bizia oso; baiña ez nago erorik, azterkatu naben osagilleak diñoenez. Oro dot nik aztertu, oro dot barren-azi, eta artega bizi naz. Zergaitik ete? E2 dot jakin oindiño.

Lo asko egin oi dot aspaldi, amesik asko ez lotan; itxartzerakoan beintzat ez datokit gogora ames egin dodanik; baiña ames egiten dot itxura danez; eta ez dakit zer dala-ta iduritzen jatan ames egiten dodala. Orain amesetan ez ba nago beñik-bein, izketan diardudanean; baiña lo polito dagit; eta onek esan gura dau ez negoala eroturik.

Nire guna dardar batean daukazu beti, eta nire ezpirituaren begiak ez-ezaguna dan gauza bat begietara ekarri besterik ez *dagie*, gauza urdin bat, bai, zan nagusian. joaldien neurrizko eragiñera, buru-muiñean saka dagistana aurki.

Nire buru-muiñak alan be ez dau ezer gogo emoten, baiña tenk-tenk dago; oldoztu dagike, baiña ez dau oldozten... A! Irri-barre dagizue, nire itzak zalantzan jarriz, bear bada? Ederto, bai. Igarri dozue. Ezpiritu bat daukot nik barman dardar dagiana. Esango dautzuet:

Aurtzaroa bai eder, ezta? Niretzako, barriz, bizitzako aldirik zatar. itsusi ta ezaingarriena. Adiskide bat neukan nik, ume nintzala, Erramon Hudson eritxona; inglesa zan aren aita, eta espainarra aren ama.

Institutoan ezagutu neban. Mutiko ona zan; oso maitagarri, oso ona; ni barriz muker eta atsegin-eza nintzan, latz-troskotea.

Ezbardintasun oneik gorabera adiskide miñak gertatu giñan, eta alkarregaz ibilten gintzazan beti. Ikasle ona zan a, eta ezigaitz eta biurri; baiña Erramon aldioro ikasle ona izan bait zan, ezin-kizun barik bere etxerra eroan ninduan eta bere seillu-bilduma erakutsi.

Gutziz aundia zan Erramon-en etxea eta Ontzien enparantzaren ondoan aurkitzen zan, kaletxo medar batean, Valenzia-n bala-bala ibilli zan ilketa egin zan etxetik ur-urrean. Ez dot esan neure umezaroa Valenzia-n igaro nebanik. Urlia etxea ituna zan, guztiz tristea, etxe bat izan daitekenik eta goibelena, eta ortu aundi bat eukan atzekaldean, ormak txilin-bedar eta ezkerre-zuriz eta morez beterik eukazana.

Baratzean olgetan oi genduan nire laguna ta biok, Gare ta aien-bedarren baratzean, ain zuzen, eta egutera zabal azpia arlo-saz orniduan, esi-gaiñean pita ta zurda lorontzi eskergak ebazala.

Bein, bioi buruak emon euskun teillatuetatik txango bat egiñaz ilketa egin zan etxeraño eldu bear gendula, aren ezkutuak barru-barruak joak gengoza-eta. Eguterara biurtu giñanean, neska batek esan euskun Erramon-en amak dei egiten euskula.

Jatxi giñean etxe gaiñetik eta areto aundi itunean sar-azo gin-duezan. Balkoi ondoan egoan ama jarrita, eta nire lagunaren arreba. Irakurten ziarduan amak; alabea bir-josi ta bordatzen. Ez dakit zergaitik, bildurra sartu eusten.

Amak, abots latz, agiraka egin euskun guk emon genduan txangoagaitik, eta gero milla itaun egiten asi jatan neure ikasketaz eta neure sendiaren ganean. Amak itz-egin ala, alabeak irri-par; baiña modu oso bitxi, oso bitxian...

—Ikasi egin bear da —amaitzeko lez, esan eban.

Urten giñan aretotik, etxerako bidean jarri nintzan, eta arratsalde guztian eta gau guztian emakume biak erabilli nebazan gogotan.

Egun aretatik alegiñak erre nitun Erroman-en etxera ez joateko. Egun baten aren ama ta aren arrebea ikusi nebazan eleizatik urteten, biak baltz jantzita; eta begiratu eusten, eta otzikara sartu jatan eurak ikustean.

Ikas-urtea amaitu genduanetik ez neban Erramon ikusten; trankil nengoan; baiña egun batean bere etxetik dei egin eusten nire adiskidea gaixorik egoala-ta. Ara joan nintzan, eta ogean aurkitu neban, negarrez, eta ixilka esan eustanez, gorroto eutson bere arrebari. Gotzone eritxon bere arrebak, alan be, txera aundia erakutsiz zaintzen eban; baiña irripar ain bitxia eukan... ain bitxia.

Bein, besotik Erroman-i oratu neutsonean, min-ziñua egin eban onek.

—Zer daukazu? —itandu neutson.

Eta odol-batu aundia erakutsi eustan, erestun batek lez besoa inguratzen eutsona.

Gero, ixilka lez, murmur egin eban:

—Neure arrebea izan zan.

—A! Bera.

—Ez dakizu zuk zelako indarra daukan; kristala be atzamarrakaz apurtu oi dau, eta bada beste gauza bat arrigarriagoa: edozein gauzaki batetik bestera daroa ikutu barik.

Andik egun batzuetara, izu-ikaraz esan eustan, gabeko ama-bietan, aste bete zala eskillarako kanpaitxoak zarata egiñik atea edegiten zala, baiña etzala iñor ikusten.

Erramon eta biok probarik asko genduzan. Ate ondoan kuku jarten gintzazan... deitzen eben... zabaltzen genduan... eta iñor bere ez. Erdi zabalik izten genduan atea, beingoan edegi al izateko...; oles egiten eben..., eta iñor bere ez.

Azkanez deitzaillea kendu geuntson txilintxoari, eta txilinak ots, ots..., ete guk biok alkarri begiraten geuntson izu-laborri.

—Neure arreba da, neure arreba —esan eban Erroman-ek.

Eta, auxe siñisturik, biok ibilli giñan astru-kutun billa an eta emen, eta perra bat ipiñi genduan aren gelan, «bost-lerroko» bat eta iru-zokoko idazkun batzuk «Abrakadabra» itz onegaz.

Alperrik, dana alperrik; gauzak jauzi egien euren lekuetatik, eta ormetan inguru ta itxura bako itzalak antzeratzen ziran.

Gero ta beerago joian Erramon, eta pizkat barreatu ta gozalaitu zedin, bere amak argazkigailu eder bat erosi eutson. Eguzker joan oi giñan biok egurastera, eta makiña ori eroaten genduan geure ibillaldietan.

Egun batean, amari bururatu jakon neuk atera bear nebazala irurok, alkarregaz, argazkia Inghlaterra-ko bere senideai bialtzeko. Erroman eta biok belaki-lonatzat toldo bat ipiñi genduan etxe-sapai edo eguteran, eta orren azpian egokitu ziran ama eta onen seme biak. Axean jarri neban neure argazkigailua, eta bada-ezpadan, txarto urten leikela-ta, plaka bi irarri nebazan. Erroman eta biok beingoan joan giñan eurak agert-eraztera. Ondo urten

eben; baiña nire adiskidearen arrebaren buru-gaiñ orban illun bat agiri zan.

Leortzen itxi genduzan plakak, eta urrengo egunean, zapalgaiñean ipiñi genduzan, eguzkitan, soillak, positibak aterateko.

Gotzone, Erroman-en arrabea, geugaz etorri zan etxe-sapaira. Leenengo probak begien aurrean jarterakoan, Erroman-ek eta biok alkarri begiratu geuntson alkarri ezertxo be esateke. Gotzone-ren buru gaiñean emakume baten orban zuria ikusten zan, eta onen arpegiaren antz-antza eukan. Bigarren proban be itzal berbera agiri zan, baiña beste egoera baten: Gotzone-gana makur-azoz, oni belarrira zer-edo-zer esan gurarik lez. Sartu jakun izu-ikara benetan aundia bait zan, Erroman eta ni mutu geratu giñan, ezinduak lez. Gotzone-k, argazkiak ikuskaturik, irribarre egin eban, irribarre. Auxe zan aundiena.

Ni urten nintzan eguzki-tokitik eta etxeko mailladitik beera jatsi nintzan zalapartaka, jausi ta jagi, eta kalera elduaz ariñeketari emon neutsan, Gotzone-ren irribarreak atzetik erasoten nindualarik. Etxean sartzerakoan, ispillu baten ondotik igarotean, illargiaren barrenean be bera ikusi neban, irribarreka, irribarreka beti.

Nok esan dau ni zoratuta nagoala? Guzurra! , zoroak ba ez dabe lorik egiten, eta nik lo egiten dot... A! Zuek uste zenduen nik ez nenkiala au? Zoroak ez dabe lorik egiten, eta nik lo egiten dot. Jaio nintzanetik, oindiño ez naz itxartu.

MARI BELTXA

Bakarrik geratzen zareanean baserri baltzeko atari aurrean, zeure neba besoetan dozula, zertan dabil zure pentsamentua? Mari Beltxa, bai, urriñeko mendiak eta zero larua begiratzen dozunean?

Mari Beltz esaten dautzue, Erregen egunean jaio ziñalako, ez beste ezergaitik; Mari Beltz deitzen zaitue, eta zuria zara, bildots txikiak garbitegitik urtetean lez, eta ule-gorri udako gari-solo urreztatuak aiña.

Zure etxe aurretik noanean, neure zaldi-gaiñ, gorde egin oi zara ni ikustean, ostendu egiten zara nigandik, zu jaio ziñan goizalde otz aretan zu bere besoetan lenen artu zinduzan osagille zaarragandik.

Zelan gogoratzen zaitudan, ba'zenki! Zain gengoan sukaldean, su ixetu ondoan. Zure amamak, begiak malkoz, jantzi bear zenduzan erropak berotzen ebazan, eta suari begiratzen, oldozkor, zure osabak, Aristondo'koak, eguraldiaz eta laborez mintzo ziran; ni zure ama ikusten niñean unetik unera gelara, gela txiki batera, goitik dingilizka, txortatuta, artaburuak eukazanera, eta zure ama intzirika egoan artean, Jose Erramon zure aita zainduta, nik leioak zear edurrez jantzitako mendia eta airean bizkor ebiltzan zozaldrak ikusten nebazan.

Azkenik, guzti-guztiori ainbat denporan itxaron-azo ondoren, etorri ziñan mundura, negar baten itxi-itxian. Zergaitik negar egingo ete dabe gizonak, jaioten diranean? Datozan lekuko ezereza, bear bada, aurrean jarten jaken bizia baiño gozoagoa dalako?

Esaten neutzudanez, negarrez eta txilioka aurkeztu zintzaki-guzan, eta Erregeak, zu zentozala-ta, txanpon bat ipiñi eben, ogerleko bat, zure burua estaldu bear eban txanotxo gaiñean. Ausaz, nik zure amari laguntzearren artu neban txanpona bera izan zan.

Eta orain ni igarotean zuk zeure burutxoa gorde daroazu, ni neure zaldi zaarrea ortik igarotean. A! Baiña neuk be begiz jo oi

zaitut zugatz artean ezkutaturik; eta ba-dakizu zergaitik? Esango ba'netzu, barre egingo zeunke... Nik bai, zure aitita izan nein-tekean *medikuzar* onek; egia da, bai. Esango ba'neutzu, zuk barre egingo zeunker

Ain zakust eder! Zure arpegia, diño, eguzkiak baltziturik dago, zure bularrak ez daukala goiberik, azkarririk; egia da, bear bada, zure begiak ordeko udazkenaren goiz-urratze narea dabe, eta zure ezpanak, garitza beillegietako mitxoleta ta zapaloren kolorea.

Orrez gaifi, ona zara ta maitekor. Egun batzuk dirala, astear-tean feri-eguna zalarik, gogoratzen ete? Errira joanak ziran zure gurasoak, eta zu ara-ona zenbiltzan soban zeure nebatxoa beso-gaiñ.

Gogo txarreko ta aspergarri egoan mutikoa, eta zuk, ixil-aztearren, beiak erakusten zeuntsozan: *Gorriya to Beltza*; larran iñar-duen oneik, pozez sur-aizeka, batetik bestera astun ebiltzala, txanka ta belaun-azurrak astindurik euren buztan luzeekaz.

Zuk esaten zeuntson mutiko gaiztoari:

—Begira *Gorriya...*, momolo-morko **adar orreikaz jantzita**; esaiozu zeuk, maitia: zergaitik izten dozuz begi orreik, beé gi am aundi ta tentelu orreik? Ez egizu mugitu buztanik.

Eta *Gorriyak*, zeugana urreratuz, bere abere begitu tristez so-egiten eutzun, eta burua luzatzen eutzun zuk bere lepazur kizkurrea igurtzi ta loisindu eiozun.

Gero beste beiagana urreratzen ziñan, eta, atzamarrez izentaturik, zuk esaten:

—Auxe da *Beltza... Um...!* Au bai beltz.., ! Gaiztoa alena...! Au ez dogu maite, *Gorriya*, bai.

Eta mutikoak, zugaz batera, barriz esaten eban

—*Gorriya*, bai,

Baiña gero, umore txarraz gogoraturik, negarrez asi zan ostera be.

Eta neu be negarrez asi nintzan ez dakit zergaitik. Egia da, zarrok be umeak lakoxe biotza daroagu papar barruan.

Eta zeuk nebari ixildu eragiteko, txakurtxu zalapartarira jo zenuan; beien píkoka ebiltzan oilloetara, odiar arroa aurrelari ebe-la nunbait; andik ona ariñeketan ebiltzan txarri ergeletara.

Umea ixiltzen zanean, pentsakor geratu oi ziñean. Zure begiak urrutiko mendi urdiñetara joiazan, baiña ez eben ezer ikusten areitatik; begiratzen bai zeru larua gurutzatzen eben odei zurriak, mendia estaltzen eben ostoa idorrak, zugatzen adar billutsak eta, alan be, ez zenduan ezer ikusten.

Zure begiak, egia, ikusten eben zerbait; baiña arima barruan zan, maitasunak, amesak erneten diran ezkutuzko eskualde orreetan.

Gaur, igarotean, orduan baiño be kezkatia goi ikusi zaitut.

Areitz-mukur baten jarrira, nasai ta itxi samar, menta-orri bat mamurtuz zengozan urduri.

Esaidazu, Mari Beltxa, zer pentsatzen dozu urriñeko mendiak eta zeru larua begiratzen dozuzanean?

OGIGIÑAK

Illaren kotxea Ronda-tik Prado-ra joian. Irugarren maillako kotxe bat zan, troskil, perox, mazkaldua; baltzez margozturik egoan, eta sapaia eusten alboetako lau zutabetan eta koroi lez eroian gurutzean laru-une bizi-biziak eukazan, atezaiñaren jantzi batek edo-ta ertzain baten soiñekoak legez.

Ez eukan iñundik be zaldi gandorrez apaindutakoz, arrozko ta burgoiz erabillitakoen antzik; galtzerdi zuri ta ule-ordeko autseztutako zaldi-jagolerik ez ekarren; ez; kotxe txiro bat zan, laua, aundi-maundikeri bagarik, Este-ko sastegia aragiz bete ta zezen-egun batean, Ventas-erako bidean, zati-zati ez egitea beste irrits eta aizerik bakoa.

Zaldi erkin bik eroien narras, oso abaildu ta ler-egiñak, zaldien jainkoari euren arimak emon bezperan; txankerrea zan eurotatik bat, eta, jakiña, alboraka eragiten eutson kotxeari ontzi bat itxaso zabalean lez, arimaraiño sartzen ziran krakada ta kirriz-karrazkak atera-azorik.

Kotxezaiñak, aurreko erlaxean tinko, bere jantzi baltz murriztuan sartua, kapela kaska luzca betuletaraiño eratxia, zuzentzen zituan zaldiak esku batean ugelak eta bestean idizilla, eta bere goi-aldeetatik irripar egitson begi onez eta onguraz bere oiñetan urduri ebillen Gizadiari, urdaillean barrendutako dozenerdi atxikitok» pertsona artez eta jakintsu bati emon daroatson begi onez eta onguraz.

Burtzain alai bat zan, alai izateak bere kautan dauan balioa ulertzen eban burtzaiña, eta ak erozanan ziur asko ez eben kezatzeko ziorik, zerbait zerbel joianean, ba, gaur bai eta biar be bai jazo oi zana, ildako jaunak poztu oi ebazan bide osoan bere tango ta andaluz-kantakaz, eta jauzi egien jaun onak, miñik artu bage, ilkutxa beroetan, eriotzearen kaitik ezerezaren ur-ertzerañño.

Linburketa edo illeta lagunak etziran askorik; langille talde

bik osotua zan: batzuk, igande jantziz; beste batzuk, brusakaz, eguneroko soiñekoz; itxura, arpegi ta gabezko lanak ezarri oi dauan larutasun berezi orregaz, langilleak bizibidez ezagutzen dabezan begi-zorrotz batek laster ezagutu zeikean ogigiñak zirana.

Kale erditik joiazan, eta basaz naiko beterik eukezan zapatak eta prakak, oiñak nun jarten ebezan kontuz ez ibilteko.

Lenengo, kotxe ondoan, ondra edo illeta buru, illaren lengusu bi joiazan, ondo jantzirik, dotore be bai; panazko prakaz eta txalekoan batetik bestera gurutzatzen zan erloju-kate aundiaz.

Besteak etozan gero, talde berezi bi egiñaz. Banaketa aren errazoa zan antxiñatik euren artean euken ezin-ikusi ta areriotasuna; *Frantsesaren* eta (*)Marraren* okindegien artean; euren lantegiak kale berean eta alkarren ur-urre eukezanak, ezin eben alkar ikusi.

Mirandela-ren illetetan, au lenengo *Oillarraren* etxean langilleen buru ta gero *Frantsesaren* labazain izan bait zan, ezin utsik egin ez etxe batekoak ez bestekoak. Eta, izatez be danak egozan erean.

An agiri ziran (*Marraren* taldekoen artean: maisua, ezizenez *O ferrator* lez ezaguna; *Mantxatarra*, okindegiko zarrenetakoa, egats zabaleko bere kapeleaz, ezkabi eizan ba'lioia lez, bere brusa zuri ta esku-makillaz; *Maragotoa*, bere sakristau antz-irudiz; *Baltziska*, eta Basili *Amerikanua*.

Frantsesak zuzentzen eban beste taldea, lodi ta kolore-gorri, pipa aundia aoan ebalarik beti; onen ondoan joiazan Barreiras anai biak, kordobar kapelaz eta labur jantzirik; andaluz-seneko gaillego bi, zezen-zaleak; eta onein atzetik jarraian joiazan Pako, *Pakilla* ezizenez ezauna; Benito *aragoitarra* eta *Ule-gorria*, bana-tzaillea.

Aldian batez, aldra biotako batek esakun bat botaten eban zorrotz samarra, gitxi-asko ixekaz gaiñezka: «Egia esan, bzi garean lez bizi izateko, oba litzakigu eriotza». «Eta zer egingo! » «Eta emen ezin esan daiteke ez dot gura... ».

Negukoa zan eguna, illuna, goibela; ezotasunak baltzituriko etxeak, orban baltzizka luzeak eukezan euren ormetan, euriak izten zituan malko-tzarrak; azpia lupetzez betea agiri zan, eta zué gatzak makar ta meartuak airean gurutzatzen ebezan euren adar igarrak, oneitariko batzuk oindiño be dingilizka eukezala osto murriz, soil ta tximurtu batzuk.

Gorpu-kotxeak, jarraigoa etzetik ebala, Atotxa kalea jatsi ta Retiro-ko ormai itzul-ingurua egikeran, euria asten zan, egin-egiñean be.

Eskumatik zabaltzen zan Madrid-eko lautada edatua, berderik dagoneko erne ta motatzen asia zan gariagaitik; *an* urruti, gandu artean, Aingeruen muiñotxoko ermitea agertzen zan; urrago, Pazifiko auzoko etxeak burutzen ebezan erreskada biak, Vallekas zubi-ko baillera amaitzera joiazanak.

Retiro-ko ate batetik, Jesus Umearen gaixotegiari ur-samar egoanetik igarotean, batek erabagi eban an urreko ostatu txiki baten txikito batzuk artu bear zirala, eta orrelaxe egin zan.

Ementxe ustu genduan ardao edontzi bat Mirandela gixajoaz Ferreiro-ri lur emotera joan giñanean; gogoratzen zarie? —esan eban *Maragato-k*.

Danak itunki mugitu eben burua gomuta on arekin.

—Mirandela gaixoak esan oi eban —gaiñeratu eban Barreiras-tarretatik batek—. Garbitokirako bidean berrogei milla taberna dagozala, eta euretako bakotxean kopa bat edan bear dala. Ni ziur nago arentzat ezdala naikoa kopa bat bakarra.

Txikerdi ta geiago bearko dau beintzat, zalea zan-eta, egia esateko —eratsi eban *Baltzizkak*.

Eta zer egin? —egotzi O *ferrador-ek*, bere jakitun aizez, bere buruari erantzunaz... Bat bere etxera doa ta emazteak asarre ta moko eta umekondoak negarrean, eta zer egingo?

Urten ziran ostatutik, eta andik laster Alkala kalean egozan.

Batzuk an agur esanik etxeetara abiatu ziran, eta besteak tarranta bitan sartu ziran, oneitako kotxe-zaiñak oiua ta oiua ziarduen: «E! Este-ra! Este-ra erreal baten!»

Illaren kotxea iradu ibiltan asi zan, mariñel mozkortu bat bai-zen dotore zabu-zabuka, eta onen atzetik joiazan tarranta biak, bidean zear bilintxi ta balantxa.

Bidean beste gorpu-burdi batzukaz gurutzatzen ziran, ia danak umetxoenak. Eldu zan Ventas-era, igaro zan zubia, zearkatu ziran ostatu txiki sailak, eta iru burdiak jarraitu eben, bata bestearen atzetik, kanposantuko ate aurrean geratu arte.

Zeremoni aundi barik zan lur-emotea. Zirimiria zan eta aize otz-otza.

An geratu zan Mirandela gixajoa, aren lagunak tartanetara igon bitartean.

—Auxe da bizia —esan eban O *ferrador-ek*. Beti jardun ta jardun. Bego. Uste bat da bakarrik. Eta apaiz bat dator, eta zer? Ezer bez. Orixe da, ba, guztia.

Eldu ziran Ventas'era. Gauza garrantzitsu bat erabagi bear zan, askariarena. Zer artuko zan! Aragi apur bat. Ori duda-eziña zan. Eztabaidatu zan pernilla ala txuletak ekartea oba ete zan; baiña geitsuenen gogoaz zanez, txuletak ekarriko ziran.

Maragatok erosiko zituan, eta Jesus baten biurtu zan eurakaz izparringi-paper baten batuta.

Ostatuxka baten eukitan emon eutsen sartaiña, baita egur ta ozpal batzuk be su egiteko, eta ekarri eben ardaoa. *Pakilla-k* erreko zituan txuletak.

Maira urreratu ziran guztiak. Proguaren buru egiten eben illaren lengusu biak uste ebenez erruki arpegia ipiñi bear eben; baiña laster aaztu ziran ipiñi bear eben arpegikeraz, eta asi ziran kiskatu ta iruntsiten.

Beste ainbeste egin eben enparauak be. O *ferrador-ek* esan eban bezela. «Illa zulora ta bizia opillera». Danak ekioen eskuekaz, aoan zanpaturik ikubil antzeko ogi mirrin zatiak, koipez sopindurik ezpanak, azkenengo aragi bildriza marraska janik.

Mai koipeztuan egoan edontzi bakarra esku batetik bestera ebillen eta ardo biziak urdaillak beteaz, gorri jarten ziran matrailak eta begiak ñirñir egien betargiro.

Orain ez egoan banaketarik; *Oillarrarenak* eta *Frantsesarenak* bat ziran onezkero; ardotan murgildu ta ito ebezan euren arerio-keriak eta onein eta arein artean adiskide ta senidartekoai buruzko itaunak gurutzatzen ziran: «Eta Lenzuela, Goi-rena? Eta Perutxo, Puri-rena? Eta Kastroberde-ko Farruko-rena? Eta Monforte'ko Tolo? Eta Sílbela...?»

Eta jazokunak eta jazokunak etozan, eta izkirimiriak, eta barre-algarak, eta ikubilkadak maian, eta zantzoak; azkenean, barriz, Mantxatarra bertatik gogait-eragin eta barre gaiztoz, zergaitik iñok ez ekiala, asi jaken esaten Galizia-n ez egoala arbiak besterik, gaillego guztiak zirala triputs eta goseak il batzuk, ez ekiela ardoa zer zanik.

Jakiña! Eta Mantxa-n zer dago? —itanduten eutsen gailleguak.

Munduko garirik onena eta ardaorik ederrena —jardesten eban *Mantxatarrak*.

Garirako ta garagarrerako —iñoan *Maragatok*— ez dago Maragat-errian baiño lur oberik.

Danak jagi jakozan aurka, ari arpegi emonaz; geitu zan eztabaida, eta danak ekioen oiuka, izka-mizka gogorrean, eta noiztik noizera, itz-iskanbillaren esaldi atzena amaitzerakoan, argi-argi entzuten zan, galdezka lez:

Orduan?

Eta gero, irri-eztenka:

Gauza argia!

O ferrador-ek erlojua atera eban, berandu zala ikusi eban, eta joateko garaia.

Kanpoan illuntze illuna etorren. Aize izoztua ebillen. Odeitxo gorri ba, agertzen zan gaiñean, eguraldi onaren urriñeko itxarokizuna.

Mantxatarrak zarata ikaragarriak ateraten ebazan oindiño be gailleguen kontra.

Léve me o démo —iñotson euretariko batek—. Origaitik be, nik zure alabea eizatu nai dot gaillegu batekin.

Neuk! Neuk! —erantzun arek, eta beera bota eban kapelea kixotar baten erdaiñez, bere jantzirik ederrenaren zantzoz—. Lenago ikusi gura dot lau argizagi artean.

O ferrador-ek orduan bere jakiturizko gogapenakaz eztitu nai izan eban.

—Begira, *Mantxatar* —esaten eutson—, nungoan dira jaurleriak, otseiñak, eta gaiñerakoak?... Galizia-koak, gizona, Galizia-koak. Eta zer egingo!

Mantxatarrak, baiña, zuritu barik esarre ziarduan gailleguak España-ra ekarri ebazan ontzi mandarikatua zitalduz.

Gero, otzari esker, otzitu joan ziran suak artutako *gogo* areik be. Esparteroren arrizko gizantz ondoraiño eldu ziranean, *Oiliarren* okindegikoak banatu ziran *Frantses* okindegikoengandik.

Gabean, okindegí bietako ora-toki illunetan, danak lan egien erdi loak artuak gasazko kruseluen argitasun koloka artean.

MARITXU

Aoz ao dardaratu zan albistea. Maritxu-k, Aitola baserriko emakumeak, gaixo banaketako bat eukan, sein-egin eta aste bi edo irura agertu jakona. Orain barre egiten ba'eban algara burrunbatsuz, gero negar egingo eban garratz be garratz arrenkura ta zinkuru deitoragarritan ler-egiñik.

Deabruak gorputzean ete eukazanaren zurmurrua zabaldu zan or-emen; baita esan zan mixteriozko gizon batek, Maritxu-ren bassetxe aurretik igaroterakoan, eta au an ikusi, begizkoa egin eutsola be.

Auzoko lugiñen jakin-miña zalekor ebillan oso, esamesak eta barriketak ugarrri baiño uagariago; batzuk iñoen abadeari dei egitea zala onena, beste batzuen eritxiz ijitu emakume bati, erdi eskale ta erdi aztru zanari, pertsonai ta aberee begizkoa osatu oi eutsela-ta, izen zabala eukonari dei egitea zan bidezkoena.

Egun baten, auzoko neska bi, gaixoa ikusiz bildurturik guztiz, barreari emonaz negarrez asi ziran aregaz batera, eta augaitik eta leen-ardura lez, erriko abadeari dei egin jakon. Abadeak onetsi eban etxea, gaizkiñai artuta eukien gorputzetik urten eitezan eleiz-araoketak eg'ñez; baiña aren araoketak ez eben ondorenik izan. Ijituari dei egin jakon orduan.

Au deia artu ebaneko an zan, eta etxean egokitu jaken. Egin ebazon bere gertakuntzak. Zaku-zapiz josi eban ogeburuko bat, birzaiz bete berau, adar igar batzuk bigurtu gero, eta oneikaz zuzi bi eratu zituan.

Gabean, amabi-amabietan, gaixoaren gelara sartu, eta, onen garraxi ta erostai jaramonik egin bage, ogeari lotu eban. Gero zuzi biak ixetu ta Maritxu-ri burua makur-azo eutson zai-zaku gaiñean, berak otoitz egialarik. Batzutan otoitza etenik gatz-zokor bat iruntsi eragiten eutson gaixoari; beste batzuten ixilka iru errege aztien izena ao-mixtatzen...

Biaramonean, osaturik egoan Maritxu.

Zazpi egun igaro ziran, eta euren buruan, Maritxu-ri gorrotoa eutsan amagiñarrebak pentsamentu izugarri bat sar-erazo eutsan: irribarreka esan eutson, irribarre maltzur-multzurrez, osatu ba'zan berak eukan gaixotasuna bere semearen gorputzera, seme nagusiaren gorputzera igaro-azoz izan zala; mutikoa orixegaitik beti egoan triste. Eta egia zan, une aretatik, guztiz ederra zan umea, laru, laru oso ipiñiaz joian, eta alaitu barre egiteari itxi eutson. Gau baten otz geratu zan, bere amaren altzoan kukuldua, begiak zabalik. Erlaster oso baltz bat ibilli zan aren ondoan ega-biraka.

Amak jarraitu eban umea kunatzen, eta, etzala itxartzen ikusirik, manto baten batu eban, eta etxetik urtenaz, eskeko zaararren etxera eroian bide-zidorra artu eban.

Egun egiñik joian; odei moltzo zuri bat txirbiztu zan zeruko urdin zurbillean; eguzkia, epel indarge, mendi gaiñak argitan jazen asia zan, lore orizko otez eta ira baltzuri ta gorrikkaz beteriko mendi gaiñak.

Mendi gaillurean, gelditu zan Maritxu arnasa artzeko; ikarazo eban aize otzak, eta latz-ikaraz zirgit eragin...

Sakoneko troka batean aurkitzen zan atsoaren bizilekua, antxiñako etxe bat suak errea, ijitu-andreak apurka apurka barriztatua. Bertan sartu zan Maritxu oles egin barik. Beian ixiotutako saino edo sutzarraren argitara ondo ikusten zan etxe barrua; gela bat besterik ez eukan, eta onen ondarrean oge bat egoan lur-pillo gaiñean, eta alde bietara, ormetan, aga batzuk ontzitegi lez, eta onein gaiñean jarririk gauza pirtzillak eta pirtzillak, bideetan artu ta batuak, tamaiñuz sailkatuak: kirten bako txarroak, lapiko zartatuak, azpi bako azpillak eta kankarroak.

Sutondoan, atso eskaleak autuan ziarduan gizaseme zarkote, konkor eta ule zuri bategaz.

—Zu zaitut? —esan eutson atsoak Maritxu-ri, ikustean, abots zakar eta mozkor-mintzoz—. Zetara zatoz nire baserrira?

—Neure semea ikusi daizun.

—Illik dago —esan eban ijitu-andreak a begiratu ostean.

—Ez. Lo dago. Zer emongo dautsat itxartu daiten?

—Neuk diñotzut, ilda dago; baiño nai ba'dozu, egosi bat egingo dautzut zazpi landaraz.

—Ijitu —esan eutson orduan gizonak—, egiten zoazan orrek ez dau ezertarako balioko. Zeure semea itxartu gura ba-dozu —gaiñeratu eban, Maritxu-gana zuzenduz, eta bere begi urdiñez adi-adi begiratzan eutsola, betula zuri azpian dizdizka—, ez daukazu erre-medio bat baiño: aterpetu eizu bera familia baten etxean, laster datorkion ezbearren bat gogoratzen ez dauan egoitzapean bizi dana nunbait.

Maritxu urten zan etxetik umea besoetan ebalarik, eta, geiagoko barik, inguruetakoko baserriak ikuskatzen ibilli zan. Baten ilbarri zan aita; beste baten gudaritzatik etorren semea, itzalatuz aurkitua, birikiak zilez betea ta bularrengoz gaixo, pare bat illa-beteko bizitzeaz; emen il-agiñik aurkitu eban ama bat, bost seme-alaba ondoren itxirik; an uriburuko gaixotetxera joian gaixo bat, bere anaietatik, diruz ondo egon arren, iñok be etxean artu nai ez ebalako.

Auzotik baserrira ta baserritik uri aundi batera igaro zan Maritxu, eta gero beste batera ta beste batera, eta leku guztietan zur-biltasuna eta leku guztietan naigabea. Erri baktotxa zan gaixotetxe aundi bat, aragi gaixoz beterik, burutiko garraxi ta intziriz aieneka.

Eziña zan egurearen erremedioa erabiltzea. Zori txarrak jota egozan bazter guztiak; guztietara eltzen zan gaixoa, guztietara, eriotzea.

Ez, ez egoan osabiderik, ez igespiderik; biotza minduta bizi bear zan; ezinbestean miñaren eta naigabearen lagun izan bear bizitzan.

Maritxu-k negar egin eban, negar luzaroan, eta garo, etsi-etsia ta bare, bere etxera biurtu zan bere senarraren ondora.

UDAZKENEKO ONDARTZA

Ibiltaldi bat zan Maria Luisa-k udazkenaren asieran urtero egⁱn oi ebana. Bere senarra adiskide kutunen batekin Biarritz-era edo Donibane Loitzune-ra joaten zanean, berak Gipuzkoa-ko itxasaldeko erritxuetatik zear doan zalpurdia artzen eban, eta eurotako baten geratzen zan.

Txango a beretzat bidezkunde edo joan-etorri bat zan bere maitasunen jauretxera, bere ezpiritua joandakoen gomuta gozoz girotzen zan lekura, olan atsedean pizkat arturik guzurrezko bizi-molde urduritik.

An, itxas-ondoan kokaturiko erri areitako bateko ilerrian, betiereko loan zetzan gizon maitea, zipresez eta ereiñotzez jantzi-tako kanposantu baten, mendian galdutako ortu santuan, bakar-taclez, loraz eta ixiltasunez inguratutakoan.

Arratsalde aretan, Maria Luisa errira eltzean, beti lez bere iñudearenean gelditu zan. Ibiliaren ibilliz abailduta egoan; goiz ogeratu zan eta lo egin eban urrengo egun-sentirarte, lo ez-gozo ta artegatsuz.

Onik onenean itxartu zan; zabaldu zituan begiak; argi-izpirik be etzan sartzen gelan. Oraindik, antza, gaua zan. Barrero lo egiteko alegⁱndu zan; baiña bere buru-muiñean ainbat eta ainbat gomutagarri, ainbat irudi ta bururakizun joiakozan pilloturik, bere barrua arintzeko, ogetik zapart egiñik, erdi jantziaz aztertuz joan zan zasztaka illunean, leioa aurkitu ta edegi arteño.

Udazkenekoa zan argi-txirrinta. Laiño argitsu gasa batek beteten eban airea; zarata izpirilc bere ez, bizitz-ikur batek be ez eban urratzen goiz-argiaren baretasuna. An urrun itxasoaren murmurioa entzuten zan, astun, apatz, ezti.

Erria, itxasoa, mendiak, oro egoan gandu urdiñak gaiñ-marra-tua, goiz-aⁱzeaz ikaratzen asten zan gandu urdiñaz.

Maria Luisa, pentsakor, nare idorotzen zan begiei urriñago

ikusten galazoten eutson laiño illun itsua ikusiz. Geldi-geldiro, bere begi-begiak illunpean aurrean edaturik, emen joiazan ertz bako bat ez-usteean; an, ondartzako arearen argitasuna, eta arpegi-ebakunak eta izlak itxura bage agertu-ostendu egiten ziran belaiñoaren ore-eragiñaz.

Liorretik etorren aizea, ezo ta epel, usain mingorrez; landarak ixuri bizitz-jarioz blei-blei. Noizetik noizera, padura usiñezko bafada batek iragarri eroian itxas-aizearen zantzua.

Goiz-argia asia zan belaiñoaren lits urdiñen artean edatzen; gero, itxura naspillak eta inguru argi bakoak eratu ta tinkotuz joiazan, eta erria, gipuzkoar itsas-aldeko erritxo a, basetxe baltzakaz dotore, agertzen zan apurka apurka kokaturik egoan mendixka gaiñean; eleiz-torre zarrean ingurumari pillotua ain zuzen, itxasora, Iparreko itxaso berdatsari trebeska begira, zabaldu olatu eskergaz txit astindua, beti gozagatx eta buruilla, zurmurti ta aparez kizkur.

Astiro agertazís itsasaldeko ikuspegi osoa; arkaitz-mokor aundiak agiri ziran ezkerterra, onein gaiñetik joian errege-bidea; esku-matara ondar-lerroa marrazten illundiko, oker-une leuna ain zuzen aitz-punta baltz eskergetan amaitzen zana; oneik, jakiña, itxas-mamu lez bitsezko laiño artean igeri nabarmentzan jakuzan itxas-beran.

Erria dagoneko esnatzen asia zan. Aizea ekarri-eroan ari xan eleiz-kanpaiaren soiñua; onen gaizeko otoitz-deirako joaldi gozo geldiak dardar egien goiz-argitze neketsuaz lausoturiko airean.

Etxeetako leioak eta atea edegiten ziran; lugiñak euren abereak okulluetatik kalera ateraten ziarduen, eta erriko ixiltasunean idien murrusak bakarrik entzuten, buruak gora ta sudurrak zabal biriki-barne artzen eben goizeko egurats freskoa.

Bizi apal eta etsi arein aurrean, adiaz itxasoaren aurrean eta ezkil-aotsez mintzatzen jakon erlejiñoaren barne-kutsuz nasaitasun ezbai baten jausi zan Maria Luisa, eta eguzki-izpiak gelan sartu jakozanean bakar-bakarrik bizkortua somatu zan, eta ispilluan begiratuaz adierazpen ezta aurkitu eban bere begietan, goibeltasun ameskor bat egin-egiñean be.

Urteteko gertu egoan; kolore bioleta illunezko soiñekotxo bat

jantzi eban; buruan, *kanotier bat*, apaindura barik; mota politez jositako zapi zuriaz estaltzen eban arpegia, eta olaxe ur orixkazko potxingo ta apakiñez beteriko bidera urten zan.

Noz edo bein, akulua bizkar-gaiñ, idien aurrean joian itzaiñez topo egiten eban bidean, burdi kurrinkariak narrastuz urrats-nagi ebiltzan idi-aurrelariak noski.

Maria LuIsa-k arein agurrai agur egiñik erantzuten eutsen.

Azkenez errira elduaz joian, gurutzatu eban eremu egoan enparantza, eta ezotasunak baltzitutako arrizko uztai txikipetik zear, aldapan egoan kale estu arrizbeteriko batera igaro zan; emen artzen eben atsedeen euren antxiñako neke-lorren truk ontzi erdi ustel batzuk, tillape ta kadena agirian ebezala.

Uztai-giltzean, antxiña baten erria esitu eban arresi zarraren ondakin lez, iduri bat ikusten zan zakar samar ebagi ta landua, eta, onen azpian, bedar-moltzo bat azten zan erri-arteetako zirriztuetan.

Kale-tutuaren azkenetik ikusten zan ondartzea. Pozkariozko eztanda zan inguru osoa beteten ebana, eguzkiak odeiak suntsitu ta laiñoak eguratsean urtzeko itxasotik igon alean.

Inguratsa garbituz joian, zero urdin, zero urdin kolorgaren zirrinde-litsak agertzen ziran, eta mendi-altzoetan ikusten, laiñoa barriatzean, emen basetxe bakar bat anabakaz beteriko bere so-loen erdian orlegi; aruntzago, pago ta areitz basartea; gaintxoe-tan, ertz askodun arriak eta abetxo erkiñen batzuk, adar billutsik.

Bero egiten eban ondartzan. Maria Luisa-k bizkortuagotu eban bere ibillia aretzaren azkenera eldu arte, eta an, aitz-troska baten jarri zan, nekatua.

Itxasoa, azal urdin eta mutur-baltz, muker ebillen eguzkiaren txerak urrindu naiez; moltzotzen zituan aren ur-laiñoak, baiña alperrik; jaun eta jabe zan argia, eta eguzki-erraiñuak ñirñirka asi ziran uin muskerdun mamuaren narru izurtuaren gaiñ.

Bat-batean, eguzkia indartsuagotu zala zirudian; eta itxasoa luzatuz eta luzatuz joan zan, zero-ertzaz lerro zuzenean alkartu zan arte.

Orduan olatuak asi ziran etorten, batzuk, goi-goibel, biribil,

barrengaitz; beste batzuk, bits-jario bizi-bizian; banaka batzuk, zintzo ta aunaren arrandia egin nairik, egun-argitara erakusten ebezan euren barru loiak; an, muturretan, aitz-mokorren aurrez-aurre izartzen ziran asarre bizitan; otzan eltzen ziran ondartzara, gaxondoan osa-barri dagoan emakume baizen aul ta loba, areta gainean ertzatu zuria egiñik, eta baztertzean ondar-gaiñ izten ebezan eguzkitan dizdiz argi egien aloka baltzizkak eta marmoka illunak.

Udakoa zirudian goizak, eta, alan be, itxasoaren koloreetan, aizearen asperenetan, bakartadearen murmur, marmarixeta bereizeziñetan, udazkenaren abotsa sentitzen eban Maria Luisak. Itxasoak bialtzen eutson olatu-gaiñ bere aunditasunaren zirrara oso-eza.

Eta itxasoaren igikerara, bere pentsamentuaren igikerak gomutamenera eroatsozan bere maitasunen oroitzapenak.

Eta itxaski sagail Iez etorkozan gogora biak, bakarrik, ondartzako aretan, itzik esateke, oldozketa barik, gogairik eratu bage, bere ezpirítua urtuz olatuetan, laiñoetan, itxaso mugabakoan dardardagian ezpirituaz.

Antxe, toki aretan bertan, ezagutu eban; amar urte dirala, amar unte! Errukia artzen asi jakon, gaixorik egoan-eta; ari entzunaz eta itz-egiñaz bere arimearen zokorik ezkutuenean eragiña geratu zan; bera, aierga, berber ta ez-ajola, maite-miñak joa sentidu zan; bera, antzu zalako pozik, amatasunaren iñartsiz sentidu zan. Bere kirioak ikoldu ebezan naiaren boladak, biak bakarrik egozala, dagonilleko illunar eder-ederrak euren ezpiritueta dizdizko ikustean, eguzki gorritzka zeru ertzean gordez joiala itxasoak gorrimiñezko argidurik dardar egiane.

Amar urte joanak! Amar urte! Auxe zan bear bada ak geien somatzen ebana. Etorkizunean so-egian ez-ajola, zartzaroaren zeruertz auts kolorezkoa.

Amar urte! Eta orduan berak ogei ta zortzi eukazan!

«Eta eldu ziran beste udabarri batzuk eta beste uda batzuk —bururatu eban ak etsipen aundiz—, eta itxaso berberaren aurrean, orroaka, amaibako olatuakaz astindua; illunabar gorrixka bardin-bardiñen eta gau izarratu bardin-bardiñen aurrean, beste maitasun batzuk eta beste amets batzuk erneko dira beste arima

batzuetan..., eta ni joana izango naz Jipar batean dizdiz egin eban
aparra

Eta Maria Luisak, bakar lez itun, udazkeneko zero larupean
intzirika dagoan ondar gorria ta itxasoa begiz joten ditu, bere ez

ikusiz somatzen dauan larritasuna, tristura geiagotzen dautsona. ■

ALEGIA

«Atseden-aurretatxo bat obe da,
esku biak beteko nekea baiño».

(*Izlaría*, 4, 6)

Eta Zeilan ugartean zan, Kristo etorri aurreko zazpigarren gizildian, nire arimearen zazpigarren aragi-artzean, Sakiamouni-k munduan zear ots-egiten eban garaian, Legea irakatsiz aurka, gizon eta emakume guztientzat graziaren legea. Eta Zeilan ugartean zan.

Eta nire arima ituna karats (paria) gorputzean aragitu zan. Atsedeen-aldietan, lan gogor-latzak bukatu ondoren, lagun batek, gu lez jopua zanak, eskariak eta ereserki santuak irakurten eban, Sakia sendiko bakartiak eta onen ikasleak idatzi zituen ereserki santuak. Eta nik entzuten nebazan Buda-ren esakun, baiña ez nerabillen gogoan oiñazerik, ez eriotzarik, ez itunik, ez gizasemeen alaitasunen mixeririk; gogoeta oneik zabal-azten dautse barriz bakar-zaleei Nirbana urik ezkutuko ateak, emen bait bat izan ezta, emen lo egin oi da ezeztapenaren lo betierekoa; urrun, munduko mixerit ta zakarkerietatik urrun, eroapenaren eta atsedeenaren erreiñuan, izadi naigabetsuaren itxasbazter esker txarrekotik kanpo.

Eta nire biotza larri egoan uskeriagaitik eta argirik ez ekusen nire begiak bidean. Bizitzako atsegiñak, ba, maite zituan, guzurrezkoak aurki, leizetako oiartzunak edo-ta ibaietan islaturiko itzalak baizen guzurrezkoak, eta atsegiñaren edontzia edan eta edan ustua nai neban, oiñazearen eta lizunkeriaren ontzi besterik ez dana.

Eta ezpirituak, griñen eta naikarien sortze danak, bizi-garra sar-azo eustan guneraño.

«Zeren bearrean nago —pentsatu neban— zoriontsu izateko? Aske izan; naiko da askatasuna ni zoriontsu egiteko».

Eta aske izan nintzan, eta mixeriak eraso ikusi neban neure burua, eta zoritarpean bizi izan nintzan luzaroan.

Eta ez neban aurkitu opa neban zoriona.

«O! —pentsatu neban orduan—. Au alegia atzipeturik naukana! Askatasuna ez da naiko zoriontsu izateko. Dirua be bear da».

Egun batean diru-kopuru eder baten jaube egin nintzan, eta alegiñ aundi barik asetuak ikusi nebazan neure bear-izanak eta gurariak.

Eta ez neban aurkitu zorionik.

«Zertarako ditut aberastasunak —esan neban gero—, neure guraririk bizienak asebate ezin ba'ditut? O! Ni altsu ba'nintz».

Eta altsu izan nintzan, eta neure agindupean euki nebazan eskualde bat eta jopuak mende, eta elefante eskergak, eta burdiak urrez beterik, eta zintzilikako baratzak, eta arripitxiz apaindutako emakumak.

Eta ez neban aurkitu zorionik.

Eta gogaikarri egin jatanean aginpidea, jakitun izan naiak jo nindun, eta Egipto-n ikasi neban, eta Babilonia-n, eta Persia-n, eta Kaldea-n, eta izarkien bideak neurtu nebazan, eta eguzkiaren goibeak alde-alde bota ta ainbanatu. Eta ikusi neban *jakituri ugariak neke ugari eskatzen dauala eta zientzia geitzean oiñazea geia dala.*

Eta ez neban aurkitu zorionik.

Eta mundura jo neban, Sarkalde Muturreko lurretaraiño, eta ikusi nitun Mediterraneo-ko uri aundi ta aberatsak, atsegin gaiñgaiñekoen seaska.

Eta ez neban aurkitu zorionik.

Eta, etsi-etsia, itzuli nintzan Zeilan ugartera, karats izatera itzuli nintzan, eta sufritzera itzuli nintzan, eta eriotz-orduaren zain nen-goan baketsu, nortasuna joanaren ilun-abarrean galtzeko ordu gozoaren zain, ezaugera ezaren beso bikaiñean murgiltzeko zain, eguzki-izpi bat iduri itxaskresal urdiñetan.

Alegi sakonagoak irakatsi zorrotzagokoak dagoz Zaratustra-ren liburuetan eta Jesus Ben Sirach ebertarraren esakunetan; baiña egi-egiaz diñotzuet zuoi, biotza uskeriz asaldua eta begiak arrokeriz itsu daukazuezanoi, onurakor izan daitekezue zeuen arimen osasunerako bizitz ontako kondaira, neure ezpirituairen zazpigarren aragi-artzea jopu baten gorputzean, Zeilan'go ugartean.

AGEDA

Kristalen ondoan ezarrita, zerrak egiteko burkotxoa balkoiko zur bati eutsola, bere atz-arteaz zapart eragiten eutsen ezpalzotz txikiak. Seme-alabak jolasari ekioen fantasizko iduriak egiten orratzez beteriko kartoi gorriaren gaiñean, eta aren esku arteko zur-zatitxoaren dantza ariñak azur-ots bizi-argia ateraten eban.

Zerrak egiten nekatzen zanean, eun-etxe aundi bat artu, paper zuriz betea, ta bordatzen asten zan, burua eun gaiñera makurturik.

Neskatx gorrixka bat zan, egaltsua. Sorbalda bata bestea baiña jagiagoa eukan; origorria zan aren adatsa; aren arpegikera itxura ta iduri jakin bakoa.

Aundia zan aren lan-gela, ta pizkat illuna. An barruan zaar-sunda artzen zan. Kortina luzeak orizturik joiazan, ateetako eta balkoiko pinturak lekutik urtenak eta oin-zapia murriztua ta kolorga.

Etxalar bat agertzen zan balkoiari aurrez-aurre, eta onen esku-mara Madrid erdiko auzotegi bakar eta gitxi ibilitako plaza bat.

Etxalarra aundia zan, lauki zuzenekoa; onen alderdi bat etxe batzuen ormak osotzen eben, auzoko etheen ormak, gaurko etxe loi-zikin zirtzil jasota illabete gitxira zear emoten daben etxe orretarikoak.

Beste egalak olezko esiz ornidua egozan, oltza ta esiok barriz beroak eta euriak jaten joiazan apurka apurka.

Aundia zan enparantza, eta lerro ezbardifikoa; alde batetik konbentu bat eukan, bere eleizeaz; beste aldetik, antxiñako oiñe-txe bat beti tankan itxitako leioakaz; irugarren alderdia oiñ-etxearen oltzak osotzen eban.

Neguan, illun eta triste jarri oi zan etxea; baiña udabarria eltzean, bedartzarrak loraz jazten ziran, kurloiak aga eta zabor artean egiten ebezan euren abiak, eta mitxeleta zuri-oriak egurats garbi dardarati zear erakusten ebezan euren maite-irrits lenengo ta azkenak.

Ageda zan izenez neskatx gorrixka, eta aizta bi eukazan.

Onen aita lotsati ta gelbera zan, kemenik bakoa; zirtzilkeriak, emakume antzezlarien argazkiak eta misto-estalkien irudiak batzen ebazana. Errenta asi-samarra ta aloger ona eukazan.

Ama zan etxearen jaube osoa, eta Luisak, azta zarrenak, amagaz betera eukan etxearen aginpidea.

Etxeko iru aginpidedunen arteko batek, Matilde-k, beste aiztak, aurka atera ta arpegia sarri emon ei eutsen; aita bere pitxi-bildumetan aterpetu oi zan, eta Ageda eroapenari eldurik etsimena artzeko gertu agertzen. Au etzan iñoiz be bere aizta biak lez bigira, gau-dantza ta antzerkietara, onein asmo ta kalamatriketan sartzen. Nagusi biak eta ama, alan be, toki guztietara joiazan.

Ageda-k euki be, arimea biurrikeriz beterik ez dagoanean gorputzeko eten, makar eta akatsak dakarren bildur, erabe ta lotsa eukazan. Jolasa esan nai eban guztiari ezetz esatera oiturik egoan.

Etorri nai al dozu teatrura? —esan oi eutsoen txeratsu, baiña ezetz entzutea gurago ebelarik.

Eta berak, arein guraria ulerturik, erantzun eroian, irripartsu: Beste baten.

Ikustaldietan, naigabez izten eben ainbat eta ainbat goralpen egitsoezan. Bere amak eta aiztak ao batez iñoen bitxi bat zala, xarmangarri ta atsegin, berak egiñiko bordagintza-lanak erakutsi ta pianua jo-azorik; Ageda-k irripar gozoa erakusten ezpan ertz gorrietan, baiña gero, bakarrik bere gela barruan, malkoz izartzen matraillak.

Adiskide ta lagun-min askodun sendia zanez, amak eta alaba nagusi biak ikustaldiak ari ta oni egiten emon oi eben aldia, etxean egin bear zana txikienak buruturik.

Sendiko adiskideen artean legegizon gazte bat zan, naiko argia. Adimen sendikoa ta neurribako gora-naiez betea. Besteak baiño maitagarri edo-ta ez ain azaluts, atsegin jakon Ageda-gaz mintzatzzea, eta au, konfiantza apur bat erakustean, egiaz zan bezela agertu oi zan, lau-laua ta graziaz betea.

Legegizona etzan oartzen neskatxak, entzuten eutsonean, bere arimea oso-osorik jarten eutsonik; arentzat jolasketa zan neskatxagaz itz-egitea. Andik geroago asi ziran biak biren arteko arimenaz

konturatzen; alaiago egoan Ageda, kantari ebillen goizetan, etea do-
toreago jazten.

Gau baten, legegizonak itandu eutson Ageda-ri, barre antzean,
eder izango litzakion bera be bere sendiko zati izatea. Ageda, au
entzunez, artegatu zan: aretoko argia biraka asi jakon begien
aurrean, azkenean milla ta milla argitan banandurik.

—Zure gurasoai eskatu dautset Luisa-ren eskua —azkendu
eban legegizonak.

Bere gelan sartu ta gau guztia negarrari emona igaro eban.

Biaramonean, bere aizta Luisak edestu eutson zer jazo zan,
zelan ixildu eutsoezan bere senargaiak eta berak euren maite-mi-
ñak, arek (senargaiak) lortu eban arte opa ebana.

Udazkenez ospatuko zan ezkontzea; gauzak gertatzen asi bear
zan. Erropa zuria, bordatzeko, orretan trebe ekian bati bialduko
jakon; baiña lumardiak eta oge-gaiñekoa ezkontz-oierako bere aiz-
tatxo Agedak egaleundu ta azpatzea nai eban.

Onek ez eutson ezetzik esan, eta naiz-ta triste asi eban bere
lana.

Balkoi ondoan, bere atzamar artean ezpel-zatitxoak dantzatzen
ziralarik, aren pentsamentu bakotxa samíñezko eztenkada bat ja-
kon. Bere biziaren etork' zunean ikusten eban, bizitza triste ta beti
bardiña ekusan. Berak be ames egian maitasunean eta amatasu-
nean, eta une aretan enparauen ardurarik ezagaitik negar egiten
ez ba eban, esku artean ekarren lanean negar-malkoen orbanik itxi
ez egien, zan bakar-bakarrik.

Aldizka, itxaro zoro batek siñist-eragiten eutson an, enparan-
tza zurbil aretan, antxe egoala berak itxaroten eban gizona; be-
girunez artuko eban gizaseme sendote bat, ona berak maitatu
egian; billa etorkion gizon bat, samurtasunaren ogasunen barria
ekiana, berak aopeka adierazoko eutsozan maitasunaren misterio
ezin-esanen barri artuko ebana.

Eta enparantza triste aretatik igaro oi ziran ordu jakin ba-
tzuetan, bizitzearen atsekabez abailduta lez, gizaseme batzuk bu-
rumakur, salgaitegitik edo idazkolatik, laru, erkin, zarkin, etxe-
abereak lez, urteten ziranak, eta bera lotsa aundiz artuko eban
gizaseme sendoa, ona bera maite izateko, ez etorren, ez etorren,
Ageda-ren biotzak oiuka dei egiten eutson arren.

Eta basa-lorez jantzitako etxe-oiñean, erleak eta mando-euliak bira-biraka ebiltzan zabor eta zakar gaiñean, eta mitxelata zuri-oriak, egurats garbi dardarati zear erakusten ebezan euren maite-irrits lenengo ta azkenak...

IRELTXUA

Aristondo-ren bentako jantokiak, emen batzen bait gintzazan gu apal-ostean, errikoentzat kasino entzutea eukan. Bizileku aundi bat zan, oso luzea, sukaldetik orma batez banandua; bertako atea gitxitan izten zan eta onek erreztasuna emoten eban momentu bakotxean kafe naiz kopa bat Maintoni etxeoandre begikoari naiz onen alabai; neskatxa polit bi ziran oneik, bata bena, gogoz bakandua, solo-zelaiak ikusteak dakarren begirakun gozo-ezti orregaz; bestea, bizi-bizia ta umore txarrekoa.

Gizategiko ormak, karez zurituak, apingarri lez eukezan «La Lidia»-ren zenbaki batzuk, neurritz eta apintarrean ipiñiak kaxtetaz orman itsatsirik, len urreztatuak ziran arren orain baltz koiptesu biurtu ziranakaz ain zuzen.

Jose Ona, etxeko ugazabaren eskua agiri zan zer orretan; arteza zan au bere izatez, eta ona aldi berean eta biotz-samur bere abizenak iñoanez; orrixek dizdiz egian toki aretan egokitasuna, neurria, ontasuna, esan nai dot, onela berba egin ba dagiket.

Jantokiko zero-sapaitik dingilizka, age baltzizka luzez gurutzetutik ain zuzen, petrolio argizko kruselu bi egozan zintzilik, sukaldetan egon oi diranen antzekoak, argia baiño keia geitxoago emoten eben arren, naiko ondo argitzen ebenak erdiko maia, au da, mai biribilla, eta naiko txarto beste txikiago batzuk, or-emen banatuta egozanak.

Gauero kafea artzen genduan bertan; batzuk naiago eben ardaoa, eta autuan jardun oi genduan zati baten osagille gazteak, maisuak, fabrikan iraz-burdiñearen arduradunak, Patxi karteruak, Guardi-zibillen buru egiten ebanak eta gizarteko beste beeragoko mailletako batzuk.

Gu bezeru lez eta gaiñera jente aundiki lez, erdiko maian jarten gintzazan.

Gau a feri-bezperea zan, beraz asteartea. Mundu guztiak jakingo dauala uste dot peri edo azoka egunak Arrigotia-n illaren

lenengo asteazkenetan ospatzen dirala; azken batean, izan be, Arri-gotia garrantzi aundiko erria dozu, bere irurogetaz auzoakin, inguruetako baserriak kontatu bage. Peria zala-ta, bestetan baiño jente geiago aurkitzen zan bide-ostatu edo bentan.

Euren tute-jokuan ebiltzan osagillea ta maisua, etxeoandrea, Maintoni lodi irribarretsua sartu zanean, au esanez:

—Entzun zeure mesede, osagille jaun, zelan doaz Aspillaga perratzaillearen alabak?

—Zelan egongo dira, ba? Txarto —erantzun eban osagilleak, gatxiturik—, zoro be zoro. Txikienak, esteringo utsa danak, berdantsa atzetik zan-dardara bat euki eban, beronen aizta biak ikusi eben barre ta negar aldi berean egiten, bape errazoi barik; eta eurak be bardin egiten asi ziran. Kirio-kutsadura kasu bat, bene-benetan. Besterik ez.

—Eta, entzun beist zure mesedeak, osagille jaun —jarraitu eban etxeoandreak esaten—, egia al da Elizabide-ko petrikilloari dei egin dautsoela?

—Uste dot baietz; eta beste zoro bat besterik ez dan kuran-dera orrek esan dautse ireltxu bat dagoala etxean; eta ondorioz atera dabena, auxe da: ireltxu ori auzoko katu baltz bat dala, noizetik noizera ara doana. Izan zu osagille olako ments eta kirtenena!

—Zu Galizia-n ba'zengoz bada, ikusiko zeunke ona zer dan —burdin-olako langilleak egotzi eban—. Monforte-n guk neskame bat euki genduan, jatekoa erre naiz gatz geiegi lapikora botaten ebanean, *ireltxua* izan zala esan oi ebana; eta ardurarik ez ori zala-ta, nire emazteak asarre egitean, arek iñoan bazter baten barreka egoan ireltxuari entzuten egoala bera.

—Baiña, azken batean —osagilleak esan—, ezagun danez, ango ireltxuak ez dira emengoak baizen uzuak.

—O! Ez eizu uste izan. Ari guztietakoak dagoz; orrela esan oi euskun, guri beintzat, Monforte-ko neskameak. Onak dira batzuek, eta etxera eroan daroe garautegietan ostuten daben garia ta artoa, eta zuen lurrak zaintzen dabez, eta baita oskiak garbitu be; eta beste batzuk gaiztoak dira eta umetxoen gorpu-illak lurretik atera oi dabez kanposantuetan; eta beste batzuk, azkenez, irrizale ta joko-egille galantak dituzu ta janaritegian ardao botelletatik

edaten dabe edo-ta lapikotik aragi-zerrak kendu ta arri-koskorrez bete, edo-ta gabaz iskanbil utsean ibilli oi jatzuz, lorik egiten izten ez dautzula, gilgilika naiz txatxumurka.

Eta egia al da ori? —karta-banatzailleak itaun, xalo lez zintzo.

Barreari emon geuntsan guztiok karta-zaiñaren urteeraz.

—Baietz diñoie batzuk —erantzun eban burdin-langilleak, olgeta ariari jarraituz.

—Eta ireltxuak ikusi dabezan pertsona batzuk aipatzen dira —gaiñeratu eben beste batzuk.

—Bai —jardetsi eban osagilleak maisu-aizez—. Orretan be jazoten da, beste gauza askotan jazoten dana. Bati itanduten jako: «Zuk ikusi ete zenduan?», eta diñoie: «Nik, ez; baiña unja lekutan artzain egoan Unia izekoren semeak, bai ikusi ebana», eta gauza da gustiak diñoela iñok ikusi ez ebana.

Ori, jauna, geiegi esatea da bear bada —murmur egian gure ondoko abots mee batek.

Itzuli giñan ixilka itz-egiana nor zan jakin gurata. Arratsalde aretan errira eldu zan txerpolari bat zan, gure maitik ur-samar jaten egoana.

Eta zer, zuk ikusi al dozu olako ireltxurik? —bota eutson karta-banatzailleak, jakin-min.

Bai, jauna.

Eta zelan izan zan ori? —itaun arduradunak, begi gaiztoz kiñu egiñik—. Esaiguzu, gizon, esaiguzu; jar zaite emen jatekoa amaitu ba'dozu. Kafe ta kopaz gonbidatzen zaitugu, istori orren truke, jakiña —eta arduradunak ostera be begiaz kiñu.

Ba, jakízue zuek —esan eban txerpolariak, geure maira jarriarik—. Arratsaldean urtena nintzan erritik eta bidean illundu egin jatan.

Gau otza zan, nare, baketsua; eguratsean ez egian zirkiñik ezetariko aize-boladak.

Itzala emon oi eban tokiak; ni lenengoz nenbillan Asturias'ko mendi orretan zear, eta, egia, bildur nintzan.

Bide luzez ibillia bait nintzan, zarana lepo-gaiñ; baiña gelditzen ez nintzan azartzen. Biotzak iñostan nenbillan lekuetan ez nengoala seguru.

Bat-batean, ez nundik ez zelan jakiteke, txakur erkin bat neukan alboan, kolore batekoa, illuna, nire atzetik jarraika datorkidana.

Nundik urtena izan eikean ain itsusia zan piztia? —galdetu neutson neure buruari.

Aurrera jo neban, ala, ala! , eta txakurra atzetik, lenen gurrinka, eta zaunkaka gero, naiz-ta aopeka.

Egia esan, txakurren uluak ez jataz atsegin. Beteegi egiten nindun laguntzailleak, eta, aganclik askatzeko, agakada bat berari emotea otu jatan; bairia, astin-aldia emoteko, taketa eskuan atzerantz biurtu nintanean, aize-bolada batek lurrez bete eustazan begiak, oso-odoan lausotzen nindularik.

Aldi berean, txakurra neure atzean barreka asi zan, eta geroztik ezin izan neban ezertxo be onik burutu; itsu mustuka jausi nintzan, aldapa baten beera, eta txakurrak barre ta barre, neure ondoan.

Ni errezatzen asi nintzan, bear-izan orotan babesle dan San Rafael-i dei eta San Rafael-k atera nindun bazter-itzalpe areitatik, erri batera zuzenduz.

Ona elduaz, txakurra ez jatan geiago jarraika etorri, eta baratza ondoan eukan etxe baten aurrez aurre, asarre be asarre, intzirika geratu zan.

Errian zear ibilli nintzan, teillatuak oso bee ta teilla baltzizkak eukazan mendiko erri baten zear, kale bat besterik agiri ez jakon errian zear. Itxita egozan etxe guztiak. Kalearen alde batera egoan bat argiaz estalita. Albo-ate aundi bat lez jatzun, gangan agak eta ormak karez zurituta eukazana. Barman, gizon zarpail aidetsu bat, txapela buruan, emakume zaar bategaz autuan, sutondoan berotzen. An sartu nintzan, eta edestu neutsen jazo jatana.

—Eta uluz geratu da txakurra? —itandu eban gizonak, jakinmiriez.

—Bai; uluka, or kalera sarreran dagon etxe zuri orren ondoan.

—*Ireltxua* zan —marmar atsoak—, eta eriotzea iragartera etorri da.

—Nori? —itandu nik, ikaraturik.

—Etxe zuri orretako ugazabari. Ordu erdi lez dala, or dago osagillea. Laster biurtuko da.

Itzez ekin geuntson, eta andik laster ikusi genduan zaldiz etorren osegillea, morroia kruseluaz aurretik ebala.

—Eta gaixoa, osagille jaun? —itandu eutson atsoak, aterpeko atarira urtenik.

Il da —erantzun eban abots zakar batek.

—E? —esan eban zaarrak—; *ireltxua* zan.

Orduan, taket bat eskuan artuaz, eta zelaian marraztu eban bere inguruan, iduri bat ain zuzen mauritarren lau-zurikoaren antzekoa, bost puntako izar bat. Aren semeak bardin egin eban, eta nik orobat.

Ireltxuetatik aske egoteko da —gaiñeratu eban atsoak.

Eta, egin-egiñean be, gau aretan ez euskuen alamenik emon, guztiz ondo lo egiñik.

Ixildu zan txerpolaria, eta danok jagi gintzazan etxera joateko.

ITZALA

«Gorätzen dana, beeratua izango da;
beerätzen dana, barriz, goratua» (XXIII,12)

Korpus-Kristi egunean itxi eban ospitala, eta itzuliz etorren, zaartua ta argal, baiña osatua onezkero, bere ugazabandirearen etxera, barriro be bizimolde zori bagekoan, bere emagaldur bizimolde doakabea jarraitzeko. Mixeri guztiak eukazan bere arpegian; bere biotzean, irain, laido ta lotsa guztiak.

Gogoketa batek bez ez egian zirkiñik bere buru-muiñean; amaitzeko guraria eban bakar-bakarrik, atsedena emon beti-betiko bere azur gaixoai. Gurago eban bear bada ospital ezain aretan iltea, bizitzara biurtu baiño naiago antxe griñen loi guztia metatzen zan eri-etxe aretan azken arnasa emotea.

Bide-zorro txikia eroian eskuan, bere jantzi erabilliakaz, apaintzen eben dandarbildrizak. Bere begiak, erdi-ilunera egiñak, eguneko argiak naasita ekarzan.

Eguzki mergatzak gordin dizdiz egian zeru urdiñean.

Burrunmban, jentez inguratua aurkitu zan emakumea, eta gelditu egin zan kalean zear joian ibil-deuna ikusteko. Ainbat denpora zan olakorik ikusi ez ebala! An errian, gazte zala ta alai bizi zala, eta zapuztua ez zanean! Guzti a, baia, ain urrun egoan! ...

Kaletik joian ibil-deuna ikusten eban. berak ezetariko alamenik emoten ez eutson gizon batek, txakurrenak esan eta ukondoko bat ezarri eutson; urre egozan beste batzuk, burlaz eta iraiñez zamatu eben.

Berak, eupada ta sastarkeri arei erantzun nairik, bere antxiña bateko irripar jakiñera jo eban; baiña ziñu naigabetsu batez bere ezpañak ikoldu ezin izan eban besterik eta ariñari emon eutsan andik buru-makur eta begiak malkoz.

Mixeri guztiak eroiazan bere arpegian; bere biotzean, irain, laido ta lotsa guztiak.

Eta eguzki mergatzak gordin dizdiz egian zero urdiñean.

Ibildeunean, eguzkipe dizditsuan, urrez eiotako birjiñen mantuak dirdai jaurtika; orobat zidarrezko gurutzak, ule-guriz apaindutako ikurriñen arri pitxiak. Eta ondoren etozan eliz-gizonak euren jantzi dotoreakaz, aundikiak, gerrariak soiñeko dizditsuz, lurreko guztiak, eta danak etozan oiñez musika itzal aundiko baten konpasera ibilliz, puntzet, ezpata eta txarrantxaz inguratu ta jagonik.

Emakumea igesari emon nairik ebillan; mutikoak atzetik joakozan, oiuka, salatari, eta topo egiten eban eta oillotua nabari zan; eta, zauritua ta danen artean trilla egiña, aurrera joian burumakur eta begiak malkoz.

Mixeri guztiak eroiazan arpegian; biotzean, barriz, irain, laido ta lotsa guztiak.

Bat-batean, emakumeak gozotasun azkenik bakoa sentidu eban bere ariman, atzera biurtu ta lausoturik geratu zan; itzal zuri eder bat ikusi eban gero, atzetik joakiona eta bularretik at biotz zauriz josia ta arantzaz zulatua erioana.

Eta itzal zuri ederrak, begikuste dizditsuz ta itzala irri-mirrizkoz betearekin, ikuakatu zituan eliz-gizonak, gerrariak, aundikiak, lurreko gizaseme garai guztiak eta, begiak gero oneikandik, eta emakume tristearengana urreraturik, mosu emon eutson, mosu aratz garbia, bekokian.

OSTATUA

(Antonio Gil Campos-i)

Ipar aldeko lurraldeetan barrena trenez bide-egitean, ikusi izango dozue etxetxo zurbillen bat bitxabal bakar bat gurutzatze-rakoan, erri txiki baltzizka baten ondoan.

Ikusi izango zenduen, etxearen aurre-aurrean, geldi dagoala zalburdi bat; etxe orren atartea zabalik dago, eta argitua, eta ate ondoak, nasaia aurki, denda edo taberna itxurea dau.

Eta errazoi az uste izango zenduen etxe a erriko ostatua zala, eta zeuen gogo barruan erne da olako erruki pizkat, an, toki barkarti aretan bizi dan jente gaixoaren alderako.

Eta ostatukoak bidera urten dira trena ikustera, eta zurbil izagroz ikusi dabe, eta zapiari eragiñez agur egin dautsoe.

Ba dirudi geratzen diran eta ba doazenen artean, oneik dirala zori ontsuak, bizi ta laster doazan oneik, eta bear bada zori ontsuagoak geratzen diranak baiño.

Azkar doazan orreik, laster uriko zurrunbilloan murgilduko diranak, ez dabez ezagutzen gure euskaldun probintzietako bentak, lurlean diran arrotz-artzaille ta maitekorrenak.

Zuok, mundua oiñez igaro dozuenok, eskale, barri-emoille, txerpolari, eskuketari; zuok, alderrai zabiltzenok, zapaltzen dozuen lurra baiño beste aberririk ez daukazuenok; zuok, apalok, sorbalda gaiñean daroazuena baiño beste ondasunik ez daukazuenok; esaidazue, ez ete da egia diñodana? Ez ete da egia, esaizue argi ta garbi, nire lureko bentak dirala mundu ontako gozoenak, tolesbageenak, mundu guztiko onenak?

Ba-dagoz, egia da, illunak eta tristeak bazter idor eta zurruntan, lurralde gogaikarri ta itsak; geienak, alan be, alaiak dituzu ta irri-jario ta barreberak; leioak, etxe-begiak beti daukazuz begira, samur eta maitekor.

Orreik, makiña baltzean, baso-zelai ta landak zear arin doazan doakabeok, ud aundietako zurrunbilloan murgiltzera doazanak, ez dabe sentidu biotz-ikararik leun-eztiena, bizitzako gozoena kotxean ibillaldi luze bat egin ondoren, bentara eltzetik datorki-gun zarrast-eragiña. O!

Gurena, ezin-obeia! Onexek dira momentu ortan aotik urte-ten diran itzak. Zalburdian zabilte ordu batzuetan. Euria da. In-guru erreak estaltzen dau neguko lur biliosa. Bidea, ur orizko loi-iztillez betea, luzatu egiten da gandu artean zalburdia orri bako zugatz erreskada zear, uiolakaitik loi doan abia-ertz barna, basa-ota ta sasi igarrez beteriko mendi egaletik doan bitartean.

Otzak konkortuta erdi-lo zagoze, lo-pizkat egiteko ainbat egoe-ra egoki be asmatu izan dozuez, eta ez dozue lo egiterik lortu. Zal-dien lekoko txillinera soiñu beti berdiñak, ots dagitse eten ba-rik belarrietan; ez dago biderik otzaren, gosearen eta asperkun-dearen zantzua kendu al izateko.

Batek uste dau ibiltea ez dala iñoiz amaituko; eta mendiak, eta baserriak, eta ur-saltuak, eta leiotsuetako kristal lausotueta-tik zear ikusten, ikusten diran bide-kurutzetako ur-txurrustak, ba-kan eta biziak, atzean itxi ziranak dirudie, zalburdiari bere ibillian darraitsoenak.

Errira eltzen da; zalburdiaren gurpillak kaleko arri-arte ezbar-diñean saltoka asten dira tinkili-tankala zakarrez. «Eldu ete gara?», itaun dagio bakotzak bere buruari, leiora urreratuz; baiña ez da jasten zaldizaiña; karta-moltzo bat botaten dautso gizon bati, otza-ra bat emon emakume bati, ta bere zaldi-ustari eragin daragio barriro, eta zalburdiak ostera be azpiko arri-koskorretan joaz, ba-rriro txirrist dagi ur-iztillez kuin-kuin dagoan errege-bidean zear.

Ainbesteko ibilliz gogaiturik, loak be onezkero betazalak itxi-azorik eta bat ostereak amairik ez dauala siñistuten asten danean, geratzen da zalburdia, ta ikusten danez, zaldizaiñak goitik bidera jauzi egin dausku.

Eldu gara; kotxetik jasten gara, etenda, makurturik, ia-ia bi-de-zorroari eutsi eziñik esku artean.

Bentara sartzen gara.

—Erdu barrura, emendik...; geuk eroango dau-tzugu guzti au gelaraiño.

Soin-gaiñezkoz eta matrutzuz nasai izten zaitue, eta sutondoan berotzerik nai dozun, itanduten dautzue.

Sartzen zarie an, eta keak lenengotan min egingo dautzu begietan.

—Tximinia da —diño---, ezdau ondo tiratzen; eta aizea zarraparra dabillen lez...

Baiña, nok dau ardura ori?

Gero, andra zaartxoak, euskeraz egiten dozuelako, suaren ondoan eskintzen dautzue lekua, gizalege ta guritasun itzalez; eta zuoi aparria gertatu ta zuok oiñak kukuldu bitartean, sudur kakotudun eta zapia buruan bitxi loturik dituan andra zaartxoak, bere gazte-denporetako ipuin edo istori lau-dontxu bat edesten dautzue, berrogetamar urtetik gora dirala, erriko erretore jaunarenean neskame egon zanekoa, eta gomutapen areikaz irripar dagi gozo umetxoenak lekoxe agin-obiak, agin barik dagoneko, erakutsirik.

Bitartean, etxeoandrea batetik bestera dabil, eta etxeo ugazabak musean diardu beste irugaz jarten diran aurkiak aiña jagia dan mai-inguruan; eta laurak, astun, ben-ben, kartak, lendik be ondo koipeztuak eta kizkurtuak, emon ondoren, «enbido» ta «nai dot»-ak jarraian gertatzen Ira, eta gero ta geiago ugarituz doaz alderdi aurkako bien babatxo zuri ta kolorezkoak.

Suaren ondoan, erriko barre-eragitlea, alper utsa, koblari ta eleiz-kantari, bide-ostatuan doi-doi eskupekoz bizi dana, amorrai kazariaz mintzatzen da, kazari, ez arrantzale, berak oartarazi oi dauanez, txispa tiroka ilten bait ditu amorraiñak; eta biak sakon eta luze diardue izakiñen eta igarabien, basauntzen eta kirilaoen oitura ta ekanduei buruzko alkar-izketa bizi-bizian.

—Zuk, jaun orrek, emen ala jantokian apalduko dozu? —galdetzen dautso etxeoandreak, izen aundikoa, salerosketari bai beintzat, dala uste izanik.

—Ementxe, ementxe.

Eta bertan maitxo bat jarten dabe zamau edo mai-estalki zuri bategaz; eta or dator aparria, *Martxeliña-k* naiz *Iñaxi-k* serbiduta, neskatz gordiña eta liraiña berau.

Erre-egosiak iruntsiten dira eta saltsan bustiten da ogia, ez ah] zuzen be Saint-Germain-go duke baten baizen epain eta doto-

re; eta azpil berberatik jaten da, oitura au bear bada aundikien etxeetan zaindua izan ez arren.

Danetik jaten dozu eta edan zerbait geitxoago, eta *Martxelina* paitar txeratsutik betetzen dautzun artean, zuk polita dala diñotsazu eta..., eta berak barre egiten dautzu zidarrezko irripar alaiz zure begiak dizdizka ta zure sudurra margotua ikusirik.

Eta gero, apaldu ostean, gora igoten dau batek lo egitera bizitz-oin nagusira, gela txiki batean, ia osorik zurezko oge esker-ga batek artzen dauanera, lau edo bost koltxoiz eta beste ainbeste lasta-marragakin; eta torre a igonik, bedar-usaiña darioen izara artean bernak nasaitzen dozuzan bitartean, teillatuan euria-
ren eta orro dagian aizearen otsa entzuten dalarik, benetan samur-azten zara, ta ia-ia begiak malkoz, iñoiz baiño geiago uste dozu ba-dala aita on bat an goian bideetako ostatuetan oge bigunak ipiñi ta bidazti gaixoai apari gozo gurintsuak emotea baiño besteren ardurarik ez dauana, ain zuzen.

AZKEN ERRUKIA

Errukiari emondako goratzarre izugarriko garaia izan zan. Munduak arriz aurkitu eban argia, eta dagoneko etzan illunperik.

Gizatasunak, ba, bere ariman somatua eban bazterbakoaren kontzientzia, eta biziaren osertza gero ta zabalago, gero ta urdiñago zan.

Gizonak ezin eban onezkero urko-lagunaren oiñaze gordiñik jasan, eta besteen onerako lan egian errime be errime. Aberatsa erantziz joian bere geiegikerizko jantzia, eta bear ebana be bere antzekoakaz zatitu nai eban, txiroak barriz ez eban olakorik artu gura, eta zoriontsu ziran.

Baiña au etzan aski gizonaren biotz zabalarentzat, eta aurre-rago eroan nai eban berak somatzen eban zoriontasuna: abere ta piztia, eta landarai, eta bizi dan guztiari, eta sentitzen dauan orori.

Danean bait dago gogaia eta dana bait da gogaia, eta gogaia Jainko.

Eta gizasemeak gogoratu eban Jehova-k esan ebala: «Ez dozu ilgo», eta giza-odola ixurtzetik urrundu zan.

Baita gogoratu eban *Izlari* liburuan idatzirik egoala: «Gizasemeen gertaera ta aberearen gertaera, gertaera bardiña dozu; oneik il diranez ilten dira areik, eta arnasa bardiña dabe guztiak».

Eta abereen odol-ixurtzarik etzan egin.

Eguzkiak gozaturiko zelai zabal aundi baten ospatu eben munduan bizidunen esku-jabetasunaren jaia.

Eta gizonaren aurretik lerroz lerro ibilli ziran abereak, esker onaren esker onez beterik: zaldiak eta astoak, beiak, txakurrak, elefanteak, leoiak eta sugeak, eta danak naitasunez begiratzen eutsoen gizonari, euren egiazko lagun izateko borraru izatea itxi ebalako.

SUKALDE BALTZA

Goiz guztian zain egon ziran etxe barrian noiz etorriko ete zan etxe-aldatzerako burdia, eta arratsaldean, bost inguru, ataurrean geratu zan.

Mutillak topo emen eta topo an jaso ebezan, arin eta bizkor, atrapario ta zarkin urriak eta, aringa ibilli bearrez, salako bitarte apurtu eben, sukalde apalean geien ederresten zan ondasun xetatik leenena.

Burtzaiñak ogerlako biren ordez iru eskatu zituan; bi ziran alan be, egiñak, eta ez iru, esan ebanez, ba, muebleak ez ziralako sartzen burdi txiki batean, eta mutillak itz loiz nasturiko eztenkada batzuk jaurti ebezan, eskupeko naikoa emoten ez eutselako.

Gautu zanean, kruselu baten bai ilgo ez ilgoko argitara, senar-emazteak gauza bakotxa bere lekuan jarten asi ziran, umea kar-toizko zaldi baten sabeletik amulua erauzten ebillen artean. Umea, baiña, laster aspertu zan, eta emaren jarraizan asi zan, gonetatik oratu ta lo-gurazko abotsez dei egiten eutsolarik. Orduan amak alkoolezko argontzi bat artuaz, antoxiñean berotu eguerdian geratu zan salda apur bat eta umeari artu-azo eutsan; lotan ipiñi eban, eta andik laster umeak lo egian gozo baizen samur.

Bere arloari ekiteko asmoa eban andreak.

—Baiña —esan eutson senarrak— atsedeen pizkat ar eizu, emakuma. Ez dakit zer daukadan zu olan lanean ikusiaz, Jar zaite, eta solas-alditxo bat egingo dozu.

Jarri zan emaztea, eta bere esku baltzitu gaiñean ipiñi eban burua, izerdiz betea ta sapaztatua.

Berak uste eban laster ipiñiko eutsezala gauzak bere lekuan; bestelan onartuko zituan bildegian kontu-arloa eroatearren emon oi eutsoezan ogei lauerlekoak; bitartean bizi izateko beste ba-eukien. Etxe a guztiz altua zan, bostgarren oía, baiña alaiagoa ori-

xegaitik. Eta ingurumari begiraturuz, otzak ziren ormak, billoiztasun zurbillaren garratzasunaz; tresneria ta erredizak autsez, eta azpiak ipitz eta zatarrez beterik, bere baiestepenakaz irri egiela zirudian kaden eta illun-baltz.

Emazteak, etsi-etsia, ontzat artu oi eban senarrak iñoan dana.

Atsedean apur bat artu orduko, jagi zan barrien barri.

—Eta nik —esan eban— ez dot izan aparia gertatzeko be astirik.

—Itxi eizu —jardetsi senarrak—. Ez dot bape jateko gogorik. Apaldu barik ogeratuko gara.

Ez; oraintxe noa zer-edo-zeren billa.

Biok joango gara, nai ba'dozu.

Eta umea?

Berealakoan biurtuko gara. Ezta itxartuko.

Emaztea sukaldera abiatu zan eskuak garbitzeko; baiña iturriak ez eban urik emoten.

Onak gagoz. Ur-billa joan bear da.

Emazteak besana bat lepo-gaiñ bota ta txanbil bat artu eban; senarrak beste buztinezko bat gorde eban kapapean, eta biak urten ziran zaratarik egiteke. Jorrailleko gaba otza zan eta gozagatxa.

Errege antzokiaren aurretik igarotean gizon moltzoak ikusi ebezan, lo beian kukurio. Areta kalean zear joiazan kotxeak zurzko azpian soñu astun-gurena atereaz.

Bete ebezan txanbillak Isabel II-garrenaren plazako iturrian, eta zirrara naigabetsuetan euki oi dan barru-poz jakiñaz, igaroterakoan ostera be gelditu ziran pizkaten pilloan lo egozan gizonen aurrean.

Eldu ziran etxera, zurubiak igon muturik eta lotaratu ziran.

Senarrak uste eban, nekaturik egoalako, bertatik loak artuko ebala, eta, alan be, ezin lorik egin; adikune geiegi aixeatuak gabeko zaratarik ariñenak be artu-azoten eutsozan. Eta doi-doi entzuten eban kotxeen ots astun eta gurena, eta kalean lo egozan gizonak agiri ziran bere begien arrear, eta adurimenean aurrean, giza-familiaren zati baten itxitasuna ta ardurarik eza. Oldozkun baltzak larri-bizitu ta latz-ikaraz osoro beteten eban; alegiñak egizan ikaraz bere emaztea ez itxartzeko. Au, lo egongo zan ziur

asko, gaixoa, eguneko nekeetaz atsedean artuz. Baiña ez..., intziri egian, aieneka mee, mee...

Zer dozu? —itandu eutson.

—Umea —marmar arek, zotinka.

Zer dauka? —senarrak diñotsa, bat-batean izutua.

Beste umea..., Pepito... Ba-dakizu... ? Urte bi biar lurra emon eutsoela.

—Ene Jainko! Ene Jainko! Zergaitik ete da ain tristea gure bizia?

IKAZGIÑA

Itxartu zan Garraitz, eta urten zan txabolatik; joateko bidean jarriz, jaus-leku berberaren ertzetik joian bide-zidorrez abiatu ta mendixkaren zelai-une batera jatsi zan, emen bait ain zuzen ikaz-toi bat gertatu bear.

Eguna urratzen; erlantz eta ñirñir zuraillak jagiz joiazan Sor-aldean; urrezko ariak zirudien itxaso ubelean dizdizka eguzkiaren leen-erraiñuak odeiak zauritzean.

Ibar-gaiñez zabaltzen zan laiño naasi lod a, aizeak ikuturik izerdi-zapi dardarakoi lez.

Garraitz-ek así eban bere lana, Pilloak eginda beian egozan egur enbor lodienak batzen asi zan, eta oboan, inguru-inguru ipiñi zituan eurok, erdian utsune bat itxirik; gero, beste meiago batzuk ipiñi, zituan arein gaiñean, eta onein gaiñ, beste batzuk, eta orrela jarraitu eban bere bearra, iñoiz emaitzen etzan kantu baten asiera txistuari eragiñik, mendian jaun eta jabe ziran bakartade ta ixillaren zurrunik somatu barik.

Bitartean, gorantz joian eguzkia ta laiñoa urratzen asia zan; emen agiri zan basetxe bat bere soben erdian, bere zurbiltasunean birloratua; an, gari-solo bat dagoneko orizka, bere uiñak itxaso txiki batek lez eukazala; goialdeetan, basa-ota urreztatuak ernez joiazan aitz artetan eta mendi-gora igonez joiazan artaldeak zirudien. Ikusmena urriñera luzatuz mendi-sail itsua agiri zan, itxaso gogortu bateko olatu eskerga batzuk bai litzaz; batzutan, koroi-tzen ebezan kare-arri biurtua zirudian bitsak; beste mendi batzuk biribillak ziran, berdeak, baltzak, itxas-barruko uiñak lez.

Garraitz-ek bere lanari ekion, eta bere kantua abesten. Orixe zan bere bizimodua: egurra metatu, iraz eta basaz estali gero, eta ondoren su emon berari. Orixe zan bere bizimodua; ez eban bes-terik ezagutzen.

Urte-mordoa eroian ikazgin. Ogei eukazan, naiz-ta berak ziur jakin ez zenbat eukazanik.

Mendiaren puntarik garainean josita egoan burdiñezko kurutzte baten geriseak berak lan egian lekuan emoten ebanean, Garraitz-ek bere arloa itxi ta lanartunaren emazteak ikazgiñai jaten emoten eutsen txabolara joian jatera.

Egun aretan, besteetan lez, Garraitz jatsi zan borda ikusten zan trokarako bidetxotik beera; borda edo txabola au arri landubakoz egiña zan, ate bategaz eta leio medar bigaz.

Egun on —esan eban sartzerakoan.

—Ola, Garraitz! —erantzun eutsoen barrutik.

Mai baten ondoan jarri, ta zain egoan. Emakume batek plater bat aurreratu eutson, eta bertan utsitu eban sutatik atera-barriko lapikoak eukana. Ikazgiñak itzik ez pitzik esan bage jaten asi zan, noiztik noizera bere anka artean olgetan ebillen txakurrari artozati batzuk jaurtiaz.

Bordako emakumeak, zati baten begira egonik, esan eutson:

—Garraitz, ba-dakizu atzo zer esaten eben errian?

—Ez.

—Zure lengosiña Bizenta, zure emaztegaia, urian dagoana, ezkontzen dala.

Garraitz-ek, ardura-ezik lez begiak jaso ostean, jateari ekin eutson.

—Gauza txarragoa esan daustie niri —gaiñeratu eban beste igazgin batek.

Zer? —Garraitz-ek galde.

Anton-en semeak eta zuk soldadu urten zariela ta joan bearra daukazuela.

Garraitz-ek ez eban ezer esan; baiña arpegi zakarra zakar illunago egin zan. Maitik jagi zan, kubo bat sutegiko txingarrez bate ta lanari ekion tokira biurtu zan; bota eban sua txondorraren goitiko zulotik, eta astiro astiro urteten asi ziran ke-biurrak ikusi ebazanean, jarri egin zan beian amiltegiaren ertz-ertzean.

Ez, ez eban naigaberik ez sumiñik bere emaztegaia ezkontzen zalako; bardin eutson; senetik ateraten ebana, amorru zurbillez bere ezpiritua asetzen ebana bere menditik kendu bear ebela-

rik, pentsatzea zan, zelaiko areik, ezagutu barik, amorru biziz gorrotatzen ebazanak.

—*Zergaitik?* —iñoan bere kolkorako— iñok beartuko eban andik alde egiten? *Zergaitik* joan bear eban berak, besteak babes-tera, bera iñok babestuten ez ba'eban? Eta, goibel ta illun, asarre ta suminkor, amildegi-ertzeko arri aundiai bultz eragioen oiñakaz, goitik ikusten zituala zelan jauziz joiazan usgunean, emen jauzika ta an bilinbolaka, euren ibilli zakarrean zugatz eta abetxo asko atera ta triskatuz, amil-trokaren ondarrean ostondu arte.

Lotura lez eukezan zoi ta bedarren azala garrak etetea, Garraitz-ek bere belaki luzea artu ta lur-basaz estaltzen zituan suak egiñiko zuloak.

Eta txirrist egien orduak, beti bardin, beti erabateko; batorren gaba, eguzkia berantz joian astiro astiro odei gorri artean, eta illunabarreko aizeak kulunkatzen zituan dagoneko zugatz-buruak.

Entzuten zan artzaiñen oiuru ori, irrintzi ori, ardiak artegira eroaterakoan jaurtia, ixeka algara, luze ta ozena, dirudiana; alkarizketan sortzen ziran orrien eta aizearen artean; ur-ariak arkaitz artetan ibilliz mendiaren ixillean durundu egien organu-soiñuak eleiz-ixiltasun gurenean lez.

Eta gaba aurrera joian eta itzalak parrastaka, metaka iban-sakonetik gora. Kemordo lodiak igeska txondorraren aotik eta noizbeinka txispa moltzoak.

Garraitz-ek ikuskatzen eban eurrean eukan amiltegia, eta, zumbu, ixilkor, ikubilla erakusten eutson etsai ari, ez-ezaguna jakon arren, beragan aginpidea eukanari, eta bere gorrotoa ari erakutsi nairik, zelairaiño botaten zituan amiltegi-ertzeko arri-tzar aundiak.

KAIOLEAREN UGAZABA

Eleizan, eraspentsu belauniko, esan eban, bere eskuak baturik: «Ene Jainko! Ene Jainko! Egizu, iltekoa ba'naz, ii nadilla egunez, eguzkitan; gabak izu-ikara sartzen daust».

Oriozko argontzi baten txinpart-zaratak altaran, aren ariman artu eban agintzari baten izaera.

Urte aretan ez eutsoen itxi urira joaten bere karrera ikasteko, gazte gaixoa guztiz txarto aurkitzen zalako. Egunero bere aitari lagun egitera joan oi zan sobra, osagilleak aginduta.

Arratsalde aretan, lana amaitu ta burdia maats-aien igarrez beterik, ozt-oztan igon zan gaixoa onein gairiera, eta mando nekatuak etxerako bidea artu eban itzuliz, taka-taka, geldiro.

Azkenerantza joian eguna; zeru-ertza izten eben mendi-gaiñak eguzkiz urre koloretuak ikusten ziran, ostendua zan eguzkiz koloretuak, eta ondoren arin be arin etozan odei-itzalak, suzko zurrun-billoka.

Gerizeak argia suntsituz ekarren.

Zergaitik jakin ez arren, gazteak naspil bakana erabillen arima barruan; atsekabezko odei-tzarrak lausoten eutsen ezpiritua. Zeru kobre-kolorezkoak zear arat-onat zebiltzan odeitxo baltzizkak erasoten zituan begiakaz, eta, areik lez, berak be gurako leukean igesgin misterioz bateriko eskualde urriñekoetara, eguzkia gordetan dan lekuetara.

Eta gerizeak argia suntsitzen eban.

Gaixoaren aitak eresi bat aozkatzen eban, beti bardiña, era berekoa, ikuspegia aldatu-ala eresia be zerbait litsez aldaturik joiana, Aize bigun ariñak zugatzetatik jausi orriak erabiltzan ara ta ona, narrasean; noizik beinka, indar gogorragoz balantzaka eukazan adar baltzak be.

Eta gerizeak argia suntsitzen eban.

Urruti, mendi baten bizkar gaiñ, zugazño erkin bik euren itxitasuna eta euren ondamena abesten eben zeru gorripean; elbitzé

pillo batetik, txabola ondoan sutan, gora joian kea, zuzen eta biurri, salomondar zutabe antzo.

Gaixoak nabari zituan biotz-ikara utsal naasien kolpe-kaskatik urtetan zan, goiz-urratzean ibaietan agertzen diran alako laiñoen antzera, tristura aundi-aundi bat, illuntasun astun bat.

Eta gerizeak argia suntsitzen.

Ordu aretan, arrastia il-agiñik ikustean, otza nabari eban gazteak, bere azken-urrenaren kezka, ain zuzen.

—Ene Aita! Ene Jainko! —ots-egin eban.

Eta gerizeak argia suntsitzen, eta gerizea berunezko laiño antzera jausten zan biotz gaiñera.

Izarrak zeru garaian kiñuz egozan; bideak, arein argi meia gomatzean, koska illunaren zidar, dirdira artzen; zelai-landak baltz eta its, edatzen ziran olatu bako itsasoaren pareko, kuxumuxu ta kezkaduraz kuin-kuin.

Ene Jainko! Ene Jainko! Ez egizu aitzu zeuk egindako agintzaria.

Eta gerizeak argia suntsitzen, eta gerizea berunezko laiño lez jausten zan aren biotz gaiñera.

Sarkaldean oindiño an egoan eguzkiaren argitasun leuna.

Ene Jainko! —barrero be oiú gaixoak abots mee, eta il zan.

Zeruan zear izar bat, argizko bolada dirdaitsua gibel itxirik...

Izan zan beste aldi aintzatsu bat Berak entzuten euskuna, eta birjiña ta santuen irudiak agertzen jakuzana, lur-zulo ta itxasoko olatuetan; baiña gaur, ziburra danez, aldatz-beera ta ondamedira goazana, ez dausku onezkero jaramonik egiten.

Gizonak, euren kaiolan, intzira egin dabe, otoiztu, ainbat zarrata atera daben ezkerro, ugazaba, kaiolarean ugazaba, gortu ta sortu egiñik daukie. Orixegaitik ez dausku entzuten.

ETXAINESAK

Gaba gain jausi jaken eta mendí-lepo bateko aitz-artean, gelditu ziran; txuntxur zorrotz biren artea zan au, buru biak alkar mosukatzeko lez batzen ziran an goian, ikusteko bakar-bakarrik zeru-zati bat luzatua ta izarrez betea itxiaz.

Arrizko orma txit garai bi arein oiñetik, suge antzo kiribilka joian bidea, errekearen itzul-inguru setati aldakorrai egokituz; urrean aurkitzen zan andapara baten orma zabalak edatua noski, ur aundikoa an, sakona ta tirain bage.

Gau illunean, ibaiaren azal lau baltzak, ertzetan zugatz jagiz mugatuak, lur-azpiko leza amaibakoaren agoa ¿moten eban, zulo eskerga ondar bakoaren sarrera, eta an, barru baltzean, oso baltz-illunean, arkaitz-buru biak igaroten izten eben ur-ertzeko makal garaien eta zeruaren argitasunak dizdiz egien.

Mendiaren eregi estuan sarturik, lur-emenda baten ondoan, arriak eten barik labanka datozen lekuan, borda bat aurkitzen zan, eta ementxe geratu zan familia. Bidaztiak atsedena artzeko nunbait, Ipar aldeko probintzietan bide egaletan ikusten etxetxo orreitariko bat zan. Antxe atosten ziran jitanuak, konponarrak, eskekoak, txerpolariak eta bideak urratzen lan barik ara ta ona dabilen jente guzti ori.

Emakume bat, gizon bat eta mutiko bat ziran sendia osotzen ebenak. Zaldi zaar baten gaiñean etorren emakumea, zalditik jatsi ta, bordan sartuz, arrizko jarlekuan jezarri zan besoetan eroian umetxoari bularra emoteko.

Gizonak eta mutikoak zamariai zaina kendu ta zugatz batean berau loturik, besokada batzuk egur batu ta etxetxora eroan ebezan, eta an, zelaian, sua ixetu eben.

Otza zan gaba; arkaitz arte aretan, goitik beera zorrotz moz-tutako mutur bik egindakoan, indar aundiz putz-egian aizeak, edur-mataza meeak eta euri-tantak edaraziz.

Emakumeak umeari bularra emotsala, gizonak, arduraz, sorbaldatik kendu eutsan mantoia, busti-husti egiña, eta su ondoan ipiñi eban legortzen; taket bi zorroztu zituan gero, lurrean josi ta euren gaiñean esegi ehan mantoia, aize-joera ia-ia galazoten ebana.

Azi ta geiagotu egin zan sua; sugarrak argitu egiten ehen borda barrena, eta heronen orma karez zurizkatuetan marrazki zakar egiñak eta ídazkunak ikusten ziran, alderrai ebiltzan beste batzuk ikatzez idatzi ta eratutakoak.

Txikia zan gizona, igar-merroa, ez bigoterik ez bizarrrik eukana; here bizi guztia, zirudienez, here begi txiki, baltz eta bizi-bizietan barruraturik eukan.

Ederra emongo eban emakumeak agiri jakon nekatu-aizea uxatuz gero. Etsi-etsia begiratzen eban bere gizona, gizon a, erdi-inkaminari, erdi-barritsu, ulertu barik maite ebana.

Mutikoak bere aitaren mosu-belarriak eta bizitasuna eukazan; azkar mintzatzen ziran biak, izkera-mordoillo aitu-eziñean, eta ormetan idatzitako zerak irakurri ta txalotu egiten ebezan.

Irurak asi ziran sardinak eta ogia jaten. Gizonak, ondoren, pardel batetik kapa murriztu bat atera ta beragaz estaldu eban bere emaztea. Aita ta semea beian etzun ziran; andik laster, biak egozan lo. Negarrez asi zan umea; amak here besoetan au artu ta lokartzen asi zan, aots erostari.

Kanpoan, mutzika ziarduan aizeak, intzirika eta asarrez txistuka aitz-arte arruan.

Ibaiak herekiko edesten zitun bere kezka ta nekeak gurgur triste itsez, eta boluko andapareak, bere ur apartsuakaz, sinfoni bitxi gurenak joten.

Biamonean, goizean goizetik, emakumea umearekin, zaldi gaiñ, aita ta mutikoa barriro abiatu ziran euren bidean; eta andik urrinduz, urrinduz joiazan etxaiñesak, bidearen makur-unean ikuspegitik galtzen zirala.

NIHIL

1

Baltza da bazter-aldea, goibel, legorra; gau sukartsuak lakoxe nekea dakarren ikuspegia; egurats lodiak, ustel-bafadaz beteak, min dauan kirio batek lez dardar dagi.

Gau-itzalen artetik nabari da muna gaiñean almenaz apaindu-tako gaztelua, torretxo illunez gonburu; mako-zorrotzezko leioetatik zear argi-uiolak datoz kanpoko lubaki ta erreteneko ur loian odol- dirdaika nabarmentzen diranak.

Lautada zabalean buztin-erre ta adrillu fabrika aundiak ikusten dira, tximini eskergaz gar-kizkur; emendik datoz zarra-zarra dariela ke-moltzoak, suge baltz antzekoak, astiro astiro euren soineztunak askatuz euren kolorea zeruaren kolore illunean urtzen igo-nez doazanak.

Fabriketako lantegietan, uztai-indarrezko argiakaz diztiratuetan, gizon-andanak lan dagie izerdi-patsetan, izugarrizko arpegidunak, ikatzak baltzituak; batzuk jungudean eoten dabe metal dizditsua, iñar-jaurtika ipiñirik; beste batzuk narras daroez orgak, bidean gurutzatuz eta alkar agurtuz, baiña begiakaz bakarrik, zomorro ta suzko ireltxo ba litzaz legez.

Batzuk, palea eskuan, makiña erraldoien labak beteten dabez, oiuz, zaunkaz eta txistuz titan-kemenez gau baltza eldukeran, zemaz izor.

Gazteluko leio argiz beteen aurretik itzal zuriak doaz igaroz ametsen azkartasunaz.

Barruan, jauregian, argia dago, sorrera, bizitasuna; at, tristura, naigabea, jasapena, bizi-neke azkenik bakoa. Barruan, atsegin funditzailea, biotz-zarrazte utsa. At, gaba.

Ixeturik eukan su aundia bedar igarrakaz, eta, kukurika, kapa zarpailtsu baten baturik, beroten eban bere gorpotez zimeldua...

Agure zaar triste bat zan, larua, meetua, zarkin-irola; aren begitu otzak ez eban, antza, ikusten begiratzen ebana; aren aoak tristura mergatzez irriparre egian, eta pertsona guztiari goibeltasuna erion, aren pertsona guztiak etsia ta ausiabantza ixurtzen. Atsekabe mugabakoa irakurten zan aren arpegian; aren begiak adi egozan ol-dozkor sugaretan; gero, kea gora ta gora; aren begi-niniak ondo-ren zeru illunean josten ziran, ulertu eziñeko irrirsak eraginda.

Arpegia ostendutako bi urreratu jakozan gizonari; batak ule zuria eukon eta ibillia narras; besteak bere jas-jokeretan erakusten eban gazte kementsua zala.

—Zer zorro da ori? —itandu eban egureak—. Txakur bat bear bada?

—Bardin da. Neu nozu —erantzun eban gizon kukulduak.

ZAARRAK.—Eta zu, nor zaitut?

BATEK.—Ni naz Bat.

ZAARRAK.—EZ ete daukazu beste izenik?

BATEK.—Bakotxak derist nai dauanez; batzuk, Gose; besbe batzuk, Mixeri; baita bada bat-edo bat Zital deitzen deustana.

GAZTEAK.—Zer egiten dozu emen, ordu onetan?

BATEK.—Atsedeen artu, Baiña gogaikarri ba'naiatzu, joango naz.

ZAARRAK.—EZ; gera einke emen. Otz egiten jok. Zergaitik ez az batzen?

BATEK.—Nora?

ZAARRAK.—EURE sukaldera,

BATEK.—EZ daukat sukaldetik.

GAZTEAK.—Egik lan, eta eukiko dok.

BATEK.—Lan egin! Ikus nire besoak! Narrua ta azurra, ez daukie besterik; nire zozko-giarrak elbarri dagoz eta nire eskuak ezainduta. Ez daukat indarrik. Euki ba'neuko be, ez neuke bearrik egingo. Zetarako?

GAZTEAK.—Eure sendia janaritzeko; ala ez ete daukak?

BATEK.—EZ ba'neuka lez. Il da nire emaztea. Or dagoz nire alabak. (*Gaztelua erakutsiaz*). Lardenak ziran! Nire semeak be ortxe bizi dira. Sendoak dira eta gaztelua zaintzen dabe guk errukarri ta etsi-etsiok egindako eraso-aldietatik,

ZAARRAK.—Arpegi emoten ete? Ez dakik gaiztakeri aundia dala?

BATEK.—Ez, ez dauset aurka egiten. Orretara jarten naz.

GAZTEAK.—Etsimen beartu ori, aurka egitea bera baiño txarago dozu.

BATEz.—Alan eta guzti be, amor-egíten.

ZAARRAK.—(Ixil-une *baten ondoren*). Ez al dok Jainkoagan siñisten?

BATEK.—Siñisten dot al dosaneraíño. Leen orain baiño geiago; baiña oneik (*Gaztea izentaturik*) zerua utsik egoala ziur-azo eus-tienetik, uxatu ziran nire siñiskerak. Oain ez dot iñundik be Jan-korik sumatzen.

GAZTEAK.—Bai, egia da. Ametsak aien-azo dautzuguz. Baiña ez dautzugu orren orde zemen barririk eskiñi? Gizatasuna! Ez dautsazu siñisten Gizatasunari?

BATEz. Zeiñi? Zeureari? Edo zamari lez morroitzen zaituen giza-talde orrenari?

ZAARRAK.—Eta Aberriari? Ain doilorra izango ete az, aregan ez siñistuteko?

BATEK.—Aberria! Bai. Altarea, eta orren aurrean opaltzen dozuez zeuen semek zeuon ospe-gaitzak eurotik garbitzeko.

GAZTEAK.—Ez dautsazu federik Zientziari?

BATEz.—Federik, ez. Ikusia siñisten dot. Zienetzia ezaguera bat da. Ezaugera, ez fede. Nik opa dodana Ideal bat da.

GAZTEAK.—Bili. Bizia biziarren. Or dozu bizi-gar barria.

BATEK.—Bizi bizitzeagaitik. Gaixoa, oldozkun gaixoa benetan! Ur-tanta bat ibaiaren, leor dagoan ibaiaren askan.

GAZTEAK.—Orduan, zer nai dozu? Zeintzuk dira zure gura-riak? Gaudia baiño aundiago ete dita zure nai-miñak? Uste zen-duan zientziak ta biziak indar barria, gaztetasun barria, kemen barria ekarriko eutzuela?

BATEz.—Ez. Ez neban uste olakorik. Nik opa dodana on-ere-du bat da. Ikusten dozue. Gaztelukook jan bearra daukazue, guk emoten dautzueguz janariak; jantziak bear dozuez, guk eiotan zuontzat eun eder-aberatsak; jolasa bear dozue, guk emoten dau-tzueguz soka-dantzari ta operariak; zeuen kuntzeari gozotasuna emon bear dautsazuela-ta, or dituzue emakumak; zeuen lurraldeak

jagon bear dozuezalako, or dozuez gudariak. Eta onen ordaiña lez, guk zer eskatzen dautzuegu zuoi, buru-argioi; zuoi, autatuoi? Amets bat guri lo eragiteko, itxaropen bat guri poza ekarteko; on-eredu bat, besterik ez.

2

—Entzun eidazu —oiu Berak—. Ez izan bildur. Zu zara auke-
ratua, eta nire itza eroan bear dautsezu gizasemeei.

BATEK itandu eban:

—Nor zara? Zein da zure izena?

—Batzuentzat bardintasuna ta zuzentasuna —erantzun eban
Berak— Beste batzuentzat, triskantza ta eriotza.

BATEK.—Bildur-ikaraz jarten nozu. Zure begiak arimea erre-
ten dauste, eta jantzian odol-orbanak ikusten dodazalakoan nago.

BERAK.—Ez egiozu zeure buruari ederrik sartu. Neure opari-
gaien eta borrreruen odola dozu.

BATEK.—Zer nai dozu nitaz?

BERAK.—Erdi ta begira nagizu.

Batek lautada txit zabala ikusi eban, uriz eta erriz eta baserriz,
betea. Sats landa gaiñean dardar egien gizseme lizunak ugari, moz-
korrak, berekoiak, loi ta mixeriz atsituak.

—Nire gizonak —esan eban *Berak*— izan dira ta gaur be ba-
dira espetxeratuak, urkatuak, tiroz illak; baiña laido ta izen txar
guztiak, eta lotsari guztiak euren gaiñ jausi arren, leiñargiakoak
izango dira beti, aundiakoak, euren griñen eta zantarkerien buzta-
rripe bizi azpizapi ta gizatxar talde zital ori baiño b'otz-garbiakoak.

—Zergaitik erakusten daustazuz mixeri ta zarrada oneik?
—erantzun eban *Batek*—. Ni ez al naz naiko errukarri neure neke-
miñakaz?

—Koldar! Zeurekoi! —erantzun *Berak*—. Zure biotzak ez
etc dau tamalik zeure-zeure diran miñentzat baiño? Begira, begira,
nai ez ba'dozu be, neke-miñez arimak sustrai leorrek lez biur-azten
diran erri orreik, eta naigabea ta sukarra nainun dira nagusi. Be-
gira umeak kaleetan, amaorde dan Izadiaren pentzura bertan-bera
itxiak, emakumeak moral-eriotzara gizonen erruz narrastuak. Ez al

da itxartzen zure biotza?

BATEK.—Bai; baiña ezta maitasunez, amorruz baiño.

BEIt K.—Neutarren arteko zara, eta neure izenean lan dagikezu ta etzara aulduko. Or daukazuz zeure lagunak.

Eta *Batek* barrunbe illunak ikusi zituan, tailler mekanikuak, Osakuntza lantegiak, eta triste ta oldozkor ikusi ebazan ango gizonen begiak, eta danak lanean ixil-ixillik, eta danena etzan ezer, eta bateren lana guztian lana zan.

—Orain, zoaz —esan eutson *Berak*, fabrikak izentaturik—. Zoaz gizonak dagozan lekura, eta esaiezu ikusi dozuna.

Eta *Berak* ostendu zan. *Bat* txinpartaka egoan suari begira geratu zan. Gazteluaren leio aurretik itxura dotoreko geriza zuriak ígaroz joiazan; lautadan, gizonak lan dagie ízerdí-patsetan, izugarrizko arpegiakaz, keak baltzituak, ikatzez beteten ebezan makiña eskergaen erraiak, zarataka, zantzoka eta txistuka, titan-adorez, gau baltz zemaiz izorturikoaren aurrean.

Eta *Batek* ots-egin eban; ideiak arimetan jausi ziran, lur garbian azia lez; eta ideiak erne ta loraz jantzi ziran. Eragin ezezagun bat somatu zan lautadan, latz-ikarazko dardara gazteluan. Lautadako gizonak alkartu ziran, eta txiro ta beartsu guztiak areikaz, gaixo guztiak, emagaldu guztiak, errukarri guztiak, gizatxar, bide-lapur, kankerrenak, gizarte-sats erdeñagarriena. Eta aizkoraz, borraz, burdin-agaz, eta arri-mokor aundiakaz armaturik, uiol esker ga eratuz gaztelurantz abiatu ziran, aserre ta kementsu, bidegabekeri ta zapalketak amaitu ta indarraren indarrez errukia jarteko.

Eta giza-uiol azia gizon arrotzak zuzentzen eben, jente zurbi-llak, soera itsekoak, poeta ta matxinzaleen begi lausotuakaz. Eta ereserki astun doñutsua abesten eben danak, borontzeko kanpai baten abotsa bai litzan.

Gazteluko gudarosteak burruka egin eban lautadakoakaz, eta azpiratu egin zituan oneik, eta danak garbitu.

Oso-osoa izan egin zan triskantza. Guzti areitatik ume bat bakarrik geratu jatzun bizirik. Poeta bat zan.

Bertso dirdaitsuz kantatzen eban urrea lez ildako matxinzaleen aintza, garailleenganako gorroto santua, eta aurrez iragarten eban Jerusalem barriaren egunsentia, etorkizun urrin-ezean suzko ta odolezko odei artean dizdiz egiana.

«ANGELUS»

Amairu gizon ziran, amairu ausart arriskuan narru-laztuak, itxasoko burruketara egiñak. Eurakaz joian emakume bat, patriarena.

Itxasaldeko amairu gizonok euskaldun errazaren ikurratz berezia ekarren; buru zabala, sudur makurra, begi-ninia ilda itxasoa ikusi ta ikusiz, itxasoa bai, gizonen irunsle galanta.

Ezagutzen zituan Kantaurik; baita eurak be ezagutzen ebezan olatuak eta aizea. Traiñerua, luzea, mear, baltz margoztua, *Arantza* eritxona zan. Taket labur bat eukon, aurreko aldean tente, oial txiki bategaz...

Udazkenekoa zan arratsa; nasai aizea; olatuak, biribil, bare, mana. Oiala ozt-oztan puztuten jatzun aize leunaz, eta bigun be bigun ebillen trainerua, zidarrezko ur-ildoan itxiaz itxaso berdekaran.

Motriku-tik urten eben eta arrantzura joiazan gertatutako saarakaz, beste ontzi batzukaz alkartzera Santa Katalina egunerako. Deba aurretik igaroten ziran une aretan.

Zerua algodoi ta berunezko odeiz beterik egoan. Euren zerrendara bitarteetatik, urdin laru baten zatiak agertzen. Eguzkia urteñez etorren errai-ñirñirka odei baten zabal-UNETIK, eta aren ao gorrizkatua itxas-gaiñ islatzen zan dardarka.

Amairu gizonak, ben eta sor, autu-urri egozan; emakume zaarak, galtzerdiak egiteari eldon kaltz-orratz luzez eta eun urdiñezko arillez. Patrioiak, zuur eta men, eta goibel, txapela begietaraiño sarturik, endaitz egiten eban arraunean eskuin eskua, itsasoari begira etorren adi-adi ta izukaitz. Ur-txakur bat, loi, atzekaldeko jarlekuan kukurubio, patrioiaren aldamenean, itxasora begira erabat, gizonak baizen ardura-bako.

Beerantza joian eguzkia, sarkalderantza... Goian, gar-gorriak, berun-gorriak, auts-koloreak, tupikízko odeiak, bale tzar itzalak; beian, ur-zabaldiaren narru muskarra, koska ta ñirriir gorrizka,

odol-min ta moreakaz. Noizik bein, olatuen dardar neurtua.

Itziar-i aurrez aurkitzen zan trainerua. Lur-aldekoa zan aizea (terrala), menditar sundaz ase; itxasaldea bere armo ta arkaitzakaz antzeratzen zan aurrean.

Beingo batean, arrastia iltzear, ots-egin eben orduak Itziar-ko eleiz erlojuan, eta ondoren *Angelus* kanpai-otsak itxaoan zear zabal-azo ziran abots astitsu, guren tta jainkotiak bai litzan.

Txapela kendu eban patroiak, besteak be bardin egiñik. Emakumeak itxi eban bere lana, eta danak otoitzean alkartu ziran, ben, illun, itxaso bare ta uin biribillezkoari begira.

Gautzen asi zanean gogorrago jo eban aizeak, oiala boildu egin zan aize-boladakaz, eta trainerua itzalean murgildu zan zidarrezko ur-ildoan itxirik ur-azal baltzizkan...

Amairu gizon ziran, amairu ausart, arriskuan narru-laztuak eta itxasoko burruketara egiñak.

OSAGILLE-GABA

Ez dakit zergaitik iraun-azten dodan barruan ain josita gau aren gomutapena. Auzo erri bateko osagilleak dei egin eustan operaziño bat egiten laguntzen joan neintela esanik. Arrastiz artu neban aren deia, udazken illun goibelako arratsalde baten.

Belaiñoak astiro joiazan urtuz zugatz orriulduen adarretan leiar malkoak izten zituan euri atertu bakoan.

Auzoko etxeak, kanpoko orma baltzituakaz, aziagotuz zirudien laiño artean. Aize-bolada zakarrak eguratseko ura astintzen ebe-nean, agertzen jatzun, antzoki-zapia zabaltzean lez, erriko etxe pillaotuak; onein tximinetatik igesi joian astiro sukaldeetako kea, oro estalduz eukan inguru arrear galtzeko.

Billa etorri jatan nekazaria aurretik nebala, mendirantza artu genduan. Ni, orain bai eta gero be bai, zirkun-zarkin joian zaldi zaar baten gaiñean niñoan. Toki batzuetan bidea zatitu egiten zan zidor estuetan, bein edo beste amaitzen zirala bedar beillegiz apaindutako zelai-landetan, kukupraken kanpaitxo urrezkoz bitxituta; bide-zidorrak gora ta beera gurutzatzen ziran muiñoetan zear, oneik agertzen bait ziran olatu itzal antzera, olatuak izan ziran izan be, bear bada, lurra gazteago zala izar-laiño batek sorturiko ore izurkor izatean.

Illundu jakun, eta aurrera jarraitu genduan. Parol bat eban nire gidariak.

Ixiltasun gurena noizik bein urratzen eban bertako eresiren batek, beientzako bedarra ebaten ziarduan lugiñen batek oiukatuak. Baserrietako soben ertzezertz joian bidea. Ur geunkan erria. Urriñera ikusten zan muiño baten bizkarrean, eta bere bizi-ezau-garri etxe-pillo itzaltsuan dirdir egien bi edo iru puntu dirdaitsu ziran. Eldu gintzazan errira, eta aurrera gu; urriñago aurkitzen zan etxea, zidorraren makur-une batean. Arte zaar artean gorderik egoan, areitz lazuko oneko, eta pago besanga izugarri ta zidar-aza-

lezkoz inguraturik. Okerka lez begiratzen eban antza bideruntz, bere mixeria ezkutatu nairik edo.

Sartu nintzan baserriko suetean; atso batek umetxo bat kullunkatzen eban kuma barruan.

—Beste osagillea goian dago —esan eustan.

Igon nintzan mailladi batetik goiko egoitzera. Ateak garaute-gira emoten eban gela batetik, alamentu gozagatxak etozan, etsietsiak, eta ai, *ene!* bat, oi dan langoa, bizitasuna aldatu arren, osterata barriz esana.

Koskatu neban atea, eta osagilleak, nire lagunak, zabaldu eustan. Gelako sapatik dindilizka egozan artaburu txirikordak; ormetan, karez zuri, kromo bi ikusten ziran, bata Kristo batena eta bestea Andra Mariarena. Gizon batek, kaxa gaiñean jarrita negarrari ekion ixillik; ogean, emakumea, arpegi laru, intziri egiteeko beste indar barik, bere ama besarkatuz... Aske ta nasai sartzen zan aizea gelan leioaren zirrikituetatik, eta gabeko ixiltasunaren altzoan sendo ots-egien idien murrusak...

Nire lagunak azaldu eustan zer jazoten zan, eta an bazter baten biak itz-egin genduan zuurki ta leial, geure ezjakiña autortuz, eta gaixoa bakar-bakarrak onik ateratea pentsaturik.

Egin genduzan geure gertakuntzak. Ogean ipiñi gendun emakumea... Igesari emon eutsan bere amak bildurraren bildurrez...

Ur berotan epeldu nebazan orrikak, eta neure lagunari emoten neutsazan; onek errez egokitu eban tresnearen orri bata, eta gero bestea ez ain errez; azkenez zarratu eban tresnea. Orduan izan ziran ai-eneak, oiñaze-garraxiak, aserre-kontrakoak, agin-karraskak...; gero nire lagunak, darda-gaiñean, izarditan bekokia, kirio-indarketa egín eban, geldine bat, eta atzenez, garraxi ozena, eratzia.

Amaira zan miñaldia; baiña emakumea ama zan onezekro, eta, bere oiñazeak afiturik, itandu eustan, triste-triste:

Ilda?

Ez, ez —nik ari.

Neure eskuetan neukan aragi-mordo a bizi zan, arnasa artzen eban. Andik laster umeak intziri, garraxi zorrotz.

—*Ai, ene!* —murmur amak, bere neke-min guztiak adierazteko eukan esakun aregaz bere zorion guztiak be baturik.

Luzaroan egonda gero, osagilleok urten gintzazan etxetik. Atertu zan euria; ezo ta epel samar gaba; odei baltz pillo artetik *agiri* jatzun illargia urreko mendia bere izpi beillegiakaz argi jarten ebala. Zeruan zear goiburu ta odai-saka illunak gurutzatzen ziran, eta aizeak zugatzak astintzean zankatzenak jaten zituan itxasoak urrundik entzunda legez.

Nire laguna *ta* nik erriko bizitza mintza-gai; eta Madrid, argontzi bat antzo agertzen jakuna, geure naigabeak eta geure pozak. Bidearen ukondo edo biur-unera eldu giñanean, bostekoa emon geuntson alkarri.

—Agur! —esan eustan berak.

—Agur! —esan neutson nik, eta eskua estutu geuntson alkarri, adiskide min bik batak besteaganako dauan txera biziz. Eta aldendu giñan.

EZEZAGUNA

Egokitu ziran andra-gizonak bagoian; gizonak, txango-zorroak bakotxa bere lekuan jarrita gero, auts-babes urdin-nabarra ipiñi, txanotxo bat buruan sartu, zigarroa ixetu ta axolabage gorra begira geratu zan; emaztea leiora urreratu zan udazkeneko illunkera ikuskatu nairik.

Bagoitik ikusten zan itxasaldeko erritxoa, bere etxe baltziz-kakaz, batuta itxaoko aizez babestu eitezan. Erritik asagotuz joian eguzkia apurka apurka; dirdir egian une aretan metal-pindardurakaz etxeetako leio-leiarretan, ezotasunak baltz ipiñitako teillatuetaraiño eldu ta eleiz-torre illunetik igoten zan illuntze arrean bere lits gorritzak garaille nabari agertzen zan kanpantorreko burdiñezko gurutzea bakar-bakarrik argitzera iritxi arte.

—Ez dogu, ba, gitxi itxaron bear —esan eban gizonak, madrildarren zizi-pazo miko, ke-aokada bat gora botarik.

Emaztea laster be laster biurtu zan aregana begiratzeko, adiadi egon jakon pizkaten, bere esku zuriak eres tunez beterik arro erakusten ebazan senarrari, eta, ari sorbalda emonaz, barriro urreratu zan leiatillara.

Geltokito kanpaitxoak urtetako ezaugarria jo eban; eta astiro astiro abiatu zan bultzia; kateak eta burdiñak euren sortasuna iztean oi daben arnasa artze langoa; zarata izugarritz igaro ziran txirrintolak, klanka ta zirti-zarka zakarraz, geltokitik urteieran jarritako bira-zafla edo plaketan zear; txistu jo eban makiñeak kementsu ta basati; gero, igiera zerbait arindurik, asi zan ibilten, begi-aurrean igarorik basetxeak, solo ta landak, zementu-fabrikak, errotak, eta geroago, zoro antzeko abiadan, mendiak eta zugatzak, eta tren-jagoleen etxetxoak, eta bide-nagusi bakarrak, eta erritxo illunak illuntzeko argitasun bada-ezpadakoan ozt-oztan ikusten ziranak.

Eta, gaba jausi-alan, aldatuz joian ikuspegia be; bultzia noi-

zik beinka gelditzen zan geltoki banaketan, gari-larrañetan, gal-tzu-ondo pilloak erreten egozanetan.

Bagoi barruan, bakarrik, nasai joiazan senar-emazteak; an etzan beste bidaztirik sartu; gizona, begiak itxirik, lo. Emazteak be beste ainbeste egin naiko eban, baiña aren buru-muiñak setati ziarduan gogaikarri jakozan gogorakizun moltzotu ta lorik egiten ez izten.

Eta zelako gogorakizunak! Danak otzak, zoragarritasun ba-koak.

Itxasaldeko erri aretan emondako iru illabeteetatik, aragi ba-ko irud'ak baiño ez jakozan gelditzen begi-ninian, gomuta zoli go-zo bat bere ez biotzean.

Udako arrats-bera baten ikusten eban baserria, ibai zabalaren ondoan; onen urak baldan ta nagi joiazan artotza berdeetan barrera; ikusten eban ondartzea, ondartza bakartia, uin kankin eta indar-bagez loxintzen eban itxaso berdatsari aurrez aurre; dagonilleko argi-zirrintak ekazan gogora, zerua odeitsu ta gorri, kresal azala orobat gorri-miñez kuin-kuin; gogoratzen ebazan mendi goiak orri oriz apain, eta ikusten zituan baita bere irudimenean goiz-urratze alaiak, ortzi oztñezko goizak, paduratik gora joiazan laiñoak eguratsean urtuz, torre lerdendun ertiak, ibaietan islatu-riko zubiak, txabolak, itxitako etxeak, galdutako illerriak mendi-altzoetan.

Eta aren buru-muiñean tanboril-soiñuak ots; nekazarien aots tristeak abelgorriai atzetik akuluka; idien orro aaltsuak; burdien kirrinka etenbagea, eta kanpaien jo triste geldia *Angelus* deika.

Eta, bere gomutakaz naste, amets-erreiñutik etozan beste irudi batzuk, umezaroko galda-dirdirak, ezagun-ezaren argidurak, amets urtu ta gar illak espirituan itxitako itzalak.

Une aretan izarrak euren dizdiz laruakaz zelaia argitzen eben lez, orrelaxe bere gomutak be dirdir egien bere bizitzan, bere begi-ninia dardaratu eben irudi otzak, arima lorratzik laga barik.

Gamutaki bat soilki jasten zan bere buru-muiñetik samur be samur dardar eragiten eutson biotzera, Ibaia alde bate tik bestera, ontzitxo baten, bakarrik zearkatu eban illunabar a zan. Mariñel gazte bik luze-sendoak, euskaldunaren begi eroz, arraunai eragin-ka. Neurrian eroateko, kantu bakan bat abesten eben beti bat sa-

mar, baiña samur-samurra. Berak, entzutean, errazoi bako itxitanak biotza zapalduta, ozenago abestu ta itxas zabalarantza egiteko eskatu eutsen.

Biak erraun egin eben lurretik alde egiteko, eta euren zoztziokak abestu eutsoezan, eresi leunak emakume aren biotz-garraztasuna uxatzen ebenak illuntze dizditsuan. Ura, il-egiñik egoan eguzkiz gorri, dardaratu egiten zan, odol-dirdirakaz taupaka, eresoiñu kokatuak jausten ziralarik itxas bare uin biribildunaren ixilaltzoan.

Eta, gomuta au bere bizitzako zirrara beti bardin batzuekaz bardiñean ezartean, zain eukan etorkizun lauan pentsatu ta oldoz egitean, espirituan sartu jakon bere bizitzearen beti-bardin izate-tik iges egiteko gurari bizia, areitako edozein geltokitan trenetik jatsi ta ezezagunaren billa joateko.

Jesus baten artu eban erabagia, eta trena noiz geratu zain egoan. Gautik jalgia bai litzan, geldoki bat eukan begien mende eta aren ondoan geratu zan bultzia; or espaloia, parol batek argitua.

Bidaztinoak beeratu eban leiatillaren leiarra, eta atera eban besoa atetxoa edegiteko.

Berau zabaldu ta burua kanporantz ateratean, otzikara somatu eban soinburu guztia dardarazo eutsona. An egoan itzala, zelatan ebilkion itzala. Gelditu zan. Eta, zarrastan, aldaketa barik, gabeko aireak izanera eroan eban, eta amesak, gomutak, gurariak beingoan ostendu ziran.

Entzun zan ikurra, eta bultzia barrero be ariñeketa zoroa landa illunean zear, itzal artetik; eta suburdiaren txingar aundiak leiatillen aurretik igaro ziran eguratsean eutsitako betsein zirzar-teko iduri.

ORDUARIA

Bere egun atsekabetsu guztiak, eta bere zeregiñak, kezkek, eta gabaz bere biotzak ez dau atsedenk (Izlaría).

Ba-dira irudimenaren aginpeetan zugatzak intziri eta leiarrezko ibaiak loraz bitxituriko ur-ertz artean itxaso urdin zabalean galtzera kantari doazanak. Lurralde oneitatik urrun, guztiz urrun euretatik, eskualde izugarri ta zadortsu bat aurkitzen da, zugatzak euren iratxozko beso aragi bakoak gora jaso ta ixillak eta illunpeak arima gaiñ etsipen illunaren eta eriotz-erraiñu bete-beteak jaurtzen dabezan lekuan.

Eta itzalezko eskualde orren zoribako tokirik baltzenean, gaztelu bat dago, gaztelu baltz aundi bat, almenaz jantzitako torreakaz, bere uztai zorrotzezko egurasleku jadanik ondatuaz eta ur-il osasun kaltezkos beteriko inguru erretenaz.

Nik ezagutzen dot, ezagutzen dot lurralde izugarri ori. Gau batean, neure tristuraz ta alkoolez ordi, bidean zear niñoian zabuzabuka itxas-ontzi zaar antzera itxas-kantu zaar baten noten neurrira.

Nire kantua jatzun doiñu txikikoa, aintxiñako erri basati baten kantua, itsa egiaz lutertar eresi antzo, garraztasun eskerga illunaren kantua gozo-geldia, meniko ta basarteko garraztasunez kutsutua. Eta gabaz zan. Bat-batean, bildur-ikarrak artu ninduan gogor. Gazteluaren ondoan aurkitu nintzan, eta areto uts batean sartu; mirotz bat, ego bata ausirik, lurrean ebillen narras.

Leiotik ikusten zan illargia, bere iratxo argiaz inguru idor bi argitzen ebala; birako erretenetako urak dardar egian arte-ga ta jario loi ta kutsuduraz. Goian, ortzian, Artur dirdaitsuak niriñir egian eta dirdir misterioz eta ixilpekoz beteriko begi-kiñu

eztitsuz. Urriñean, su aundi baten garrak aizetan irabioz astinduak dira.

Gizategi zabalean, zintzilikai, errezel eta apainduraz betean, neure oge ira legorrezkoa eratu neban. Bertan-beera itxita egoan aretoa; beeko su txopita batek, egur-pillo ixiotuz, argitzen eban berau. Aretoko orma baten ondoan erloju erraldoia agiri zan, ilkuxa lez jagia ta medarra, kutxa baltzezko orduaria, gau ixiltsuetan bere metal tiktak zolia zemai-adorez jaurtzen ebana.

A! Zoriontsu naz —ber-esaten neban neure kolkorako—. Gaur-gero ez dot entzuten gizon eta emakumeen abots gogaikarria, egundo be ez, egundo be ez!

Eta orduari lirin-murrizak neurtzen zituan, aierga, griña barik, ordu goibelak bere metalezko tiktak ozenez.

Menderatua eukan bizia; aurkitua atsedena. Gozo ta nare egoan nire espiritua gabaren izu-ikaraz, egun-sentiko argitasun zuriakaz baiño obeto.

O! Trankil nengoan, ez eban ezek be kezkatzen nire eztitasuna, nire baratza; an ondo igaro neinkean neure bizia bakar-bakarrik, beti bakarrik, neure ideia ta oldozkunen bazka mergatza ixillik ausnartuz, itxarokizun zoro barik, amets txolin barik, espiritua, udagoieneko alderdi eder pareko, jabaltasun urdiñez gainezka.

Eta orduari lirin-murrizak neurtzen zituan, aierga ta griña barik, ordu goibelak bere metalezko tiktak ozenaz.

Gau ixilletan eres-nota negarti batek, txantxiku baten kantuak laguntzen ninduan.

—**I** be —esan oi neutson gau-kantariari— bakartadean bizi az. Eure gordeleku barnean ez daukat nok erantzunik, eure biotzaren pilpiren oiartzuna ezik.

Eta orduari lirin-murrizak neurtzen zituan, aierga ta griña barik, ordu goibelak bere metalezko tiktak ozenaz.

Gau batean, gau ixil batean, zerbaiten izu bakana sentidu neban neure arima gain iraalka; zerbait guztiz bakana zanaren pentsamentuz astindu itxasoan amets itzala lez zana. Urreratu nintzan leiora. An ortzi baltzean izarrak dardar ta pilpil egien, euren bizi-izate bakarraren neurribagean; oiubat bere ez, bizi-dardar bat bere ez lur baltzean.

Eta orduari lirin-murritzak neurtzen zituan, aierga ta griña barik, ordu goibelak bere metalezko tiktak ozenaz.

Adi-adi egon nintzan arren, etzan ezer entzuten. Ixiltasuna, ixiltasuna nun-naitik! Izuak artuta, aldidun, gauez intziri egian zugatzai dei egin neutsen intzirika legundu egistela; osto artean murmur egian aizea otoiztu neban eta bideko orri igarretan ots egian euria; eta izakiai ta gizasemeai arren bai arren eskatu neutsen ez nenguela itxi, eta illargiari eskatu neutson urra egiala bere zur-baltzezko jantzi arrea eta igurtzi loisindu egizala fine begi gairioak, eriotz naigabez lauso neukazanak, bere zidarrezko begirakune garbiaz.

Eta zugatzak, eta illargia, eta euria, eta aizea sor-gor.

Eta orduari lirin-murritzak neurtzen zituan, aierga ta griña barik, ordu goibelak bere metalezko tiktak ozenaz.

KONTZIENTZI URRATUAK

Teatrutik urten nintzan, txutxu eragiña, naigabetua, buru-muiña pentsamentu baltzez beterik nebala. Iguin jatazan ainbeste likiskeri eta ainbeste pizzikeri. Kalean nengoan. Jai-eguneko illunkera. Berun zerua, euria zan; espaloietan lupetz loa lez, eraturz joiazan nire espirituan pentsamentu naasiak, ipur-loka baltzak, zerua ta gaba baizen baltzak.

Itxirik egozan dendak; Eguzki-Aterantz etozan tranbiak, jentez gaiñezkatuak; igandetako jentetza gogaikarria nainun, aste osoan urteteko erea dogunoi iguin dakarskuna. Orretantxe be gizona bere-berekoi dogu: gogoan jo ta atzera eragin oi dausku denda ta bildegietako jenteearen poztasun zaratatsuak.

Arrabots eta zalapartatik igeska, kale medar illunetan sartu nintzan, zer gerta ibilliz. Ezin neban erauzi irudimenetik teatruak itxi eustan gomuta; antzez-laneko esaera lizun basatiak oiartzun egisten belarrian, irri-karkara biurturik entzule ta ikuste eltze-kirten arein buru-ore arrotik igarotean, eta begien aurrean tinko jarten jatan antzezlariatatik bat, betarte presteuzdun jostari edo pailaso bat adaki lango gorputz tinkoagaz, kiñu ta parista ta ementzio egiñez eta didar burrubariak emonez. Eta, alan be, esan eustan gizon prestua zala, gurasoa, akats bage ta duiña; bere emazteak, etxeko andreak, antzeztokian bere bernak erakutsiz irabazi oi eban bizia, berak paristak egizan bitartean. Biak batzen eben dirua Errukizko Mendian gordeten eben. Au, ez dakit zergaitik, bitxia begitanduten jatan.

Nun zer ikusi aurrera niñoian, il-bitxizko denda bateko erakustokian begiak jakin-miñez jarri nebazanean. Mutikotik nabari oi dot onako dendaenganako nazka, eta, alan be, nire ikus-griña biztu daroe. Salerosketa bitxi bakana da eriotzaren apaingaiakaz, egiten dana ezta? Garrantzizkoa da, bai, il-tresnazko denda bat; atrxibo bat dirudi, gauza negargarri ta aldi berean zakarroz bete-

tako museu bat. Barruan ikusten dira il-kutxak mota ta neurri guztietakoak, koloni-janarizko dendetan lez konserba-latak; gero erakustokian umeentzako koroi zuriak agiri dira, koroi baltzak gizinentzako, aingerutxoak ekademi jarreran, *Souvenir* diñoan idazkun bati tristeki begira, Espaiña-n bada aingeruak eurak be frantsetetik itzulita dagoz, eta beste gauza asko guztiz interegarriak: atxurizko gurutzak, azabatxezko apaingarriak, eta, gaiñera, parol bat ate gaiñean.

Erakus-apala ikusi ondoren, barruan josi nituan begiak. Denda erdian, mai ondoan, andra gazte bat egoan josten; an ebiltzan umetxo bi be ariñeketan, txitoka, ilkutxa artean gorderik. Zírri-parraren bat sortu eben antza bien artean, txikiena negarrez emakumeagana urreratu zan-eta. Onek, orratza ta oiala mai gaiñean itxirik, besoetan artu eban umea. Ikusi al izan neban aren arpegia, arpegi baltzerana, kemen eta ondazunez asea. «Zelan ez ete da izango emakume onen antzekoa komertzio gogaikarri au?», itandu neutson neure buruari, eta, erantzunik lortu eziñez neurekiko, aurrera joan nintzan.

Kaleko espoloia estua bait zan, besoz beso etorren gazte bikote bati lekua itxi bear izan neutson. Gurutzatzean, biak ezagutu nebazan. Ezkondu zoriontsu bi ziran; etenbako ezti-bitsetan bizi ziran; maillegu edo prestamen etxe bat eukien diru naikoa emoten eutsoena, eta, goiza senarrak bere goraberetan eta emazteak etxea atontzen emon ondoren, arratsaldean besoz beso, maitamin-durik oso, egurastera joan oi ziran, irurogei erreal balio ebezan izara batzuren baituragaitik erreal bi emon eutsoezan igeltseruaren emazteagaz gogoratu barik: «Eta oneik ete daukie barne-kezkarik —pentsatu neban—. Ziur asko ez».

Afaritan, akeit-etxera joatea otu jatan. Triste egoan aurki etxea. Neugaz batera maian jarten zan eliz-gizon bat urreratu ta akeíta artzen asi zan neure aldamenean. Emakume adiskide batzuen etxean jokutzen ebezan iru-joko partidak aitatzen asi jatan.

Ni adi-galdu ta gogo barriatu nengoala ikusirik, eliz-gizona beste mai bateko beste bategaz berbaz asi zan. Neure aurrez aurre jarri-barri ziran eguneroko arpidea euken bi; sugalindara bat zan ama, lodi ta astuna; alabea, ule-gorri bat, begi urdiñakaz eta arpegiño betazpitsu ta milingaz. Amak erakuts-azten eban alabea sal-

du naiean, eta, ori ta guzti be, maite ebala ikusten zan. Ziur asko bere alabea il ba'litz, negar egingo eukean. Baiña ez ete eukan zeozer kontzientzi lez emakume orrek?

Neure oldozgai ez-atsegiña aitzu nairik, *Ilustración bat* edegi neban, eta leenengo nire begiakaz topo-egin ebana jeneralaren argazkia izan zan.

A! jenerala, gogoratzen naz zelan igaro zan bere illobakaz, eta bat-batean jarri jatan irudimenan urrengo galdera: Biotz-zimikorik ete dauko gizon onek kontzientzian urriñeko lurraldeetara ilteko bialdu ditun guda-mutillakaitik? Argazkian erakutsi daroaskun irribarreak diñoskunez, ez eutson kauskik egiten ez asko ez gitxi.

—Baiña emen ez da iñortxu be damututen ezerगतik— nik murmur, suminduta.

—Arranoa! —esan eban eliz-gizonak, ni geldi-azten ninduela—. Arranoa! Gaur Garizumako ostirala, eta akeita esneaz artu dot. Au bai egitekoa!

Tira, ba egoan bat zeozergaitik damu zana.

Oldozkor urten nintzan kafetxetik. Il-dendako antzezlaria, prestatzaillea, jenerala, eliz-gizona, danak iruditzen jatazan kontziantzirik bageak, eta, onez gaiñera, iruzur egin daroan lege-gizona, ostu daroan saleroslea, gauzak andeatu oi dauazan industri-gizona, saltzen dan izparkaria... eta, alan be, pentsatu neban gero, ostu, ustiatu, atzipetu ta emakumea galdu dagianak be bere zeñezko onak daukaz, bere buru-ukapen uneak, eta bere errukizko zarrada bidezkoak. Dana dala, erdi-aingeru edo erdi-abere, gizona pizti arrarua dozu.

PILTZAR-BATZAILLEA

Nik uste dot uri aundietan, Jainkoa iñun ba'dago, zorueta dagoala. Lurralde idorrek itxi ta trumilka errian sartze orrek zaturik nauka. Ezer bez niretzat esi arteko zirrikietatik zoru baten barrua, azpil, kankarro ausi, arrolio lata, kotxe gurrillez beterikoa ikustea baiño gora aundikoagorik.

«Nundik ete dator guzti au?», galde egin oi dautsot neure buruari, eta gurako neuke lapiko apurtuak edesteko ba'leuts bere istoria Alkorkon-dik etorri zanetik asita, bardin ormeari dautsola dagoan itsuski zarrak be, eta murko puskatuak orobat curen ezkutuak autor-azo dagiedazala.

Baiña zoruak udabarri aldera lillurazten nabe geienbat; orduan nai izaten dot eguzkitan etzutea kapelea begien gain dodala, eta orduak eta orduak emon zero urdiñera begira, eta erleak eta mandeuliak ikusi iraulka aizeak zurmur gorrean belarrietan burrunburrun dagistalarik.

Neure etxe ondoan dago zoru bat zoragarria; alanbearrez igaroko ba'z¹ñie andik goizeko lauretatik bostetara, atsotxo zaar bat eta neskato ba_t ikusiko dozuez, barrutik olezko ate hin saka egin eta ezkutuka kalera urteten.

Atsoa txikia da, tximurrez betea, agin barik; zaku utsa daroa lepoan eta kakoa eskuan. Argala da neskatoa, zirtzil era bakoa, natuz beterik betartea ta gorputza zarpaillez; baiña marruiz, matarraska ta guzti be, gaztetasun gordiña dariola.

Joan eta et-tza bikoiztu dabenean urten ziran lekuaren billa ba'zabiltze, errez ikusiko dozue untzeak kendutako olak errez emor dagiela eskuaren indarrari, eta izten daben zulutik zorura igaro daikela.

Zoruaren azpia ez da laua; etxe bik egiten dauan ertzeanza konune galanta dauko... Sartzean lenengo ikusten da na bide bat da, legar, kimiza ta arri-moltzo artean, trokarantza doana.

Barren onetan etxe bat dago, taket eta paluz egiñiko aterpeari onela deitzea bidezko ba'jaku; aterpeak metalezko atea dauko, dentetako erakustokiak izteko. erabilten direnetaikoa, apurtua, ugerrak jana, eta arrikoskorraz eutsi-azoa.

Etxeñoak ez dauko gela bat besterik.

Gela onetan, leio alboan, esku-labetxo bat, eta auts zuri gaiñ, ikatz batzuk, buztinëzko lapiko bat glu-glu leunez irakin-azten dauana.

Noiztik noizera lurrun-sarrastada batek estalkia lotsor jaso daroa ta gelan jan-naizuko usain biguna izten.

Neuk diñotzuet: gozoa da, buztinëzko lapikoak irakitean izten dauan usaiña.

Lengo batean, goizeko bostetan, zelatan egon nintzan atsoaren eta neskatoaren urteiera ikusteko.

Urten eben. Kale egalean gelditu zan atsoa, loi ta zarama pilloan jorratuz paper-txatal eta trapu zaar batzuk batu ta zakuan sartu zituan, eta berak eta neskatoak bideari ekin eutsoen barriro be.

Txitean potean gelditzen ziran, saskara pilloak jorratu ta astindurik. Trapu-zar batzaillearena bai kirol bitxia! E?

Zikin-pillo bakotxa ikusi-mikusi bat dozu. Zenbat gauza ez ete dagoz aren barruan! , maitasunezko kartak, salerosketarien letrak, emekume ederren barre-zantzoak, iraultzailleen egunkariak, izparringi barriak, idazlan izukorrak, ondakiñak batez be giza-ergelkeriarenak.

Inguruko kale guztietatik ibilli ziran atsoa ta neskatoa, paper, oski zaar, zapi-txatal billa. Gero enparantza Nagusia zearkatu eben, Toledo kaletik triste ta illun egoanetik, jarraituz.

Rastro-ko akeit-etxean sartu ziran, toki nabaria noski, Madrid' eko txori galdu gurenenak onexek bait zituan aterpetzen.

Mairik geienak artuta egozan ordu aretan, beso-gaiñ burua lo egozan eskekoak artuta. Ango giroa, tabako-kez eta orio errez bete, ats-eziña zenduan.

Atsoak eta neskatoak artu eben, bakotzak amar zentimogaitik, kafea paitarraz. Eta urten ziran kafetxetik. Neguko egunsentia etorren aurrera margo ubelez ortzian.

Bidea beerantza joian Narru-ontzailleen Erriberako etxe-erres-

kada biren artetik; gero gauza baltzen meta naasi bat ikusten zan, Rastro ta Amerikak etxe-oskolak egiña; urrutiago kanpo-aldeko lerro illunak kulunka egian, neguko goiz baten berun ortzipean.

Jatsi ziran aldapan beera, eta zearkatu eben Erronda. An, arat-onat ebiltzan saltzailleakaz mintzatu zan atsoa, eztabaidaka, esaera nabarmenakaz, kutsu gitxi-askoko apainduraz zanpaturik, eta bere tratu ta gorabarak amaitu ebazanean, Madrid'erantza itzuli jakuzan.

Zazpirak ziran. Urreko kaleak igarogaitz egozan; langilleak gurutzatzen ziran, neskameak, akeit-etxeetako mutillak, banatzailleak...

Atsoak ogi aundia bat erosi eban Erronda kalean, erdi-merke erosi be; neskatoarí emon eutsan, eta onek otzaran gorde eban; biak ondoren euren kalerantz zuzendu ziran...

Esiko olai saka egin eta bat-batean sartu ziran zoruan; zoriontsu bear bada, pozik bear bada supizgu txiro errukarri bat eukelako, eta lapiko bat labatxoan glu-glu leunka irakiten, gelan jan-naizuko lurruna izten ebana.

LEZEA

Latza zan tokia, laztasun zorrotzekoa. Urriñeko zeru-ertzean, eguzkiaren azkenizpiakaz naste, odei gorriak sukarturiko ortzipean, mendi-besangen maillo katea zabal-azten zan, urdin-berunezko arresi bai litzan, gaiñean arri-mokor eskergez koroitua ta beerago edur-oska ta ildo zuriz ñabar bertxindua.

Artzaiñak eta beronen lobak mendian bazkatzen eben euren auntz-taldea, Pedriza gaiñeko tontorrean, aitz pikortsuzko erraldoi jagola lez jalgiten dan Belatxingaren pikotxean.

Artzaiñak oial orizko buru-jake edo kapusaia eroian lepo gaiñean, belaunetan narruzko zagon edo anka-zorroak, buruan auntz-narruzko sankapelua, eta esku baltzizkan, arranoaren erpea iduri, basa-elorrizko makilla zuria eukan. Gizaseme zakar basatia zan; beromen metraillak, arte zaar baten azala lez tximurtuak, urtenaz joian eta egun batzuetean kendu bako bizarrez erdizka estalduta egozan, bizar zurizka ta loiz estalduta ain zuzen.

Artzain-mutilla, ule-gorri ta oreiztoa, or-ara ebillen ardi-txakurraz; abailari burrunba ateraten eutson bere buru-gaiñ inguru zorrazleak eragiten eutsozala, eta baita artzain eta beizaiñen urriñeko deadarrai erantzun be alai, irrintzi antzeko oiuzenez, nota argi, luze, zidarrezko irri-zantzoz amaiturik, mendi-oiartzunak bein eta barriro errepikatua nunbait.

Artzaiña ta beronen lobeak ikusten ebezan mendi-kukutzetik zugatz bageko alderdiak eta muiñoak, landa latzin eta lantzarrak, orban baltz borobillakaz, giñarra, lar, ispillu, axerda ta loran egozan azaiak gorri-morez jantzita...

Mendiaren troka barrenean, ostoz igarrez beteriko amildegi baten erreka-zuloan, orri berde baltzizkako zugazñoak azten ziran, eta giñarra moltzoak, zurbaltz, txapar eta abetxoak.

Illuntzea ur zan, aizea ozkirri; eguzkia mendi-gaillur ostean ezkutatz; sugetzarrak eta dragoiak uger egien, gorri, zeruko urdin

nakar itxasoan zear, eta, eguzkia baztertzean, odeiak zuriz jantzi ta euren koloreak galtzen, eta sugarrastak eta dragoiak muskertzar eskerga eta itxas-abre erraldoi biurtzen ziran. Mendiak kizkurtu egiten ziran begien aurrean, eta ibarrak eta trokak luzeagotuz joiazala zirudien, aundiagotuz iñularreko arrats-gorrian.

Urrun entzuten zan mendi artetik igaroz joiazan beien arranen otsa, eta txakurren zaunkadak, eta aizearen urubia; eta zurmur guztiok landako murmurio berezi-eziñakaz alkaturik, uspel zurbil atako muga-ezean ots-egien misterioz bateriko bakartade ta ixil-arraietatik jalgitako deadarrak legez.

—Biur gaitez, mutiko —esan eban artzaiñak—. Eguzkia beerantza doa.

Artzain-mutilla andik ona ibilli zan ariñeketan, bere besoak dardaratuz jaso eban makillea, bea joaz oivak egin ebazan, eta arriak jaurti, auntz guztiak mendiaren bazter batean alkartu arte. Zarrak ipiñi zituan illeran; aker bat, arran aundia saman eukana, aurreratu zan gidari lez, eta laura jasten asi zan taldea. Auntz-andanak bedar-gaiñ nabarmentzerakoan, itxaski jasoa, bal-tizka, zirudian itxaso muskerra igaroten. Bardintsu ots egian, neurritz, dunba-ezkilen txilin-otsak.

Ikusi dok, mutil, Erremedio izekoaren akerra taldean doan ala ez? —itandu eban artzaiñak.

—Ikusi neban, aitita —jardetsi mutikoak.

Kontuz ibilli bear da abere orregaz, txerrenak eroan naguela ba pizti orri gibelmiñik ez ba'dautsot.

Eta ori, zergaitik, aitita?

Ez al dakik Erremedio izekoak sorgin-fama daukana inguru guztian?

Eta egia ete da ori, aitita?

Olan esan eban sakristauak emen egon zoanean. Gaiñera begizkoa egiten dautsela, diñoe, pertsonai eta abereai eta edariak emon oi dauzala. Airean zear ikusi ei eben egazka sugetzar artean.

Auntzaiñak auzoan atsoaz esaten zana edesten jarraitu eban, eta era orretan bere lobeaz autuan, biak jatsi ziran mendian beera, oin-bidetik zidorrera, zidorretik bidera, esparru bateko ate ondoan gelditu ziran arte. Emendik ikusten zan, beian, araneko sakon-une zabala, urrunago ibaiaren zidar-zinteak dizdiz egian,

onen ondoan igarten zan laño artean gorderik egoan auzotegia; eta andik urbil, mendi-egalean, erriko jaunen gaztelu zaarraren ausiarrak gaillentzen ziran.

—Edegi egik erromarea, mutil —oiu auntsaiñak mutillari.

Onek baztertu ebazan erromarako langak, eta auntsak ibilten asi ziran eskortako atetik zear alkar nekaraziz maluskatzen zirala. Izutu zan onetan abereetatik bat, eta, bidetik alde egiñik, mendi-beera asi zan arin be arin ibilten.

Oa, oa, mutil bere atzetik —oiu zaarrak, eta gero xaxatu eban txakurra, iges joian piztia geldi-azo egian.

Abil, Otso, abil aren billa.

Arditxakurrak jau-jau sor bat bota eban, eta geziaren pareko abiatu.

Abil! Arrapa egik! —barriro be oiu aunts-zaiñak—. Or-or!

Akerra arriz arri joian jauzika, gomazko pelota legez; noizein bein atzera biurtzen eban burua, jagi ta arro, bere ule baltz eta deabruzko okotz-bizar luzeaz. Sasitzan eta giñarrartean gordeten zan, saltoka ta ikotika.

Aren atzetik joian txakurra, nekez baiña arengana eltzen; mutilla biek atzemon nairik. Ba-ekian laster amaituko zala etzetik ibiltea, mendiaren alderdi zakarra ba andik bertan bukatzen zan aldatzean egoan lur-sail agirian. Ara eldukeran, mutillak ikusi eban akerra, txakurak erasota, ezin geiagoan ebillela; ondoren arkaitz-arte baten sartu ta antxe ostenduten zala. Leza bat egoan arkaitzen ondoan, batzuk iñoenez, guztiz sakona, eta, piztia an jausi zala uste izanik, mutilla urreratu zan leza barrura begiratzeko. Onen ertz-ebagi baten lauan, sasi-muluz estalian, egoan akerra.

Mutillak adar batetik oratu nai izan eutsan, zulo ertzean buruz-bera etzunik; baiña ori eziña zala ikusiaz, aunts-zaiña egoan tokira biurturik, edestu eutsan jazoten zana.

—Pizti madarikatua! —zarrak oiu—. Itzul gaitezcan orain, mutil. Leenen eskortan sartuko dogu aunts-taldea.

Bien artean eskortaratu zituezan auntsak, eta, au egindakoa, aunts-zaiña ta beronen lobebeerantza jatsi ziran, leza— bazterrean urreratuz. Zutik aurkitzen zan akerra txapar gaiñean; zaunka egitson txakurrak kanpotik, atertu barik.

Kontuz i, mutil. Jausi ez zaitezcan, bildur nok.

—Ez izan ardurarik, aitita.

Auntz-zain gazteak baztertu zituan sasiak artzuloaren aotik, ertzean jarri ta bira osoa emon eban pultsoan, eskuekaz utsunearen egalean bertan eutsi ta egoteraño, eta oiñakaz berberaren orinan beera txirist egin eban, leza-sarrerako oskadura lakatz baten eurak bermatu arte. Aberearen adarrari saka egin eutson esku bategaz, tira egiñik. Piztiak, barriz, atzemona ikusiaz bere burua, astiñaldi izugarria emon eban atzerantza, bere oiñak galtzerañokoa; jausi zan, eta jauskeran mutilla be beragaz narrastu eban leza barrene-rairio. Etzan entzun adi ez didarrik, ez aienik, ez otsik ariñerik be.

Zaarra koba-zuloaren aora urreratu zan.

—Mutil, mutil! —oiu egin eban, erre-errean.

Ezer bez, etzan ezer entzuten.

—Gazte, gazte!

Aizearen murmur artean, entzuten zala zirudian, zulo barre-netik gorantz etorren bee miriezkoa.

Zoratua, azpikoz-goiti, une batzutan auntz-zaiña erabagi bat artu eziñik egon zan; gero beste auntz-zanai laguntza eskatzea otu jakon, eta ariñak arin asi zan gaztelurantza.

Au urrean egoala iruditu arren, landa ta baso zear ibillita be, ordu erdiko bidean aurkitzen zan; mako-zorrotzeko gaztelu itxia zan, mendi baten lurmenean eregia; illun nastuak gordeten eban bere triskantza ta suntsidura, eta arrats-beera giroan biziro zutitu ta ametsezko neurriak artzen ebazala emoten.

Asnaz-estuka joian zaarra. Gaba beerantza etorren; izarrez beteten ortzia; artizar batek bere zidar argiz dizdiz egian mendi baten gaiñetik, begi-nini leun amestia aranera soka.

Zaarra, gaztelu ondora eltzerakoan, ara igon zan kaltzada medar batetik; zearkatu eban aldaar biurria, eta gotik egikerako atetik zakar eta apurreriz beteriko larraiñean sartu zan; lau ormatzar arrakalatu eukazan bebarru onek, aintxiñako jaun-etxearen ondakin bakarrak.

Torreko mailladiaren uts-gunean, taket eta galtsuz egindako aterpe baten barruan, kea erion kruselu baten argitara, amar edo amabi gizaseme ikusten ziran, artzain eta auntz-zain oiandarrak, illinti ixetu batzuen biran alkartuta.

Agureak, lanpustuka, zer gartatu zan esan eutsen. Jagi ziran

gizonak, batek beetik soka bat artu eta joan ziran gaztelutik. Zarra avelari ebela, koba-zuloa aurkitzen zan tokirantza zuzendu ziran.

Gauza bat jaken guztiari arrigarri: mutilla lezara narrastu eban ekerra aztruarena zan aín zuzen be; au neurri aundi ta bakanak artuz joian auntz-zaien irudimenean.

Eta pizti ori deabrua ba'litz? —bota eban norbaitek.

Izan leitekena dozu —beste batek erantzun.

Danak alkarri begira jarri ziran, miretsirik.

Goi agiri zan illargia; odei lodi baltzak, mamu izaki taldeak lez, ebiltzan zeruan barna; arran-ots asaldata entzuten zan; urriñera artzaiñen suak dídzizka.

Eldu ziran lurmenera, eta banan-banan urreratu ziran lezara, biotzak dardar. Euretatik batek besakada bat orri igar piztu ta koba-zuloaren aora urreratu eban. Suak ebagíz ta arri-koskorrez kizkur egozan ormak argitu zituan; saguzar ikaratu moltzoa jagi zan, inguru zear egazka

Nor jatsiko da? —itandu eban auntz-zaiñak, abots motel.

Zalantzaz guztiak; gazte batek azkenez bera jatsiko zala esan eban, beste iñor aurreratzen etzalako. Lotu eban sokea gerrian, izai-adarrezko zuzi ixetua emon eutsoen; a, zuzia eskuan, leza ertzeratu ta bertan alderandu zan, Goikoak apurka apurka jatsi-azo eban; lezea oso sakona zan antza zanez, sokea ba luzatuz-luzatuz joian, gazteak beeraiño eldu zaneko ezaugarririk emon bage.

Bat-batean, zakarki dardaratu zan lokarria, zulo barrenean dea-darrak entzunik; goikoak sokatik tiraka asi ziran, eta mutilla jaso eben illik geiago bizirik baiño. Eskuan ekarren zuzia itzalirik eukan.

Zer ikusi dok? Zer ikusi dok? —itandu eutsoen danak.

—Deabrua ikusi dot, gorri-gorria, gorri-gorria.

Onen izu-ikara beste auntz-zaiñetara be zabaldu zan.

—Ez jatsi beera iñor —aoskatu eban, bildurez u_rtua, artzaiñak—. Iten itxiko dozue mutil gaixoa?

Begira, aitita, koba-zulo au deabruarena dozu —batek ots—. Jatsi zeu, nai ba'dozu.

Agurea, erabagitsu, sokea gerrian lotu ta zulo baltzaren ertzera urreratu zan.

Intziri leun urriñeko bat entzun zan une aretan, izatez-goitiko

sorkari baten abotsa zirudiana. Koloka jarri ziran zaarraren bernak.

—Ez naz ausartzen... Neu be ez naz ausartzen —oiu egiñik, negar-zotinka asi zan gozaga.

Auntz-zaiñak, ixil-ixil, zaarrari begirutzen eutsoen goibel. Auntz-taldeak auzotegirantza igarotean, oneik jagoten ebezan zainzailleak leza inguru osotzen eben taldekoengana ziran, otoitz egín bein eta barriro aitearenga, eta errirantza joiazan euren bidean.

Auntz-zaiñen ingurumari emakumeak eta gizonak be alkartu ziran, aopeka jazo zanari ekiñik. Ikusmiñez danak, lezearen zintzur baltza ekarren begietara, eta, txunditurik, bertatik etorren murmuria entzuten eben, laiño, ez-garbi, urriñeko ta ezkutuz ase.

Jausiz etorren gaba. An zetzan oindiño jentea, jakin-miñak joa.

Itzetik ortzera txilin-otsa entzun zan, eta jentea zer ete zan jakin-guraz gaintxo batera zuzendu zan. Erriko abade jauna etorren mendian gora, parol bat argitzeko eskuan ebala sakristauak lagun egíten eutsola. Bidean aurkitu ebazan auntz-zain batek esan eutsen zer jazoten zan.

Eleizakoak ikustean, gizonak eta emakumak, zuziak ixetuta, belainiko jarri ziran guztiak. Odol antzeko zuzien argitara eleizgizona ikusi zan lezara urreratzen. Jagole zaarrak negarrari ekion zotin-dardaraka. Burua aurreantza makur, apaiza illen errezua egiten asi zan; gizon-emakume guztiak erantzuten eutsoen, ixil-mixilka, salmu-eresi triste bat; kea erioen zuziak su-txinpartaka, eta, noizik noizera, ixil-une batean, lezatic jalgitako intziri ezkututsua entzuten zan, ez-garbi ta urriñekoa.

Otoitzak amaitutakoan, abadea joan zan, eta onen atzetik andrazkoak eta gizonezkoak, leku madarikatu atatik urrindu eiten zarrari eusten eutsoelarik.

Eta iru egon eta iru gaez entzun ziran leza barrenetik urtendako ulu, eta intziriak, garbi-ezak, urriñekoak eta misterioz beteak.

JAUSIAK

Agertaldia, enparantza Nagusiko akeitetxean, Aiztogiñen kaleran emoten dauan balkoi ondoan. Erramon Peris, mai baten inguruan' edontzi-bete kafe artzen dago.

Ogetamar urteko gizasemea da, argala, ule gorria ta kilore bardiñako bizar luzea; buruan eroian kapela maiztu bat eta idu-neko zapi aundian. Kafeko atea zabaltzen zan bakotxean, ara begiratzen dau; zain dagoan neska goi-luze, baltzeran, jas-aundiko bat sartzen danean, onek urreraturik, agurtzen dau:

—Kaixo!

ERRAMON.—Kaixo, Irune! Jar zaitez. Etorri zara, azkenez be.

IRUNE.—Gazte! Ezin izan dot leenago. (*Jarriaz*). Gudaletxetik etorri jat nebea.

ERRAMON.—Zure neba! Eta zer diño txori galdu orrek?

IRUNE.—Txori galdua! Ori zu. Bizitetxe bako markesa!

ERRAMON.—Dirua eskatzera joango jatzun, ikusiko ba'leu lez.

ZERBITZARIA.—Akeíta?

IReNE.—Bai, akeita (*Erramon-i*). Eta zer? Dirua eskatu dauskula. Eta zer? Zeure eskatuko ba'leutzu be.

ERRAMON.—Orobat litzateke. Eukita be, ez neuskio emongo laukorik be.

IReNE. **Zeken!**

ERRAMON.—Eta zuok dirua emongo zeutsoen. Bai udabarriak!

IReNE.—Eta zer! Zuri zer dautzu?

ERRAMON.—Niri... ? Zeure dirua da, eta zeuk irabazten dozu zeure lan prestuaz.

IReNE.—Ona au! Niri zure jolas eta irri-mirriak, ba-dakizu.r. pitsik ez. Barre dagizu?

ERRAMON.—Eskertsu zaitut.

IReNE.—Nik ez, ostera, zu.

ERRAMON.—Eta niri ori auxe bere ez.

IRUNE.—Petratxo-ren gangarra ba'litz, ardura geiago emongo leuskizu. Gazte, zu maite-mindurik, zelako ganora... Egia esateko, ez arek, ez bere senarrak, ez zuk ez daukazue lotsaren izpirik.

ERRAmoN.—Eskerrik asko!

IRUNE.—Zelako jente modua batzen zarien etxe orretan.

ERRAMON.—ZU falta zara bakar-bakarrik an lauki osoa beteteko.

IRuNE.—Jesus, puf! Olakoa ba'nintz be...

ERRAMON.—Zer?

IRUNE.—Nik, emakume bat nazan arren... bai, urlia orren zoria izan ba'neu, ezkontzeko, ez neuskio gizon bati ziria sartuko zu lako txori galdurxo bategaitik, ezta zuk baiño geiago balio leuken beste bategaitik be.

ERRAmoN.—Zergaitik etzara ezkondu, orduan?

IRuNE.—Zergaitik? Zer dautzu zuri?

ERRAMON.—EZ, ezer bez. Baiña kexaz zagoz... Zure aizta, Diese, ezkondu zan lez, zu be ezkondu zeinkezan...

IRUNE.—Bai, baiña Mese ezkondu zan aitagailuarekin lan egiten ebanean eta etxean dirua geunkanean; gaixotu egin zan gero, eta zer...?, urik bere ez. Alazne ta biok eredu lez asi giñan taille-rratean, eta zuok margolariok lotsagaldu batzuk zarien lez...

ERRAMON.—EZ zeunkan senargei bat?

IRuNE.—Begira, ez eidazu olako gauzarik aitatu... Neure ama da; baiña batzuetan, egin eustanagaitik, samea biurtuko neuskio.

ERRAmoN.—Tira. Itxi eizu ori onezkero, motz jarten zara-ta.

IRUNE.—Bardin da. Bizi nazan lez bizi izateko, bardin daust iltea be. (*Geldi-unea*).

ERRAmON.—Entzun, Irune. Goazen ibillaldi bat egitera. Arratsalde ederra dago.

ba. Goazen. (*Maitik jagiten dira*).

ERRAmoN.—Itxaron, (*Zerbitzariari*). Or dozu laurleko bat. (*Aopeka*), Azkena.

IRuNE.—Petratxorenak orduan pikutara bialdu zaitu?

ERRAMON.—ZCr gura dozu? Orain barriz okil bategaz atondu jatzu.

IRUNE.—Eta billa zenbiltzan lanbide ortaz, zer?

ERRAmoN.—Lanbideaz, neska, ezer bez.

IRUNE.—Zer egin bear dozu?

ERRAMON.—Neure lurrera noa. Neure osaba Sento-ren etxera, Burjasot-en. Etxea! koba-zulo bat da. Zuk ez dozu iñoiz entzun *Burxasot-eko kobak?*

IRUNE.—Tamala! Zu margolari ospetsua izango ziñan.

ERRAMON.—(*Irribarre naigabetsuz*). *Ba!* Zuk zer dakizu?

IRUNE.—Entzun, zer egin zenduan eun aragaz...? Ni irribarreka nengoan, biotza eskuan nebalarik.

ERRAMON.—Erre egin neban... Irudi axe da ondoen urten jata... Zure ondotik ezin leikean beste ezer atera... Erosi izan nai eustien laukia oindiño amaitu barfk neukana, eta nik esan neban ezetz, zer deabru!, erre egin neban... Lantegian bertan su emon neutsan... Ez noa geiago pintzelik artzen.

IRUNE.—Nora goaz?

ERRAMON.—Nai dozun lekura.

IRUNE.—Tranbia artuko dogu.

ERRAMON.—Bardin da. Tira! Igon! (*Erramon gogo txarrez sartzten da tranbian*). *Bi edo iru erre-paper koipetsu ateraten ditu jakeziskutik, bat edatu ta pandilla guztietatik tabako samarrak atereaz doia, zigarro bat egiteko aiña batu arte*).

IRUNE.—(*Erramon-i begira*). Entzun, esaidazu, zergaitik zara ain zikoitza?

ERRAMON.—Ni ? Zer egin dot, ba?

IRUNE.—Tabako izpirik be ez daukazu, eta lotsa zara bera erosteko niri erreal bat eskatzeko.

ERRAMON.—Ez; ba-daukat.

IRUNE.—Guzu irra?

ERRAMON.—Alperrik ez galtzarren zan.

IRUNE.—Zelako txoria! Zuk ez bait dozu iñoiz, doakabe orrek!, mozkiñik ekarri. (Gidariari). E! Gelditu. (Erramon-i). Tira. Urli zigarrotxoak erosi bear dautzudaz, ba-dakizu? Eta biok joango gara Mintegietara askaria egitera. Bota eizu mutxikin ori, *eskale* orrek. Iru ogerleko daukadaz arratsalde ontan zuritu bear diranak.

ERRAMON.—Etzaitetz abere izan, Irune; gorde egizuz lauko orreik.

IRUNE.—Ez dot gura. Ea! Ez zenduan eralgi, zeunkanean, zeure dirua neugaz...? Ona emen kotxe bat. Tira, barrura. (*Burtzaiñari*). Bonbilla-ra! Ekin!

ERRAMON.—(*Kotxe barruan*). Tamalgarría da! Biok ez ba'gen-
gokez jausiak... e...?, jente ona izango gintzake!

IRUNE.—Zagoz ixillik! Ez eizu gauza tristerik aitatu!
(*Abeska*):

*Txirringutsa daukat,
bi milla peseta kosta zana,
trena baiño ariñago dabillena.*

ILLERIKO AZAK

Erritik urteieran, eta bide nagusiaren ezker-aldera kokatua, ikusten zan etxea, antxiñako etxe bat, pisu batekoa; bere ormetan, ezotasunak baltziturik egozanetan, nabarmen-nabarmen agertzen ziran izki baltz batzuk, idazpuru au egiñaz:

«BLASIDO-REN ARDAO-TEGIA»

Au idatzi eban ertilariak, izki bakoxta ipiñi eban jarrera epaiñaz naikotu ta asebete barik, oindiño beteagotu egun nai izan eban bere lana, eta ate zabalaren gaiñekaldean oillar bat margoztu euskun, luma luze jasoakaz, bere zango bietan irozoa gezi doillar bateg zauritu ta batetik bestera igarotako biotz baten gaiñean; irudi-idazkerako misterioa, zer adierazo nai dauan igarri ezin izan doguna.

Etxeko atarí zabala alde bietan ipiñitako arratz eta upelez es-tututa egoan, erdian igarobide medarra izten ebela; dendea etorren gero, ardangela ezik, txokolategi, estanku, paper eta beste gauza batzuen saltoki zana. Etxe ostean mai batzuk aurkitzen ziran parrazpian, eta antxe batzen ziran Bako-ren gurtzailleak igande arrastietan, edaten, bolaka egiten, eta Venus jauresten ebenak, gapar freskagarritz euren sapiroak arintzen.

Justa txiribogiñak, irabazketa ederra egingo eban nunbait senar alperra ondoan euki ez ba'leu; etxe-kalte, zarrastel eta babalastoa zan au, eta berak salmaian banatzen zituan espiritu gitxi-asko garbi guztiakaz artu-emon miña eukiaz gaiñ, zaldi-aitak lakoxe kemen ugalkorraren jabe zan.

—*Arraiva, Blasido* —iñotsoen bere adiskideak—. Zer! barri-ro be zure emaztea orrela! Ez dakit zelan deabru olan...

—Ño! , zer nai dozu? —berak jardetsi—. Andrak! Makerak lez dira. Eta nirea... Usain egiñaz, e? Oge-burdiñan barruko kal-

tzak itxiaz bakarrik, azur barri daukazu. Lur ona, azi ona, giro ona.

—Ordi! Urde! —oiu egian emazteak, entzuten eutsonean—. Oba litzakik lanari ekitea.

—Lan egin! *Ño*, lan egin! Andra oneik bai burutaldiak!

Blasido mozkor ederraz joian egun batean, urtarrilla zan, erre-kara jausi eta bere lagunak ito baiño leen atera eben arren, etxera eldu zanean ogeratu bearra izan eban, otzikara itzalakaz. Alborengoa eukan. Gaixorik egon zan artean, ekizan zortziko guztiak abestu zituan, eta egun batean, tanboril-jotzaillea tabernan egoala, deadar egin eban:

—Txomin, ekar nai dozuz txistua ta tanborila?

—Ederto!

Txomin-ek ekarri zituan txistua ta danboliña, *Blasido* maite ebalako.

—Zer joko dautzut?

—Aurrekua —esan eban *Blasidok*—. Baiña tarrapata erdirantz, *Blasidok* itzuli ta gaiñeratu eban—: Azkena, Txomin, azkena, nireak egin dau-ta.

Eta *Blasido*, burua ormarantza biurturik, il egin zan.

Urrengo egunean, Patxi, lur-emoilleak, iru oin sakon eukazan zulo eder egokia atxurtu eban bere adiskidearentzat. Justa, txiribogiñak, seindun egoanak, bere zazpi seme-alaba ta ardangeleaz jarraitu eban burrukan, senarraren adiskideen esanak egiñik.

Oneitatik, berari eratsiena Patxizurra zan, edo Patxi-infernu beste batzuk deitzen ebenez. Patxi itxuraz gizon altua izango zan, orren lodia izan ez ba'litz; altua zan atzetik ikusita, biribilla aurretik eta zilbot aundi zearka begiratu ezker; aren arpegiak, beti bizar eginbarri, gorri-more emoten eban; aren begiak, txiki-alaiak, ertz aragiz beteakaz inguraturik egozan; aren surra etzan gerkarra, autortu bear da, baiña ain aundi, ain zabal eta ain koloretsua izan ez ba'litz, ederra emongo leukean; aren aoak ez eukan agiñik, baiña bere arerioak be naitaez adierazo bear eben aren ezpanak irripar gurenetan zabaltzen zirala eta aren txapela, azpil bat baizen edatua, beti buruan josia, gustu bikaiñez erabillia zala.

Miin txarrak, betiko Zoiloak, Patxi-k gaztaro gaizto-ekaiztia izan ebala iñoen; onek iragarten eban aren eskuak, zizpa motz ba-

ten laguntzaz, an Errioxa-n, Ipar tren bidea eregiten ebiltzanean, bideztiak kapustu ta lapurtzen ebazala; beste batzuk, itxas-lapur ontzikoa ízan zala, beste batzuk aregan ikusten eben espetxetik iges egindako bat, eta bat-edo-batek baita uste eban, atera ta atera. Patxi-k lur-emotzaille zeregiña eskatu ebala ume illai gantzagia aterateko; baiña susmo guzti oneik, esan bear dogu, egia-
ren lotsarren, etzirala ziuurrik.

Patxi, bere errira biurtu zanean, Amerika-tik ibillaldi luzeak erre ta gero, aurkitu zan, bere lurretan, mendi-barrenean eukazan solo batzuetan, illeria, kanposantua eratu ebela-ta. Patxi ii zanaren izparra zabal ibillia zan. Udalak, berea eskatzen ebala ikusirik, lurrak erosi nai izan eutsozan; baiña Patxi-k ez ebazan onartu egin eutsoezan eskintzak, eta adierazo eban gertu egoala lurrak izteko lur-emoille karguaren ordeztu eta illerriaren egalean etxetxo bat, bera bere txapelaz eta pipeaz bizi izan zedin, bizilekutxoia jasoteko baimena emoten ba eutsoen.

Onartuak izan ziran bere erabagiak; eta Patxi-k jaso eban bere etxetxoia, bizi izaten ara joan eta andik kanposantua zaindurik; eta illak ain zuzen be ez eben sentiduko Patxi euren obiak zaintzen joanaz, landara usaintsuz eta lora ederrez epaintzen eutsezan-eta.

Patxi onak artu oi ebazan lan eta ardura guztiokaitik, erriko jenteak dongatzat jotzen eban; eta dana, domeka batzuetan meza-tara joatea aaztu egiten jakolako, baita era berean, erriko apaiz-buruari egiñiko gorralpenak entzutean, berak, begiakaz klisegiñez, esan oi ebalako: «Ezaguna, laguna»; errikoak uste eben onekin Patxi-k guzurrezko jazoera bat aitatu gura ebala; egi itxura eukan, alan be, eta istori orretan ziurtzen zan erretore jaunak bi edo iru seme-alaba euki ebazala urreko baserri baten.

Izugarria zan Patxi, eta amak, umeai bildurtuteko, esan oi eutsen: «Ixiltzen ez ba'az, maitia, Patxi-infernu etorri ta beragaz eroango au».

Erriko aundikiak destaiñez ikusten eben Patxi, eta asmotsu zala uste eban osakigiñak, botikarioak barre egiten ebala, aren lepotik.

Patxi ta osagille gaztea alkar ondo artzen ebenak ziran; azken au illotz azterketaren bat (autopsia) egitera joianean, lur-emoi-

ilea zan aren laguntzaille, eta begi-luzeren bat ebaketa-maira urreratzen zanean, eta izua naiz nazka erakutsi, Patxi-k begiak kiriatzen zituan osagilleari begira, esango ba'leutson: «Bildur dira oneik, ez dakielako ezkutuaren barririkr.. Je... je! ».

Patxi-ri ardurarik ez beraz esaten ebenagaitik; Justa-ren taberna itzal aundiko izanaz naiko eban; bere entzulegoa osotzen eben bide-zaiña, erriko baltz (liberal) bakarra; epaikari ordezkoa, iñoren ordezkotzarik egin bear ez ebanean alpargata-giñan jardun oi ebana; Erramon jauna, antxiñako eskola maisua, aparria ta bonbilbete ardao tabernara eroan oi ebazana; tuntun-joalea, ardandegiko arduraduna eta besteren batzuk geiago, Erakarkor jaken Patxi-ren berbea.

Suak naiz suszko txirringak aitatu ondoren, esaten ebanean: «Orrek eztau iñor bildurtu bear, *tximist-argiarena* da», entzuleak batak bestegana biurtu oi ebazan begiak euren lagunak esaera aren sakontasuna zerbait ulertu eben ala ez jakin nairik.

Esaerak eukazan Patxi-k, edozein gizon aundik ez daukazan la-koxeak, eta Hipokrate-k berak onartuko leukezan aiñako zuuritzak. Bere filosofia itz oneitan egoan ertsia: «Bedarren antzekoak dira gizonak: alabearrez erneten dira; ba-dira bedar batzuk lora gorritzkoak eta beste beatzuk lora beillegizkoak, gizaseme onak eta txarrak dagozan lez; baiña mozkortia izango dana, mozkortia dozu».

Uretan busti eroiazan ezpanak eta, bere kemen-adoreaz lotsaturik, paitar zurrutada asebeta edaten eban; lur-emoilleak, ba, kopa txiki batean ipinten eban ura eta edontzi aundi batean paitarra. Txantxeta uts.

Atzera erantzun eta bañaka egitean, Patxi aize-bolada zan. Bein, meatz jabe gazte aberats batek, Tenorio bat zalakoan, bere garaipenak otsegiten ziarduan.

Olazabal baserrian daukot seme bat —iñoan—; Zubiaurrekoan, beste bat; Gaztelu-n, beste bat.

Obe litzakik iri be —Patxi-k egotzi, txit zorrotz— ire andrearen seme-alabak be eureak ba'litzozak.

Patxi-k, pipearen keaz bere sur gorritzua berotzen ebala, Amerika-n eukitako goraberak edesten ebazanean, onen itzak oi ta barre-karkaraz lagunduak ziran.

Patxi-ren jazokunak eta goraberak Amerika-n ibilliz gertatutakoak, jakingarriak ziran oso. Jokolari izan zan, salerosle, abere-dun, gudamutil eta olako gauza are geiago. Gudari zala, indiotar batzuk bizirik kiskaldu bear izan ebazan. Patxi baiña egi-egiaz garrantzitsua zan bere maitasunezko goraberak, emakume baltzakaz, zanbakaz, baltzuri-kume ta oriakaz eukitako jazokun arrigarrietan. Esan zeikean, bai, larregira jo barik, bere maitasunak emaztekie margo-mail osoa ausi ebala.

Txiribogiña izakera bizikoa zan-eta, zortzigarren semea euki ta egun bira ogetik jagiaz ezer izan ez ba'litz legez, lanari ekin eutson. Baiña gabean ogera biurtu bear izan eban sukarrez; sein egin barrien sukarrak ziran, eta oneik eroan eben illobira. Oso atzeratua egoan txiribogiña kontuetan; saldu zan tabernea, eta zortzi neska-mutikoak kalean geratu ziran.

—Zerbait egin bear da umeokaz —esan eban alkateak, euskal kutsurik ez erakustearren, ia-ia andaluzkeraz mintzatzen zanak.

—Bai, ume orrein alde zerbait egin bear da —otsegin eban erretore jaunak be, abots leu-leunez, begiak zerurantz jasorik.

—Bai, bai. Zerbait egin bear da ume orrein alde —bota eban erabagitsu osakilariak.

—Aurtzaroa... Goi-maitasuna —gaiñeratu eban Udaletzeko idazkariak.

Eta igaro ziran egunak eta igaro ziran asteak; neska nagusia karteruaren etxera joan zan mirabe, eta pozik egoan berton; bularreko seintxoak, naizta ez gogo onez, perratzaillearen emazteak eukan azten.

Bestee seirak —Txomin, Xanti, Martinatxo, Jose, Maru ta Gaspar— bideetaz ebiltzan ortozik, limosnatan.

Goiz baten, lur-emoillea errira etorri zan bere burditxoaz; bertan artu sei neska-mutikoak, bularreko aurra bere besoetaratu, onentzat botika aurretik igaroten edoski-tutu bat erosi, eta danak kanposantuko etxetxora ebazan.

—Guzurti! —esan eban alkateak.

—Kirten! —gargara osakilleak.

Erretoreak eratsu ebazan begiak, aínbat mixeri ikusi nai ezean.

—Zapuztuko ditu —iragarri eban aurretik idazkariak.

Patxi-k ezditu bertanbera itxi, eta aurrera daroaz; eta aorik asko bait daukaz asetzeko, bere paitarra itxi dau, baiña ortuariz beteaz doa kanposantua, negargarriro beteaz joan be gero. Eta orain azoka dagoan ezkerro errian, Patxi-k, illerri ondoan basetxea daukan bere adiskide bati emon dautso bere azak eta alkatxofak plazan saltzeko ardurea.

Patxi adiskidearen azak, illerrikoak, erriko zeian diño gozoak eta jakera onekoak dirala. Erosten dabezanak ez dakiena, au da: nare be nare euren aurretikoen onuraz janariturik dagozala.

LUTUZKO EMAKUMEA

Olerkari bat zan, bakartade ta tristura zale. Bizitzako egun urdiñez bakar-bakarrik aurkitzean gorbiztu egiten jatzun, eta Madrid inguruak ikuskatuz bere espiritua goibeltasun zitzakorrean murgildu oi zanez, Retiro-ra joaten zan biotz zarrasta gozoagoen billa, eta an, zeitxo biribil baten, iturri ederra triton-gaiñ maitasuntxoak eukozanaren erdian, ego-arri baten jarririk, zerua eta odeiak begiratzan ebazan, eta zugatzak, eta ur-txorroak borontzeko lau dortokaren aotik urten eta kuillu oskol batzuen barruan jausten ziranak.

Udabarriko egun alai batean betiko lekuan jarri zan. Aize zakarrak gogor jotan eban; zugatzak, oindiño orri barik, begi ta kimetz puztuz beterik agertzen ebezan euren adarrak; bioltxoak bitxi jarten zituen bidexka egalak euren margo apalez; papan-tzuak be euren osto-erbatz balusatuak orobat erakusten ebezan, eta eurotan, urriñetik, giza-betarteak ikusten ete ziranekoa zirudian...

Neskatil bat, bere sein-zaiñak lagunduta, olerkariaren ondolik igarorik, urreko jarlekuan ezarri zan. Ume bat zan oindiño; begirakunean eban egunsentiko argitasunaren zerbait, ostondu naita saiatzen dan errugabetasunaren ezkutu ezinesana.

Jakin-guran eta aur-txatxankeriz, neskatoak olerkariak irribarre gozo suspergarria zuzendu eutson, eta jagikeran, begiakaz esan eutson jarraitu egiola.

Jarraitu eutson... Eldu ziran Retiro-ko atera; olerkariak, orduan, zalantzan sarturik, erabagi eban azkenez, eta neskato ederraren atzetik joan bearrean, onek gozo ta leun irripar bait egion, beste zuzenbide bat artu ta, goibel, alderatu zan, begi mendetik ezkutatuaz.

Udearen asieran, erdian maite-iduriz apaindutako iturria agiri zan zeitxo berberean, bakartadea eta tristura maite ebazan oler-

kariak, baten baiño geiagotan miretsi eban neskatxa eder bat, osasunez eta bizi-kemenez bici-biei egoan neskatxa. Orduak eta orduak emon ebazan ari begira, itzik esaten azartu barik, zauskada sendoz biotza estu.

Egun batean, gaiñeratu jakon ebagune egokiz, arpegia ausiz, itz egin eutson; bizi-bizi itz egin eutson. Goiz ezo bat zan, epel samarra, iruntzak gozatua; urdin egoan zerua, eguzkiak urre-margoz jazten zugatzen orri-arte dizditsua eta orban orizketan jausten zan zotazal illun gaiñera.

—Ezingo dot itxaron? —itandu eutson olerkariak.

Neskatxa ixillik; marrak eta marrak egiten ebazan ondarrean ginbailtxoaz, eta irribarrea ezpan artean.

Mutiko biurri aldrak eta aldrak igaroten ziran bere albotik; alper bat edo bestek jakin-min eta iñartsi pizkatez be ikuskatzen. Kurloiak jauzika bedarretan eta pio-poka zugatzetan; orriak, aizeak eragitean, murmur gozo leuna ixurten.

—Ezingo ixillik; bere begiak arengana jaso eta, irribarrez, beera begiratzen ostera be.

Urrundik etorren, astiro ta goibelgarri, uxubillo bat, klabelin saltzailleen oivakaz, kotxe ta tranbien zarata erdi-illagaz, kanpai baten otsaz eta tren baten txistuaz naste. Gezi antzera igarotzen ziran, eguzkitan dizdizak jaurtiki, erle-masto baltzizkak eta kolore askotako mitxeletak egada izurtsuan; aizeak lur-zear eroiazan nerras orri pusketak; zugatzetan txirri-txirrika txitxarrak; urrutiko ulu zoli ta igikera batekoa, biotzaren taupada iduri, etorren ez dakit nundik, eta airean dardar egiñik, zentzunak sorgortzen ebazan, naigabe bakan aula sortuz. Aize leunak bere bafadetan jario ten maitasunezko biziaren ernemiñak.

—Itxarrongo ete dot? —barriro be, lotsorrez, olerkariak,

—Biar emongo dautzut erantzuna —neskatxak jardetsi, irribarreka.

Biamamonean olerkaria etzan joan Retiro-ra.

Arratsalde baten, bere tristurak aurrean artua, itzuli zan bere ibillaldi kutunera, eta lendik oi ebazan tokietara zuzendu zan.

Udakken arratsa; lurra bustirik aurreko egunetako euriaz; zerua, urdin laru, odei zuritan blei-blei. Zugatzak, orri asko barik, euren buru garaietan ikusten izten eben adar baltzen alkar guru-

tzatzea; oindiñokarren ostozurbil igarren lits gorrizka artean geratzen jaken bat edo beste orban musker. Zugatz enborrak lerro-le-
rro egozan, illun bedartza estaltzen eben orri jausien oinoial orí
gaiñean; an eta emen eguzkiaren argitasunak dizdiz egien ibil-bi-
deetako arean nabari izatean.

Zeitxoko jarlekuan emakume bi ikusi ebazan olerkariak, ziur
asko ama ta alabea, biak baltz jantzita; atsekabetua ama; alabea,
zurbil, triste ta negarrez.

Ortzia laiñotuz unetik unera; eguzkia ondoren indarbage ja-
giten, ingururik bako gerizpeak lurtean egiñaz. Urrineko alamen
zolia, biotzaren taupada lako igierakoa etorren aizearen egoetan;
baiña udagoieneko intziriz betea, arimara eriotzea ekarren beeran-
tza otsak, agian. Urrin bultzi-makiña bat txistuka, kanpai bat
eleiz-deiez, eta ostozigerrak airean jolaska.

Amak poza emon nai eutsan bere alabeari, eta onek negar egian,
samin be samin, eder iñoiz baiño ederrago; tristurak eta negar-
malkoak, ba, misteriozko lilluraz jazten ditu emakumak, euriak
eta laiñoak Ipar-aldeko aurkintza zuurrak lez.

Joranez jarraitu eutson olerkariak, zoro, bat-batean aren maite-
miñak joa, eziña zala ta ezkututsua jakiñik, ain zuzen.

Eta aren billa dabil beti, beti; berak maite dauan bakarra; ezi-
ña dalako eta zurbilla dalako, eta aren billa dabil beti...

Begirakunea an-or eta zoro, aren billa dabil beti eta ez dau
egundo ikusten; ez dau egundo ikusten, bear bada bere espiritua-
ren izla besterik ez dalako.

ALPERRA

Eguzkiaren Ateko parol bateri dautsola, andik igaroz doian jenteari begira dago.

Gizaseme bat da ez altu ez txiki, ez mee ez lodi, ez gorrizka ez baltzeran; ogetamar bat urte euki leikez edo-ta berrogetamar bat; ez dago ondo jantzia, baiña ez dozu traskil zatartsu bat be.

Zer ete dau egiten? Begiratu? Itxaron? Ez, ez dau ezer itxaroten. Noz edo nozko baten irribarre; aren irribarrea, baiña, ez da pikokaria, ezta aren beakuna be zearkoa.

Ez da Montepin-en edu bat. Begiak ez daukaz mingor, ezta aoa ta surra izukaitz be, eta ori bearrezko jatzu deabrukor izateko.

Langilleren bat ete? Ez. Errentarik ete dauko? Ezta. Industriren bat? Txe! Ia, ia industri bat dozu lanik egiteke bizi izatea.

Tira, alper bat dozu. Bai, alper bat da. Ikusten dodazala derist koloni-janari dendetako irizle zorrotzak euren kontra asarre, bala-bala dabillen inparringi bateko lanak atondu oi dabezan baten izketa zozoa erabillirik. Alperra, moral-zale guzti orreintzat, ia-ia gaizkin bat da.

Nirea, mintzo-gai dodan ori, ez da olakoa ziur asko; begirakun sakona, ao ziñoso ta trufatzaillea, ziñu fardel ta antsibagea.

Ikus,iñogandik ezeren zain ez dagoan gizonarena da aren begiratzea.

Bizitzearen so-egille, ikusle dozu; ez da egille. Gogoetalari dozu.

Izparringi-saltzaille bat urreratzen da alperra zurkaiztuta dagoan parolera, bertan etzun-azorik.

Parol bat bizkar biri eusteko gai da.

Alper bat parol bati dautsola gogoeta gai dozu. Parola, zientzia, tringotasuna, argia; alparra, zalantza, aiko-maikoa, itzala.

Aintza eizuz parolak! Ez gitxi-etsi alperrak!

Norbaitek esango dau: «Ba! Alper izatea bai gauza erreza! » Okerkuntza, utsegite sakon; ia-ia filosopu izatea beste da alper izatea; edozein izatea baiño geiago nunbait.

Eurrez, upelka dagozala alperrak? Bai zera! Goiko maillakoen artean daukazuez miku ta okillak, *clubmanak*, *sportmanak*, gitxi-asko apaiñak, gitxi-asko *smartak*, baita *snobesak* be, nai ba'dozuez. Guzti oneik, bizi garean izar barregarri au estal-azten dauan ergeltasunaren eguratseko kizkin dizditsuak dira; baiña ez dozuz alperrak. Naiko da eurak begiratzea; ariñeketan dabiltz, urrats luzaka, giza-bizitzan ba'lego lez aringa ibiltea balio dauan gauzarik; eta euren gogoan beti darabille zaldiren bat, emakumeren bat, adiskideren bat, edo-ta edu onetako beste gauza garrantzi bakoren bat. Beste gizarte azal edo oskoletan langilleak aurkitzen dira, ikasleak, eskekoak, traketsak, moldagatxak eta edu orretako anparauak; areik ez dira alper utsak, bizitzea labantzen izten ez dabelako: ergelkerietan erabilli oi dabe, gauza zirtzilletan; ez dira izten *ezer-ez-egiteak* eroaten, egiazko alperrak lez, oni ba ezin leikeo arpegira bota gazte-gaztetatik lanerako griña galduaren aultasun nimiño izan ezik.

Tximika, uskeri, ezerezbat izango da alperra, baiña ez jatzu txirta, ez jatzu zirer. Uskeria izan daiteke gora aundikoa, garrantzitsua, eta garrantzikoa gauza bat izan daiteke txatxar. Jostaullu bat asmeteak makiña bat asmeteak beste buru adierazten dauku. Adiskide batekin, kartoizko tximist-tranbi noizik-bein dabillena eta beste bat bene-benetakoa nik egin izan ba'neu baizen egilletzat jo daroat nik neure burua.

Gauza aundia benetan katedral bat asmatzea; baiña paperezko igel bat asmatzea be ez da gitxi-estekoa.

Paroleko alperra ta ni alkar ezagunak gara, eta alkarregaz mintzatzen.

Ni babes naroa arek. Iñori agur egiten ez dautsona da. Adiskide gitxi daukaz, itxura danez; bear bada ez dauko bat bera be. Zentzunaren ikurra. Adiskide kopururik aundienak markatu oi dau maillarik gorenena ergelkeriaren indar-neurkiñean. Esa-era bat uste dot dala.

Burutsua? Beste iñortxo baiño geiago.

Politikaz mintzatzen ba'gaiakoz..., irripar egin oi dauku; li-

teraturaz ba'diardugu..., irripar; edozertaz itz egin eta ak irripar.

Lengoan batek esan eban, ergela zala, urrean.

Baiña, orixe da jazoten dana, galgarik ez daben gizarte oneitan; edozein pertsonaz gaizki esaten asten gara, eta azkenez al-perrakaitik be txarto itz egiten.

SUKARRA DALA-TA

Neure buru-muiñean somatzen nebazan zan nagusien odol-bultz eta pilpilak, astuntasun aundi ta nekadura itzalaz.

Bertatik, igarobide zurbillak gurutzatzen asi nintzan, esarte ta barne-bide estuak, ni ibilli-alan medar-azten ziranak, eta azkenez landan aurkitu nintzan.

Udako arratsalde baten zan; eguzki dirdaritsuak suzko geziak jaurtika lur galdatu ta idor gaiñera; dirdir egian laboreak zelai-ordokian urrezko lama ta izladuraz, odol-tantak zirudien zapalora ta urdamuturrez pitxiturik. Aizeak, lurrun loditsuz astun, ixilka egien zurrun belarrietan.

Maurtu egoan landea; arrakalka azpia goitik etorren beroaz; lo lurra kezka eta nekatua.

Noizik bein, Ego aizeak su-bafadak jaurtzen ebazan; autsa goian amorruez biurtzen, zugatzai, sasitzai ta maastiai auts-itxura ezarriz.

Itxi nebazan begiak; eta edegi nitunean, txunditu ta konkorturik gelditu nintzan. Gorri-gorri jarri jatan zerua; labore ta maasti ordezk atxak neukazan, eta onein utsune artean gingail itxurako arrotz landarak agertu ziran, bedarño erkiñak Eguerdi aldeko aizeak erreta, berraño erkiñak euren buru larua itun be itun lurre-rantz makurtzen ebenak. Mendia, arkaitz leor baltzezko pillo batek eratua, zakarki ebagia agertzen zan zeru-azpi odoltsuan.

Mendibesangen tuturretik, araneke ereiñetatik, aitz-zuloen barrenetik, ez etorren zaratarik pitiñenik be; ixilla nun-nai..., eta etzan ezerentzat atsedetik odolezko zerupean, eguzkiaren begi odolgorrituaren so biziak urtuan aurki.

Mendiaren balztasuna ibarrean zear barreiatu zan, eta ni latzikaraz izutu nintzan...; itzal bat egoan illunpean eta gizon bat zan itzala, eta itzala illuntasuna bera baiño be baltzagoa zan. Bai, bera zan, bera, nik ezagutzen neban, beste sukar-gau batzuetan

be ikusita bait neukan; bera zan, begira neukan eta irribarreka; nik ezkutatu nai ikusi ez nendin; berak be alegiñak egizan gorde-teko landara erraldoi baten ostean; biok alkar ikusten gengoan, eta irribarreka; baiña gure biotzak bular barruan ots-egien olazar bateko mailluak lez, eta bildurraren bildurrez dardarka gengoan, Astiro ta ariz ari, gizona ni nengoan lekurantza urreratuz etorren, eta begira-begira gera tu jatan. Gizon jagi ta gurena zan; bekoki zabalduna, baiña aren begiak ez eben bizitasunik, eta baltz jantzita egoan, baltz-baltz jantzita. Aren betartea, ostera, urdin-arrea zan.

Bat-batez emakume bat ikusi neban, aren atzean zutik egoana; gorria zan aren soiñekoa orban oriakaz, eta aren arpegia azafrau kolorezkoa, etea aren surra jantzia lez gorria, argizari tantak lez orban laru ta pikortsuz betea.

Andik eta emendik, pertsona bakanak eta irudi nazkagarriak jalgiten ziran. Urminduta gaixorik egoan emakume batek, ospitaleko illotz-tegian nik ikusi nebanak, bere arpegi borobil bardiñaz pandereta baten antzekoaz ikuskatzen nindun, eta noiztik noizera irribarre egiten eban, bere atzamar urez puztuakaz sabelean eukazan berde-esmeraldazko orban batzuk erakutsirik gero. Eta nire aurretik ebiltzan ara ta ona gizasemeak arpegi ben luzangakaz, eta beste batzuk arpegi oso zabaldunak; batzuk oro ao ta beste batzuk oro belarri. Buru bat, nik zatiketa gelan gogortzerakoan ezagutu nebana, bira-biraka ebillen neure inguruan, erlea bai litzan burrun-burrunka., .

Ke-moltzo lodi illunak baltzituden eben iradu osertza: Jainkoak margoztu eban zerua ixatx-ikutu baltzakaz eta zur-baltzeko gangan izarrak asi ziran dizdizka, taupa-taup ixillean.

Euren agerkuntzen zentzunik erakutsi nai izan neutsen izakai; baiña itzali zan nire abotsa neuk be entzun bagarik.

Ordurarte nik ikusi bako zapo baltzak, lepo aldean izar distiranta eukanak, adia triste ezti bat bota eban.

Orduan, milla zurmur naasi jalgi ziran lurretik; aizea durunduz asi zan urruñera, eta zugatzen kukutz goenetatik kuxumuxu ta barbar ikaragarria urteten zan. Nire biran iraulka ebillen buruak orro egian, eta aren aoaren zulotik nekusan nik inguruko bazterra osorik, eta barbailla aziaz joian tren-makiña aundiak iga-

roz joiazan nire ondotik txinpart-urtika eta kirrinkaka, eta sugetzar izugarriak nire belarrietan ziztu egienak.

Apurka apurka, emetu ta baketuaz joan zan ots-iskanbil bizi a, eta bazter urdin-nabarra gertatu jatan begien aurrean, eta gizaseme baltz itzaltsua, belun jantzia, eta gorpu-zatiketa aretoan ezagutu izan neban burua, eguratsean urtuta legez ostondu ziran.

Eta leioko kristalen artetik irribarrez egoan uda-eguneko goiz nabarra.

KIZIEN BIZIA

Neguko gau baten bakarrik nengoan neure gelan irakurten. Etxean etzan entzuten zaratarik, ez zurmurrurik; orduari bik bakar-bakarrik, bata neure langelan, bestea igarobidean, urratzen eben euren tik-takaz gabeko ixiltasuna.

Txikienak, neure gelakoak, itzal aundiko orduari baten oizko tiktak artean erdiko beste kolpe bi emoten, esan nai ba'leu lez: «Goazen onezkero... Goazen onezkero»,

Aundiak, igarobidekoak, bere burua zeozertzat daukan orduari batek onartu bear ez dítun ames-adarrok arbuuiaturik, azpitik murmur egian: «Ondo doa... Ondo doa».

Nik orduari biak ikusten nitun ariñeketan eta euren zaratakaz alkarrri erasoka, eta egi-egiaz ezesten neban neure biotz barruan batak bestea arrapatu gurarik artzen eben alperreko lana.

Kimikari buruzko oraintsuko liburu bat irakurria neban, eta emen teori atomikuari egokion idazlana; eta ni kezka bete nengoan, baita sumiña be sentitzen neban.

—Ez nindun asetzen atomuak —ots nik—. Eskubidea dodala, uste dot, atomuen alde ez egoteko. Positibistak ala ez? Orduan, ba... Nok ikusi dau atomurik? Nok pisatu dau atomu bat? Zergaitik ausartzen da iñor zatitu-eziña dala? Zergaitik? Batez be, niri geien gogait eragiten daustana, ixilka diñot au, atomua legortu-eziña dala esatea dozu,

Nire katu baltza, nik uste dot katu baltz bat daukadala esateko eskubidea, Haeckel-en *Psicologia celular* gaiñean neukan maira igonda egoan, eta nik nengiana begira neukan bere begi orimiñakaz, ardurarik-ez ikaragari ta iguinkorrez. Bere arpegikeran igarri uste neban olako irri-mirri ta maixeozko zerbait; ez, jokabide a, iruditzen jatan, etzala menpeko batena eta azken baten neure bizkar bizi zanarena.

Maitik jagi ta tximini ondoan jarri nintzan bes-aulki batean,

eta pipea ixeturik sutako txingar-garrai begira nengoan. Nire txakurra kurrinka asi zan neke izan nintxakolako, bera sutatik baztertuaz.

Ezin neban neure pentsamentua atomu teoritik edo atomutik aldendu. Legortu eziña! Ba al da legortu eziña baiño gauza erge-lagorik?

—Zarkin edo zilia-bilia bat dozu atomua —esan neban—, hipotesis bat beíngoan suntsitu bear dana. Gai bakarraz ez dago besterik. Zientzi-zentzundun jakintsu bat agertzean, olakoak uko egingo dautso atomuari.

Nire txakurrak, erdi lo, zearretara begirutzen eustan noizik-bein, alako begirunez.

Bai —esan neutson nik—. Atomuaren zeartasun ori laga bear da; aruntzago jo bear dogu, atomu-urrengora, onela esatea zillegi ba'jat.

Begiak itxi ebazan nire txakurrak, esakuna onartuz legez.

Onezkero ez gagoz aldeí areitan —jarraiki nik—, urreari Au eta zidarrari Ag eta azufreari S deitzeak, zerbait adierazo oi eban denporetan. Orain ez gagoz, ez, aldi orreitan. Ez. Ez gagoz aldi orreitan.

Iñoek ezetik ez iñoetan ezkerok, atsegin artuz, sua ikuskatzen jarri nintzan, egiptotar emakume baltz bi iruditzen ebezan baltzeranak eutsitako egurretan txinpartaka ziurduan sua nunbait, eta neure pípearen iñarra. Oní begira negoala andik *iges* egindako txatar bat airean jagi ta geldi geratu zan.

Nik, astuntasunaren legeari egiñiko lapurreta aren aurrean gaitzpidetua, triskilletak artu ta txatar-sua beera jaurtzen elegindu nintzan; baiña ak, legeai jaramonik egiteke, bere tokian irauñaz, birak emoten asi zan, eguratsean oboak egiñik, azkenez..., paf! , txapligu antzera eztanda egin eban milla argitxotan, kolore, lits eta dizdiz askotan.

Adarra jotea iruditu jatan a. Astiro astiro, izpitxo areitan alako itxura batzuk agertu ziran marraturik, eta, tinkotu ta zeaztean, agertu ziran baita gizaseme, emakume, euli, txakur, eltxo ta musker irudiak, eta danak asi ziran ega-birak egiten eta neure buru inguruan zoro be zoro dantzatzen.

«Au! Au! », zaunkaka iñarduan, nire belarrietan, urre kolorezko txakurño batek.

«Atxe! Atxe! », doministikun egian gizon arlote, ez usaiñik, ez kolorerik ez eukan gazigezak.

«Bur! Bur! », zurrun eltxoak, ats garratz gogorra erionak.

—Zer jente-modu joat au? —nik oi, suminkor—. Nor zanje?

Orduan, momorro areitako batek, erion argi-motaz ipurtargi zirudianak, eta lurrun-makiña baten antzera «Po! Pa! » txistu egianak, neure aurrean lotsa barik geraturik, esan eustan:

—Atomuak gara.

—Guzurra! —nik garraxi—. Ez dago atomurik,

ag..., ag.r.! » —ots egin eban zuriz jantzitako andra batek, zidar-irribarre gozoz.

ez gareala, e? —atomuak niri, atomu dirdiratsuak, destairiaz—, zuok gizonok ez, etzariela! Gure etxe baiño etzarie, geure janari ta bizitzarako zarie; ez beste ezer.

—Zuok...! Zuok ez daukazue bizirik —nik jardetsi—. Zer eukiko dozue zuek!

—Oi Gizadi, Gizadi! Beti zu arlote —deadar atomu dirdiratsuak—. Ikusten dozunez gu be ba-gabiltz, maíte-mindu egiten gara gizonak eta emakumeak lez; gure sentikortanaren eta gure naimenaren lekuko zara, eta oindiño be bizirik ez daukagula diñozu.

Naimena! —nik jauzi—. Ez dozu ulertzen, zikirri-makarra zirtzil orrek, zure egintza guztien gaiñ mugagille kupi-bako bat dagoala; nik egin daikedala zu ezkondu ta zu ezkontz-iztera eroateko al-izatea dodala, neuk gura dodanean?

—O! O! —ots oxijenu atomu batek—. Geiegi da orí.

—S... S..., murmur sulbur atomuak, atz bat ezpan-gaiñ, eta gaiñeratu eban—: Itxi mintzo dadin atomu asmotsua.

Ezkontz-austeaz diñozun ori —ipurtargiak beretik—, ez dau esan nai zuok baiño aurreragotuago gagozala besterik. Zentzun arruntezko atomu bi daukazan zein atomuk iraungo ete emakume bat bizi guztiroko?

Bai, ondo esana legoke ori —nik ari—, go^ooz bananduko ba'ziñateke; baiña zuok, doakabeok, ez daukazue gizonak lako naimenik.

—Ba! —atzera arek—. Zuok aske zariela uste dozue atomuak

zeuen buru-muiñean dagian lana ulertzeko gauza etzarielako; gure egiñak alanbearrezkoak ba-dira, barriz, zuonak be erabat dira; gu gara zuon egille, eta atomuen alanbearretik ezin daiteke lortu giza-aukera askerik.

Eta arimea? —nik esan. Psikologian, logikan eta Etikan ainbat kako-mako ta triki-maillu ikasi nebazala gogoratuaz, onen izateari buruz.

Arimea! Patx! Nagoala ni gizon baten buru-muiñean, eta adimena dakuskezu; onek uts-egin ezkeru, astakeria bakarrik.

Orduan, zer zara zu ainbat aizegaz?

Atomu bat nozu, su-zotz baten atomua. Ikus.

Eta atomua biurtu egin zan, buruan ipiñi ebazan oiñak, elaz-tun argi dizditsuaren itxura arto ta gorantza igon zan; gero jatsi ta esan eban:

Ikusten? Ideia bat dozu au.

Sor ta lor nengoan ni,

Momo dirdaitsuak, neure arrimenez baliaturik, irudikeri uts eta funts bakoak egiñez jarraitu eban.

—Or daukazu ideia jeometriku bat.

Gero, ertz zorrotza egiteraiño biur-azoz, marmar:

—Gorrotozko ideia dozu au.

Ondoren izter-zabalka jarri, ta besoak zabalduaz, esan eban:

—Maitasunezko pentsamentua dozu au.

Ni, esan dodan lez, sor ta lor nengoan; dantzari ebiltzan atomuak neure biran, oiuka, txilioka, garraxika danak batera:

Gai bakarra gara gu, bana-eziña, *leortu eziña!*

Itzokaz oarturik, dardarazi nintzan neure jarlekuan, eta otsegin neban:

Guzurra! Guzurra! Zatiakaz osoturik zagoze.

Une aretan, gizonak, emakumeak, txakurrak, eltxoak eta muskerrak lertu ziran; egun me segail bat, auts kolorezkoa, kulunkatu zan eguratsean... Irripar egin neban nik irripar alai ta garaillez...

Gai bakarra ikusten neban, neure aspaldiko X, betiereko gaia, beti-betikoz zatigarri dana...

TALENTUAK LILLURATUA

Neskatx gorrizka bat zan Matilde, ogei urtekoa, ez garai ez txiki, itxuraz panpiña. Polita izan ezta be, mundu giztiari atsegin jakon doai bereziaren jabe zan, eta edozein birloratu oi eban bere autueta samurrez.

Bere neska-lagunik miñenak ez ebezan iñoiz be gauzok ulertzen. Aren begiak, esan eraien, etzirala aundiak ez gorrituak, aren surra etzala betea, aren aoa txikia baiño aundia geiago zala, eta, aren ule gorrizka ugari ta ederra zala iñoen arren, alan be, lits, gorri, apaiña, bai, baiña ez polita, euren eritxiz.

Moral aldetik, arroa zan, buru-eritxi ta aundi-putza; andrazkoak, geienez, onak deitzen dautse adiskide lagun motzai, eta ortzargi ta begikoak, zarrai.

Neskatx guztion asmo samurrak ixiltzen ebana zan berak eukan erakarpen indartsua, Matilde-ren lillura aundia; zer ete zan berau? Adierazgarri aparteko bat bere begi argí, asmagaitz, tristura oldozkorrez lurrundurikoetan eta bere ao fresku, lizunkoi, irripar maltzur maxiolarian erabillena.

Bein, bere aitaren adiskide zan gizaseme batek Matilde-ri esan eutson, bere arpegiak gogo-erazten eutsola Vinci-ren La *Gioconda*-ren argazki ospetsuaren zerbait, eta gomuta orrek bizi-bizi egin-da ikusi eban lez gizon ona, argazki a Madrid-eko Museuan ete egoan itandu eutson. Baietz, bat an aurkitzen zala erantzun eutson, ospetsu ta adierazkorrena beneziarraren arpegiakera bakanean antzezgarri zan zerbait aurkitu eban, begirakunaren alako goibeltasun laiñoa, alako leia ta ardura gaiztoa irriparrean.

Italiar maisu aundiaren laukiak jarkera barria emon eutsan Matilde-ri, eta a miretsiaz, limurkeri-aize leiatsuagoa idoro eban, irripar exkutuz bete esan-eziña; gizaseme bat susper-erazten ikasi eban begirakuna ia-ia berari zuzendu bage, eta gero bera naspiltzen gero irripar filoso, trufari, nare, ex-axol batekin.

Alaba bakarra eban-eta, aítak maíte ikusten eban Matilde, apeta, naikerí ta gaiñerakoak egiten itxirik.

Lagun talde izugarria eukan, batzuk beartsuagoak, beste batzuk itsusiagoak, danak txeratsu eroan oi ebazan bere antzoki gelatxora edo-ta bere kotxean ibilaldi bat egitera, beti ardura ta adiketa pozkorrez inguraturik, naizta onek sarri gorde ez Matildek bere lagun-en gaiñ euki nai eban nagusitasuna.

Matildek ez eban nai beretzat gizon arruntik; talentu aundi ba, gure eban beretzat, ulert-eziña, misterioz betea; gizon bat, itxura dotorekoa ta adimen izugarrikoa; Byron bat lakoa edo, erenkura barik. Diruan ez eban begirik jarten: berak eukan nai-koa bientzat.

Gau baten, gizon bat ikusi eban, Errealean, eder izanik gogoa eroan eutsana. Gazte bat zan, tantai lerdena, begi baltz gorrituakaz, arpegi zurbil eta ule lure ta baltz bela-ego antzekoaz.

Matilde luzeroan egon zan ari begira betaurrekoakaz, eta gazte erromantikua beragana zuzentzen ikusi ebanean, berak bere lilluragai guztiak agert-azo zituan: batzutan bere aundiki arpegi-orrazia erakusten eutson, eta bere adats ugari lits gorritzakaz urreztatua; beste batzuetan, birloratua begiratzen eutson aizegailluaz jolasten zalarik.

Matildek bere antzoki-gelatik urten ebanean, narruzko kapa zurian batuta, kotxean sartzeko, bere begi aundi tristeakaz begira eukan gazte zurbilla ikusi eban.

Laster jakin eban andaluziar margolari bat zala, Alonso Guzman eritxona, eta orduantxe Erroma-tik etorria. Seguru asko, berak nai eban eta billatzen eban gizaseme buru argikoa. Matildek edozer eskuratzen bait eban bere aitagandik, gauzak bere gogora atondu zituan: onek bere ondasun eta gauzen arduraduna bialdu eban Alonso Guzman-en billa enkargu batzuk egin nai eutsozala-ta.

Etorri zan Alonso, eta erabagi ebenez beronek egingo eban Matilde-ren argazkia. Onek gogo eban Rafael-en aurretiko egikerako bat, soingaiñeko urdiñaz eta ulea txorta bitan, eta, al izatekotan, lirio bat eskuan. Guzman gazteak ez ekian askorik Rafael aurretiko estiloaz, eta asi zan ebere modura laukia osotzen. Alper utsa zenduan margolaria; baiña ba-eban gatzik izketan, eta bere

boemi-bizitzako istori, jazoriko ta izkirimiriakaz Matilde-ri ta onen aitari poza emon oi eutsen.

Argazkia ostera ez joian aurrera; eta Guzman-ek, aurrera ez jarraitzeko, Matilde zuritu eban pinturarako trebetasun ikaragarria ebala esanik, eta Apele-ren arteari buruzko ikasteak emoten asi jakon.

Egunero Matildek lore-txorta olerkitsuak atondu oi ebazan, eta margolaria eltzen zanean bertatik asten eban bere lana. Irakasleak bitartean Braddon andrearen eleberri bat irakurten eragoion.

Goiz aretan, udan, Guzman eltzean, margozten iñarduan Matildek; irakasle andrea lo egoan liburu bat eskuan eukalarik. Ingelesaren begi zorrotz-potik aske aurkitu ziranean biak, arimaraiño jo eben begiakaz.

Margoztu eizu, Guzman jauna —esan eban Matildek—. Urduri nago.

Gazteak artu ebazan margo-para ta pintzelak, eta aurkitxoan jarri zan. Alonso'k, maisu bat ez ba'zan be, maisu-egokera eukan; margo-para ezkerrean, gorputzetik pizkat urrindua, pintzela esku-mean, kolore batzuk nastau, begiak txitxildu ta bi edo iru pintzel kolpe emonaz, Matilde-ri begira geratu zan gogo-beroz.

Zergaitik begiratzen nozu orrela? —itandu eutson neskak, miin-motz.

Maite zaitudalako —arek oi, zartzuela ben bateko abots zoliduna bai litzan, eta bere jarlekutik jagi egin zan.

—O! , itxi eidazu, arren! —bota eutsan Matildek, besoak zabaldurik.

Orduan esaidazu joateko —gaiñeratu eban berak, neskaren eskua artuaz, eta aren belarrira oiukatuz—: Ene biotz! Ene izar!

Aurki bat beera bota eban kolpe batek itxartu eban ingelesa.

Urrengo egunean azal^Penak egon ziran aita ta alabaren artean. Neskak maite eban mutilla, egia zan; aita zuritzen itxi zan; margolaria barriz etorteari buruz ez eban eragozpenik jarten, aurretik nor zan eta zein sendikoa jakitekotan. Arduraduna danaren jakitun egin zan zeatz be zeatz: lerkai bat lez jausi ziran aren albisteak.

Lenen, etzan ez Guzman, ez Alonso; Migel zan aren izena, eta beronen lenengo abizena Perez. Perez! Nazkagarria! Gero andrakoi utsa izan zan beti, andrazkoen pentzutun bizi izanik, eta

Matilde-rentzat gorriagoa zan: kotxe eder dotore baten Castellana-n zear ebiltzan prestamista aundiki biri dirua eskatu eutsen, beragaz ezkontzen zanean ordainduko eutsoela-ta.

Izugarrria izan au Matilde-rentzat; negar agin eban, oian egon zan sukarraz, eta gero, zerbait baketua, bere aitarekin eta aitaren adiskideaz itz-egiñik, pintura-zalea zanak, lilluratu egin ebala ezagutu eban, Perez irudiz, iguingarri! baiña, bere talentuaz.

—Talentua! —oiu adiskideak, irribarrez—, Ez dau iñoiz euki talenturik.

—Eta nire argazkia? —Matildek.

—Txingote zantar bat dozu.

Matilde-ri, a entzunez, malkoz beta jakozan begiak.

Bera, ezezkor, ez-axol zana, gizaseme arek lilluratua; bera, andrati batek, lanbidez limurtzaille zanak, guda-mutil bateren ízketaz burutik eragiña.

ITXASOAN ALDARM

Euritan joan ziran goiza ta arratsaldea; biotz zanpatu batetik erne oi diran malko lodiak lez jausten ziran euri-tanta itzalak, gal-tzairuzko islak iduri airean dizdiz egiñik eta potzuetako urari jauzi eragiñik. Beerantza joian eguna; zerua izten eben odei zuri-urdiñak bee-bee aurkitzen ziran, eta laiño ariñak lausotzen eguratsa.

Bee-laiñoan baturako ikuspegiak antzik bai dau tristura ta goi-belaren lezan bizi dan arimeaz; dana bildu ta txeratzen dauala dirudian lanbro leunezko seda-eun mee orrek batzuentzat egun eguzkitsu batek baiño lillura ta erakarpen aundiagoak eskintzen ditu; lurrari irribarre eragiten dautson izar bizigarri billa dabil zoriontasuna; oiñazeak, illunpeak, goibeltasuna, zoriontasunaren eta oiñazearen nastetak, kerizpea billatzen dau, egunaren eta gauaren nastea dana.

Grume eguna zan, bea dizdizka, dirdir meezko urez bustita; zir-tzart egien ur-apakiñak sorgiñen batek bide bakartian ereindako ispillu zatiak legez; bide onen ezkerrean mendiaren magala ikusten zan, eta emengo aitz anean irak jaioten, orduko beillegi biurtuak; eskumara, landa bat bedarrez bete-beterik, usain eze osasuntsua ixuriz; lur-apurra emen ebagia egoan zakarki labar bat egiñik; Kantauri itxasaldeko baste bategaz alkartzen zan au, bion artean arresi eskerga, itxasoaren sakar kementsuz beti muker eraso, eraturik.

Aize ozkirria, ezo ta itxas-sundaz astuna, ortik etorren lo da-goan mamu baten intziri apatz luzaturikoa legez; olatuak eztanda egien aitzen gaindi burrunba izugarritan; eta, urrintzerakoan, zeru-raiño jagiten zala zirudian murmuria sorra sortzen.

Kantauri itxasoa jolaska ebillen, eta, alan be, lur-emendaren gaiñetik begirakunari jausten itxi ezker, ezpiritua be beronekin jausi ta lenengo izuz ta gero arriduraz joa sentiezen zan. Labar-orma ikaragarriaren oiñetako atxak, adi-adi egozan olatuen zirkin,

igikera ta erasoai; indar guztiaz jazarka ziarduan itxasoak; izter-begi bion kolpetik bits eta aparrezko laiñu-goibelak jagiten.

Lurra jaínko baten burua ba'litz, itxasoa aren bur-muiña izan bearko; olatu orreik, emakume arimea lez begirakor, sotil, illun, maltzur aurreratzen datozanak, eta gero, dardaratu ta naspilduaz, su-garrez kizkur lez, arnas-estuka aurreratu, biurritu, nekarazi, indar artzeko gelditu ta egaz doaz ondoren, odolak burua artuta, arkaitzen kontra lertu ta apur-aztera; bitsezko obo orreik, azkartasun zoroz bira egiñik, kolore aldatu ta laru, gorri ta zidarrezko egiten diranok, atomu pilloak izango dira bakar-bakarrik, aizeak eraginda eta itxasoan urtutako sodiu kloruroren auste osoa nunbait; baiña griña-lera-irritsen joan-etorria emoten dabe, eta ideien argi-dizdizera gizaki guren baten buru-muiñean.

Itxasoa gizonaren arimaren dirdai bat lez da; bere goraldia, bere poza; bere beeraldia, bere tristura dozu; zibilizaziñoak azpiratua, aren kontra irrintza dagi ekaitz-egunetan; aundia dan legez, ez dau errukirik ez txikientzat ez apalentzat; danak zapal-azten ditu bere asarre-jasakaz.

Arkaitz-gaiñ jarririk, eta bati gogor eutsirik, bidutziaren aldakuntzak so-egiten nitun, begi oso zabalakaz miresten nengoan, zorionsu agian neure oldozkun mergatzetatik aske ikusiz neure burua. Ergeltasunaren egoa espiritua gozatzeraz etorkidan maiteki.

Baltzituz joian be-laiñoa: argi-jariozko dizdizera artuz joian itxasoa, goian agertua zan odei zuriño baten izla-lamarekin. Orduan begitandu jatan bean, oso bean, zirimol nastu arein artean ontzi bat nekusala azpi-zurruna agirian ebala; olatuak ari-buru baten antzera jaurtzen eben arkaitzen aurka, eta, txil egitean, samurkiro intziri ba'legi lez, kirrika egian.

Bat-batean aldarri, garraxi batek urratu eban airea, bear bada itxas-txori batena, niretzat giza eztarri batetik urtena; aldarri luzea, etsi-etsia, zolia; samin-oiu a tristura atomua bai litzan galdu zan gabaren tristura muga-bagekoan. Tindu kolorez jantzi zan itxasoa; aizea indartsuago oiuka; olatuak orroaz eta orroaz.

Mendian barruratu nintzan, itxasoaren jostaillu zan illotz baten gorabera goibelak buruan izukor be izukor. Gozo egoan gaba; ixil bete atsedentsua lurrean; zeru-zear zakar bultzaka ebiltzan odeitzar zurbil artetik urtetan asia zan illargia; eta beronen

erraiñu laruak be-laiñoa zidartzen; zelai, landa ta soben lurrun-emoitzez ezotu ta usainduriko eguratsa oianetik etorren mendia-
ren arnasa aaltsua bai litzanr Aranaren barrenean gurmaz estaldu-
tako baserria somatzen zan; urriñera, basetxe baten antz-erraiñu
illunetik argi-izpi bat jalgiten zan gaba kiñuka ikuskatzen egon
leikean begi gaizto baten beakunde gorratsa iduri.

Illuntzean, nire bizitza txirristatzen dan erriko etxe bakartian,
zugutzen adar igarren karraskada entzuten dodanean, edo-ta ate
lokatuak dardaratu ta irrikarkarak ateraten daustiezanean, aspal-
diko gomutak moltzotu oi dira nire buruan; ez dira biotza alai-
tzen daben orreitakaak, barre-irri alaia ezpan-artzetara urreraruz,
barrua atsekabetzen dabenetarikoak baiño; guztien artean, egia
esan, laiñozko egun baten ondo zuri-baltzean oiñazezko lits a na-
barmendu oi jat eta belarrietan dardar dagist garraxi arek il-urren
aurkitzen danaren dei etsia ba'litz; dardar dagi, eta galduz doala
dirudit tristuzarko atomu bat lez gabaren tristura mugarik ba-
koan.

LEKOTXANDEGI, ALAIA

Ez dot uste meatz-langillerik, ez uso-eiztaririk, ez izoki edo arrankai arrantzalerik Bidasoa ertzetik Lekotxandegi, Pasai ta Irun-go Etxekopar-eta etxeko mandataria baiño ezagunago danik.

Lekotxandegi ezagutzen dabe ostarariak, dendariak, karabine-ruak, katez neurtzailleak, arri-zulatzailleak... Mundu guztiak agur egiten dautso, maitekiro Leko esanez; danak diñotsoe zarbait erriko tarrantan joaten ikusita.

Lekotxandegi larrantz eta lazo oneko gizasemea dozu, bena, sudur luzeduna, begiak zerbait samur ditu, buruan txapel estu-txikia, eta saman korbata gorria.

Korbata baltza ba-daroa erritar jantzitako abadetzet artzen dabe, eta onek apal-azo oi dau, Leko-k uste daulako Robespierre bera baiño errepublikanoago dala.

Lekotxandegi ezaguna dozu Bera-n urte batzuk diranetik. Nabarmena izan zan arek errian egindako agerpena.

Eldu zaneke leenengo egunean, ostatu fondan geratu zanean, bere gelako leiotik beera lokarri edo kordel baltz bat bota ta arroztetxeko kisketara lotzea otu jakon. Gau-erdian kordelari oraturik eta beroni tiraka, pan, pan pan iru kolpe ozen emon ebazan atean, deigailluaz.

Arroztetxeko jauna, antxiñako karabinerua ta erdeldun zarrara, jagi zan, eta iñor ez egoala ikusirik, muxingo ta erremuskadaka, ogera joan zan barriro.

Joan zan ordu-laurden, eta epe onen ondoren, barriro pan, pan, pan, Lekotxandegi-k beste iru kolpe emon ebazan.

Bigarren ezdegi zan atea, eta karabineru izanak iñor ez egoala ikusirik, sumiñaren sumiñez bidera urten eta lau aizetara zuzenduz bota eutsezan iraunik zakarrenak alako txuliatzaille, txukari ta irri-zaleai eta euron amai.

Lekotxandegi, bitartean, barreari ezin eutsita egoan ixillik.

Irugarrenean, karabineru izanak ez eban aterik itxi, an triki-mailluren bat egoala-ta. Lekotxandegi-k kordela kalera botarik, itxi bere egitekoa.

Urrengo gabeen. Leko-k arin ogeratzea pentsatu eban, biarmon goizean goizetik kotxea artu bear ebalako.

Ogera juekeran bere gela bazterrean gasolina lata uts pilloa ikusi eban. Eurok buruan iraulka lo egin eban; iruretan jagi ta bere maletea egin ebanean, latak etorri jakozan burura. Artu eban eurak eta apurka apurka bere etsaia zan bidazti baten ate aurrean ipiñi zituan; au ule-zuri ta surra ikusten ez jakon gizona zan, sur-motza bait zan oso. Gero, gero gelako pitxerra arturik, mandatariaren gelako ate azpitik ura botaten asi zan. Au egiñak, «Sua! Sua! » deika etzan ixiltzen, eta bidera jatsi zan bere mulateaz; emen artu eban kotxea.

Bidazti ulegorri ta sur-motzak, abots a entzunaz, jagi zan ízulara ta sarrakioz beterik, ogetik jauzi egin eta oiñak azpitian ipiñikeran, ura botaten ebela uste izan eban sua itzaltzeko; pnztu eban argia, ateari saka egin eta latak lurrera jauzi zarata ikaragarriaz.

Zentzuna galdu alean egon zan gizona. Guzti ori Lekotxandegi-ren trikimaillu ta irri-jokua besterik etzela izan jakin ebanean, iñoan:

—Orrek ez dira mandatari bati emoteko ausarkeri ta trufak.

Sudur bako gizonto gaixoak uste eban olako olgetatik urrun egoan espirtuzko gizaki adei aundikoa ízan bear ebala mandatari batek.

Onako gauzakaz etzan arritzekoa Lakotxandegi-k Bera-n ospe ta entzutetsu izatea.

Nik estankuan ezagutu neban igande baten. Baserritar asko egozan an batuta. Leko korreoaren zain egoan. Bertatik euskeraz mintzatu zan oizko bentasunez basserritar arei esanez:

—Zuok be naiko ergel zarie eskolapioetara mezatara joateko.

—Zergatik? —itandu eban areitariko batek—. Apaiz ezote dira besteak bezelatsu?

—Eskolapiotarrak! Nola izango apaizak! Karabineru erretira-

tuak dita danak —eta ondoren gaifieratu—: Gezurra dirudi Go-bernuak olako eskubideak Karabineru Gorputzari emotea!

Goi-dei politiku onen ostean, Leko, estankutik urtenda, bi-dean gora abiatu zan.

Illabete batzuk geroago, Lekotxandegi erriko jaietara etorri zan, Irun-go lagun batzukaz. Lenengotan oso ben, serio egon zan; baiña illuntzean bere onetik aterata, kasinoko balkoira aterki bat eskuan ebala urtenaz, itzaldi zentzunbako ta naspilla egiten asi zan.

Apeztegi-ren etxean ospatutako apanan, nik ez dakit, pertsona batzuk ezpanetan edontzia daukela edaten dagozanean bestetan baiño gitziago entzuten ebelakoa atera eban.

Ainbat eta ainba_t proba egin ebezan, eta goizeko lauretan Leko ta beronen lagunak *La Marsellesa* abestuz eta burutik oso-osoan ginda, biurtu ziran Irun-era.

Leko-k beti esan eban, kementsu esan be, bere arima osoa orretan ipiñiaz, gau aretan kalte egin eutsoenak etzirala izan ardaoa ez likorak, aiori ta arrautz-esnekiak baiño.

Egun batean, guda así zanean, Yantzi-ko Bentetan aurkitu genduan gure Lekotxandegi aundia aparitan, Kotxearen zain egoaia; jeme- aldra *polita* eukan ingurumari, urreko ur-jauzian lanean ziar-duen lan-arduradunak, nagusi-ordeak eta kontramaisuak...

Leko bere ur-bitsetan aurkitzen zan. Gai jakon asi barri zan gudatea, bere irudimen biziari askatasun osoa emoteko; frantse-sen eta alemanen guda-tresnetako aurrerapenak ziran begikoen zitu-an gaiak.

Azaldu eutsen bere entzuleai Tarbes-en egiten ebezan Turpin autsak, arerioak ilda zutik izten ebezanak, eta Boucau-n egiten ziran makina miragarriak.

Baiña guzti au etzan ezer alemanak asmatzen ebiltzan tresna barrien ondoan: goitik ebiltzan kaiñoiak, bat zoraturik izten eben autsak, berenezko geziak,.. Une aretan ziarduan odeientzat luba-ki ta arresi batzuk jasoten...

—Odeientzat? —bota eban nagusi-ordeko batek—. Eziña da ori.

—Ez? —oiu Lekotxandegi-k, barre-algaraka—. Itandu eiozu Von Klück-i, ta ikusiko dozu. Lubakiñik ezin daitekela ipiñi odeietan! Lurrean legez, edo obeto oindiñokarren.

Ez dakit nun eta zeri lotuta.

Zuk, ez; baiña Von Klück-ek bai ba-daki aspaldi danik. Turkar edo argeliar batek erakutsi eutson; ez dakit zer deabru izan zan.

Kontramaisuetako batek —*Kapataza* deitzen eutsoen an— esan eban alemanak bear bada gosearen gosez bakea eskatu bearko ebe-la; Lekotxandegi-k, baiña, ezetz baiestu eban begi-zearka ta ar-buioz. Oraindixetik egozan zurez aragia ta ogia galtzuz egiten. Aurreko aldikadetako galtzuzko kapela guztiak baiturik eukezan bere garaian opiltxo biurtu egiezan.

Barrikeri oneitaz naikoa arro-aize erakutsi zan, Lekotxandegi-k, autu-gaian luzarago ezin eutsirik, ots-otsean oiuz:

Izugarriak diranak frantsesak gerrarako ekarri dabezan abereok dituzue,

—Zer abere?

Orreik, Endaia-ra eroaten dabiltzanak, Santa Ana etxetara. Ez genkian ezer. Zer dira?

—Danetik dago, *Popotamuak* dagoz.

Hipopotamuak —bota neutson nik.

Ez, ez, *popotamuak*; olaxe esaten dautsee eurak eta olaxe Martin *musiuk* be, areik zaindu ta jagoten ditunak. Abesten daben maitagarriak be ba-dagoz, eta gautxori ikarragarri batzuk.

—Baiña gautxoriak txikiak dozuz —egotzi eutson Amerika-n egondako batek.

—Txikiak? Orreik beintzat ez dira txikiak. Zoaz eurak ikusterera. Ba-dagoz batzuk bost metrokoak.

Ego-zabalik, egazkiñen antza eukiko dabe, deadar *Katapazak*.

—Nik ez dodaz ikusi iñoiz be ego-zabalik —Leko-k erantzun. Eta berberak itsatsi—: Gas-oial fenikatuan inguratuak eukezan.

—Zetarako ete?

Emengo giro ezoaz, diñoenez azkordin antzeko zerbait ager-

tzen jake mintzetan.

Eta odolaz janarituko dabez? —itandu neban nik, irri-barrera.

—Lenago, euren lurraldean, bai —Leko-k erantzun—. Euretariako baktoriak dozena bi edo iru ume emoten jakezan odola xurgatu egioen; baiña orain atzipetu ta ixilazo daroetz bei-esnearen gazuraz, minioz eta sodazko bikarbonatu pizkategaz koloretuta.

A zelako naas-maasa! —marmar errioxatar batek.

—Eta nundik datoz gautxoriak? —nik itaun.

Kalkuta-tik —esan eban Leko-k—; Martin *musiu-k* ekarri ditu bizar aundi ta zurizko indiar batzukaz, eta zidarrezko betaurreko batzukaz.

Eta ba al dago beste piztirik?

—Bai; itxasoko suge batzuk be ba-dagoz, galtzairu zingatu, edo galbanizatuzko ezkatakaz.

Eta zetarako nai dabez eurok?

Itxas korreorako —erantzun eban Leko-k—. Uretan balio dabe, eguratsean uso mezulariak legez. Dirua ba'neuko, olako bat erosiko neuskio Martin *musiu-ri*. Txakurrak baizen otzanak dira... Ba-datorkit kotxea. Ondo izan, jaunak. Agur! Eta ez egon gero Endaia-ra joan barik gautxoriak eta sugeak ikustera. Martin *musiugaitik* itandu.

Eta Lekotxandegi joan zan alasoko ta ben, oi ebanez.

Illebeten batzuk geroago Irun-en aurkitu nintzan Leko-gaz eta bere etxera eroan nindun jatera. Joan nintzan batez be, jakin-gurak eraginda; jakitearren bereziki, zer jarrera artzen ete eban beretarren aurrean aspertu bako nastatzaille arek.

Lekotxandegi-k bere amaren, andrearen eta seme-alaben aurrean aurkeztu nindun, eta maian jarri gintzazan. Ipiñi zan maiz-maia, etorri zan neskatxa, Bost-Irietako naparra, zopa-goporrak; itxi eban, ugazabari begira, euskeraz esanez:

Ez naiz ausartzen, jauna.

Eztaitez izan ergel-uts —Lekotxandegi-k oi—. Esaizu.

Neskatxak jaso eban goporraren estalkia, esanik:

Gaur, amazpi Thermidor, Askatasun, Bardintasun, Anaitasun. Gora Erkala!

Lekotxandegi-k onezko kiñua, eta bere emazteak barreani eutsi eziñik, eskuzamaia aora eroan eban.

—Kaikua zu, Leko! Kaikua bai zu! —oiu egin eban.

—Emakume oneik ez dabe ulertzen benetako gauzarik —oiu beretik Lekotxandegi-k—. Neskaxaren eziketa osotzen nabil; erkaldar egutegia erakutsi dausot, eta nire emazteak ez nau esker-tzen.

Eta Lekotxandegi, alaia, au esatean, beti baizen seriozki.

GABON EGUN EURITSU BATEKO TXAKUR-AMETSA

1. *Azken allegroa*

Madrid-en, andiki etxe bateko jantokian. Intxaur-zurezko arasa bat or daukazu, kopa, katillu ta portzelanazko ta zidarrezko bes-te tresna batzukaz; erdian, mai bat jateko gertu, bere zamau zuriaz. Onen gaiñean, tximist-argontzi bat eta emetik dingilizka txirriña ari biurkoi batez lotua. Ormetan, ala-olako margo-lauki batzuk. Azpian, oinpeko oial zabala, zerbait kolore-gabetua.

Logeleak balkoi bat dauko edarrapiak kristaletan eta kortina illunak barrurantz. Gabon eguna da. Arratsaldeko ordu biak. Kalletik entzuten dira kantaka ta txillioka, tanbor eta pandereta jonten dabilzan mutil gaztetxoek abots eta oiur zorrotz zakarrak.

Jantokian Eduardo jauna ta onen emazte Luisa andrea dagoz jarrita. Eduardo jaunak irurogei urte daukaz; bere emazte Luisa-k, berrogeta amalau. Eduardo jaunak bizarra ta ulea margozturik daroaz. Giza-beteen ez da ez luze ez labur, tximurak arpegian, begien azpikaldean izur amuskoak. Luisa andreak taiu igarra ta ozpindua, austua oso arpegia, agin-ordeak; orraztari zuri bat daroa.

LUISA ANDREAK. (*Bere senarrari*).—*Egin dozu ospitalera ikustaldia?*

EDUARDO JAUNAK.—EZ; arratsaldean joango naz.

LUISA ANDREAK.—Seguru-aroan be etziñan egongo, ezta?

EDUARDO JAUNAK.—EZ.

LUISA ANDREAK.—Ba, andik dei egin dautzue.

EDUARDO JAUNAK.—Eta zer egingo! ezin izan dot. Berandu ja-gi naz!

LUISA ANDREAK.—Jakiña! Berandu be berandu ogeratzen za-ra-ta...

EDUARDO JAUNAK.—Ez nau loak artzen. Zer egingo? Lokartze-ko nengoela, eztula gaiñ..., eta kitu. Morfina daukien opil orrei-

tatik bat artu bear izan dot, eta olantxe be ezin izan dot lorik egin..

LUISA ANDREAK.—Zabaleta-ren etxera joan bear zeunke, ia zer esaten dautzun.

EDUARDO JAUNAK.—Zer esango daust, ba! Ezer be ez. Nik ba-dakit zer daukadan.

LUISA ANDREAK.—Bai, zuk dana dakizu... Zuk beste dakien beste osagilleak be ortan jakitunak diran beste batzuekana joan oi dira... Zabaleta-gana joan nai ez ba'dozu zoaz Gartzia Moreno ikustera.

EDUARDO JAUNAK.—Zetarako? Orrek ez dau ezer bailio. Itxu-rontzi utsa da.

LUISA ANDREAK.—Bai, zuretzat danak dira itxura uts; Gartzia Morenok, ba, entzute zabala dau ta diru asko irabazten dautzu; zeozegaitik izango da.

EDUARDO JAUNAK.—Ba! ... Ikustaldia ta dirua irabazteak ez dau ezer adierazo nai zientzia eukiteko.

LUISA ANDREAK.—Zuretzat ezertxok be ez dau ezer adierazo nai. Arrokeria da zuk ugari daukazuna... Orrela zabiltz. Ez dozu ezer jan gura?

EDUARDO JAUNAK.—EZ; ez dot gogorik. (*Maitik jagiten da*).

LUISA ANDREAK.—Zer egingo dozu orain? Etzara beintzat lotara joango.

EDUARDO JAUNAK.—Bai, ba, lotara noa.

LUISA ANDREAK.—Gabaz ez dozula lorik egiten esango dozu gero.

EDUARDO JAUNAK.—Eta egia da. Zer egingo, alaba? Gabaz ez naz logura. Orain, barriz, berez izten jataz begiak.

LUISA ANDREAK.—Nun apalduko dolu?

EDUARDO JAUNAK.—Akeit-etxean artuko dot zerbait.

LUISA ANDREAK.—Kontuz ibilli; ez egizu edan.

EDUARDO JAUNAK.—Ez dot edango. Bai, ba-dakit kalte aundia egiten daustana. Zu zeure aitzaren etxera zoaz, ezta?

LUISA ANDREAK.—Bai, Zuk ez dozu joan naiko?

EDUARDO JAUNAK.—Zetako? Gogait egiten dot an. Gaur ezin daiteke berba egin gazteakaz.

LUISA ANDREAK.—Zergaitik?

EDUARDO JAUNAK.—Gaztedia- oso ona da, baiña beretzat; zaar batentzat otza jatzu, ardurabakoa ta doillorra.

LuisA ANDREAK.—Gu be ez gara orrelaxe izan?

EDUARDO JAUNAK.—Egia da; gazte gintazala eurok lakoxeak izango giñan.

LUISA ANDREAK.—Orduan, ez daukagu zetan alaka ta espaz ibilli.

EDUARDO JAUNAK.—Porrot egiñari, alan be, orixe geratzen jakoko bakar-bakarrik. Zer geiago egin dagike egure batek... Eta ni olakoa nozu... Tira, ogera noa apur baten.

LUISA ANDREAK.—EtZatOZ orduan nire aitzaren extxera?

EDUARDO JAUNAK.—Ez, ez noa.

LUISA ANDREAK.—Egizu nai dozun lez.

EDUARDO JAUNAK.—Orixe egin nai dot, neuk nai dodana.

LUISA ANDREAK.—(*Neke-oiñazez betea*). Jauna, zelako etxea gurea! Zer sukalde!

EDUARDO JAUNAK.—Norena da errua? Zoriarena, alanberrarena, adu gaiztoarena..., fatum-arena... Zu be ba-zoaz.

LUISA ANDREAK.—Ni be ba-noa, ez dot etxean bakarrik egon gura-ta. Negarrez emoten ditut egunak.

EDUARDO JAUNAK.—Ondo, ondo. Zertarako asarretu ta eztabaidaka asi? Sarri be sarri eztabaidatu dogu au, eta ez gara egundo be bat etorri.

2. Lantokian

Eduardo jauna jantokitik urten eta bere osagille-gelara doa. Balkoi biko gela bat dozu au; kristalezko arasa batzuk askotariko tresnakaz, sapalda edo armario bi azal ederrez jantzitako liburuakaz beterik; ormetan, margozko lauki batzuk eta 1893-an San Karlosen ikas-urtea amaitu eben osagillen argazki aundi bat; oneik, teatruan lez soingaiñeko berezi (toga) ta irakasle-txanoz jantzita argazkituriko maisuak inguratzen ebezan. Ikasleen artean agiri da Eduardo jauna, bizar ariña puntan, ule ugaridun eta kurkuts pitiñakin. Osagillearen lantokiak itxi-samarra emoten. Eduardo jauna lo-zizaillu baten etzuten da, manta bat oiñetan zabalduz.

EDUARDO JAUNAK.—Nire emaztea beti dabil bardintsu, niri gogo goa kendu nairik, itxaropenak... Jota izten nau, itun eta lurrean. Asmo ezezkor zitala! Maite nauala diño gero! Nik ler-egitea nai dau. Nik ezin daiket bizí zapaldua. Ilgo nintzateke. Zaarra naz, ez daust iñok jaramonik egiten. Ni baiño azkarragoak dira besteak. Gazteak ez dabe nire ardurarík. Bai, bai; ba-dakit, Perpetua andrea; baiña ni guzti onen aurka nago. Oso arduratsua da nire emaztea; beti izango ditu gogoan kapelea, eskumuturrak, apurto edo loitu dan gelako papera; baiña ni ez nauka gogoan... Ez dot lorik egiten... Gauzok burutan erabilliaz, ezin neinke lorik egin. Leen, eder jatan guztiz, gela au, neure lanlekua! Emen ondo nengoan egi-egiaz... Liburuak irakurten nitun, aldizkariak irakurten nitun inglesak eta alemanak, iztegia alboan neukala. Orain iguingarri jat gela au. Naigabe onek urtzen nau; nik ez dakit au biotzatikoa ala kirioetakoa dan...; baiña il bear nau.

(Eduardo jauna jira-biraka dago lo-zizailluan, eta, azkenez, lakaturik geratzen da).

3r *Anesak*

(Eduardo jaunak telefonu otsa entzuten dau, Etxean bakarrik ete dagoan itaunka dagoz).

EDUARDO JAUNAK.—Telefonoz dei dagiste. Bakana bene-benetan! Kenduta neukan telefonua; baiña barriro ipiñiko eben egunokaz. E! Nor da? Ez dot entzuten... Fifi... Fifi..., ba-datorrela...; ondo, ondo, datorrela.

FIFr.—(Sartzen da). Neu nozu, Fifi. Neskatxa au ikusi daizun nator, neure loba da-ta.

(Fifi-k ori igar kolorea dauko ta inguru baltzizkaz esituriko begiak. Azurrak agiri jakoz. Fifi-~~ren~~ loba, Agurtzane, nekatx lirain-liraiña da).

EDUARDO JAUNAK.—Jar daitela emen neskatxa ta ken daiala erropea; oraintxe arakatuko dot.

(Neskatxak bularra ta soinburua agertzen).

EDUARDO JAUNAK.—(Begira begira). Au soiña! Au azala! Sedazkoa dirudi.

(Eduardo jaunak, bular-azterkiña arturik, neskatxa aztertzen dau. Ots ikaragarrai bat entzuten dau, oi ez lakoa, ur-jauzi baten egiña bai litzan. Ez dau egundo entzun olakorik. Neskatxari begiratzen dautso, eta onek irribarre. Fifi-ri begiratu ta zaar daurki au. Bertatik, au ispilluan izlatua ikusirik, uste dau Fifi-k, buru ordez, garazur bat daukala).

EDUARDO JAUNAK.—Gauza ain bakanik ez dot sekula santan ikusi izan!

Ni ILLUNAK.—Onek guztiok idurikizunak, amesak besterik ez dira.

EDUARDO JAUNAK.—Miresgarri jat Fifi ain zaar ikustea, buru azur arpegi orregaz ikustea. Eta ain zaarra. Neure urteak eukiko ditu.

FIFI.—*(Abots zakarrez berbetan).* Eta neska onek, zer dauka?

EDUARDO JAUNAK.—Neska onek uts bat dauka eskumako biriki-gaillurrean.

FIFr-K.—Gogorra al da?

EDUARDO JAUNAK.—Turebio lakoxea uts orrek dakarren aizebolada. Doala Zabaleta-gana... Ondo etorriko litzakio mendian sei edo zazpi illabeteko egotaldia, udabarrian.

AGURTzANE-K.—Mendian? Ez; gurago dot il. Ederrego litzakit.

EDUARDO JAUNAK.—*(Fifi ri)*, Ez egiozu itxi arinkeririk egiten.

FrFI-K.—Ez dakit beronegaz zelan jokatu.

EDUARDO JAUNAK.—Gaztearokoa dozu ezeren ardurarik ez izatea. Doe bat antza gaixorik egotea, eriotz pentsamentuak barrea ekarten.

FrFI-K.—Olakoa bada, guk ezingo dogu eratu. Gaur goaz apal-tzen Ritz-era. Zoaz zu be ara.

EDUARDO JAUNAK.—Ikuslko dot. Ain gogaikarriak dituzu egunok! Gaba arin jatzu jausten...

FuI-K.—Eta zer egiten dozu? Etzara iñun be agertzen.

EDUARDO JAUNAK.—Seme bat neukan Osakuntza ikasle, eta bere burua il eban. Zergaitik egingo ete eban ori mutillak? Pozik egoala emoten eban beti. Ikasle ona izan zan, eta ez eukan nalgabez egoteko ziorik..., eta or, urreko lantegi orretan, goiz batean

illik ikusi neban, arasa ontatik artu eban kokain-pastilla batzukaz edenduta... (*Negar zotiñez Eduardo jauna*).

FIFI-K.—Tira, Eduardo! Jainkoarren! Gizona izan zaite,

AGURTZANE-K.—A zelako zaar barregarria!

EDUARDO JAUNAK.—(Aurka *jagirik*). Zergaitik diñostazu zuk barregarri? Zuk uste dozu gaur lakoa izango zareala beti? Ez. Zu be zaartuko zara, eta zeure izekoari lez agertuko jatzuz azurrak.

FIFI-K.—Eskerrik asko diñozunagaitik,

AGURTZANE-K.—Au pellokeria!

EDUARDO JAUNAK.—Zuk uste dozu zorakeria dala aita bat bere semearen eriotzaz naigabetzea?

FiFi-x.—Tira, Eduardo; etzaite orrela izan.

EDUARDO JAUNAK.—Zelan izango naiatzu ba! Nazan lez. Nire emazteak gero, Perpetua andreak, olan dei egiten dautsot nik txantxetan, ez dau oiñik etxean ezarten; bere aitzarenean dago beti. Uskerietan sartuta dabilkizu: bisitak egin, zidar-gauzak garbitu ta kapeleari autsa kendu. Semeak bakarrik alkar lotzen ginduzan sendo be sendo. Orain ez gaitu ezek lotzen. Neuk euki dot errua. Ezagutzen dot, Eduardotxo i1 zan ezkerero, batez be sene-tik urtenda nabil: dirua jokatu, edan, gau-jolasak...

FIFI-K.—(*Ardurarik ezarena egiñaz*). Orixe geratzen jatzu, ba.

EDUARDO JAUNAK.—Bai. Paul eta Birgiñe lez izango giñan, edo-ta Teruel-ko maiteminduak, bear bada.

EDUARDO JAUNAK.—Zu oso goiz-oillanda zara.

zuk nai izan zenduanez zure emaztea dirudun izan zedin.

EDUARDO JAUNAK.—Leen baizen alai zu?

kristikin antzo.

EDUARDO JAUNAK.—Abesten a1 dozuz areik frantses koplak?

tripalak daukadazanean.

EDUARDO JAUNAK.—(Banazean). Au bai lotsabakoa! Gaiztoa alena! Orain edozeiñek izten nau albora. Batek ez dau beste jolasik edan pitin bat eta neure adiskide Martin injineruak izten daustazan txosten batzuk irakurtea baiña. Gaiñera, atsegin geia-gorako, etsipena emonda dago bat. Zabaleta osagilleak aztertu nau, eta esan daust: «Gizon, jagon ezik, au txarto doa».

(*Axola bage*). Danok daukagu zeozer; urteak ez doaz

alperrik. Beraz, zer diñostazu neskatz oni buruz?

EDUARDO JAUNAK.—Doala mendira, udabarrian. Eguzkiak emongo dautsa, eta liraiñago jarriko jatzu oraindik.

AcURTzANE-x.—(Barreka). Ez, ez; ii naiago dot; gauzarik asko egin bear dodaz ementxe.

EDUARDO

Ez dagiala Ielokeririk egin.

dakit beronegaz zer egin. Goazan, arratsalde on.

Agur, Eduardo!

EDUARDO JAUNAK.—Agur!

4. *Gizona itxartzen da*

EDUARDO JAUNAK.—(Nagiak *aterarik*). Eta guzti au amesa besterik ez ete da izan? Bitxia da; gauza bera izan balitz besteko biotz-zauskada itxi daust. Eta neskatz bai zala lerdena! Bizi naiz ez eutson ardurarik. Eta Fifi nik ames onetan ikusi dodan lakoa ete dago egi-egiaz? Nazkagarri dago osotoro. Guzurra dirudi urteak orrelako triskantzak egin daikezala. Eta bera bai zala ederra! Bustamante arek esan eustan ekin eta ekin ez ezkontzeko aregaz, Fifi-k, nik ezagutu aurretik senargai asko euki ebazala, are geigao seme bat be izan ebala, esanik. Aregaz ezkondu ba' nintz, zer jazoko ete? Nok jakin! Bear bada oba izango, bear bada txarrago oindiño. Alanberraren illuntasunak. Ze ordu da? Bostak (*Jagi ta balkoi batera urreratzen da*). Bai eguraldi nazkagarria! Gaha da. Troskoak ipiñi ta kafera noa. (*Igarobidera urtenik*), Erramona!

ERRAMONAK.—Dei egistazun, jauna?

EDUARDO JAUNAK.—Ziurrik asko etxetik kanpo apalduko dot. Etxekoandrea joana da jadanik?

ERRAMONAK.—Bai; bere aizteaz apalduko dauala, esan daust.

EDUARDO JAUNAK.—Eta zuok, zer egingo dozua?

ERRAMONAK.—Guk, Nikolasak eta biok, Benita-ren etxera joango gara.

EDUARDO JAUNAK.—Eskatu dautsazue baimena etxekoandreaki?

ERRAMONAK.—Bai, jauna.

EDUARDO JAUNAK.—Gaur gabean, beraz, ez da etxean iñot egongo?

ERRAMONAK.—EZ, iñor bere ez.

EDUARDO JAUNAK.—Tira, tira. Ondo dago. Ekatzu giltza.

ERRAMONAK.—Emen daukazu, jauna.

5. Adiskideai lotsa emoten

Zapatak jazten dauz Eduardo jaunak, gero otzol edo eskala-poiñak, gabana, gorrotoloa, eta aterkiña arturik, mailletatik beera kalera doa. Euria da, edurraz naste. Eduardo jaunak jente artean Isabel II'garrenaren plazalik urten dau, eta Areta kaletik, Eguzkiaren Aterantza,

EDUARDO JAUNAK.—Sor daukadaz bernak eta belarrietan du-rundu gogaikarria. Ezin naz zutik egon. Zabaleta ikusten joango ba'nintz! Ez, Zabaleta ori beti izan da berekoia, errukirik bage. Lengoan esan eustan: «Orcleaturik dago urritasun ori; baiña ez oso-osorik. Ba al dakizu zer jatzun egoki: kendu alkoola, tabakua, jataldi gogorrak, kendu opil-kaxolako larrapote saltzarik, atsegin jatzuzan arren; kendu baita biotz-ikara ta zarrasta zakarrak. Andrazkoai, begitu bere ez. Ortuariak, arrain pizkat, esnea, soinketa neurritsua; illean lau edo bost egunez, kuku-prakazko azal-igurtziak, geiago ezer bere ez. Orrela joango zara; bestelan, adiskide, au gero ta txarragora doa; gitxien uste danean, triki-trake bat eta bazoaz beste mundura, eta or ibilliko zara narras ille batzuetan. Nik esana egiteko prest ba'zagoz, erdu ona illebeta barru; bestelan egizu zeuk gura dozuna». Zabaleta ori beti izan da berekoi bat erruki bage. Dirua irabaztea besterik ez dau nai izan. Neuk be orrek egiña egingo neukean. Ospitalerako nor-geiagoetan ori baiño obeto egon nitzan; baiña gero etzun nintzan..., eta ondoren mutillaren eriotzeak lertuta itxi ninduan. Zergaitik ilgo ete eban mutil arek bere burua? Alaia emoten eban, eta pozik egoala. Sukar ustelez edo alborengoz 11 ba'litz, tira... Baia bere burua Ikaragarria... Zer errazoi euki eikean gure aurka egoteko? Ez dot ulertzen. Ondo zaintzen genduan, txeratsu, eta alan be... Dana dala, aitzu egin bear da.

6. Kafetxean

Aiko-maiko ta kilikolo sartzen da Eduardo jauna kafetxean. Bazter batera eldu ta bertan jarten da.

ZERBITZARIAK.—KaXO, Eduardo jauna? **Itxi** eidazu gabana. Otz egiten dau gero urteteko. (*Gabana kentzen laguntzen dautso*). Eguraldi txarra, e?

EDUARDO JAUNAK.—Txarra benetan.

ZERBITZARIAK.—Zer artuko dozu, jauna? Akeita?

EDUARDO JAUNAK.—Ez... Jerez-kopa bat artuko dot. Alkool au, zalantza barik, ona da.

Ni ILLUNAK.—Ez zeunke alkoolik artu bear. Kalte egingo dauz. Gogora eizuz Zabaleta-ren ardura ta osebideak.

(*Eduardo jaunak kiñu bat egiten dau eskuaz pentsamentu go-gaikarri bat burutik kendu naita lez; beste egunetan baiño ariñago kaleratu dan gabeko egunkaria eskuratu, betaurrekoak aleta ta irakurten asten da*).

ZERBITZARIAK.—Gizon, tamal aundi! al dakizu, numen batgaitik ez jaku jausi loteria.

EDUARDO JAUNAK.—GIZON, tamal aundia! Nik, ba al dakizu?, ez dot siñistuten loterian: egundo be ez jat jausi.

ZERBITZARIAK.—Niri, bai.

(*Eduardok egunkaria irakurten jarraitzen*).

7. Ikasleak

LENENGO IKA S LEAK.—Ni, Batzarrean Aldunen Batzar ordezt Aberri-Batzarra jarten dabenean, lotsatu egiten naz.

LENENGO IKASLEAK.—Jakiña, zuontzat oro da bardin. Lenengo ta bein uritar izan bear.

BIGARREN IKASLEAK.—Ba! Zozokeria dozu ori! Arabaka-n bizi dana edo-ta Karabantxel-en bizi dana, ez da uritar. Gizona izan bear, eta, al dala, gizon jantzia, eskolatua. Bata naiz bestea ipiñi, nireztat bardin.

LENENGO IKA S LEAK.—Entzun eizu, Eduardo jauna, zer deritxazu zuri Diktadurea?

EDUARDO JAUNAK.—Niri, zer nai dozu eristea? Ezer bez. Gauzak ondo egiten badira indarkeriz, ona dala deritxot.

LENENGO IKASLEAK.—Zu be larogeta amatzortigarren belau-naldikoa ete zara?

EDUARDO JAUNAK.—Ni, larogetaamazortzirako azitxoia nintzan; irurogeian jaioa nozue.

LENENGO IKASLEAK.—Zuek gertatzen danagaz erru aundiko zarie,

EDUARDO JAUNAK.—Gu? Ez dot uste.

LENENGO IKASLEAK.—Bai, zuok ardura bakoak izan zarie, dudakor eta siñisgaitz izan zarie. Ez dozue erriaren ardurarik izan.

EDUARDO JAUNAK.—Ba!

LENENGO IKASLEAK.—Zuek ez dozue ezer egin politikan.

EDUARDO JAUNAK.—EZta zuok be.

LENENGO IKASLEAK.—Guk egingo dogu.

EDUARDO JAUNAK.—Aldiak esango dau ori. Ez dakit zergaitik guri botaten deuskuzuezan guk jauki ez genduzan utsak, obenak. Orok lez egin genduan. Miretsi genduan geure sasoiaren egoan ona, beti jazo oi danez; onenak zirala uste genduan liburuak irakurri, opera ta teatrura joan; bear bada geure eritxietan oker egon gintzazan. Nok ez dau olako okerrik?

LENENGO IKASLEAK.—Bai, baiña uritartasuna...

EDUARDO JAUNAK.—Bakotxa bere aldiaren bizi da. Uritartasun ori ta eskubideak, legegizonen gauzak dirala iruditzen jat.

LENENGO IKASLEAK.—Eta zuk uste dozu zeure aldiaren oraingoa baiña ohea zala?

EDUARDO JAUNAK.—Gizon, nire aldiaren bear bada ez eban gauza aundirik ball(); baiña aurreko egunak, eta urteak, emeretzigarren gizaldiaren asiera batez be, mirasgarria izan zan. Orduan bai jakituria Europa-n! Beethoven, Kant, Goethe, lord Byron, Goia, Schopenhauer, Walter Scott... Gaur barri-zale da mundua. Ondo dago ori; baiña ez da bidezko.

BIGARREN IKASLEAK.—Agure onek ba-dakiela dirudi ta ez dabil bide okerrez.

LENENGO IKASLEAK.—Bai; baiña txaplata bat da, aspergarri osor Goazen. (Ba-doa).

ZERBITZARI AK.—E t a , Eduardo jauna, zelakoak zeure eritxiz gazteok?

EDUARDO JAUNAK.—Bekokia oneik ausarta, eta ez dabe ezer balio... Geuri be, baiña orobat jazoten jakun.

ZERBITZARIAK.—Mutil onak dira, ba. Euren artean bat dago bakar-bakarrik pezeta batzuk zor daustazana; oraindik uste dot, baiña, ordainduko daustazala.

8. *Idazleak*

(Eduardok irakurten darrai; noizik bein, alan be, eteten dau orduariari begiratzeko. Bikoteak sartuaz doaz, urre dagoan zine batetik urteten diranak; gizonezkoak sorbalda zabal jasoakaz eta andrazkoak ia danak andrakillak lez margozturik).

GAZTEAK.—Atsegin izan jatzu pelikulea?

BERAK.—Ez, ez jat atsegin izan.

GAZTEAK.—Zergaitik?

BERAK.—Senar-emaztegaiak ergel diralako. Ez dabe alkar mo-sutu iru bider baiña, eta bape gatz barik.

LENENGO IDAZLEA.—Bitxia da gorputz-maitasuna zerbait baka-na dala uste izatea. Freud eta jente pelikula-zalea bat datoz. Eme bategaz batzen dan ar bakotxak Shakespeare-ren gertaera bat bu-rutzen dau usgunean, olerkitsu dan zerbait, eredia.

BIGARREN IDAZLEA.—Lizun-etxeak bir-eskatu bearko dira, jau-ret-xe biurtu ta idazpuru bat ipiñi Paris'eko Panteon-ari langoa.

LENENGO IDAZLEA.—Agirikoa da geroko literatura maitekeriz-ko oiñarriz osotua izango dala, Guda ta arriskuaren griña uxatuz doa; judutarrak izango dira orain turuta joko dabenak, jente ba-kezale, koldar eta lizuna. Alan edo olan dirua eskuratu ta ema-kumeak euki izango da elburua, eta lenago mennira-zale zan letxe, orain sexu-zalea izango da goi-maillako. Auxe izango da geroko artearen oiñarri.

BIGARREN IDAZLEA.—Txarri-urde bene-benetako.

EDUARDO JAUNAK.—Jente onek aundiegitzen ditu gauzak, baiña bear bada egi apurren bat badago eurok diñoenean.

ZERBITZARIAK.—Izparkariak dira oneik, eta txarto mintzatu oi dira edozertaz.

EDUARDO JAUNAK.—Bai, kritika suntsitzaillea dozu; tipu artega ta iraultzailleok, egunkariak benetan idazten asten diranean aldatu egin oi dira, eta orduan eurontzat mundu guztia da eskolatua ta gauza guztiak itzalgarriak.

9. *Eduardo jauna artega*

EDUARDO JAUNAK.—(*Zerbitzariari*). Entzun nagizu.

ZERBITZARIAK.—Zer nai dozu, Eduardo jauna?

EDUARDO JAUNAK.—Ekar eidazu jan-txartela.

ZERBITZARIAK.—Apaltzera zoaz ala?

EDUARDO JAUNAK.—Bai, apari arin bat.

ZERBITZARIAK.—Ardaorik artuko dozu?

EDUARDO JAUNAK.—UM...! Bai... Bonbil-erdi errioxa argi.

ZERBITZARIAK.—Nai al dozu dozena bat txirla? Oso onak daukaguz.

EDUARDO JAUNAK.—Ederto. Zer artu neinke?

ZERBITZARIAK.—Gultzurrunak daukaguz *broxetera*.

EDUARDO JAUNAK.—Denpora asko da jan ez dodazala. Ekar eidazuz.

ZERBITZARIAK.—Eta langosta bat saltsan.

EDUARDO JAUNAK.—Baita ori be. Guzti orri agur egingo dautsogu.

Ni ILLUNAK.—Geiegikerietan zabiltz, ene lagun. Oso txarra dozu guzti ori; berenua dozu purínaz beterik.

EDUARDO JAUNAK.—Gabon eguna dogu gaur, zer deabru! Zorakeri pitiñen bat eginbearra daukat.

(*Eduardo jauna apaitan asten da gogo onez. Barriro eskatzen dau Errioxako bonbil erdi bat, eta gultzurrunak eta langostea garbitzen ditu*).

ZERBITZARIAK.—Akeitik, Eduardo jauna?

EDUARDO JAUNAK.—Bai, eta koñak kopa bat.

(*Eduardo jaunak bere kafea ta kopea arturik, txokor galanta ixetzen dau. Zerbitzariak laguntzen dautso gabana jazten, eta kalerera doa*).

10. *Montera kaletik Gran Via-ra*

(Kalean)

EDUARDO JAUNAK.—Orain osasun-giro bete-betea aurkitzen naz. Sendo daukadaz bernak, ez dot otzik somatzen. Zenbat jente! Eta mutikoak!

(*Montera kalean gora doa, eta San Luis-en Sarera eltzean, geldi*)

EDUARDO JAUNAK.—Emen egon zan aldikada baten Bizditsu eritxon kafetxea; ona etorri oi nintzan kopla-kantari bati entzutera; «Ai, ama, a bai gaba! » abestu oi eban; baita «Dirdai azken» abanera be. Sardanapalo bat zala uste eban batek. A bai xalo izatea. Egia esan, gazte-aldi errukarria izan genduan. Diru barik, adiskide barik! Gu bai ezeukiak! Fifi-k eukan bakar-bakarik grazi pizkat... Baiña ain zan goiztar! Ain goi-zale!

ANDRA BATEK KALEAN.—Naí al dozu Umearen loteritik amarren bat?

EDUARDO JAUNAK. **EZ, ez.** (*Bere bakar-izketan jarraitzen*).
Gaztetan ori bai, dana iruditzen jatzun dizditsu. Madrid niretzat ondo legundutako alkondara diditsua zan; gaur garbitu, eguzkitan esegi ta izurrez beterikoa begitantzen jat. Emegaldu gaixo bat Aspasia naiz Friné bat zala uste genduan.

BILLATZAILLE BATEK.—Ba-zatoz?

EDUARDO JAUNAK.—Ez, ez; ni zaara nozu.

BILLATZAILLEAK.—Eta zer?

EDUARDO JAUNAK.—Itxi naizu.

(*Eduardo jauna denda baten aurrean gelditzen da*).

EDUARDO JAUNAK.—Arrigarria! Eta ni neure egunetan biotzeskuratzaiHe galanta nintzala! Ni olakoa? eta batek ez dau ezertxo bereganatu. Alan be, adiskideen olakotzat agertu oi gara. Arrokeri utsa! Orain, gauza orreik, urrundik begiratzuz, ez dira ezertxo be. Emakume zirtzil batzuk, gatz bakoak, illunak, alaitasunik bageak... Ames egin bear da gero, orreik irabaziak zirala siñisteko... Orain, jakiña, edozein gauzatan dozu bardiña. Zu ez ete zara iñoiz goratua izan osasun-azterketa bere ziuerra izan danagaitik? Egia, egia ez daki iñortxok be. Itxuretatik bizi gara, ta kito.

ESKALE BATEK.—Eros eidazu, jaun argitsu, *Heraldo*.
EDUARDO JAUNAK.—Ez, irakurrita daukot.

11. *Etsipen-kalean*

(*Eduardo jauna Gran Via-n sartzen da, eta gero Etspen-kalera doa*).

EDUARDO JAUNAK.—Leen beste bat zan kale au! Emen egoan Abanatar kafetxea, guztiz goibela. Ona ekarri neban apaltzeko nekatxa bat, or tiraka ebillena ta azkenez famili onekoa zala jakin nebana. Zelako istoria ete zan doakabe arena? Artaz ez neban gero ezertxo be jakin. Gogora dakart orduan egunkari argitu baten ikusi neban marrazki oso txar bat, ikasle ta modista batek alkarren artean izketa au ariltzen ebena:

NESKAK.—Maite nozula diñostazu.

MUTILLAK.—Baietz, maite zaitut.

NEsKAK.—Goazan orduan Habanero-ra.

MUTILLAK.—Ez; ordu oneitan neskai ez dautse izten an sartzen.

Eta au guk uste genduan bitxia zala, egi-egiaz! Ikaslearen atxakia zan dirurik eza! Lelokeri galanta! , eta kaikukeria! (*Lagunaldra bategana urreratuz*). Zer?, zerbait jazoten ete?

BATEK.—Ezer bez... Gizon bat da alditxarrak artua.

BESTE BATEK.—Txirri-mirri bat dozu. Ezin dau gaiñ daroan txartagaz.

BATEK.—Emen ez dago lotsarik; or elbarriak jotako gizona, ta jenteak uste dau ordi bat dala. Lenengo jakin eta gero ez izen onik kandu, besterik bage, pertsona on bati.

12. *Illargiaren kaf etxea*

EDUARDO JAUNAK.—Illargiaren kaferantza noa, zapatuetan alkartzen giñan lekurantza. Emen egoan. Itxi zan au be. Guk bai

autualdi gozoak! Iru adiskide, eta irurok ezin genduan alkar ikusi. Bustamante, Coll eta ni. Beti alkarregaitik txarto esaten. Eta Bustamante bizi zana bai arrotz-etxe! Eta gizon aren azkena! Txararren *dilettantismua* eukan, deabruaren zerbait. Arek ez eban oi «Pentsatu gaizki ta igarri» bakar-bakarrik, «Egin txarto ta igarriko» baiño. Eta ari, ain berekoi zanari, berekoia zan gero! , bein atso zaar bati espaloi batetik bestera laguntzea, elbarri egoan zaar bati laguntzea otu jakon, eta, itzultzeean, kamioi batek arrapatu ta il eban. Orduantxe bakar-bakarrik bururatu jakon norbaiti on egitea, bear bada. Bustamante ta biok etsaiak giñan maitakerietan, zelako zorakeria! Egun batean, ona, kafera ekarri ebazan aizta bi, zaar, itsusi ta txarto jantzitako kakatu bi. Egia esateko, irabazle izate ori mitua besterik ez dozu. Nire amaren errian —pro-bintziko uriburua noski, ta gu ara joaten giñan udako oporraldietan—, amazapi edo amazortzi urteko mutil gazte bat baiño ez egoan neska gazte lirain, arro-pinpiriña eukana. Iñartsiz begirutzen geuntson mutil gazte ari guztiok. Proba bizi-bizi bat lez zan, bai, gure artean ba-zirala elebarrietan lakoxe maitasunak iñoskuenak. Urteak joan urteak etorri, geroago, antxiñako lagun zoriontsuaz autuan genbiltzala, onela ziraustan: «Ez; nik ez neban euki aregaz barru-barruko artuemonik». «Egiaz?». «Egiaz». Ba adarra jo daustazu». «Zergaitik?». Zu ziñan, ba, guretzat gazaroko mentura guztien eredu lez».

(Illargiaren kalera eldukeran, Silva ertzera, or eztabaida asarreen izparringi saltzaille bi).

EMAKUME SALTZAILLEAK.—Abil! Ordi ori! Zantar!

GIZON SALTZAILLEAK.—EZ jonat ibilli gura. Ez, ez jonat nai.

EMAKUME SALTZAILLEAK.—Abil! Goizetik ogeratu bear joagu-ta.

GIZON SALTZAILLEAK.—EZ jonak gura.

EMAKUME SALTZAILLEAK.—Txori-galdu, perretxiko, ikuski ori! Zital, sarkil ori! Ekardak giltza.

GIZON SALTZAILLEAK.—GiltZa? Or daukan!

(Estolda baten aora botaten dau giltza).

EDUARDO JAUNAK.—Onek bere ontziak erre daroaz Hernan Cortes-ek legez. Zuurrena orixe, bear bada.

13. Kale Zabalean

(*Igarkiaren kaletik kale Zabalera jasten da Eduardo jauna*).

EDUARDO JAUNAK.—Egi-egiaz, zelako amaia izan eben iru adiskideak! Bustamante, kamioi batek zanpatua. Coll a, ain erromantikua eta ain dardaiz ta sentikor dedu ta zalduntasunean, egun bat igaro ezin ebana bere emaztegaia ikusi bage, ogei urte ezkon-duta bizi ondoren, bere emazteagaz ormea erdiko ebala trankil bizi zana; a bere maiteagaz eta bera bere alabeagaz. Bizitzako gorabera larriak! Zenbat gauza ur loi anean! , zein gauza eder ta atsegin gitxi! Itsa bene-benetan, baiña orrelaxe dozu, Emen izango ete da bakarrik? Ziur asko, orrela izango da bazter guztietan. Eguzki geiago, eguzki gitxiago, elestu bat sudurrean edo berin bakarra begian, gitxi gorabera bardintsu, Ekuador urrean, edota Ipar-buruan, leza barrenean edo areto zabalean.

(*Eduardo jauna txigor-denda baten aurretik doa. Beso utsik lanean diardu txigorgilleak mazkelu aundi baten aurrean, inguru guztia ketan daukala*).

Neure arrakesta bat dakarst onek gogora: txigor-lana, geure txurraogintza. Gau batean, Bustamante, Coll eta irurok, barruko-koen txartesa edo burrusa gerriraiño baturik, Santa Isabel kaleko txigortegi batera joan gintzazan. Gu jarrita gengozan, apain-apain jantzitako neskatxa bi urreratu jakuzanean. Variedades treatruko antzezlari bi ziran; tartail bigaz eta barre-eragille baldar kuixu bigaz joiazan. Komik antzezlarietatik gazteenak «Argiak eta Itzalak» eritzon antzerki-alkarte baten lan egiten eban; Ezkargi papera egiten eban, katutxo abotsez au abestuz:

Argietatik,
neuk dot gatzik geien;
Ezkargi lerdena naz,
Madrid-en ospetsuen.

Ezin eban *gatzik* esan; *gatzik* esan bear, Pilare Gotzalez eritxon. Gaur, nun ete dot bera? Antzezlari bi oneitatik, batak ogei-tamar bat urte eukiko zituan; Pilare, neskato bat zan oindiño. Bustamante, Coll eta irurok areikaz izketan sartu giñean, eta geure

barruko bizitzaz burgoikeriak esaten, banaketa aretoan autopsiak egiten genduzala-ta. «Ospital barrukoak zarie zuok?». «Bah». «Lan-bide latza da». Nik itz-egin neban ebaketaz odolduriko ukondoa-kaz, alkoolak eraginda bear bada, eta onetan, Pilare neskatxak diñost bere miin totelez: «Bizi latza daroazu». Gura ba'dozu, itxi lan ori eta zatoz neure etxera; Askatasun kalean bizi naz, dalako zenbakian. Or daukazu nire etxeko giltza. Itxaron eidazu». Eta giltza emon eustan. Zurturik geratu nintzan ni. Andik laster, antzezlarietan zaarrenak esan eustan banazeen: «Emoidazu orrek emon dautzun giltza. Ez egiozu jaramonik egin. Burutik egiña dabil irakurten ditun nobelakaz». Arrezkero ez jat olakorik jazo. Dudarik bage, gaztetasunaren izen ona izan zan, Ba egoan apika neskatx aren makurbera ariñean sadismu pizkat.

14. *Bubaren Jauregian*

(*Eduardo jauna ibilliz doa aurrera, eta gizaseme lodi, borobil batek, itargi arpegiz, bidean geldi-azten*).

BALENTIN-EK.—KaiXO, Eduardo jauna! Ze moduz?

EDUARDO JAUNAK.—Kaixo, Balentin.

BALENTIN-EK.—GaUr, piper gabiltz emendik. Egun bat egun bat dozu. Goazan kopa artzera, Eduardo jauna.

EDUARDO JAUNAK.—Osasunerako ez jatort egoki. Osagilleak galazo daustie.

BALENTIN-EK.—Nok jaramonik *egin* osagilleai? Zuk, ziur asko, ez. Ni praktikantea naz, eta nik bere ez. Sar gaitezan emen.

EDUARDO JAUNAK.—Goazan.

BALENTIN-EK.—Ba al dakizu zuk zelan deitzen dautsoen bar oni?

EDUARDO JAUNAK.—Ez.

BALENTIN-EK.—Bubaren Jauregia.

EDUARDO JAUNAK.—Ba! Zorakeria da ori be. Emen ez da egongo beste lekuetan baiño bubadun geiago.

BALENTIN-EK.—Errazoia daukazu.

(*Biak edaten dabe ta edaritegitik ba-doa*).

EDUARDO JAUNAK.—Orain, zer egin bear dozu zuk?

BALENTIN-Ex.—Inyekziño bat ipiñi bear dautsot agure ezueri-
dun bati.

EDUARDO JAUNAK.—Eta nun bizi da bera?

BALENTIN-Ex.—Atotxa kalean bizi da.

EDUARDO JAUNAK.—Zuk egizu ibillaldi eder bat; neuk lagun-
duko dautzut.

(Biak abiatzen dira, berbaz alkarri besotik oratuta, Eguzkiaren Aterantza; eta Printzipe kalean, bar baten, kopa batzuk artzen dabez. Atotxa kalera eltzen dira, Balentin-ek ikertu bear dauan etxera, eta au itxita aurkitzen dabe. Balentin-ek gau-zaiñari dei egin ondoren, kan tan diardu).

BALENTIN-EK:

Edegi egizu atea,
ate-jagole andrea,
dantzatik nator, ba,
maite-kutsuak errea,

EDUARDO JAUNAK (*Kantari*):

Ai, ai, ai ardaoa
nire senarrak nai,
ai, ai, ai, paitarra,
ta mingatxa be bai.

BALENTIN-EK:

Ai, ai, ai nire senarrak
Rona dau gogoko;
ai, ai, ai paitarra
eta zaragiko.

GAU-zAIÑAx.—(Bertatik datorrena). Kaixo, gabon!

BALENTIN-EK.—KaiXO, gau-zain!

GAU-ziaÑAx.—Ozkirri dago gero gaba! (*Giltzaren billa ta gau-
za nekez bat egin bear ba'leu legez*). Ia, ikus daigun.

EDUARDO JAUNAK.—(*Balentin-i*). Ipiñi al izango dozu zuk in-
yekziñoa?

BALENTIN-EK.—Bai, mutil. Larrosak eurak letxe.

(Gau-zaiñak atea zabaltzen dau, atarian piztuz misto luze bat, praktikanteari emoten dautsona).

EDUARDO JAUNAK.—Agur, Balentin!

BALENTIN-EK.—Agur, Eduardo jauna!

EDUARDO JAUNAK.—(*Bacarrik*). Nik zer dagit oraIn? Nora noa? Etxera, ez. Nire emaztea ez da eldu oindiño. Kafera, ezta. Beste kopa bat artuko ba'neu, mozkortuko nintzake ta paper barre-garria egingo. Alan be, orditu gura naz eta zer guztiak aaztu. Urrialdi ori ezta besterik osagilleen arrokeria baiño, zeozer daki-gula erakutsi nairik geuk esaten doguzan gauzak.

NI ILLUNAK.—Ondo dakizu diñozun ori ez dala egia.

EDUARDO JAUNAK.—Oñak botella bat erosiko dot, eta ospitalera. An beintzat lotsa pizkat izango daustie; ez dausat jaramonik egingo barrukoari.

(*Eduardo jauna Anton Martin-en plazarantza doa igonez, eta ondo argitutako jaki-denda batean sartzen da*).

Batzutan ona etorri oi nintzan Eduardotxorentzat galletak inglesak erosten... Zergaitik bere burua il eban mutiko arek?... Ondo, ondo, itxi daigun ori. Gomutagarri nago. Il-txartela dirudit.

NI ILLUNAK.—Orixe da zure zauria, iñoiz be osatu ezin zein-kena.

(*Eduardo jaunak koñak bonbillea artzen dau, ordaindu ta gabanaren ziskuan sartzen. Gero Ospital Orokorrerantza abiatu da*).

15. Ospitalean

(*Ospitalean sartu da Eduardo jauna, ta mailladi zurbillean go-ra, bere aretora eldu da. Osagille jagolea, barrukoa ta abadea da-goz bertan*).

OSAGILLE JAGOLEAK.—Kaixo, Eduardo jauna! Zer dakazu emendik?

EDUARDO JAUNAK.—Bisita bat *egin* bear izan dot emen urrean, eta koñak botella bat ekarri dot.

OSAGILLE JAKOLEAK.—Pentsamentu guttiz ona!

ABADEAK.—Joko-alditxo bat egingo dogu!

EDUARDO JAUNAK.—Ondo, zetan?

OSAGILLE JAGOLEAK.—Tutean.

EDUARDO JAUNAK.—Goazen;
(*Abadeak banatzen ditu kartak*),

GAIXOXOZAIN BATEK. —(*Sartu ta barrukoagana zuzentzen*). Ia zuek joan al ba'dozue zoroan aretora. Sekulakoak astintzen diardue.

OSAGILLE JAGOLEAK ETA BARRUKOAK.—Oraintxe goaz.

EDUARDO JAUNAK.—Zeuekaz noa neu be.

ABADEAK.—Gaixo bat autortzera noa ni.

OSAGILLE JAGOLEAK.—Ez egiozuz emon zuk tenka? makilkada geiegi.

(*Osagille jagolea, Barrukoa ta Eduardo jaunak aurrera doaz igerobide luzetatik zear, zoroen aretora sartzen diralarik*).

ZAAR ZORO BATEK.—Entzun naizu, osagille jaun.

OSAGILLE JAcoLEAK.—Zer jazoten da?

ZAAR ZORO BATEK.—Emen danak dirala, uste dot nik, atso-gizonak, eta arriskuan dagoala bat; baiña ni, ez; ni guztiz gizona nozu, fitina ta glizerofosfato artu bait dodaz, eta guztiz gogor nago.

EMAKUME GRiÑATSU BATEK.—ja! Ja! Agure zantar bat da. Bularretik oratu naita ibilli jat!

AGURE ZORO BATEK.—Andra, ni ez nozu agurea; nik ogetabost urte daukadaz eta gaztea naz eta tximist-indarrez eta otantzajarioz ase, fitina ta sosazko glizerofosfato artu dodazalako. Nigana ba zatoz berealaxe daukagu seme bat, ogetabost ordutan, ogetabost minututan eta ogetabost segundu-laurdeneko milloitan.

EMAKUME GAZTE BATEK. —(*Patrikara zapi bat buruan daukala*). Lotsa bakoak, zantarrak! Zer uste dabe oneik? Azeri-eme batzuk gareala guztiok? Txarri-urdak! Belarmotzak! Zer uste dabe? Itz orreik bota nire aurrean, Austria-ko, Errasi-ko, Txekoslabakia-ko eta Siberia-ko erregiña zan onen aurrean.

EMAKUME ARROTZ BATEK.—(Kapeia *rnaiztu bat buruan*). Jauna... Jauna...

OS AGILLE JAGOLEAK.—(Gaixo-zaiñari). Ez da ezer. Bat-edo-batek zarata larregi atera ba'dag, emon dagioela bustialdi eder bat. Jarrai, Eduardo jauna, geure jokoan.

16. *Zala parte Gaba*

OSAGILLE JAGOLEAK.—Beste kopatxu bat? Bakean uste dot itxiko gaituela.

(*Kartak emoten dita*).

EDUARDO JAUNAK.—(*Itz totalka ta arpegi gorrituaz*). Berrogei urte dirala emakume espetxeratuaren aretoko barrukoa nintzan ni; gerrenak egozan, lapurrak, esku-kako, erdizain idor-xaleak...

OSAGILLE JAGOLEAK.—Orain Jokoan ez zagoz zu, Eduardo jauna. Ogei zeunkazan zuk kopetan.

EDUARDO JAUNAK.—Eta zer? Espetxe-zaiña orduan emonka idazten eban nobela idazlari baten emaztea zan. Nik esan oi neutson: «Zer, nai dozu zuk alkool pizkat» — «Erretakoa?» — «Ez, edatekoa». — «Ederto, betor». Kopa bat botaten neutson, eta arek edan, eta eskuakaz ezpanak igurazten zituan oso adeitsu. «Nire senar gaixoa bizi zanean —iñostan--, jai aundiak egin oi genduzan etxean. Koñak botella bat erosten eban, edozein idazlanetik bi edo iru atal irakurri bitartean, botella osoa edan oi eban. Beste denpora batzuk ziran», baiezten eban arek.

ABADEAK.—Eta izan izango ziran.

OSAGILLE JAGOLEAK.—Txarto be txarto jokutzen diarduzu, Eduardo jauna.

EDUARDO JAUNAK.—Ba! Bardin jat.

ZERBITZARI BATEK.—(*Sartu ta apaizagana zuzendurik*). Bigarren aretoko ogeta amazapigarrenekoa ilten dago. (*Osagille jagoleari*). Zauritu bat dakarre.

ABADEAK.—Ondo; goazen ilteko tresna billa.

(*Osagille jagolea, Barrukoa eta Abadea jagi ta ba-doaz*).

OSAGILLE JAGOLEAK.—Or geratzen zara, Eduardo jauna; lanerako gaba izango da gaurkoa.

EDUARDO JAUNAK.—Ondo, nigaitik ez estutu. Ospitaleko sagua naz ni.

BARRUKOAK.—Lo-gura ba' zara, ogeratu.

EDUARDO JAUNAK.—Ar daigun beste kopa bat, zer deabru!

OSAGILLE JAGOLEAK ETA BARRUKOAK.—Goazen, (*Edaten dabe*).

ZERBITZARIAK.--(IXillecin *abestuz*):
Paris'era ba' zoaz, aita,
uri-lapurkakaz izan arta.

17. *Itzal-ingurua*

(*Eduardo fauna bakarrik da geratzen*).

EDUARDO JAUNAK.—(*Gaixozaiñaren eresia dau entzuten*). Oso itsusia da ori. Nire egunetan gauza alaiagoak abesten ziran. (*Abots latz kantatzen dau*):

Kukuak makur joa
zazpikia zanak
aberats Jodiani
zin-egitson fedea,
eta, a truskin eder,
baiño-jantziz ikusiz
geratzen da etsia.

(*Eduardo fauna, eiotua, jagi ta barriro abeska*):

Frantsesez agurtzen dakigu,
Bonsoir, monsieur!
Pistan labantzen dakigu
oin bakar baten gaiñean.
Ezagun-ez bat billatzeko
maisuk ba'dausku agintzen,
dantza-zelaian aurkitzen
dogu iñun baiño obeto.

Ezdakit nundikoa zan kanta au. Ez naz gogoratzen orain.
Um! Jirabiraka lez daukat burua.

(*Barriro jarten da, ukondoa maian dauala sorgor geratzen da apur baten*).

ZERBITZARIAK.—Zer, 10 egitera zoaz?

EDUARDO JAUNAK.—Bai; ba leiteke lo laburtxo a egitea.

ZERBITZARIAK.—Gaur Eduardo jaunak sekulako katua dauko.

EDUARDO JAUNAK.—(*Bakarrik berbetan*). Zer gertatuko ete gaur gabeen? Ilda egozala nik uste nebazan antxiñako irakasle guztiak ospitaleko igarobidetan zear dabiltz. Or dago Letamendi, bere sapa biurrakaz; Kalleja, bere lebita aundiaz, eta Kalbo ta Martin, Kabrera Madrid-eko ateetan aurkeztu zanean aberri-gudaria zala milla bider esan dauskuna. Benito Hernando jaunak esan daust aopeka arseniko orrek ez dauala ezertarako be balio. Ondo, eta niri zer arseniko ortaz? Ekar beste kopa bat. Julio Ruiz gaixoak lez abestuko dot. Ospitalean il zala, uste dot.

(*Eduardo jaunak abestu nai dau; eztulka, barriro jarlekuan, eskuan ipinten dau barriro burua, ta sor ta lor geratzen. Aurrean dauko Juan Anaia*).

EDUARDO JAUNAK.—Kaixo, zu Juan anaia zaitut. Zer dagizu emen?

JUAN ANAIK.—Emen nago, beti lez.

EDUARDO JAUNAK.—Zer arrai dagizu emen, anai?

JUAN ANAIK.—Arjentina-ra joan nintzan, eta gaixozain egon nintzan...; gero edaritegi bat ipiñi neban.

EDUARDO JAUNAK.—Asmo ederra... Eta orain bakarrik gagozan ezker, esaidazu, zer ziñan zu? Mistikua? Lizun-masokarra?... Atzelaria?

(*Juan Anaia, atzamar bat ezpanetan jarritz, ostonduten da*).

EDUARDO JAUNAK.—Bere ixillik ez dau iragari nai.

18. Gabon ona

(*Eduardo jauna oster a be, burua esku gaiñ, lotan geratzen. Urrin eleizaren bateko kanpaiotsa entzuten da, gaberdian, oillarraren mezatar a deia dana*).

EDUARDO JAUNAK.—Ots bakanak! Ez dakit zer esan nai dausten. Nola? Zer diñozu? Etzala il nire mutilla?

ABOTSAK.—(*Trumoi baten antzera*). Ez.

EDUARDO JAUNAK.—PiSU ikaragarria kentzen dauste gaiñetik.

EDUARDOTXO-REN ABOTSAK.—Ola, aitatxo! Emen naukazu.

EDUARDO JAUNAK.—Bili zara orduan? Bizi al zara?

EDUARDOTXO-REN ABOTSAK.—Bai.

NI ILLUNAK.—Belarri-lillura baiño ezta.

EDUARDO JAUNAK.—Zergaitik il zenduan zeure burua, itandu nai dautzut... Baiña zeure burua il ez ba'zendun, zentzun bako galdera dozu. Ezer ez, ezer ez; ez daukat orren naigaberik, ez ítu-nik. Sasoia... osasun-giroa... Bai musika gozoa! Bai *allegro* mi-resgarria! Baiña Gizaldi kafeko pianu-jotzaillea da-ta; berbera da! Egoera bikaiña! Osasuna dozu au, gogo eztitasuna.

NI ILLUNAK.—Erioa dozu au, zorabioaren ametsak.

(*Eduardo jaunaren aurrean antzoki aundia zabalazten da argi gorri urrezkoz betea; jente aldra aundia agiri da bertan jantziz ditzuakaz*).

EDUARDO JAUNAK.—**Au**, neure egunetako teatru-saio baten antzekoa dozu.

NI ILLUNAK.—Geure bizitzearen aurkibidea legez dozu, *Finis*.

EDUARDO JAUNAK.—Gizon, Fifi abesten.

FIFI-K.—(Txit apain jantzita agerturik, kantaka asten da):

Hier, voyant l'chien d'une viell'dame,

Vétu d'un pal'tot flambant,

Je dis: «A votr'tou-tou, madame,

Il manqu'quelque chose assurément;

Il n'a pas de parapluie;

Ca va bien quand il fait beau;

Mais, quand il tombe de la pluie,

Il est trempé jusqu'aux os».

EDUARDO JAUNAK.—Ederto, Fifi. Ondo be ondo! Zeure garai onetan lez zagoz. Eta orain, nor dator orain? Baiña, gizona! , Julio Ruiz bait da bere soingaiñekoaz «Gau-txorietan».

(*Julio Ruiz, madrildar igeltseru jantzita, soingaiñekoaz jolas-ka, abots kantari*).

JULIO RUIZ-EK:

Lo itxi dot senidea
bostgarren bizi-oñean,
eta kolpe bat dogu emongo
napar-ardo gorri-baltzean.
Barazkiz naz galkatzen
eta nago urdail-miñez,

otz egosiz ditut osatzen
eta zurrutak maiz edanez.
Lagun txar batek diñost
ez edateko, arren, geiago;
ni pozik: «Garia bada-ta,
betorkit zurrut ugarigo».

(*Julio Ruiz-ek ainbat olgeta egiten ditu bere kepeaz, eta beragaz baturik, ba-doa kalera*).

EDUARDO JAUNAK.—Gora, Julio! Bere aldirik onenean lez daukagu. Nor dator orain? Gontzaleez, Pilare Gontzalez, neuk irabazia.

GONTZALEZ-EK.—(Abeska):

Argien artean,
neu naz bikaiñen;
neu naz Ezkargi lerdena,
Madrid-en ospetsuena.

EDUARDO JAUNAK.—**EZ** dau oraindik ikasi *tza* esaten. Trapuzko miñña dauko. Eta or datorren beste ori? Montes da-ta. Liraiña benetan! Zelako garraz begiratzen genduan!

MONTES-EK:

Maitez bizi zan neska liraiña,
gudari baten maite-suz;
gogoz bait eban artu gauzea,
azkeniz joian suntsituz.

NI ILLUNAK.—Naiko loia da guzti au.

EDUARDO JAUNAK.—Eta zer? Gazteak dira. Orain Retiro-ko marineltxuen abesbatzak «*Gran Via*» abestuko.

MARINELTXUAK.:

Ur-gaiñez doa
mariñela,
kezkarik bage
biotza dauela.

NI ILLUNAK.—Orrek ez dau ezertxo be balio.

EDUARDO JAUNAK.—Orain, Imperial kafeko *Kanene*.

KANEN-x:

Espartero-ren eriotzeak
izutu eban Sevilla;
Madrid-etik ekarri eben.
Madrid-etik ekarri eben,
illerriraiño ekarri eben.

EDUARDO JAUNAK.---JO daiela beste zerbait. *Karmen-en* lorea-
ren erromantzea...; *Behemia* valsa.

Ni ILLUNAK.—Dana oso gozoztua.

EDUARDO mUNAK.—Orain udabarriko kantua, *Walkiria-na*. Po-
lita! Erromantikua!

Ni ILLUNAK,—Izan leiteke zartzuela batena be.

EDUARDO JAUNAK.-EZ. Ia! Bikain-bikaiña!

Ni ILLUNAK.—Eta ori izan da zure bizitza? Geiago ez? Mi-
xeri uts! Bai bizitza ezereza!

Eduardo jauna orain zine-tresna baten aurrean dago, eta txin-
gote itz oneik idazten diardu:

«Ezerez, Nada, Niente. Rien. Nihil. Nitchevo, Nichts».

Onetan, Eduardo jaunaren gorputza txikortzen, eta burua
mai gaiñera jausten da.

19. Kuku egin

(*Osagille jagolea, Abadea, Barrukoa la Gaixozaiña sartzen
dira*).

OSAGILLE JAGOLEAK.-E, Eduardo jaun! Otz dago. Zer dau-
ko gizon onek?

GAixOzAiSrAx.—Ezer bere ez, joan jakula.

ABADEAK.—Ia ezer egiten dogun bere onerako.

GAIXOZAIÑAK.—(*Barreka*). Autopsia bakar-bakarrik.

BARRUxOAx.—Gaixoa! Pertsona ona zan.

Madrid, 1929'ko abendua.

URTUBI-KO ANDEREA

1. Itzaurrea

—Urte asko dirala —esan eustan Yantzi-ko osagilleak—, Urruñña-ko jaietan, Daskonagerre-tarrak, mugaz bestaldetik erritxo ontan daukadazan adiskideak ikustera joan nintzan.

Oi danez, bazkaltzera dei egin eusten, Bazkari luzea izan zan, ugaria, ona urdail-barren irukotxa daukenentzat. Gogoz eta galanki jan zan, edan eta abestu. Maian, neure aldamenean neukan apaiz gaztetxo bat, eta onek, bazkal ondoko urdail lurrinak arintzeko, Donibane Loitzune aldetik ibiltaldi bat emoten laguntzeko eskatu eustan.

Nik baietz, eta etxetik urtenaz bide zabalean zear joan gintzazan.

Apaiz gaztea, iruditu jatanez, txeratsu, maitagarri, alai ta jaé sankorra zan; Sara-ko organu-jotzaillea genduan ta Harismendi

Duhalde eritxon. Erri bateko apaiz baiño uri aundi bateko abata geiago zirudian, XVIII -garren gizaldiko abata jakintsu ta gizaguren arein oiñordeko alegia.

Harismendi'tar Duhalde-k bere kondaira lanak aitatu eustazan, euroak aurrera eroateko aurkitzen ebazan zailtasunak eta interesgarri jakozan eta naspiltzen eben euskaldunai buruzko giza-ikerketak.

Urruñña-ko bidetik Donibane Loitzune-rantz abiatzean, eta Urtubi gaztelu aurretik igaro, Duhalde-k esan eustan:

—Or daukazu Lapurdi gure lurrean daukaguzan gaztelu urrietatik bat, Gaztelu au eta Senpere-koa dira guk geure eskualdean daukaguzan bakarrak.

onek oraintzungoa emoten dau —nik oar-azo.

—Bai; gaztelu bat da sarritan suntsitu ta barriro eregia; baiña jator-jatorriz antxiñakoa. 1170 garren urtean agertzen da gure

kroniketan Urtubi-ko gaztelu bat; Tomas Korte-ren idazti-zerrendan agertzen da, amalaugarren mendean, Urtubitarren torretxe bat arresiz inguratua ta almena-karelez jantzia, Torretxe au ta beronen inguruak Santxo Leiva-ren agindupean XVI-garren mendean Frantzia-n sartu ziran espaiñarrak erre ebezan. Leenengo egintza-tik Ipar aldera begira dagoan orma tzar au geratzen jaku bakar-bakarrik, untzorritz beterik berau.

Eta; euskaldunok ez dogu egundo be feudo-jauntxokeririk onartu izan. Eragin aundikoak ziran euren senidarteko ta artu-emonengaitik, Urtubitarrek Espaiña-n eukien euren egiña eta Bidasoa ertzean jasotako torretxe oiñordez etorritakoan agintzen eben; torretxe ontatik gaur ez da geratzen aztarrenik be.

Apaiza ta biok gaztelua ikuskatzen egon giñan, eta inguruko parke eder-edarra.

Nai ba'dozu, sartuko gara —esan eustan arek—; ezaguna dot gaurko beronen jaubea.

—Ez, eskerrik asko. Berandu egingo litzakit, eta errira biur-tu gura dot gaberako.

Orain biurtzen al zara?

—Bai.

—Bera-tik ala Etxelar-tik?

—Bera-tik noa.

—Alkarregaz joango gara bide-gurutzeraiño.

Urruña-ra itzuli giñan biok; geure mai-lagun, Daskonagerre-ri agur esan, eta, zaldiz, itzuli-bideari ekin geuntson.

Gauza askori buruz itz egin genduan apaizak eta biok, eta, orreïn artean, Naparroako zati aundi batek dauan sorgin-entzu-teaz, Zugarramurdi ingurukoak batez be.

Bai, lurralde guzti onetan sorgiñak egon dira —esan eustan Harismenditar Duhalde—, eta sorgin-lekurik geienak eleizetan egozala dozu arrigarriena Urdezubiko eleizea, Donibane Loitzuneko, Espitiru Sainduaren kapera Larrun mendian, eta beste eleiz-egoitza batzuk, sorgin-leku berezi-bereziak ziran.

—Eta zer zan sorginkeri au? —nik itaun.

Ba, ez dakit. Prozesu asko irakurri ditut, euron artean Llogroño-koa, Llorente-k bere *Historia crítica de la inquisición* libu-

ruan dakarrena, eta Donibane Loitzunekoa, zeaztesunik naikoz eginda Pierre Lancre-ren *Cuadro de la inconstancia de los malos ángeles y demonios* liburuan datorrena, eta ezin izan dot argi ulertu gai orri buruzko auzia. Ba-ziran, dudarik bage, sorginkeri onetan antxiñako kultuen oroigarriren batzuk, Bearn-etik ekarritako azti-egiñez nastaurik. Prozesu oneik illunagutzen dituna auxe da, dudarik bage; espaiñar eta frantses epaikariak ez ekiela euskararik, ezta frantsesik ez gaztelerarik epaikatuak be.

Orduan, gatxa zan oso alkar ulertzea.

—Gogora eizuz epaikari zorrotz eta siñiskeridun batzuk, zentzun bakokeri aundienai be siñistea emoteko gauza ziranak; eta apaituriko batzuk bildur-ikaraz josirik, parkatzen ba'ebutseen edozer gauza baiesteko gertu!

—Bai; ulertzen da, sasi-mataza baten antzera geratuko zala auzia mordoillotua.

Orrela da; sorginkeriari buruzko kondaira txiki bat daukot eta or agertzen da Urtubi'ko andereiño bat, geure txangoan ikusi dogun gaztelu orretakoa.

Antxiñakoa?

Ez oso antxiñakoa. Guda-gizon baztertu batek idatzia da, Sara-n bizi izan zan Dornaldegi, Frantzia-ko Iraultza garaian, Auverñe-ko Latour-egaz gudari izan zanak idatzia. Zuk jakingo dozu, Auverñe-ko Latour au, frantses Errepublikako leenengo granadari ez-ezik, eskualdeetako ikaskuntxai asiera emon eutsena be izan zala. Jakizu, beraz, Dornaldegi aren ikasleen arteko izan genduala. Agiri batetik atera geinkenez, Dornaldegi-k, bere idatzia euskeraz ipiñi ta Garat ministru oiari igorri nai izan eutson, au arazoak itxi ta Uztaritze-ko bere landetxean bakarrera biurtua bizi zanean. Jakingarri ba'jatzu istoria au, Sara'ra zoazanen baten gogorazi eidazu, eta itxiko dautzut irakurri daizun.

Eldu gintzazan apaiza ta biok bide zabalaren gurutz-unera, eta ak ezkerrerantz artu eban, bideari jarraituz, eta nik Ibardin gaiñerantz ekin neutson.

Urte bi geroago, erriko jaiak zirala-ta, Gabonetan, Sara-ra niñoian ni zaldi gaiñean.

Leenango ez nintzan egundo be sartu Frantzia-n alderdi one-

tatik. An eta emen itandurik, mendiarte estu bat zear, errekas-toari jarraika joan nintzan.

Frantzia-ra urteteen, bide luzea txit egin nebala uste izan neban, ez Iparrerantza, Eguerdirantza baiño.

Txundio ta aridura aundikoa zan niretzat, Napparroa-ko mendietako ibar estu otzetatik ibilliaz, Sara-ra eltzean, zelai ta landa zabalak, zeru argia, aldatzxoetako maastiak, latsak eta ur-txirripa idor eta kazkar-legartsuz beteak ikustea.

Errira elduaz, ostatu baten sartu nintzan, guztix apaiña berau, eta bazkaldu nebanean, Harismendi-tar Duhalde apaizaren itauna egin neban.

Danak ezagutzen eben; eta mundu guztiak aretzaz irribarretsu berba egian.

Erretor-etxean egongo zala esan eustien, au nun aurkitzen zan izentaturik. Eleiz ondoan egoan, kanposantutik ur-ur, erriaren erdian.

Igon nintzan abade etxera.

Harismendi-tar Duhalde armonio joten egoan areto aundi baten, eta kantari amar edo amabi mutikori erakusten.

Ba-dakit zetan zatozan —esan eustan ikusiaz—; Dornaldegi kapitainaren istori billa.

Bai.

Ba, oraintxe ekarriko dautzut. Gura ba'dozu, croan zengike bera. Ondo deritxazunean, biurtuko daustazu. Eta parka egidazu zuri lagundu eza. Urte osoan lanpetuen aurkitzen nazan eguneran etorri zara.

Apaizak bere liburutegiko arasa bat arakatu eban, nik erriko illerria balkoitik ikuskatzen neban bitartean; illerri apaiña bere gurutze, bere illari biribil eta orrañutuakaz, euskaldunak illobietan jipinten dabezan eguzki-ikurrak. Duhaldek arizko ingurrazti bat atera ta emon eustan.

Ez dot prisarik. Nai dozun beste denporan euki zeinke —esan eban.

Ederto —nik ari—; ez zaitut geiago arduratu nai. Segi zuk zeure abesbatzaz.

—Parka zuk —ber-esan eban, irribarretsu—. Ostaturik dauka-

gu Baiona-ko eliz nagusiko musika maisua ta geure trebetasuna erakutsi nai dogu pizkat.

Apaizari agur egiñik, zeira urten eta illerrira begira egon nintzan unetxo baten musika soiñua ta Duhalde abataren irakasleen kantua entzuten.

Illunkeran, dantzea asterakoan, baserritar bikoate bategaz batera, urten neban Sara-tik.

Andik egun batzuetara neure etxean irakurri ta kopiak ateraten nebazan Dornaldegi kapitainak idatzitako istoria, ondoren datorren au ain zuzen be.

2. *Urtubi-ko jaunak*

Sarritan irauli, bota, aurrítua, eta beste ainbestetan ber-eregia, Urtubi-ko gaztelua, Urruñia ta Donibane Loitzune tartean aurkitzen dana, lapurtar lurraldeko zaarrenetakoa dozu. Muga ertzean dagoan ezkerre, espaiñarrak eta frantsesak euren arteko gudateetan, ainbatainbat bider izan zan gogor eraso.

Gabiltzan garaian —XVII-garren mendearen asieran—, Urtubi barríro jasoa izan zan, bide zabalera damoan sarrera aurretik dotoretua ta tinkotuagotua, torre lodi lantzaka bigaz teillatu-txuntxurrez amaiturik.

Urtubi orduan landetxe atsegin zoragarria zan; bere parke loratsua, bertako iturri apaiñak, edu askotariko bazter-inguruak, kokatua egoan lekuaz gaiñera, olgeta ta jolas toki egiña aurkitzen zan. Gazteluko gizezkoak andik laster euken mendia lez itxas-egala, ta erreze ibilli zeitezán Nivelles-ko uretan ontziz eta, apurtxo bat urriñagotuz, Mouriskot aintziratik zear egurastu.

Urtubi sendia oso antziñakoa zan an iguruan; leenengo buruzagiaren artean, izenez igaro zan titulua; gero, zuzeneko lerroa itzali zalako, ainbat bider aldatu ziran abizenez. XV eta XVI-garren gizaldietan, Urtubi-ko gizezkoak Alzate eritxen, eta senidarteko ziran Naparroako Bera-ko Alzate familiaz eta Donibane Garazikoak. Gazteluaren jaubeak, 1608-an, Urtubi-tar Tristan-ek, berrogetamar edo irurogei urte lez eukazan garai aretan, eta bere loba Leonor Alzate Urtubi-gaz bizi zan; alaguna zan, ez eukan

seme-alabarik bere emazteagandik; baiña inguru guztian ekian ba-eukazala ezkerretikoak, eta eurotatik batek, erregeren arka-koskodunak, naigabe ta buruko min itzalak ikarri oi eutsozan. Urtubi-ko Tristan biotz zabal, alai ta xeratsu agerten jakon; ezi-keta enekoa ta irakurri oi ebanari eskerrak, jasankor eta ulerkor egiña egoan; Urtubi, Naparroako jauregian azi ta ezia, ugonote, siñistebako ta jentil artean, gudari izan zan, bearnetarra ezagutu eban au gazte zala, eta gero bere adiskide ta lagunetatik bat izan zan gerra bitartean.

Urtubi, bere gaztaroan, alai agertu zan, urratu, dulabre ta erabagitsu. Politikazko ta maitasunezko eztabaidak joko zakarrakaz eta filosofi-liskar eta izkamizkakaz naste ebiltzan napar-kortean, garatu zan gero bere bizitza.

Enrike IV-garrena garaille gertatu ta Frantzia-ko bakaulkian jarri zanean, Urtubi Paris-era aldatu zan. Alan be, laster aspertu zan Louvre-kin eta errege-jauregiko bizi-moduaz.

Etsi ta uts egiñ-ia, naigabetua bere emaztearen eriotzaz, eta ezuriz gaixo, bere gaztelura baztertzea erabagi euskun.

Tristan baroiak, orduan oindiño umetxo zan Leonor bere loba eroan eban beragaz; jagole bi, emakume bi ipiñi eutsozan oni, etxea zuzentzeko neskame bat izentatu giltz-andereak euki oi dituan eskubideakaz, eta egurastea izan zan bere zeregiña, eta gizon argitu batek irakurri bearrak zirala entzundako liburu jakingarri ta duiñak Baiona-tik ekar-azo ta irakurtea.

Urtubi-k ozt-oztan ekian latin pizkat, eta izkuntz orretan idatzitakoak irakurteari agur egin bear izan eutson; alderantziz, erdimerdika ezagutzen ebazan italieraz eta espaiñeraz.

Astiro astiro elduz joan ziran bere etxera, Paris-en, Amberes'en eta Amsterdam-en ederto be ederto argitara emondako liburuak, Montaigne, Rabelais, Klemente Marot; Amyot'et egiñiko Plutarko-ren itzulpenak, eta italiar eta gaztelera-zko literaturako ederrenak; Ariosto, Makiabelo, Tasso, Mendiotta'tar Hurtado, Lope de Bega eta Zerbantes.

Urtubi-k, lenengotan, gaitz aurkitu eban eten barik irakurtea, baiña apurka apurka gozotasuna emoten eutson irakurtaldiak. *Kixotek* zustatu ta zaleratu eban, idazle ta idazgai oneri buruz eztabaida luzeak eukirik bere adiskideakaz. Rabelais zatika irakur-

ten eban, eta barre-zantzoka ospatu eroian Gargantua ta Pantagruen aitaren irribarre maltzur zakarra. Beroia be, sarri samar, irakurri oi eban, Buenabentura des Periers-en ipuin alaiak, idazkari ta literaturan Naparroako erregiñaren jarraillle; ipuin oneik, gatz eta piper aundikoak ez ba'ziran be, garrantzitsuak ziran Urtubi'rentzat, idazleak eurok idazteko erabilli eban azpikerizko itzul-inguruak eta pertsoniak ezagutzen ebazalako.

Urtubi-k, jakin-arloan buru-belarri murgildurik, bere bizitza joanaren elkortasuna negar-azi eban. Sentimentu aundia oar oi eban urteak zirala orduan Bordele-ko endore zan Migel Montaigne-gaz itz egin ebalá beste edozein gizasemerekin lez, armenik egin gabe ta aolkurik be eskatu bage. Pertsona jakitunakaz ar-emoná euki nairik, bere antxiñako adiskide Aubiñe-ko Aprípe-ri idatzi eutson, onek lanari ta ikasteari eutsi egoiola esaná erantzunik. Baroiak Agripe hugonoteaz adiskidetasuna ta artu-emoná ugarituz jarraitu eban, naiz-ta, noizik bein, hugonotearen aolku zorrotzak irribarrea ezpanetara ekar-azo.

«Gure atsegiteak eta argaltasunak giza-izatearen barne dagoz», esan oi eban irribarreka.

Garai onetan, Urtubi-k zaar-itxura eukan, arpegia tximurrez betea, eta ulea ta bizarra zuri-urdiñak. Goi-bez erdikoa, begiak urdin-arreak, oso dizditsuak, kolore osasuntsua ta betarte alaiá.

Ezuriaren jotaldietan, garraxi egiten eban, etsi-etsian baita biraoakatu be. Gero bere lobeari esaten:

—Ez eidazu jaramonik egin; oiñetan min aundia sentidutean, gudaria agertzen da niregan.

Altzate-ko Leonor, baroiaren loba. Urtubi-ko etxeoandrea, emakume gurena zan guztiz, ez aundi ez txiki, erdiko baiño, liraiña, gaztain kolorezko ule gorrizkadun, begi urdiñak eta arpegi-arrautza luzatua.

Leonor guztiz maite eben inguruko guztiak; atsegiña zan, lillurakor iges doan egaztiaren pareko; oso txeratsu ta begiko agertu oi zan jentearekin, eta, ederraren ederra etzan arren, gaztelukoak, baserritarrak eta zaldunak iñoen, bene-benetan ortan egozaleko, lapurtar eskualde guztian ez egoala Urtubi-ko etxeoandrea baizan ederrik.

Bizitza nasai ta alaiá eroian Leonor'ek; zaldiz ibilli oi zan in-

guru aretako bere andra lagun eta gizaseme odol garbiko batzukaz eta Nive'tik Bidasoa'ra emoten ziran jaialdi guztietan parte artzen eban.

—Jolas zaiten al giñoan —esaten eutson baroiak.

Urtubi-ko andereñoaren eziketean garai aretan edozeiñek eukana, izan zan. Umetan Baona-ko ikastetxe baten egon zan; lekaimeak emen esku-lan batzuk erakutsi eutsoezan, baita negar-ontzi, negar-samur eta epel zan zerbait barnean erein be, erein eutsoen. Leonor'en izaera etzan azi ta garatu, eta bere neska lagunak aldakor, arin, uxagara ta funts-bakoa zala arpegira botaten eutsoen.

Urtubi-k, lekaide-komentuko eragiña bere lobeak kendu nairik, noizik bein, oni irakurri oi eutsozan *Heptameron-en* zati batzuk, Naparroako Margarita erregiñarenak, edo-ta Pedro Bourdeilles, Brantóme-ko abataren andera galaien bizitzak, Urtubi-k au mires-ten ba eban gaskoin eta gudari zurrian.

Leonor-ek ez eban jasango ta protesta barik orrialde nasai onei-tako irakurtaldia, eta baroiak atxaki ta azalpenak emon bear izaten eutsozan bere lobeak.

—Ene alaba laztan —esaten eutson—; jainkosa bat zara; izarretan bizi zara, edo beintzat odeietan; on jatzu oiñak lur gainean ipinten ikastea, egunen baten bunpa ta blasutada izugarria emon ez deizun. Naiago dot oillanda ta zaldizko emakume ausart zangarra izan zaitez, Santa Nitoutxe bat baiño.

Leonor'ek senargai asko euki ebazan.

—Nire lobeak foliozko izen-zerrenda baten gordetan ditu bere maite-minduen izenak —esan oi eban Urtubi-k, barrez.

Ezkondu al izateko, naitanaiez maitemindurik egon bear zan, Leonor'en eritxiz. Bere senargaietatik bat Sanpere-gazteluko oiñordekoa izan zan.

Senpere gaztea famili onekoa zan. Urtubi-koenak baizen zaar-rrak ziran aren abizen eta torretxea, eta Lapurdi'ko kroniketan agertzen ziran, antxiña-antxiñako aldietan.

Ezkontza egokia izan leitekean; Leonor, baiña, aldaroka dabil. Senpere gazteak itxura biurria euki. Txoriburu bat zala iñoen, eta batzuk odol txarreko gizasemetzat jotzen eben.

Leonor-en iñude zaar batek, Antoni andreak andereari esan eutson ez ebala ezkondu bear Senpere-gaz, oneik beti izan bait

ziran Altzate sendikoen arerio. Leonor-ek itandu eutson bere osaban baiezko oni buruzko egiaz.

Nok esan dautzu ori? —itandu eutson Urtubi-k.

—Neure iñudeak, Antoni andreak.

Arritzekoa da. Errian bear bada famili bion etsaigoak iraun dagi oraindik be. Egia esan, orrela dozu, Urtubitarrak eta Senpertarrak aintxiña etsai amorratuak izan ziran. Bien artean jokutzen zan, ain zuzen, Lapurdiko erri-zuzendaritza. Nire aurretikoak eta zureak, zeure abizen Altzate eukenak, bein eta barriro burukatu eben Senpertarrakaz. Altzatetarrak, geure alderdikoak genduzan Auñamendi'z andikoak; Errodrigo Altzate, Naparroako Bera-n bere deitura daroan auzoko patroia, geugaz egoana zenduan. Eskubidea geunkan gaiñera Bidasoa ibai ondoan torretxe arresitu baten bizitu ta indar-zaindariz orniduteko. Mugaz andik leiñargigudua asi zanean, gu politikaz ganboatarrakaz alkartu giñan eta Senpertarrak oiñaztarrakaz. 1413-an, Senpertar batek Altzate-tar bat il eban, Urtubi-ko jauna, azpikeriz il be, kronikak diñoenez; Urtubitarrak, orduan, oiñetxe adiskideen etxeetakoakaz eta Gipuzkoa-tik etorritako Fernando Ganboa kapitainaz alkarturik, jo ta ke, sua *ta* odola erioela, Senpereraiño eldu ziran; baiña biurtzean, au da, onuzkoan zelatan egozan arerioen eskuetan jausi ziran, eta guretarrak, ia danak, geziturik il ziran, euron artean Fernando Ganboa, Frantzia-n espaiñar eragiña aitu zanean, oiñaztar eta ganboatarren arteko etsaigoa be itzali zan, eta 1514-an, Luis Alzate, Urtubi-ko baroia, Luis XII-garrenaren kopa-zain zala ta beronen epaikari Lapurdin-n, famili biak adiskidetu ziran, antxiñako gorroto ta ezin ikusiak aizturik. Ez dot uste —amaitu eban baroiak— kondaira gertakizunok errazoi naiko diranik zuk Senpere-gaz ezkondu nai ez izateko.

Zerbait da antxiñako erredura au —esan eban Leonor-ek—; baiña ba-dira, oindiño, beste aztarna batzuk be. Urtubi-ko andereak egin eban bere neskameak be jakin egiela bere senargaiak egi ten eban bizitza. Oneik esan ebenez, Senpere gazteak, bere lillu rakizunetan laguntzen eutsoen bi edo iru pertsonaren bitartez, inguruetako neskakak atzipetu ta birloratzen ibilli oi zan, akelarretara eroan eta an eurak txarto oituz.

Albiste onein aurrean, Leonor'ek ausi eban azken baten Sen-

pere-gaz; ez eban nai ezkontzaz ezer entzuterik be, eta egun batzutat bere etxeko itxituan egon zan.

Leonor etzan zoriontsu oso-osorik; zerbaiten ezerezean zan; jauregiko ezer ez erabillen amesetan, ezta uni nagusieteako ezer be; berak nai ebana, auxe zan bakar-bakarrik: maitatu ta babes-tuko eban gizaseme bat nai eban.

Urtubi'ko anderea, egia esan, espaiñar izan gogoaren kezka bizi zan; biotzaletzat eukan bere burua, mistikutzat pizkat; frantses zaldunak, bere ustez, dizditsu-egiak ziran, eta azaletikoak; Espaiña-n bear bada aurkitu leitekean gizaseme benago bat, sué tsuagoa, berak amesetan eban lakoxea.

3. *Sorgiñen alderdia*

Aldikada bat zala, Lapurdi ta Nabarra-ko bazter guztiak sorgiñez beterik egozan. Euskaldun Auñamendi-n, alderdi bietatik, Ondarribi-tik Erronkari-raiño eta Bearne-tik Endaia-raiño, sorgintzaleak agindu, osatu ta lillura-aztikeriak egin oi ebezan.

Zer ziran sorgiñok? Nundikoa zan euron jakituria ta indarra?

Batzuentzat, erromarren aztikeri klasikua zan, Bearne-tik zear euskalerrira be eldu zana; beste batzuentzat, alderdi edo aztrumota onek aintxiña bateko euskaldunen erlejiño oitura ta ekiñak gogora ekazan.

Semitismu ideiak gainditu bako Europa-ko lurralde basotiar guztietan lez, gurtza edo kultu bat egoan euskal errian, jaupaleme emakumea zana, sorgiña, Basamortuan jaiotako afrikar erlejiñoetan, gizaseme da egille bakarra, igarlea, salbagille, mesias, mahadia. Harenera baztertua dago emakumea, loi-ontzi bat besterik ez da emakumea, arrisku bat dozu emakumea; alderantziz, Europa-ko oian-eskualdeetan, garaille da emakumea, osagille da, aztrua, argitua; aurki sagaratuan jarten jatzu, jainkotasunaren izenean berba egiten dautzu, ta iragarkizunak egiteraiño goresten.

Semitarren gurtzan, emakumea beti agertuko jatzu altaretatik urrindua, beti artzaille ta gizasemea baiño apalago; Europa-ko erlejiño zarretan, ostera, baita beartsu ta zirtzillenetan be, aundi ta garaille nabari da emakumea. Gerkarren bizikera dirdaitsuan

jaupaleme ta sibila (igarlea) da; euskaldunen bizitza illun apalean, *sorgiña* da.

Semitarrak emakumeari eutsoen etsaitasuna lenengo kristiñau-entzat agertzen da; ebanjelarientzat, Maria-k bigarren maillako inportantzia dau; Kristoren eriotzan ezta agertzen aren agerrarik Mateo, Lukas eta Markos-en Ebanjelioetean; eurotatik batek be ez dau ezer idazten Amaren naigabe ta oiñazeetaz, eta ez dakarre zan egunaren aipamenik be.

Leenengo kristiñau oneik, judutar endakoak nunbait, ez eutso-en, ezin egioen kulturik emon Andra Mariani; kristautasuna europear egin zanean, bai, Benus, Zerez, eta Minerba gurtu ebezanaren enda jainkotasun askokuan txertatu zanean, orduan asi ziran Jaun-goikoaren Ama goresten ta aintzaz aundiesten,

Euskaldun akelarretan *akerari* emon oi jakon gurtzea. Zer edo nor zan *Aker* au? Nundikoa ete? Aker au etzan, ziur asko, tradiziño bako norki bat. Aurretik be, egiptotarren eta gerkarren artean, Pan-ek eta Bako-k aker itxurak artzen ebezan; inditarrak Mendes-eko koba-zuloan gurtu oi eben; antxiñako persarrak bækian zelako artu-emona dagoan deabruen eta auntzen artean.

Maimonide-k diñoanez aker-gurtzea sartzan zan sabeismuan, izarren eta Izadiaren erlejiñoan. Thor, eskandinabiar jainkoa, aker-rak tiratutako burdian eroan oi eben. Errazionalisten garaian aker baltz onetan ikusi zeikean gauditar mitu bat; alanbear eta ergel-denporetan, beste zer guztietan lez, Txerrena ikusten zan arengan. Abere irudizko ta apetatsua zan akerra; Martin del Rio jesuiteak egitzat onartzen dau Luter sorgin eta aker baten semea izan zala. Bitxia izango zan, noski, Luter-ek ezagutu al izan ba'leu Martin del Rio-ren liburua, oni, doixtar barritzaille aundi asarrekor oni, jesuita au noren semea zala uste eban itandutea.

XVII-garren gizaldiaren asieran, sorgin-eskolakoak indar eta entzute izugarria artzen asi ziran Lapurdi-n, Bearne-n eta Naparroa-n; andik laster, Espaiña-ko ta Frantzia-ko gobernuak eskua sartu bear izan eben auzi orretan, eta Logroño-ko inkisizio edo fede-jagoleak Zugarramurdi-ko sorgiñak epaituten ebezan, eta Bordele-ko epaikariak, ots, Pierre Lancre-k, Donibane Loitzune-koak auzitan artzen.

Espaiñar fede-jagoleak zeaztasun bitxi ta barregarriz jantzi eben

prozesua eta onberak izan ziran curen epaietan; Bordele-ko epaikaria, moduzko ta opera-zaleagoa, zorrotz latzago izan zan. Logroño-ko ebazleak, ziran lez agertu ziran: praille on zakar, siñistedun, trakets, malizi ta adimen bako. Lancre jauna, barriz, munduko gizaseme eta apaikari biotz-gogorreko lez.

Garai onetan, sorgin-enda asko be asko ugaritu ta gaillendua egoan; emakume aundiki ederrenak be, aldra ortakoak genduzan; Donibane Loitzune, Urruña, Senpere ta Sara-ko andera ainitz etziran lotsa ori autortzen. Euren batzarrak, maskadara aundiak ziran, zuberotar pastoralak lez dantza ta irradak; eta eurotara joiazan eskualdeko pertsonarik garrantzitsuenak, arpegia mozorroz estalita, Eurotara joan oi ziranak eurak be ez ekien argi ta garbi zer jazoko zanik; batzuk jai alai lez margozten ebezan, beste batzuek ikuskizun ikaragarri lez, illai sarri dei egin eta deabru-aztikerizko oikun bakanak buruturik,

Akelarren aurrerakuntza azalduaz, Lancre epaikariak diñosku: «Areitan lenago Landetako buruments eta ezjakiñak besterik etzan ikusten; gaur, ostera, jente jakitunik be ba-doa».

«Arrigarria benetean —gaiñeratzen dau idazle ber-berak-zenbat deabru ta aztru dagoan Lapurdi aldean».

Zek ekarri leikean deabru kopuru eskerga au? Lancre jaunak, gizaseme zuurra, bere modura, ondorengo azalpena euntzen dausku:

Bere ustez, Indietako ta Japon'go mixiolariak lurralde oneitatik bota dabez espiritu gaiztoak, eta espiritu gaizto oneik euskal errian aterpetu jakuz.

Zergaitik aukeratu eben Lapurdi, eta ez Gaskuña. Armañak edo-ta Turena?

Auxe zan Lancre jaunaren ixilpekoetatik bat.

«Dana dala —apaikariak diño, bere adierazpena sendotu nairik—, Bordela uri onetara ardaotan datozen ingeles, eskoziar eta beste bidazti batzuk esan izan dauskue, deabru-andanak ikusi dabezala Frantzi-ra igaroten giza-itxura izugarrian».

Espiritu gaiztoen egi antzeko jatorria adierazo ondoren, Lancre jauna ari da zergaitik Lapurdi-n ugaritu dan erraza madarikatu au arakatzen, eta au diño, euskaldunai buruz:

«Ontzak lez gabaz ibiltea atsegin jake euskaldunai; maite da-

bez gaubelak eta dantzak, eta dantza geldo astunarena ez gero, zalapartatsu ta nastuarena baiño».

Lancre jaunak, bordelekoak, ba-ekian bearkuna atsegiñaz txi-bisten eta epai-auzi bitartean arrabita jotzen eban; etea dantzan eragiten eutsen sorgiñai bere aurrean sutara bialdu aurretik. Onela bereizten ditu Lapurdi-ko emakumeak:

«Ariñak dira, soiñez eta espirituz igikorrek, urratu ta biziak euren egiteko guztietan, oin bat beti goi eukirik eta, esan oi danez, burua txapelaren ondoan...».

«Labur, sagar-lurralde bat da; andik ez dabe jaten sagarrak izan ezik, ez dabe edaten sagar-muna izan ezik; eta emendik dator orreik ain sarri galazotako sagarrari aginkadak emotea».

Lancre umore oneko gizona zan fede-jagoletzan eztitua; sutzarra, arrabita eta idazkortza ziran ak zurituteko erabilli oi zituan tresnak.

Euskaldun sorgiñen sendiak aztikeri orokorraren zer asko eukazan, eta bardin bere-bereak ebazan beste gauza asko be. Sorgiñak ez eben larunbatik ospatzen, astegunetako beste egun batzuk, Eleizan jai aundiak ziran areitakoak batez be.

Garai batean, lotsaz eta bildurrez begiratzen jaken sorgiñai. Napparroa-n Lapurdi-n lez, mundu guztia joan oi zan euren bille-retara; oneik Napparroa-n landetan, artzuloetan eta toki baztertuetan ospatzen ziran, eta Lapurdi-n, basetxeetan eta gazteluetan.

Zek eraginda joan oi zan jeme batzar oneitara, akelarre oneitara? Batzuk, besta, aratuste, atsegin, ase-bete ta dantza likitsak eraginda; beste batzuk, egundoko miresgarrien griña ta jakin-miñak bultzatuta. Irugarren batzuk ara joan oi ziran aztru baten eskutik maite erazteko kutun-edari baten billa; araoa edo-ta apena artzeko zitalaren billa. Txiroak, zori txarrekoak, gosekillak, etsi-etsiak eta amorruez beteak, zigorrik bage erregea, Eleizea ta aal-tsuak iraintzera joiazan akelarretara.

Auxe zan bear bada, gizartearen protesta, aztru-endaren ikus-pegia barrenkoiena. Olan, frantses sorginkeria Jackeriaz naspildu zan XIV-garren mendearen erdirantza, eta burubako ta iraultzaille biurtu zan.

Eleizeaz eta agint-indarraz muker jokutzen eban sorginkeriak, ondo aurkitzen ziranen artean be, ba-ebazan bere aldekoak; oneik

errez onartzen ebezan sorgiñen osakuntzari buruzko jakintzak.

Naparroa-n, erraza erdcña tuak, Baztan'go agotak, ungriarrak eta ijituak, areikana jo oi eben, azti zarrak euren gantzuki ta edariak egin oi ebezan koba-zuloak aterpe ziran zuzenbideak erasota-koentzat eta erriak arbuatuentzat.

Eta gurtza euren moduko ta basati onein ondarrean, giza-anai-tasun baten gurariak dardar egian, eleiza eder, nagusi, lerdenetan, urrez ta arri-pitxiz beterikoetan baiño aundiagoa bear bada.

4. *Olaundi-ko zearrola*

Olaundi-ko zearrola, Bidasoa ibai ertzean egoan, menditik jastenzan errekazto bategaz alkartzen zan tokian. Olaundi toki ezo ta beeratuan aurkitzen zan; zear-ola zaarra, edatua ta zati bat eratxia. Urriñetik begiratu ezker, gaztelu tzar baten itxureta eukan torre batzukaz; andapara bat eukan, errekaztoko ura artzen ebana; antxiñako tailler suntsitua, bedar itzal artean jalgiten ziran arrizko zutoin eskerga batzuk ikusten zirala bertan; tximini aundi bi ta bizkar-landaratxoz estalitako ormatzar baltz batzuk. An untzorria ta irak, aier-zuri bedarra ta erua, anbula, asuno ta txartangilla, jaun eta jabe ziran oso-osorik, eta esiak, ormak eta inguruetako zugatzen enborrak, berdetasun errimez josirik egozan. Zear-ola zarraren teillatu ertzak, oroldi-ondoan orban biribillez izartuak, urre ta zidarrezko margotan zirudien.

Neguan, orma-lorediaren jori artean, otzak igarturik onezkero, ur gaiñez ikusten ziran punta-zorrotzdun uztai aundi bi, ikusle jenteak deabruaren egiteko lez begiratzen ebazanak. Olaundi-k ez eban auzokorik; bakar-bakarrik, andik oinkada gitxira, ermita bat nabari zan ermita zaiña u ebenetik bertan beera itxia.

Anton Jatsu, aita, ta Anton Jatsu, semea, Olaundi-ko zearolaren oiñordekoak, burdin-lantzaille trebe bi ziran. Etxe aundi atan, ibaitik gora igoniko arratoiz beteriko toki goibel maskal aretan, andik eta emendik eltzen tiran armiarmaz inguratukoan sarturik, Anton biak aspertu barik lanari ekioen.

Etzan erreza Olaundi ondolik igarotea, ez egunez ez gaez,

sutegiko auspoaren arnas-ots estua ta bertatik jagiten ziran maillu-garraxien eresbatza entzun barik.

Antoni bion mailluen tin-tin otsak egurats ixilla betetan eban goizean eguzkia urten eta sartzen zan arte guztian. Batzuk esan oi eben, errementari biok maillu-ots gogorra ateraten ebela an inguruetan ugari be ugari ebiltzan arratoiak uxatzearren. Olan, asmo gaiztoko jenteak, beztu ta gaizki jorratuz, birtuterik eder garaienak be ondatu egin oi dabez.

Igandetan, olarotz biok, euren etxe biratik urrindu gura ezta bear bada, arrantzu egiten eben ibaian.

Bagilleko goiz batean, Anton Jatsu, semeak, bere burdin-olan lanari ekiolarik, gazte bat etorri jakon bertara uriko zaldun bat lez aundiki jantzia. Mutil gazte bat zan Indietatik etorria, Matxain eritxona. Mikel Matxain, Bidasoa ertzeko baserri baten jaiotakoa, Anton Jatsu-ren laguna izan zan mutikotan. Mikel, amalau urtegaz bere basetxeari agur esanik, Frantzia-ra abiatu zan, eta emen urte batzuk emon ondoren, Indietara joan jakun.

Mikel-ek, Jatsu-ren aroztegian sartzean, ez eban ezagutu burdin-langillea; onek, ostera, beingoan exagutu eban Mikel Matxain. Ogetalau bat urteko mutil gaztea zan Matxain, zangar eta lerdena, begi urdintsu ta gaztain-kolorezko uledun; soiñeko baltez apain, iduneko labur zuria ta soingaiñeko arrea.

Maisu —esan eban Matxain-ek euskeraz.

Zer nai dozu? —Jatsu-k itaun.

Babeskia falta jakon ezpata bat daukat. Ipiñiko zeuskit be-
ra?

Ikus dagigun,

Matxain-ek ao biko ezpata luzea atera eban bere soingaiñekoaren azpitik; ji baten antzera tolestuten zan galtzairua, eldu-lekua bitxiki landuta eukon.

Jatsu-k artu eban iskillua, eta, arduraz arakatu indoren, Matxain-i luzatu eutson bera.

Ezin leiteke atondu? —itaun onek.

Zelan dan —esan eban Jatsu-k.

Matxain-ek begiakaz galdetu eutson.

—Ezpata au zuretako bitxi bat bada —esan eban burdin-arozak— eta guk babeskia antolapena ez igarteko moduan jartea nai

baldin ba dozu, guk ez dakigu ori egiten.

—Nik nai dodana batez be, auxe da, gauza izan dakidala ez-pata au —bota eutson Matxain-ek.

—Orduan, etorri zaitetz emendik egun bi baru, eta antolatua eukiko dozu.

Urten zan Mikel Matxain Olaundi-ko zear-olatik, eta bidez joiala bela-belarrietara eltzen jakon geratu barik aroztegian jarraitzen eban Jatsu-ren mailluaren tin-tin otsa.

5. *Errotabide, giputza*

Egun bi geroago, aroztegi aretan bertan, Jatsu-tarrak, aita ta semea, lanari iñarduela, burdin,olean egoan baserritar aldra bat, eta euron artean emakume bat, gixaseme tantai bati entzuten, gizaseme igar, begi-uridin eta ule-gorri zuritzen asitako bati entzuten. Errotabide zan gizaseme au.

Errotabide ara joana zan Matxain-ek Olaundi-n itxitako ezpatea eroaten, eta a adiskide ba'leu lez berba egiten eban.

Mutil ori, antza danez, andizale ta ezin-asea dozu —egotzi eban Jatsu aitak—; Nabasture-ren alabarekin ezkondu nai izan dabe, eta berak ez dau gura izan.

Errotabide-k irribarra ezpanetan.

Jakiña ez dauana gura.

Eta, zergaitik? Zer geiago gogo izan bear dau mutil orrek?

Mutil orrek —Errotabide-k jardetsi— Urruña-ko Urtubi baroiaren illobarekin ezkondu gura dau.

—Eziña dozu ori —esan eben Antoniotarrak,

Zer dala-ta?

—Matxain ezda aundikia.

Guda-mutil bat da. Matxain-darrak Urtubi-tarrak baizen antxiñakoak izan daitekez.

Eta maite ete dira alkar Urtubi-ko anderea ta Matxain? —galde egin eban Jatsu gazteak.

Bai —erantzun Errotabide-k—; Matxain bere etxetik urten zanean Urtubi-n egin zan artzain urte bian; antxe ezagutu eban baroiaren loba, eta artaz maite mindurik, gizon-maillara eltzea zin-

egin eban. Leenengo eretia eskuratu jakonean, Indietarako itxasontzia artu, an milla arrisku azpiratu ta zortzigarren urtean etxera biurtu zan diru-mordoa eginda; Urruñra-joan zan bizi izaten, Leonor andereagana aurkeztu ta alkar maite izatera eldu ziran.. Erritarrak orduan bala-bala asi ziran Urtubi-ko damearen iperloka bategazko maitasunak zirala-ta; baroiaren belarrieteara be eldu ziran esamesok, eta onek bere lobeari eskatu eutson joan zedilla zati baterako Urdazubi-n eukazan adiskide batzukaz.

—Eta Urdazubi-n dago andere au? —itandu eban Jatsu zaararak.

—Antxe dago, bai.

—Eta Matxain-ek, zer egin bear dau? —esan eban Jatsu gazteak—. Ustekabeko zer gertaldiren atzetik dabil? Zertarako nai dau ezpata ori?

Errotabide, burdin-langille biak, euron ikasleak eta baserritar aldra arek albiste geiago jaso naiean egozala ikusiz, irribarre egin eben.

Matxain —esan eban gero— Urdazubi-n egon zan egunak dirala, eta ezin ikusi izan eban Urtubi-ko damea; itandu eban an zeintzuk ziran Alzate-ko Leonor orduan bizi zan etxeko ugazabak, eta Barrenetxea'tar Graziana ta onen senar Mikel Goiburu zirala jakin eban. Ikerketa geiago burutu ostean, arridura aundiz jakin eban dalako Graziana andrea sorgiña zala ta akelarreetako erregiña. Ez eban au bakarrik jakin, baita jakin eban Graziana andrea Senpere-ko jaunaren adiskide kutuna zala, Leonor-egaz maitemindua, beti atzetik darraikiona. Matxain-ek aztertu ta jakin eban Graziana andreak sorgin-azo nai ebala Urtubi-ko damea, ostiral baten Senpere ta Leonor Zugarramurdi-ko akelarre-ara eroanik, orrela banandu ez daitezcan iñoiz bata-besteagandik.

Eta Matxain-ek, zer egingo dau?

Matxain neugaz joango da akelarrera Graziana andrearen goraberak galazoteko.

Zear-olean egozan guztiak miretsiz begiratu eutsoen Errotabide-ri.

—Bai; biok joango gara —jarraitu eban esaten giputzak—; Sara-ko andra batek, Gaztelu-ko Mikaela-k esango dausku akelarre egun zeatza ogetalau ordu leenago. Berak emon izan dautso

Matxain-i bere antxiñako ezpata. Itxura danez, Mikaela au, bere gaztaroan, Leonor-en amaren adiskide miña izan zan.

—Eta, bakarrik joango zarie akelarrera? —itandu eban Anton zaarrak.

—Ni, neure aldetik, bakar-bakarrik joango nintzateke —erantzun eban Errotabide-k—; baiña Matxain Bera-ko erretora ikusterera joan da eta onek gutun batzuk emon dautsaz eta esan dautso gaiñera Iztea-n bizi dan gudari-buruagana joateko, onek bait dautso Mikel-i agindu berak emongo dautsozala bere gizonetatik sei oldarkoi, bipil eta urratuenak.

Olagizon biak, euron ikasleak eta baserritarrak, misetsirik begiratu eben Errotabide, eta gero bakotxak edestu eban sorgiñen batzarrari buruz ekiena.

Errotabide-k, geien ekianak, esan eban batzar orreik asteletan, eguastenetan eta ostiraletan eta Eleizako jai aundietan ospatzen zirala; bederatzietan asten ebela billera gaberdian amaitzeko, sorgiñak be ezin eben entzun etxetik at ollarraren kantua; batzutan mezan muzin eta izeka egitea ospatzen zala, dantza nasai galga bakoaz jaiá amaiturik.

Jatsu aitak, kontatu eban, berari esan eutsoela, sorgiñak ildakoak ateraten ebezala obitik eurak jateko, eta au egitera illerrietara joan oi zirala, zuzi lez eroanaz bateatu bako umetxo baten besoa, eta onek atzamarretatik ixioturik aizezko zuziak iduri argia emoten dauala.

Errotabide oartu zanez, bera bialtzen ba eben gabaz urre-ontza billa ume ixiotuaren beso batek emon leiken argiaz bakar-bakarrik, ezingo ebala ontzurre askorik jaso.

Jatsu semeak gaiñeratu eban bein sorgiñak Arnaiur-ko Martin, errotariari bildur emotera urten ebela au Zugarramurdi-ra bere errotara joiala, eta sasi artean jolaska ibilli ondoren, pozu txistar baten gordeten ikusi ebazala.

—Orduan, sorgin orreik igelak ete ziran? —jardetsi Errotabidek.

Baserritar batek, areitakoak, esan eban berak gizon barri ori ondo ekian bati entzun eutsola esaten txerrenak, bere kontura artzen ebazanai, zauri bat egin oi eutsela atzazkalaz, osatu eziña zan zauri-ondoa izten ebana, eta gaiñera, pertsona deabrutuaren

begi-ninian seillu bat legez zapo baten iduria izten ebala josita.

Oni itsatsi eutson agure batek Etxalar-ko Joanes-ek deabruaren markea urdail aoan, borrerua zala ta aretxek zigortzen ebazala akelarerra joanik, gero an jazotakoa errian zabaltzen eben mutikoak.

Atso zaar batek, ostera, kontatu eban alako Jauntxo batek esaten ebala, Maria Txipia eta Yurretegia-ko María, aztikerietan jakitun ziranak, gau batez Berara urreratu zirala, airean egazka, ta mutiko moltzo bat ogetik aterata, Zugarramurdi-ko akelarerra eroan ebezala.

Jatsu-ren arotz-ikasleatariko batek, txikienak eta laruen egoan, begiak josita eukazan, izuaren izuz zabal-zabalik, berba egiten ebenengan.

—Ez eizu izan bildurrik —esan eutson Errotabide-k—, zu ez zaitue sorgiñak eroango, eta olakorik nai ba'lebe, esaidazu beingoan.

Errotabide, giputzak, gizon sendotzat eukan bere burua; bera be, pizkat beintzat, aztru zala uste eban, bear bada.

6. *Joan-etorria*

Mikel Matxain-ek egin ebazan bere gertakizunak asmotan erabilen abentura aundia aurrera eroateko. Bost gudari ta sarjento batek lagunduko eutsoen, Izteako komandanteak itxiko eutsozanak; lagun izango zituan, baita, Errotabide ta bere adiskide mutil gazte bat, Etxeun eritxona, ango lekuak ondo ezagutzen ebazana.

Bagillaren 23-an, Matxain-ek artu eban Gaztelu-ko Mikaela andreak bialdu eutsona: urrengo gabea, Don ¹banez ain zuzen be, ospatuko zan akelarre, eta orra joango ziran Leonor eta Senpere. Danak alkartuko ziran tokia Zugarramurdi-ko arpea izango zan, emendik abiatuz Berroskoberro-ko landara.

Matxain-ek iragarri eutsen gudariai; Errotabide-k zaldi bat zamatu eban jan-edanakin, eta arratsaldean, bazkal ostean, ixillik, dalakoan ezalakoan, urten ziran erritik.

Egun ederra zan; begillako eguzkiak leunluen berotu eroian lur-azala; Frantzi alderako bidea artu eben guztiak. Gero, oiñak laban egien buztin ezkok betetako aldapa igon eben; errekazto

bat igarorik, zugatz eskergaz kuin-kuin egoan mendartean gelditu ziran arnas-artu ta zurrutada bat egin egien.

Atsedeen-aldi orren ondoren, bariro abiatu ziran; Sara-ra jasten dan lats baten ertzetik ibilli ziran, basarte ta oian itsuetan zear, eta gero ertz orreik itxiaz, ezponda edo arrastaza bat igon eben; emendik ikuskatu zeikean aran estu bat, eta onen amaieran, Erantzi-aldeko lautada edatua.

Bigarren egotaldia eg¹n eben bertan. Matxain-ek nai eban bere jentea nekatu barik eldu zedin. Gero an, Espaiña menditsu ta lantz Frantzi lau ta leunean sartzen zan tontor baten amaitzen zana, Tontor onek, Aitz Zidar mendiaren azken saiets danak, albagin zuri biurtu baten itxura eukan bere bizkarrean, eta beian, bere oiñean erritxo bateko baserria eukan: Zugarramurdi.

Arrats-bera zan Matxain eta bere lagunak ekiñaldia ber-asi ebenerako; zerua laiñotu zan orduko; laster asi zan euria. Gudarietatik batek, jazoak funtsean trankil izten ez eban batek, ots:

—Eguraldi txarra daukakegu.

Borda baten aterpetu ziran, luzaro bertan egonik.

—Aurrera jo bear da —esan eban Matxain-ek.

—Ba! Au oz da ezer —Errotabide-k oi— Aurrera! Aurrera!

Eta aurrera egin eben; curia, barriz, gero ta indartsuago; odei

jasak ortzia illundurik, gaba jausi zan aranaren gaiñera. Bat-batean, tximista batek didiz egin eban zcarka biziz Aitz Zidar mendi-bizkar oni jarraituz geiago ta geiago, izki izpi begi-mingarriak antolatzeraiño; mendi-gaiñeko arriak zuri urtuak zirudien; tximista ondoren trumoiak durundu egien eta euri-zaparradak areagotu.

Aize otzak burruka zitala ekarren, antza zanez, bidez ebiltzaren aurka; ixil-ixillik joiazan bederatzi gizonak, arriak billatuz oiñak kokatzeko.

Onetan, ornidura ta jan-edanak eroiazan zaldia, tximistak bildurtuta, atzera egin eta ostendu jaken.

—Orren billa noa —esan eban Errotabide-k, ekaitzean eta gau illunean murgilduz.

Matxain-en gudariak aurrera jarraitu eben. Etxeun-ek zuzendu ebazan tximista baten argitan agertu jaken baserri batera.

Ona urreratuz, barbaroa ta pandereta soiñuak entzun ebezan. Abesari ekioen.

Atean oles egitean, ixildu ziran barruko kantariak.

Ez eben aterik edegi nai izan. Matxain eta Etxeun-ek, palagu ta zurikeriakaz; gudariak, zemaika, edegiteko ta edegiteko; eta emakume batek, azkenez, zabaldu eutsen atea. Oso beartsua zan etxea, ta zarpail kalamastra. Zubitarte eritxon.

Danak sartu ta sukaldera joan ziran, suaren bitan egokiturik. Alarguna zan etxeko andrea; bere aitagaz bizi zan, atxakiz betetako agure zaarraz; eta pandereta joten eben mutiko bigaz, eta sutondoan kuman lo egoan umetxoagaz.

Ardo-zaatoa atera eban Etxeun-ek eta danak edan eben.

—Eta Errotabide? —itandu eban Matxain-ek.

—Errotabide ez dakigu nun dan —bota eban Etxeun-ek.

—Nola?

—Bai; zaldi-billa joan da, gure jan-edanak eroiazan zaldiaren atzetik.

Matxain-ek, landara urtenik, atzamar bi aoan sartu ta zorrotz be zorrotz urriñera entzuteko moduan txistua jo eban. Ez eban iñok be erantzun. Andik laster bariro txistu egin eban, eta orduan ikusi zan urrundik erantzuten ebela. Ordu-lauren geroago, Errotabide baserrian agertu zan eskumatik zaldia ebala; okuilluan itxi eban.

—Joan da ekaitza —oiu egin eban—, Goazen Zugarramurdi-ra.

—Aztia ete da gizon au? —itandu eutson bere lagunari ostera arek kezka eukan guda-mutillak.

Lagunak, sorbaldak jasorik, ez eban ezer erantzun.

Matxain-ek txanpon batzuk emon eutsezan Zubitarte baserriko mutikoai, emakumeari ta onen aitari agur esanez, landara urten zan barriro be bere jentiaz.

Etxeun-ek, ekaitzaren erruz bidea galdu eban arren, laster aurkitu eban barriro, eta au estua bait zan, danak erreskadan joaten asi jatzuzan. Txakur bat egoan zaunkaka, urrun.

—Ezaugarri txarra —esan eban gudari siñisperak.

—Ba! —bir-esan eban besteak—. Amar urte dirala zaunka dagi nire auzotegian gabero-gabero. Orainarte ez jat ezer txarrik gertatu.

Atertu zan; gauaro bikaiña: garbi, aratz, izartsua.

Bidearen ezker-eskuma zugatz tantaia egozan sasi artean eta mendian beera.

Ez gaitez anurrera joan —esan eban bertatik guda-mutil bildurriak.

Zer jazoten da? —Matxain-ek itaun.

An, an zerbait dago kukulduta, gorderik. Moltzo zuri bat da, dragoi bat.

Nik sugeak ikusten dodaz kiribilduta —garraxi beste batek.

Matxain-ek ezpateari oratu eutson, sarjentoak bardin, eta, taket aundia ezkuan eroian Errotabide aurretik ebela, moltzo zurira urreratu ziran.

—Zugatz igarra da —esan eban Matxain-ek.

Onen gaiñean jarri zan Errotabide.

Gudamutillak barre egin eben onen lagun bildurriagaitik, eta ibilliz joan ziran aurrera. Zugatz-adarrak dardar egien misteriozko oskar-zurruz gau epel ezoan; ura, kantari zirudian, irrikil eta lantsetan, landako ixiltasun gurean.

Errotabide-k, kolkoko ziskutik txilibitu pitin bat atera ta soiñu alaiak jotzen asi zan. Zartadan ixildu jakun; urretxindor batek erantzuten eutson illunpearen magalean. Gelditu zan Errotabide ari entzun nairik, eta guda-mutillak bardin.

Ez, ez gaitez gelditu. Aurrera! Aurrera! —oiu Matxain-ek.

Eta aurrera jarraitu eben. Zugarramurdi-ko kobara eldukeran, Etxeun-ek jakitun jarri eban Matxain, eta Matxain-ek gaiñerakoak, leza zadortsutik ur-ur egozala.

Bidea, arkupe baten azpitik joian; ezkerretik zabaltzen zan aitz-zuloaren ao itzala; emendik etzan ezer ikusten, itzalen baltza ezik. Begi-ninia oitu ala, azpian ikusten zan izara baltza lakoa lezaren zabalera guztian edatzen zana, *Infernuko erreka*, ezkutuzko ikaraz dardar egiana. Arkaitzulo illunean, dizdiz egian, an barren-barrean, joan eta etorri bateren batek erabillen zuziaren argiak.

Biraka ebiltzan inguruan saguzar batzuk; bein edo bein gauontz batek gero an zaplada eta euren kirrinka latz zorrotza entzuten zan.

Auxe da bil-unea —esan eban Errotabide-k.

Ementxe sartu bear dogu —Matxain-ek erantsi.

Guda-mutillak, aitaren egiñez, ezpatak atera ebezan.

Aurrera! —oiu Errotabide-k, eta jauzika sartu zan koba-zuloan, taketaz txirritak egiñez, eta oiñakaz urrats luzeak emonez.

Errotabide-k, itxura zanez, ez eutsen bildurrik sorgiñai; ba ekizan, dudarik bage, arein bazterrak eta akelarreak.

7. Zugarramurdi-ko koba-zuloa

Kruselu bat ixetu eban Etxeun-ek, eta aurrera joan zan arpean, guda-mutillak atzetik zitularik. Argi urri aregaz azpia ondatuko jakela uste eben, arezko azpia nunbait eta ur-txirripa oso sakona zala zirudian. Alan be, etzan orrela; artzulo azpia beerantza joian leunleun, patar bigunean, lats-magala azken ebala, onek lenengotan naiko sakontasun ba eban be, oso gitxikoa genduan gero. Urriñago luzatuz joian kobea *Infernuko erreka* ertzean, erreka toa gero estuagotu ta landara urtetzen zan, autz edegi medar batean amaitzen zan artzuloa. Arpea ez egoan eremu; tortxo baten argitara ikusten ziran atso bi bazter baten gorderik eukezan bedar legor eskukadak atera ta, urrilloa ta txantxarra, asma-bedarra ta bigura, ira-bedarra ta belaikia sailkatzen ziarduenak.

—Emen geratu bear ete dogu? —itandu eban gudari-buruak.

—Bai.

Etxeun-ek taket bat josi eban lurrean, beroni lotu zaldia edetik eta oni samaitik esegi euetson artogaraux betetako zaku bat jan egin.

Errotabide, kruselua arturik, desagertu zan arpean eta errekea batetik bestera igaroteko zan ate aundia lepoan ebala biurtu zan. Bedarrak pillotzen egozan atso biak marmarrean jardun eben zubia kentzen eutsoela ikusiz; baiña Errotabide-k ez eutsen jaramonik egin.

—Sua egiteko —esan eutsen bere lagunai, eta lurrera botarik.

Etxeun eta guda-mutillak, ostikoka ta golpeka, apurtu eben atea, zezpal pillo biurturik. Gero, ira legorra ekarriaz, sutzar galanta egin eben.

—Orain apaldu egin bear dogu —esan eban Errotabide-k—, eta jentea etorten asten danean, ez egon ixillik, atera danok zarata

ta abarrotsa, zeñek geiagoka, susmorik eme ez dagfun.

Asi ziran apaltzen. Suaren argitara arkaitzak ikusten ziran, batzuk are-aitzak, beste batzuk txit zuriak, izugarriak, il-jantzietan baturiko itzalak z; rudiela; goiko sapaia be ikusten zan, urrun; gorantza igonaz joian sueteko kea, eta baltz ebillen errekaztoa dr-dai gorritzak agiri zan. Errekazto arek txistu-otsa lakoxe itz-aroa ateraten, goiko atxetatik maiko lez jausten ziran ur-tantaen plaust-zartada leunak lagunduta.

Apaltzen ziarduen bitartean, jentez beteten asi zan artzuloa. Atso zaar trauskil batzuk sartu ziran, bedar txirnel erretxintsu moltzo bategaz eurak eta inguruak argiturik. Gorputz aundiko emakume, gizon-antzeko batek zuzentzen ebazan, buruan bere adats zuri gaiñean biguri-koroia arro be arro eroianak. Jarraitu eben ur-bide ertzetik zear, trotxoaren argitan, bedarrak aukerutzen ziarduen urdangak egozan lekuraiño.

Eldu barri zan emakume atsoetatik batek egur-sorta eroian buruan; beera bota bera ta sua ixetu eban. Gero, ur-askara urreratu zan beste bat, galdara bat urez bete ta arri biren gaiñean sutan ipiñirik.

Adats zuri ta biguri-koroidun atso aztia bedarrak galdarara egozten asi zan misteriozko itz batzuk aopeka esaten ebazala; besteak obo bat osotzen eben ingurumari. Sugarrak dirdir egien euren urrezko ta odolezko errañu dizditsuz, sorgiñen bira osoa argitan jarririk.

Gerotxoago, koba-zuloan sartzen asi ziran neska-mutil taldeak; barre eutsiak entzun ziran illunpean, marmarrak eta mosuak.

Bera-ko jentea aurkitzen zan an, Lesaka-koa, Etxalar, Añoa, Zugarramurdi ta Urdazubi-koa; mugaz andikoen artean, Donibane Loitzune-koak egozan, Urruñakoak, Askain eta Oleta-koak, Sara ta Senpere-koak; askorentzat a erromeri aundi bat zan, alai bizia izan be. Egurra ekarrenak sua egiñik, euren ingurua osotu oi eben.

Ijitu-talde bat be eldu zan, Ziburu-ko kasakarote batzuren eta Arizkun-go agote batzuren artean; oneik, egazti-zango bat eroien ezaugarritzat, zapi gorrian ebagia, soñekoan josia, sorbaldan, iñor urreratu ez citen eurengana.

Jenteak legenardunak zirala iñoen arren, oneik mutil zangarrak ziran, gorputzez ondo eratuak, ule-gorri ta begi-urdin. Euren go-

gotarrendandiko jatorria nabari zan eurekan. Sendo ta erabagitsu agertzen alegiñak eginda be, lotsatiak genduzan oso.

Batzar ordua urrago ta jente geiago agertzen zan; Laburdi-ko eleiz-gizon batzuk be eldu ziran euren serorakin, frantsesak benedita deituekin; akelarren dantzatzera etozan eta meza baltza dala-koa egitera.

Oneitako batek lurrean itxi eban bere kapela. Errotabide-k ipiñi eutson barrero, kopla au abestuz:

*Donostiarrak ekarri dute
Getaria-tik akerra,
kanpatorrian ipiñi dute
aita santu bat degula.*

Errotabide-k ondoren bestee kopla batzuk abestu ta dantzan egin bear ikoti aundiak egiñez.

Txalo-ots biziak eskiñi eutsoezan, gizon aren umore ona go-retsiz.

Gero, Errotabide-ren irakatsi onak bizkortuta lez, lapurditar mutil batzuk eresi bat abestu eben taldean, egiazko maisutasunaz eroanik batzuk goiko doñua eta beste batzuk beeko zortzia. Abots oneikaz lezeak durundu egin eban eleiz nagusi bateko erdi-ontziak legez.

Azken orduan agertu ziran Zugarramurdi-ko akelarre zuzendu ta usartu oi ebenak. An zan erriko erretora Urdazubi-ko iru le-kaidek lagunduta; an zan Senpere-ko jauna be, bere adiskideakaz, ia danak mozorroturik; an zan, azkenez, Graziana Barrenetxea, bere senarragaz, an ziran Mikel Goiburu ta iru andereño arpegi ordekoz estalduta. Bat-batean ezagutu eban Matxain-ek euren ar-tean Alzate-ko Leonor, atso-gizon jantzita.

Graziana Barrenetxea ta Mikel Goiburu, akelarreko errege ta erregeiñe lez, genduzan agintzen ebenak, eta eurok agindu eben mundu guztiari edaten emon egoela.

Eskuz esku ibilli ziran edontziak; ardaoa edan eben gizonez-koak eta paitarra andrazko zarrak.

Mikel Goiburu ta Senpere jaunak murkoetan eroien olako edari gozo bat, andrazkoai eskintzen eutsoena; sorgin-bedarra ta urrillo

ziran egosita, gozokiz gozatu ta ondoren usain-azoa, sorgiñak ger-tatu ebena. Gizon biak Leonor-egana urreratzean, Matxain, arpe-gia karatulaz bestelakoturik, neskagana urreratu ta besotik oratu eutson.

Zer nai dozu? —itandu eban neskak, ikaratua.

Ez egizu edan —esan eutson.

Mikel! Zu zara?

Bai; emen naukazu zu zaintzeko. Ez bildurrik.

Ezpanak busti zituan Leonor-ek edaritan, eta ondoren ezpanak, garbitu ebazan esku-zapiatz. Koba-zuloan sartu zanetik adagaiñean egoan, izu-izuturik; buruko ariñak artuko ebalata bildur zan.

Senpere-ko baroiak begiratu eutson bere karatula barrutik Leonor-ení itz egiten eutson beste mozarrotu ari; Urtubi auzuneko zaldun ezagunen bat izango zala uste eban.

Graziana Barrenetxea-k, agote taldeen aurretik igarotean, oneitako mutil bat ikusi eban berakin lilluraturik geratuz. Oso gartsu, urreratu jakon, eta itz egin ondoren bere alboan jezarrri zan; baita arpegí ordea kendu be, enda zapal dutako gizonak ikusi egian bere naitara.

Emakume eder bat zan Graziana, begi-baltz eta gaztain-uledun; ogetamar urtetik gora eukazan eta itxura bikain-bikaiñak; ule-guri berdezko soiñekoa eroian, eta begiak eta ezpanak margozturik.

Agotea, ar-eske dan leoi eme batek lez begiratzen eutson emakume arrullo aren aurrean, jarrera kizkur eta apalduan egoan.

Andereiño biak eta Leonor banatu ziran Graziana-gandik. Atso zaar bat urreratu jaken zapoak eta muskerrak eskuetan eta lepogaiñetan eroiazana. Zapo oneitako batzuk lekaide-jantzi txiki bat ero:en, bere txanoaz eta gerrian kordoi batez loturik. Atso zaarrak Leonor-i eta onen lagunai eskatu eutsen jantzitako zapoak txeratu egiezala, baiña neskak ez eben ori burutu nai izan.

Senpere-ren jarraigoa antolatzen ebenen artean gazte gilbor-aundi bat aurkitzen zan, igikoi ta barritsu, arpegi mozoloduna, karatularik ez eroana. Gazte onek, aurretik praille izan zanak, jolas-azten zituan lapurditar aitor- semeak, kanta nasaiak esanez eta koplari arlote baten zantzuz eurak zuritu ta ule-orraztuz. Praille izandako koplariari Kahusak eritxon.

Abrakadabra! Abrakadabra! —garraxi egin eban abots du-runditsuz kobara sartzean.

Sorgiñen edaria eskiñi eutsoen Kahusak-i; baiña berak, des-taiñaz ukaturik, marmar:

Ez, ez; ao-urik ez; ardaoa, eta beti ardaoa, Falerno ta Ke-kulo eta, besoa jasoz, latin-mordolloan oiú:

Gaudeamus igitur, juvenes dum sumus!

Post jucundam juventutem,

Post molestam senectutem

Nos habebit humus!

Kahusak jarraitu eban bere *gaudeamus-ekin*, gogait eragiterai-ño, bere praille jatorri ona erakutsiz.

Kahusak, goi-dei jator bat egin bear dozu —esan eutson Senpere-ren adiskideen arteko batek.

Oraintxe berton —Kahusak-ek erantzun—. Emoidazuez mi-nutu bateko ixil-unea ta ardaoa. Azti goitar eta illazturuen itzal gurenak: Apoloni, Albert Aundi, Agripa, Faust, Merlin eta Para-zelso-ren itzalak, argí nagizue!

Unetxo bat igazita, koplariak, bere buru-gaiñ su-zuzi bat era-biliz, au esan eban:

Euskaldun anaiak! Eguzki-semeok!

Ondo, Kahusak, ondo- —oiú bere lagunak.

Aundiki kiñua egin eban Kahusak-ek, ixillik egoteko eskatuz.

—Parka eidazue —jarraitu eban esanaz— Bearne-ko koplari zuen kukumarro jaietan esku artu ta zuoi agur egitera kobazulo ezkutu ta sagaratu onetan sartzea. Neu nozue Villon eta Klemente Marot-en eskolako koplari sistazko itzak darabiltzen isekazale; zulotxoak abesten ebazana... Baiña gaur, nire musa zirtolari ta baserritarrak ur aundiko arrain lez leza zadortsu onetan jalgiz da-goan uretan aurkitu dau Hipokrene-ren iturria.

Une onetan, Izadiaren bizi goibela osorík, misterioz josita, pilpilka dagoanean; gabaren milla arnas-ots eta barbulla gorde-ixilleko entzuten danean; lats ontako urok bere kanta erdi-alai erdi-goibela itxasora daroanean... Orain, zeru baltzean zidarrezko izar batek dardar dagialarik; orain Basajaun izugarriak bere be-

girakune gorria oianeko adar-artetik bialtzen daularik; Auñemendietako Hrensugiak bere egats zori-txarrekoak aidean zabal-azten dauazalarik, eta belatxingak bere azti-garraxia basartetan jaurtzen dauanean; oraintxe, entzun daroa koplariak bakartadearen otsa, ixillaren intziria, egun-sentiko laiño ariña lez erneten dana, eta bere menpekoai, gau-aren agint-erreño urduria beteten dauan aberedi ikaragarriari, diñotsona: Maitagarriak! Silfoak! Sorgiñak! Baso-jaunak! Lamiñak! , Zugarramurdi-ko ur-asketan zeuen urrezko adatsak orraztuten dozuezanok. Eusko belau-ete zaarraren espirituak! Zabilte! Ibilli, bai Larraun mendiko esparru usaintsuetan zear! Amil zaiteze aitz-artetan beera! Joan egazka erre-kaztoetan barrena, eta ornen egiozue oiandar egoitza au apaintzen daben andera eder liraiñai! Zuok, aztru jakitunok, xarma-zientzi ikasten zaar egiñok, atera egizuez bedarretatik usaiñik gozoenak, edaririk argal-erazleenak, gerkarren *nepenthes* aaztu eragiten dabena; emoiguzue edontzien barrenean alaitasuna ibilte txoroetan bergiliar landetan zear egaz egin dagigun, arin biotza geure lagunak maitatzeko eta burua zorrotz euren deduz eta omenez pentsamentu garaiak eioteko.

Eta Maitagarriak (Kupidok), Morfeo-z naste, gure edertasunen gogoak gaingitu dagizanean..., zuok, aitor-seeok, zaldunok, odol-garbikuok, jagon egizue euren loa, gauez ara ta ona dabiltzan ur-suge ta dragoien aurka eta mitxeletai atera egoak eta estali eurokaz gozo-gozo arein begi-niniak, ilazkaren izpi kaltegarriak miñik egin ez dagioen...

—Gora, Kahusak, gora! —oiu egin eben bere lagunak—. Bearne ondo goi geratu da.

8. *Doniane gaba*

Kahusak-ek, bere jakituri klasikoazko etorri ugaria bere entzule autuen aurrean saltzen eban bitartean, zorakerizko, aztikerizko ta lizunkerizko aize-boladak erneten ziran kobazuloa beteten eban jente baserritarren taldean.

Emakume gazte batek, lurreean etzunda, oiu egian sumiñak joa:

—Emen dago dagoneko! Ikusten dot! Bere beso artean nauka! Erdu, ene laztan! Erdu!

Atso batek, arri baten gaiñera igoenik, erlejiñoaren eta Eleizearen aurka bereak eta bost botaten ziarduan. Zaar igartu bat zan, baltz jantzia, sukar gaiztoa. Jenteak entzuten eutson, iñoana onartuz, eta apaizak irribarretsu. Beste emakume batek, konkorr, ergel, nasai-zirtolariak dantzan ekion astun eta narras, zaldabai txiki bat dardaratuz, ikusle-entzule guztiai barre eragiñik, eta agure zaar batek be andrai jarraitzen eutsen erdi-billosik.

Graziana Barenetxea asi zan, sorgiñen edariak bizkortua, urri-loaren eta asma-bedarraren ondorioak sentitzen. Aren begi-niniak, oso edegiak, katu batenak lez dizdiz egien bere arpegi gorri arnas-beartuan. Graziana agota mutillagana urreratu zan, bere aots-itzik gozoenakaz mintzaturik betazaletan eta aoan mosutu eban.

Leonor-ek, bere andra laguna egoera aretan ikusiz, baten eta bitan egotzi eban:

—Ene Jainko! Ene Jainko! Zer jazoko jaku emen!

Errotabide Matxain-egana urreratu zan, oni esanaz:

Inguraketa astera doa; neu joango naz leenengo. Eldu alkarri eskutik.

Errotabide-k Leonor-i oratu eutson eskutik, eta onak Matxain-i emon eutsan bestea.

—Etzaite askatu zu ezegaitik be —esan eutosn onek Leonor-i.

—Zuk, Mikel, ez nagizu itxi; min egiten ba'daustazu be, ez dautso ardurarik.

Joanes Goiburu tanborila ta txistua jotzen asi zan, eta Juan Santsin konpasa eroaten, atabala joaz.

Goazen! Goazen! Kalejira! Karrika-dantza! —deadar gazteak.

—Akerra! Akerra! —iñoen atsoak—. Akerra betí!

Así zan biribilketa gertatzen. Senpere, bere bikoteaz, katean sartu nai izan eban Leonor eta Matxain tarte; baiña onek bein eta barrero aizatu zituan zakar be zakar aren alegiñak. Senpere-k begirakune suminkorra bota eutson Matxain-i bere txorimalo ostetik, eta bere adiskideak an egon ezpalira, ezpatea atera ta bere leikide ezezagunari erasoko eutsan.

Farfar-eragiña leizan baketua zan, eta danak, andra ta gizon, bikoteak osoturik, erreskadan jarrita egozan. Joanes Goiburu-k bere jo-txortako aire ta doiñurik arin naspillena joteari asiera emon

eutsan; Santsin eban laguntzaille, eta kate luzea, bere kiribillak askatuz doan suge baten antzera, kobatik urten zan intzirika, garraxika, irrintzi basatarrez inguruak josi ta landara jauzika. Lurra argiazten asi zan illazkia. Aize-baltzeko zurrunbillo gisan joian giza-zerrenda landak eta oianak zear. Sorgiñak albotik laguntzen eben aizezko zuziak eskuetan ebezala; atzetik ebezan txakurrak zaunka; Goiburu txanboliñak, bere soiñu-otsak ausi ta aldatuz, oi ez lako bizitasun zoli alaiaz jazten zituan. Mendi bizkarretan, sute eskergak egozan dizdizka urteko uda-buru zala-ta, Eguzkiaren kultu agurgarriaren gomuta nunbait. Gauaro ezo epela. Arat-onat ebiltzan izarrak zeru-azpian, Noiztik txantxikuen txirul-otsa entzuten zan, eta urriñera gau-ontz ar-goseen arrenkura goibela.

Errotabide zan erreskadako leenena, eta, beraz, kate aundiaren zirkiñen zuzendari, Gizaseme asmotsua zan-eta, osterako onak eta ateraldi biziak eukazan; orain geratzen zan geldi eta gero bikoteak alkar jo ta besarkaturik ikusten ziran, orain ingurua egín bear eutsoen basetxe bati, edo-ta, bera geldi egoala, jente-nastea osotu eragiten eban bere inguru, barriro askatu ta ibiltzen asirik, txanbolin-jotzaillearen doiñu barrabasez neurrira saltu egiñak. Oraindik itxarrik egoan baserritarra, bildur-ikaraz urreratzen zan leioaren zirikitutik begiratzeko; norbaitek bear bada sorgiñak ikusten zituan airez akerretan eta iñerra kirtenetan, zalapartari ta bizkor, egaz igaroten ziranak.

Sorgiñak, saletxe ta ezkortetara urreratzean, atea edegiten auntzak eta ardiak urten zeitezan; beste batzuk, sasitzak eta zugatzak astintzen ebezan makillakaz. Zelai zabal edatuetara eldukeran, biribilketa zorarazleak dantzatzen ziran sute baten inguruan, obo luze biribilla osotuz, orain luzeago ta gero laburrago. Ziburuko kaskarotak nabari ziran euren artazi ta ijutiz, eta oiña jasoten ebelako buruaren eineraño. Txanbolin-joleak orduan jotzen doi

ka, deadarka, barre-zantzoka. Wallpurgis-ko gau ontako illargi nareak zurrumurrus eta usain gozoz beterik egoan oian aratz lotsatia argitzen eban. Izugarri bikaiña zan ikuspegia, griñaen, askatasunaren festa... Biurrikeria zan bizitz-ukapenaren eurka, eleiztarrak irakatsia noski; oian, erreka-ziztor, iturrien kontrako illuna zan, eremuetan asmatu-ko mitu its idorren aurka.

—*Akerra! Akerra! Akerra beti!* —deadar egien atsoak.

Abiatu ta ordu erdira eldu zan Berroskoberro landara, ingurukoak orduko akelarre deitzen eutsoenera.

Landa ontara eldu al izateko, bide sakon, ospel, zugatzez lodi betetako bat zearkatu bear zan. Itzaleratzean, ebagi ziran oiudearrak. Andragizonak ixillik joiazan, irrtsak eta zadorrak eraginda. Sarrera itsa igaro-ala, akelarrean agertu jakuzan.

Zelai zabala zan au, pendiz edo pike eriñean, goi-aldetik zugatz errezel lodiaz mugatua. Illazkiak, zugazti gaiñez jagiak, zelaia argitzen eban, onen zati bat kerizpe lagarik. Itzal-zati onetan, arripillo baten gailican, eta esku-zuzien eta erretxin matazen argitara, zutik ikusten zan aker aundi baltz bat. Beronen alboetan, ezkereskuma, egozan akclarreko errege-erregiñak: Mikel Goiburu ta Graziana Barrenetxea; sorgiñak, barriz, onein oiñetan taldetuak, txakurrak, auntzak eta ardiak lagun ebezala, zapoak eta muskerak eukezan eskuetan.

Grazianak, bere laguntzat autatu eban agote gaztearen samea inguratuz eukan eskumako besoa; Goiburu-k, ixekazko irribarrez ikuskutzen eban Berroskoberro landatik etorren jente-moltzoa ta lur ezotik jagiten ziran lurrun-bafada ariñak.

Eleizgizon batek meza antzekoa egin eban, oso laburra, jenteari ezer esan ez eutsona; gero, Graziana-k aginduta, erreskada guttiak akerraren aulki aurretik igaro bear izan eban.

Graziana-k, deabruaren manuz, danak bikoiztu bear zituan.

Zu __esan eban Errotabide izentatuz—, onegaz —eta Leonor-ren neska lagunetatik bat izentatu eban.

—Zu —eta Leonor izentatu eban—, aregaz —taldera urrerratu zan Senpere izentatuz.

Nok agintzen dau ori? —Matxain-ek itaun, urtento.

Gure jaunak.

Matxain-ek, ezpatea atera ta gurutzea erakus-azo eutsan *Aker* baltzari. Iñok ez eutsola kasurik egiten konturatuaz, iskillua eskuratu ta, bere lagun eztiari gomendatuz, ezpatea jaso ta ebagi batez burua edegi eutson akerrari. Zutik egoan arri gaiñean jausi zan abere eratxia, eta arri gaiñetik, il-agiñaren dardar-ikaraz beerra txirringolatu zan.

Guda-mutillak itxi ebezan euren bikoteak, ezpatak zorrotik atera ta Leonor eta Matxain babestera aurreratu jakezan. Naaste une bat, txilioak, uluak, ariñeketak, eztabaidak... Senpere-k jentea batu naí izan eban Matxain-i erasoteko, baiña ez eutson iñok lagundu.

Graziana, gizonetzkoak baiño kementsuago, Matxain-en kontra joan zan, onen ezpata puntaren bildur barik.

—Jainkoarren, ez egizu ii —iñoan Leonor-ek.

Gudari batek, uletik oratu eutson Graziana-ri atzekaldetik, eta kolpe gogor batekin lurrera eratxi eban. Graziana, kirio craso aldiak esetsi ta joan, basatzen geratu zan ostikoak emonez.

Akelarreko bakalaulkia inguratzen eben sorgiñak uluak botaz jarraitzen eben, eta arriak eta agak arturik, an oker-bidetik iskanbilla ta nastea sartu nairik agertu ziranai narrua berotzeko gertu.

Onetan oillarraren kukurrukua entzun zan, eta jesus eta amen esan orduko urdanga zaar guztiak ostondu ziran.

Andik abiatzeko agindua emon eban Matxain-ek, eta leonor eta onen laguna gudariak babes egiñik, eta leengo bide-zidorretatik asi ziran ibiltzen, mendi-bizkarretan egozan sutzar dizditsuak ikusgatuz. Leonor eta Matxain gogoz erantzi ta bakanduak joiazan izarra begira, itzik egiteke, landako zumurruai adí, bizi-atsez beteak bait ziran, Donibane gau ezkututsu aretan pilpika euken mundu osoaren gun ezta goza tuz.

Zugarramurdi-ko kobazulo aurretik igarotean, Errotabide bertan sartu zan bere zaldia ataratera; a tso zaar batzuk an egozan oindiño, zaldiak, jantzitako zapo batzuk-zapaltzen ebezala ikustean, itxi-itxian deadarka asi ziranakr Errotabide-k soiñua atera eutsoen, eta areik oni arrika atzetik.

Ordu batzuk geroago, Matxain-ek, bere guda-mutillakaz, Sara-n izten eben Leonor eta beronen laguna, Gaztelu-ko Mikaela andrearen etxean.

Leonor-ek agurtu ebazan Matxain eta gudariak, eskerrak emonez egin eutsoen mesede aundi-aundiagaitik; eta biaramonean Urubi-rako bidea artu eban.

9. *Azken-itxa*

Urte bete geroago, Graziana Barrenetxea, onen senarra ta euron adiskide lagun sorgiñatetik asko atxillo sartu ebazan espaiñar Zuzentasunak, eta Logroño-ko Inkisiziñoaren presondegietara eroanik, epaitu ta zigortuak, fede-ekintza baten danen aurrean agertu bearra izan eben.

Leonor-ek, Donibane gau aretan akelarren jazo jakona bere osabari esan barik euki ba eban be, azkenez kontatu eutson, eta baita zelan maite eban Matxain, eta naia ba'zan, bere salbagilleaz ezkontzeko itxaropena eukala.

—Ez neban uste Graziana ain zoroa izan leitekenik —Urtubi-k oiui—. Gazte onek zerbitzu ederra egin eutzula, autortzen dot; baiña, ene laztan, ezkontza ez da zaletasun edo-ta eskeronoko auzi bat, baita egokitasunezkoa be. Neuk ezkonduko zaituz gazte aundikiren bategaz. Eta gero, naf dozuna egingo dozu.

Leonor berean egoala ikusirik, baroiak esan eban:

Au itxi daigun albora. Emendik sei illabetera itz-egingo dogu.

Sei illabeteren buruan, Urtubi-ko damea bardin, erabagita egotan Mikel-ekin ezkontzeko.

Begira, osaba —ots—; nik maite zaitut neure aita ba-ziña lez, baiña orretan ezin neinkizu esanik egin. Aregaz izan ezik ez naz ezkonduko; bestela, lekaime sartuko naz.

—Ez, ori ez. Oian -loba bat gurago dot, zu monja baiño. Orretan zagozan ezkerro, esaiozu mutil orri ikasi daijala zaldun bat lez besteen aurrean agertzen, eta pizkat basalanduta dagoanean, dattorrela ikustera.

Baiña Mikel-ek ez dau ezer ikasi bearrik. Zaldun bat dozu.

Egun aretan bertan, Leonor-ek dei egin etson Matxain-i, eta au Urtubi-n agertu zan. Baroiak uste eban baserritar bat zala, baiña laster konturatu zan Mikel militar sendo, zentzundun eta bere buruaren jaun eta jabe zana zala. Amerika-n egin eban bizimoduaz mintzatu zan, ikusi zituan eskualdeetat, bere gora-beretat, eta gauzok interesgarriak bai ziran oso, Urtubi lilluraturik itxi eban.

Baroiak emon eban ezkontzeko baimena. Bere lobeaz gazteluan

bizi zeiten gura eban aurrerantzean be; Matxain-ek, ostera, gura-go eban bere-bere etxea jasotea.

Senargaiaren eritxia urten zan garaille, eta au, erriko urteieran, etxetxobari bat jasoten asi zan, Sarrerako ate buruan, Mikel-ek ez eban armarririk ipiñi nai izan; idazkun au bakar-bakarrik arpika tu azo eban, oraintxe be irakurri daikena: «Mikel Matxain eta Leonor Alzate-k jaso eragin eben 1611-an».

TXARRIKI-SALTZAILLEA

(Bidasoa-ko txapelaundien kondairako jazoera bat)

Diturbide, Juan, barak esan oi ebanez, gerrea asi baiño urte bi lez aurrerago agertu zan Bidasoa-ko Bera-n. Frantzia-n eginda eukan gudaritza, mendi-batailloi bateko turut-jotzailleen buru izanik. Zerbitzua burutu ondoren, Askain-en geratu zan ormagin. Diturbide ezaguna zan Bera-n. Jai batzutan, Urruña-ko ta Askain-go lagun batzukaz etorri izan zan errira, Ibardin gurenetik zear, danak urrats-neurtuz ibillirik eta berak turut baten guda-doiñuak joten ebazalarik.

Diturbide Bera-ra etorri eitela, nai izan eban zoriak, bere sende zan Larrun magaleko nekazari baten erentziko ogerleko batzuk jasotera, eta errian gelditu zan biziten. Diturbide-k olako lits bereziak aurkitu Apeiztegi etxeko ta Portu etxeko ardaoari, eta onek makur-azi eban, Nivelte-ko urak Bidasoa-koen ordeztara ez ba'zan be, erri bateko ardaoak bestekoen ordeztara bai beintzat.

Diturbide, erentziz jaso zituan txanponakaz, aikolo-maikolo geratu zan, eurok edatea edo bertokotzea izango ete zan obe pentsatzen, Azken onen alde erabagirik, argin izanak ipiñi eban, berak esan oi ebanez, *txarriki-denda bat*.

Diturbide-k dendatxo bat alogeran artu eban Alzate auzunean, Zerga-etxeari aurrez aurre, eta antxe, saltzeko mai gainean, burutu oi ebazan bere ogibide ezkutuzko egitekoak, tresnatxo bategaz aragia ta odola ebagi ta pikatuz; sarri abestu oi eban lan bitartean gudamutil zala teniente bategandik ikasi eban Manzelle-ren kanta, onela asten zana:

Le couvent, séjour charmant,

eta azken errepika baten, bere geldi-atz eta guzti, onela amaitzen ebana:

Larrette, Larrette, Larire...e...e...tte.

Diturbide-k abots ederra eukan, beetik abesten ebana, eta bere euskal-frantes kantakaz jai egiten eutsen auzokoai: *Txarman-garria*, *Uso xuria*, *Montagnar* ta olakoakaz am zuzen.

Diturbide, *Txarriki-saltzaille* lez geiago ezugutua, laster egin zan oso erriko. Beta ibilten zan batetik bestera bere otzareaz, bere industriko gauzak ethez etxe eskintzen, euskera oso leungozoz berba egiñaz.

Itz gozozkoa zalako, edo zana zalagaitik, *Txarriki-saltzailleak* arrakasta ikaragarria eukan nesken artean. Neskaetatik lilluratuen eukana Kandida, Zergetxeko Karabineruen buru zanaren alabea zan. Baltzerantxo bat zan neska au, begi-baltz, bizi, garbia, baiña umore txarrekoa. Granada-koa zan Kandida-ren aita, eta Errioxa-koa ama. *Zazpi Zirkin* esaten eutsoen neskari. Kandida-k ekian euskeraz, eta gaztelani abotsa eukan, doiñu oso argi ta oso zorrotzekoa, Kandida-k, bere amagandik ikasita, berba motzak eta gogorkeriak esateko oitura eban, zer adierazo nai eben ziur ez ekiala botaten ebazanek sarri; orixegaitik, Xantellerreka-n, Alzate-ko errekatxoan erropea garbitzen ebanean, karabiñeru gazteak ara joaten jakozan zirikatzen eta bota oi zituan astakeriak entzuten.

Diturbide, Juan, Kandida-gaz asi zan izketan, baita beragaz ezkondu be; txarriki-saltzen jarraitu euskun, eta kutun zituan bere kantak abesten, errepika onekin:

Larirette, Larirette, Larire...,e...e,..ette.

Gerraren asieran, Diturbide-k esan eutson Kandida-ri berak frentera joan bearko ebala; baiña neskak erantzun eutson olakorik egiten ba'eban, zati-zati egingo ebala, mutillak berak listorbizkarrakaz lez.

—Bakarrik itxiko ete nozu ni mutiko txiki bategaz eta beste bat bidean dodala! Ain doillorra izango ete zara? Zertarako joan nai dozu gerrara, frantses bedar ori? Mozkorrez ase-ase egiteko, bear bada? Senar txarra! Auts-eder! Aker-alen ori!

Diturbide-k *patria*, *drapean* ta olakoak gogorazi eutsozan, baiña Kandida-k esan eutson an ez egoala *drapau* ta *drapeau* osterik, eta listorrek egíten jarraitu bear ebala, ta kito.

Diturbide etxean geratu zan, gudara joan barik.

—Andra oneik ez dabe ulertzen gauza aundirik —esaten eban.

Bere andreak zaintzen eban arren, *Txarriki-saltzaillea* gabaz

gaur eta biar joaten zan Apeztegi-ren etxera. Eta an egon oi zan bere katu-begiakaz, poz-eztitan; bigote aundia alkoolez bustia, euskal-frantses kantak abesten.

Ba ekian ondo be, etxera itzultzean, Kandida-k komedi ikaragarria inarrosiko eutsola; baiña jakituna zan bera; euri-otsa lez entzun eroiazan emaztearen zentzaldi ta agirakak, eta urrengo goizean an egoan mai aurrean aragia ta odola pikatzen bere odolostak eta listorrak egiteko, kantari:

Larirette, Larirette, Larire...e...e...tte.

Urte bi dirala, *Txarriki-saltzailleak* berea egin eban, eta ots-aundikoa egin be.

An maiatzeko egun batean, Lekotxandegi, Lekotxandegi ospetsua egona zan Bera-n, Apeztegi-ren mintzaldi bat egiñik. Bertan esan ei eban naitanaiezkoa zala Bera-ren eta Irun-en arteko lokarriak, lendik egozanak noski, osoago egitea, ortarako Bera-ko jentekak, danak gari-azao lez, Irun-go San Marzial jaietara joan bear ebela.

Onartua izan zan asmoa, eta orduan Lekotxandegi-k gaiñeratu eban geroago burutzeko eukala beste asmo bat, au da, «Bidasoako Txapelaundiak» deituko eutsoen alkarte bat antolatzekoa, eta onen bitartez erneko zala bakotar anaidi bat, ibai ospetsu onen alde bietakoak osoturik.

Txapelaundiak, antziñako egiturako txapel aundi bat eroielako, berezitu oi ziran beste ilkorrengandik.

Gar aundia sortu eben Lekotxandegi-ren asmoak, eta Apeztegi etxera joaten ziran zuur eta argienak, Santxon, Xudur, Ganix, bizargillea, Joxe Migel Kapagorri, Prastxo, Martin Jose eta eurokaz Diturbide, gauzea saiets ez iztea erabagi eben.

Taldeak Kapagorri-ri emon eutsan egiteko orren ardurea: joan eitela Irun-era eta an ar egiala alogerean kotxe aundi bat, amabos edo ogei pertsona eroan leikezana.

Kotxedunakaz egon zan Kapagorri eta Manix-egaz egiune bat osotzera eldu.

Kotxedun kasketaldi aundikoa ta apetatsua zan Manix. Zantzuz berezi bat eroien onen kotxeak, goiko jarlekuen albo bietan buru-azur bat eta ankazur bi egozan, berak aginduta margozturik,

tximistindarrezko poste batzuetan agertzen diranez, eta azpian idatzita:

Ez ikutu
erio arrisku

Manix-ek bear bada indargailu indartsuren bat eroian goi-jar na? Edo-ta bertan gordeten ete joal-sugeren bat? Ezta. Jazoten zana zan bein Manix-i goi-jarlekuan eukan dirua ostu eutsoela, eta bere aserre-sumiñak idatzi erazo eutsan eriotzeaz zemaitzen eبالa iñoiz izan leiteken lapurra.

Erabagi zanez, jaiaren urrengo egunean, Manix gabaz Bera-ra joango zan bere danentzako aundian, eta goizean danak, joateko ziran guztiak, Irun-erako urtengo ziran. *Txarriki-saltzailleak* lukainka ta txistor metro askoen dirua jasota eukan, beraz txanpon pilloaren jabe.

Geroko txape]aundi guztiak ixillik gorde eben joan-etorria, iñortxori be ezer esan bage.

Diturbide, bizargiñ eta Santxon-en artean apaindu eben danentzakoia ezpel-adarrakaz, eta bizargiñak, gizon eskolatua zan-eta, iragarki aundi bat jarri eban, berak idatzita, au iñoana:

Bera-ko jakitunak
Irun-go u^{nani}.

Zer beste esku-ikusi ta opari eder samurragorik egin Bidasoa-ko txapelaundiak bidasotar kantoiko uriburuari?

Goiz-goizetik urten ziran jakitunak euren etxeetatik eta kotxera igon eben janari-izkiekaz eta ardao zaragi bategaz.

Berekotxe-k auspo-soiñua eroian, joan-etorriari bere jasa ezarteko edo; Diturbide-k be bein eta barriro jo zituan turutan guda-soiñuak, panparroikeria erioenak.

Eguzkia asi zan orduko Bidasoa ibai inguruko trokan sartzen, eta kotxea bidean zear aurrera joiala Biriatu-ko etxeak, bete-betean mosukatzen zituan.

Irun-era elduaz, Erretxipi kaleko taberna batera abiatu ziran jatera. Jan-naizukoa zan jaki-txartela; baiña, alan eta guzti be, es-

katima ta aldea sortu zan txarri-kuma errea bikaintzat eukan bizargiñaren eta iguingarri jakon txapelaundi baten artean.

Zazpi edo zortzi plater iruntsi ondoren, norbaitek San Martzial ermitara igon bear zala erabagi eban.

—Zetako? —esan eban Lekotxandegi-k, asarre samar—. Ez **ete** gagoz emen erri-egintza bat ospatzen? (Egia da. Egia da) Edota zuok be karabineru baztertuok, burutik beera jantzi ta eskolapioak deritxen orreitan eskolatuak al zarie? (Ez, ez). Orduan, ba? Erakus erri-kemena, eta jarraitu zeuen tokietan.

Lekotxandegi-ren adiskide batek,oiñetako salerosketako bitarteko zanak, izteko pizkaten, bakarrik itzi egioela, goi-argiak oso osoan joa aurkitzen zan eta bertso batzuk ondu nai ebazan Bera-ko bere adiskide jakitunen omenez. Lekotxandegi-k, buru zan-eta, emon eutsan baimena, eta orduan bitartekoak poema zoragarrri a idatzi eban, olerki-bilduma baten agertzea merezi leukena; onela asten da bera:

*Jaunak, ez dira goratzarre
bertso oneik zuzenduak
Bidasoako txapelaundiak.*

Eta onela amaitu eban arnasa ta irakatsi aundiko:

*Jai anaikor onein bitartez
argitze aundiagoa jadetsiko,
eta Washington-go iritarren
neurriko ziur gara izango.*

Ez dakigu ze neurri edo leiakide egon leitekean Bera ta Irungoen eta Ipar Amerikako uriburuan bizi diranen artean; pentsamentu orrek, alan be, txalo-zarta ederrak sortu ebazan entzuleen artean, baita Domecq koñak kopa ibai bat ondoren ekarri be.

—E, Berekotxe! Ia auspo-soiñu ori! Zuk, *Txarri-saltzaille* orrek, kanta —oiu bazkaldarrak.

Berekotxe-k eta Diturbide-k jo ta kanta eben, baiña laster etorri zan musika naas-maasa ta zurruburrua. Maikide batzuk txitxarro ta berdelari eskiñitako kantu barrukoi ori:

Txitxarrua ta berdela

abesten asi zirala, beste aldekoak *Andre Madalen* abesten eben; eta batek, zutik, garraxika: «Ez, ez», bere ezetzak ziur nora joiazan jakin barik.

illontagnard, bere *scherzo*-az kanta bear zala iñoen batzuk, eta onek musika naspil aundiagoz josi eban, kez bete-beterik egoan, taberna barrua. Iñularrean, txapelaundi bakotxa, puro galanta ez-panean, San Juan plazara joan zan; eta an ikusi zan *Txarrriki-saltzaillea* Ziburu-ko kaskarote, iñok ez lako *langille antza* eukanaz fandangoa dantzatzen; Berekotxe, zezen-biribilketa baten soiñura, poxporu-saltzaille andra gazte bati gerritik oratuta, Sevilla-n jaioa ba'litz legez; Lekotxandegi, paper gorritzko txano bategaz, zoro iduri saltoka.

Apal-ostean, Bera-ko jakitunak Plaza Barrira joan ziran, eta andik, gabeko amabi-amabietan, kaleak zearkatzen urten ziran dunbal, arratz eta tanboriñen otsetan. Kaskarote batzuei ta Ondarribi-ko neska arrantzale, kresal sunda geítxoegi erioen batzui estu estu oraturik, bertakoak *zirriak* deritxen olako ikutu arin batzuk be egiriaz... Lekotxandegi zan nagusi zantzoak, eupadak olakoak botaten,

—Jip! Jip! Aupa! —txilio egian, bere abots zorrotz jostagarritz, eta neskak barre-algaraka gili-gili eginda legez.

—Jip! Jip! Aupa! —oiu egian ostera be Lekotxandegi-k.

Kalejira egin eta jentea banandu zanean, Ipar aldeko Ikastetxera (tabernara) biurtu ziran. Lekotxandegi zabu-zabuka abiatu zan etxerantza. Ez egoan ordi, ezta urrik be. Kasu ori eztabaidatuko eban munduko Osakuntza akademietako jakitun guztiakaz. Bein, beti be kalte egiten eutson erro-usaindun gurin-plater batek txarto egin eutson legez, oraingoan kafe-ontzian jausi jakon zigarro autsak kalte egiñ eutson burura igonaz.

Goizeko irurak ziran, eta Manix, kotxe-zaiña, ibilten asteko momentuaren zain. Tabernako zerbitzari bi eta gauzain batzuk Bera-ko jakitunak batzen ebiltzan zakuak bai litzan eta danentzakoan eurak ipinten; onetan, taberna-zaiña agertu zan sumiñak artua garagardo-boteilla kaxa bat kendu eutsoela esanaz, eta kaxa ori kotxean egoala. An egoan, ain zuzen be. Jakitunetatik bik eroan eben ara, bidean edateko asmoz.

—Nok egin dau ori? —deadar egin eban Manix-ek, goiko jar-

lekutik—. Ori egin dabenak nire danentzakoia beztu dau. Nik ezin daiteket geiagi emen joan.

—Egin bear zeunkena da tresna zaar au Bidasoa-ra bota —esan eban kaleko batek.

—Bidasoa-ra? Ori sort-erazten daustana, garbituko dot.

Jakitun biak, bonbillak ostu ebezan barrankar argin biak, esan eban basati bat zala txiribogiña, eta Irun aberetzar aundien sorleku, eurak ba botellak ordaintzeko asmotan egozan; baiña egarri-urkamendira gaiztetsi nai ebezan ezker, ixillera joko.

Auzi au atondutakoan, Manix asi zan ibiltzen bere zadiakaz trakets be trakets, zirudienez bada oztopo guztien billa eurai erasoteko. Begira egozan begi-luzeak uste eban San Juan Arri-ko zutoiña eratxi nai ete eban, edo-ta jarlekuren bat sustarretik atera; ez eban, alan be, Beobia-rako bidea artu ta aldapea lau-oiñean egin eban. Zaldiak otzandu ziranean, Baso-oillarren Ugarte aurretik joiazan; tximist-argiak dizdiz egien bidean, eta ibai gaiñez laiño zuri aniña narraska. Manix-en kotxea igaroten zan tokietan lo-zurrunga batzuk entzun ziran eta Berekotxe-ren auspo-soiñua, edo-ta *Txarriki-salzaillearen* turutaren musika írrintziak.

Biamonean, Diturbide jagi zanean, asarre, barbailla ta arramar ikaragarria izan eban bere emaztearen aldetik. Diturbide-k azaldu eutson, oi eban Iez bare-bare, lagunak lazkan sartu ebela; baiña etzan naikoa Kandida-rentzat, onek ba, eten barik, esku bata mokor-gaiñ jarririk, besteaz umeari eusten eutsola, deadar egitson bere gaztelar abots argiaz:

—Zital-ikutu orrek! Zer egin dok emen egoan diruaz? Senar gaizto! Frantses doillor! Aker madarikatu!

Gizona, ezer entzungo eze ba'leu lez, aragia ta odola birrintzen, odolosteak eta txistorrak, kantari:

Le couvent, séjour charmant.

Andik laster berera itzultzen zan Kandida, eta aldi-neurkin batek baizen zeatz eta doi-doi deadar barriro be:

—Esaik, zital orrek! Zer egin dok emen egoan diruaz? Senar gaizto! Frantses doillor! Aker madarikatu!

Eta *Txarriki-saltzaillea*, entzungo ez ba'leu lez, aragia ta odola birrintzen, odolosteak eta txistorrak egiteko, geldi-une luzez, kantari:

Larirette, Larirette, Larire...e...e...tre.

ELIZABIDE IPERLOKA

*Zer zala uste zenuben
enamoratzia?*

*Sillau itz hiri eta
gitarra jotzia.*

(Erri kanta)

Sarritan, bertanbera lagariko baratz aretan lan egiala, Elizabide Iperlokak esan oi eban bere kolkorako, eleizatik itzultzen zan Maintoni pasatzen ikustean:

«Zer ete darabil buruan? Pozik bizi ete da?» Ain bakana iduritzen jakon Maintoni-ren bizi-moldea! Berezkoa zan, izan be, munduan zear ainbat itzuli mitzuli, munduari ainbat bira eginda-koak bakartadeko gozotasuna eta besarri atsegiñeko ixilla nai iza-tea; baiña neska arek, bazter aretatik egundo urten bakoak, ez ete leikean sentiduko antzerkiak ikusten joan, erabat jai ta erro-merietara, bizi beste bizitza bikain eta bizkor guriagoa? Eta Elizabide Iperlokak emoten ez eutsan lez erantzunik bere itaunari, lurra bere atxurraz iraultzen eragoion, jakintsuki.

«Emakume sendo bat da —erabillen gero gogoan—; ain da otzana ta argia bere arimea, kezkarazten dauana nunbait. Zientzizko kezka, zientzizkoa bakar-bakarrik, orixe, jakiña». Eta Elizabide Iperlokak, pozik berak ez ebala parterik artzen kezka aretan, esatekorik beintzat-eta, bere etxeko baratz bertanbera itxian lana-ri ekion.

Tipu bitxia zan Elizabide Iperloka. Itxasaldeko euskalduna-ren birtute eta akats guztiak aldean ebazan; ausarta zan, trufari, alper, ziñoso. Bere barne-giro ta izakeraren azpia gogo-ariña ta esatekorik beintzat-eta, bere etxeko baratz bertanbera itxian lanatu oi jakon. Bere diru-mordoa ia osorik eralgia eban Amerika-tik ibilliaz, kazetari erri batean, garatz-gizon bestean, emen abere-tratulari, an ardao saltzen. Sarri egon zan diru-pilloa eskuratzeko

eran, ardurarik ezagaitik lortu ez ebana. Gertaerak darabillezan gizaseme orreitako zan, iñoiz be protestarik egin bage. Bere bizitzea, berak esan oí ebanez, ibaian zear doan enbor orrein antzekoa zan, iñok eutsi ta ur-ertzera ekarten ez ba'ditu, azkenez itxasoan galtzen diran orreitakoa.

Bere zabarkeri ta geldi-egona geiago ziran eskuzkoak baiño pentsamentuzkoak; arimeak iges egiten eutson sarri; aski eban ibilliz joian ura begiratzea, odei edo izar bat ikuskatzea, bere bizitzako egin—asmorik garrantzitsua aaztu ta bertanbera izteko, eta origaitik ez bazan be, askotan, zergaitik ez ekiala, saiets laga oi ebazan esku arteko gauzak.

Azken orduan Uruguai-ko egoitza baten aurkitu zan, eta Elizabide atsegiña bait zan jenteez eta gorputzez ez ain itsusia, ogetamazortzi urte bizkar-gaiñ izanarren, etxe aretako ugazabak bere alabearen eskua eskiñi eutson, neskatx naikoa motza berau, zuri-baltza bategaz maite-mindurik ebillena.

Elizabide-k ez eban txarto ikusten egoitza aretako bizimodu basatia ta onartu eban nagusiaren burutapena, eta ezkontzeko bi-dean egoan, bere erriaren gomutak gogor be gogor jo ebanean, bere mendietako elbitz usaiñak, euskal lurreko ikuspegi lanbro-suak... Bat-bateko azalpenik bere asmoetan ez bait zan sartzen, goiz batean, eguna argitzean, bere emaztegaiaren gurasoai ezkontz-bezuza erostera Montebideo-ra joiala oar-azirik, zaldia artu ta gero bultzian uriburura elduaz, itxas-ontzian, Amerika-ko lur arrotz-maitaleari samur baizen txeratsu agur-egin ondoren, Euskalerrira biurtu zan.

Bere erira eldu zan, Gipuzkoa-ko erritxu batera; besarkatu eban bere anai Iñaki, bertan osakigin egoana; bere iñudea ikusten joanik, oni esan eutson etzala geiago iñora joango, eta bere etxean geratu zan bizitzen. Errian zabaldu zanean, Amerika-n ez bakarrik ez egin, galdu be egin ebala, mundu osoak gogoratu eban auzotegitik urten orduko be zoro, gatz-bako ta iper-loka entzutea eukala.

Baiña ari ez eutson arduratik gauza orreikaitik; berak atxurren egian baratzean, eta asti-uneetan potin bat egiten eragoion, ibaian ibilteko, eta onek erri guztia suturik itxi oi eban.

Elizabide Iperlokak uste eban bere anai Iñaki-k eta onen emazte seme-alabak ez eutsoela jaramonik egiten, eta orixegaitik etzan

areik ikustera noizik bein izan ezik joaten; baiña laster ikusi eban bere anaiak eta koñateak maite ebela eta agiraka egiten eutsoela eurak ikusten joaten etzalako. Elizabide geroztik, bere anaiaren etxera sarriago joaten asi zan.

Osakigiñaren etxea erriaren urteeran egoan, baztertua oso; bidera begira baratz bat eukan ormaz inguratuta, eta onen gainez jagiten ereiñotz baten adarrak, berde illunak, Ipar aizetik etxe-aurrea babesten ebenak. Baratza igarorik egoan botilcea.

Balkoirik ez eukan etxeak, leioak bakarrik baiño, eta oneik orman edegita, neurkera ta olako zerik bage; au izango batez be euretatik batzuk itsuginduta egozalako.

Trenez edo kotxez Ipar aldeko probintzietatik ibilli zarienean, ez dozuez ikusi bakartadean dagozan etxeak, zergaitik ez zenkiela, barruan olako garramura ta leia sar-azo dautzuenak? An barruan ondo bizi da, itxura danez, bizimodu gozo atsegiñaren aztarna dozu; kortinaz apaindutako leioak, konbentuetako barru zabalak dakarrez gogora, intxaur zurezko kutxa ta arasakaz ederturiko gela aundiak, zurezko oge eskergak; bertan bizi diranak baketsu ta atseden aundiz dagoz, orduak, gabaz bere tik-tak doiñutsua jaurtzen dauan kaxa garaizko erloju zaarrak neurtuta, igarorik.

Edu onetako zan osakiñaren etxea; baratzean jazintuak ikusten ziran, suarrostoak, la.rrosa-ondoak eta leenengo oiñeko leioetaraiño eltzen ziran ortensi itzalak. Lilitegiko orma gainetik beera jausten ziran ur-jausi bat legez larrosa zuri lauuko moltzo ikaragarria; euskeraz *txoruak* deritxe onei, aldakor eta kaixkar izanik, beingoan zimeldu ta jausten diralako.

Eleizabide Iperloka bere anaiaren etxera joan zanean, uste obeaz onezkero, botikarioak eta onen emazteak, euron seme-alabak be bardin, etxea erakutsi eutsoen, garbia, argia ta usain onekoa; baratza ikustera joan ziran ondoren, ta emen Elizabide Iperlokak lenengoz ikusi eban Maintoni, burua bere lastozko kapeleaz estalita, amantal altzoan idarrak batzen ebillena. Elizabide-k eta neskatxak alkarri agur egin eutsoen, baiña otz ta motzr

—Ibairantz goaz —esan eutson bere aizteari botikarioaren emazteak—. Esaiezu neskai ara eroan dagiela txokolatea.

Maintoni etxerantza joan zan, eta besteak, lurpeko bide antzeko luze baten zear, madari-ondo batzuk aizeki baten burdin-

ziriak lez edaturik eukezan adarrakaz egilietakotik zear, ibai ondoan, zugatz artean, egoan zei txiki batera jatsi ziran; emen egozan mai erdi-landu bat eta arrizko jarleku bat, Eguzkiak, osto artean barrentzerakoan, ibai azpia argitzen eban, eta errez ikusten ziran askako arri biribillak eta astiro igaroten ziran arraintxoak, zidarrrezkoak bai litzan dizdiz egiñik. Bare ta eder miresteko moduen egoan arratsaldea; zerua, urdin, aratz, ezne.

Arrastia jausi orduko, osakigiñaren etxeko neskatz biak etorri ziran eskuan azpillak ekarrezala, txokolatea ta bizkotxoakaz. Mutikoak bizkotxoetara abiatu ziran arrapaladan, pizti antzo. zabide Iperlokak bere bidaldietaz itz egin eban, bere jazokun arri-garri batzuk be edestuz, eta danak euki zituan bere ezpanetatik zalantzan, zorabioturik. Maintoni zan bakar-bakarrik jazokun areik suspertzen ez ebena.

Paul osaba, biar be etorriko zara, ezta? —esaten eutsoen mutikoak.

—Bai, etorriko naitzue.

Eta Elizabide Iperloka bere etxera abaitu zan eta Maintoni erabilli eban burutan, ames be berarekin egiñaz. Bere idurimenean ikusten eban, egiaz zan lakoxea; neskato, lirain, bere begi baltz dirdaitsuakaz, besarkatu ta mosukatzen eben bere lobak ingurumari ebazala.

Osakigiñaren seme nagusienak Batxilleratuko irugarren urtea ikasten egoanez, Elizabide-k frantses erakusten eutson, Maintoni-k be ikasaldi onetan esku arturiz.

Elizabide kezkatzen asia egoan bere koñatearen aitzari buruz, ain geldia, ain nasai ta eztia; ez ekian batek aren arima neskato batena zan, griña ta lera barik, edo-ta emakume ardura bako bat ete zan bere etxekoakaz izan ezik. Iperlokak zur ta lur begiratu oi eutson. «Zeri ete daragoio?», itanduten eutson bere buruari. Bein ausart agertu zan eta galdetu eutson:

Eta zuk ez dozu ezkontzeko asmorik, Maintoni?

—Nik! Ezkontzeko asmoa?

Zergaitik ez gero?

Nok zainduko ditu mutikoak, ezkontzen ba'naz? Gaiñera, ni neskazarra nozu, onezkero —erantzun eutson ak, irribarreka.

—Ogetazapi urtegaz neskazarra! Orduan, ni, ogetamazortzi

daukadaz eta, zaartzaroko azkenengo maullan egon bear dot.

Maintoni-k ez eutson erantzun oni; irribarre, bakar bakarrik.

Gau aretan, Elezabide arriturik egoan Maintani kezkarazten ebana gogo-emonaz.

«Zelako emakumea dot au? —esan oi eutson bere buruari—. Arroa ez da, ezta erromantikua be, eta, alan be...».

Ibaiaren ertzean, mendi-arte estu batetik ur-ur, urmael sakona eukan iturria jalgiten; kristalezkoa zirudian ango urak, geld-geldi bai egoan. «Orrela zan eusaz Maintoni-ren arimea —Elezabide-k bere kautan—, eta, alan be...». Alan be, bere pentsatze ta esanakaitik, etziran uxatzen bere kezkek; bestera, aundiagoak egiten ziran.

Eldu zan udea; osakigiñaren etxeko baratzean famili osoa alkartzen zan, Maintoni ta Elezabide Iperloka. Au etzan orduan baizen zeatza iñoiz izan, orduan baizan zorionsua eta aldi berean orduan baizen zoritxarreko. Illunabarrean, zerua izarrez beteten zanean, eta Jupiter-en argi laruak ñirñir ortzian, alkar-izketa ta autuak barnekoiagoak egin oi ziran, maitekorragoak, zapoen kantuak koro-egiñaz. Maintoni gizarteko ta kanpo-ederrago agertzen zan, berbatsuagoa.

Gabeko bederatziatan, erritik joian eguneroko kotxea, goiko jarleku buruan argi-ontzi aundia ebala, koskabillo otsean igaroten zanean, amaitzen zan batzarra, eta Elezabide bere etxerako bidean jarten zan, biaramon-egunerako xede ta burubidek eioz nunbait, Maintoni-ri buruzkoak beti.

Batzutan, jausi ta gogo apurtua, bere baitarako iñoan: «Erokeria ez al da mundua zearkatu ta erritxo batera etorririk baserritar neskatx batez maite-mintzea?. Eta nok ezer esan ari, ain eztia, ain soraio ta min-gogor zan emakume ari!

Joan zan udea, eldu ziran jai-aroak, eta osakigiña ta beronen sendia gertatu ziran, beste urteetan lez, Arnazabal-go erromeria ospatzeko.

—Zu be gugaz etorriko zara? —itaundu eutson osakigiñak bere anaiari.

—Ni, ez.

Zergaitik ez ba?

Ez dot gogorik.

Tira, tira; ez ba'zoaz, bakarrik geratuko zara etxean, neskatxak be geugaz etorriko dira-ta.

—Eta zu be bai? —Elizabide-k Maintoni.

Bai. Oba ez! Oso atsegin jataz niri erromeriak.

—Ez egiozu kasurik egin, origaitik ez da-ta —osakigiñak jardetsi—. Arnazabal-go osagillea ikustera doa; mutil gazte bat dozu au, igaz be beronegaz ibilli zana.

—Eta zergaitik ez? —Maintoni-k oiu, irribarreka.

Eleízabide Iperloka larutu ta gorritu zan; ez eban, baiña, ezer esan.

Erromeri bezperan osakigiñak barrero itandu eutson bere anaiari:

Ba-zatoz orduan erromeriara?

—Bai, joan egingo naz —iperlokak marmar.

Urrengo egunean, goizean goizetik jagita, errirantza joan ziran, bide zabaletik zear, eta gero bidexketan barna, bedar jagiz eta kukuprakaz gorri jantzitako zelai ta landak zearturik, mendian sartu ziran. Ezo ta epel egoan goiza; zelai-landak, iruntzez busti; zerua, urdin oso laru, odeitxo zuri batzukaz zipitz eta oska meez txirbizten ziralarik. Goizeko amarretan lez eldu ziran Arnazabal-era, gaintxo baten egoan errira, bere eliza, bere pelota-lekua plazan eta baserriak egiten ebezan bi edo iru kalegaz.

Sartu ziran osakigiñarena zan etxera, sukalderaiño elduaz. An asi ziran etxeko andra zaarraren ondo-etorri ta arrera maitekorra-ren txerak; onek itxi eban bere lana, adar meak suari ezartea ta ume baten kumeari eragitea; jarrita egoan bee-su ondolik jagi ta danak agurtu ebazan, Maintoni, bere aizta ta mutikoak mosuturik. Atso argal, igar-zimela zan, buruan zapi baltza eroala. Sudur luze kakotua eukan, aoa agin barik, txímurrez beterik arpegia ta ule zuna.

Eta berori da Indietan egon zana? —itandu eutson atsoak Elizabide-ri, oni arpegia emonaz.

Bai, neu nozu an egon zana.

Amarrak jota egozan ezkerro, eta ordu onetan meza nagusi asten, etxean etzan iñor be geratzen atsoa ezik. Danak zuzendu ziran eleizara.

Bazkal aurretik, osakigiñak, bere koñeteak eta mutikoak la-

gunduta, ainbat eta ainbat txapliu bota ebezan, eta ondoren danak jatsi ziran jantokira. Ogeitik gora ziran maian egozanak, eta euron artean erriko osagillea, Maintoni-ren alboan jarri zana, onentzako ta onen aiztearentzat jentetasun, zoramen eta gizalege sotil azken bakoak izanik.

Elizabide-k orduan barru-pena ikaragarria sentidu eban, aundia bene-benetan, eta auzotegia itxi ta Amerika-ra itzultzea pentsatu eban. Bazkari bitartean, Maintoni-ren begiak sarri joiazan Elizabide-gana.

«Neure lepotik barre egiteko da —uste eban onek—. Maite dodala susmo izanik, txatxan politarena dagi besteagaz. Mexiko-ko ur-kolkoa neure izan bearko ostera be».

Laurak baiño geiago zan bazkaria amaitu zanean; dantzea asita. Osagillea, Maintoni-gandik banandu barik, txutxumutxuan ebillan aregaz, eta Maintoni Elizabide-ri begira.

Illuntzean, jaia bere goi-maillan egoala, aureskua asi zan. Mutillak, eskuetatik alkarrri oraturik, plazeari biraka ebiltzan, tanboril-jotzailleak aurretik ebezala; mutilletatik bi berezi ziran, alkaregaz mintzatu, zalantzan lez leenengo, buru-as gero, txapelak eskuan, Maintoni-ri gonbita egin eutsoen lenengo bera izan zedin dantzako erregiña. Onek euskeraz ezetz adierazo eutsen; begiratu eutson irribarrez eukon bere koñetuari; eta irribarrez egoan bere aitzari, eta Elízabide-ri, goibel be goibel egoanari.

—Tira, ez adi izan memela —esan eutson bere aitzak.

Eta asi zan dantzea, oizko zeremoni ta agur guztiakaz, antxiña-antxiñako gomuta ta oroipenez kuin-kuin. Aureskua amaitutakoan, osakigiñak bere emaztea atera eban fandangora, eta osagilleak Maintoni.

Illundu eban, Suak ixetu ziran enparantzan, eta etxera biurutzen asi zan. Baserrian txokolatea artu ondoren, osakigiñaren sendikoak eta Elizabide-k etxeranzko bidera artu eben.

Urrun, mendi artean, entzuten ziran erromeritik etozanen irrirtziak, basa lekaio edo zantzo lako oiuz luzea. Sasi artetan ipurtargiak argi egian izar urdiñak iduri, eta txantxikuak euren kristalezko doiñua bialtzen eben gau menaren ixiltasunean.

Noizik bein, aldaparen bat jastean, osakigiñari otuten jakon

danak alkari eskutik elduta jatsi bear ebela, eta , aldatz-beera etozan kantari:

*Aita, San Antoniyo
Urkiyolakua,
askoren biyotzeko
Santu debotua...*

Elizabide-k, muker egoan Maintoni-gandik urrindu nai ebanarren, zoriak gura izan eban neskatxa bere ondoan aurkitzea. Katea egitean, ak eskua emoten eutsan, esku txiki, legun eta epela. Bat-batean, osakigiña, aurrena bait joian, geldi-azo ta jira egitea bururatu jakon atzerantz, eta orduan kolpeka ebiltzan batzuk bes-teen aurka, eta, noizik bein, Elizabide-k bere besoetan artzen eban Maintoni. Onek, pozik, agiraka egiten eutson bere koñetuari, iperlokari begiraturuz, beti goibel.

—Eta zu, zergaitik zagoz goibel? —itandu eutson Maintoni-k, abots amarrutiz, eta onen begi baltzak dizdiz egien gauean.

—Ni! Ez dakit. Gizon gaizto au, nai ezta be, besteen poztasunak giibeltzen dabe-ta.

—Baiña, zu etzara gaiztoa —Maintoni-k jardetsi, eta guztiz sakon begiratu eutson bere begi baltzakin, Elizabide Iperloka txundituta geratzeraiño, eta uste izan eban izarrak eurak be oar-azo zirala bere asalduraz.

Ez, ez naz gaizto —marmar Elizabide-k—; baiña txatxu bat naz, ezetarako balio ez dauan gizona, erri osoak diñoanez.

Eta orrek kezkarazten zaitu zu jentearen zer-esanak, zu eza-gutzen ez zaitun jentearen zer-esanak?

—Bai; bildur naz diñoena egia ete dan, eta barriro be Amerika-ra biurtu bearke dauan gizon batentzat, bildur aundía.

—Barrio Amerika-ra? Amerika-ra ete zoaz? —marmar Maintoni-k, abots guztiz goibelez.

Bai.

Baiña, zergaitik?

O! Zuri ezin dautzut esan.

—Eta nik igarriko ba neuskizu?

Orduan sentidu egingo neunke, eta asko senditu be, zuk zaarra nazala usteko zeunke-ta.

—O, ez! Ori ez!

Txiroa nazala.

Ez dautso ardurarik.

—Oi, Maitoni! Egia ete? Ez nozu ete zapuztuko?

Ez, bestera baiño.

—Orduan... maite izango nozu neuk zeu lez? —marmar Elizabide Iperlokak, euskeraz.

Beti, beti...

Eta Maintoni-k bere burua makurtu eban Elizabide-ren bular gaiñean, eta onek mosu emon eutsan bere ule-adats gaztain-kolorezkoan.

—Maintoni! Ona! —esan eutson bere aizteak; eta alde egin eban Elizabide-gandik; baiña ari begiratu eutson bein, eta askotan.

Eta guztiak joiazan errirantza bide bakartietan zear. Ingurumari dardar egiak gabak misterioz beterik; ortzian pirpiraka izarrak. Elizabide Iperloka, biotza dzanga egiña ezin-esaniko ikara ta zarradaz, zorionak ito-zorian, begi guztíz zabalakaz urriñeko, oso urriñeko izar bat begiratzen eban, eta abots ixillez mintzo egitson...

AURKIBIDEA

	5
	9
Mari Beltxa	13
Ogigiñak	16
Maritxu	21
Udazkeneko ondartza	24
Alegia	29
Ageda	31
Ireltxua	35
	40
Ostatua	42
Azken errukia	46
Sukalde baltza	47
Ikazgiña	50
Kaiolarearen ugazaba	53
Etxaiñesak	55
	57
«Angelus»	62
Osagille-gaba	64
Ezezaguna ..	67
Orduaria	70
Kontzirntzi urratuak ..	73
Piltzar-batzaillea ...	76
Lezea	79
Jausiak	85

Illerriko azak	89
Lutuzko emakumea	95
Alperra	98
Sukarra dala-ta	101
Kizien bizia	104
Talentuak lilluratua	108
Itxasoan aldarri	112
Lekotxandegi, alaia	115
Gabon-egun euritsu bateko txakur-ametsa ...	121
Urtubi-ko Anderea	147
Txarriki-saltzaillea	181
Elízabide iperloka	189

